



ZEGAMAKO
UDALA

Zegama



AGURRA

Joseba Izagirre Arozena

ALKATEA



**ZEGAMAKO
UDALA**

Kaixo herritar:

“zenbat gauza eite itzue Zeaman?”, “astero bazue zeoze”...

Alkate izateak dituen abantailetakoa bat urtean zehar foro ezberdinetan parte hartzeko eta jende ezberdinarekin elkartzeko aukera ematen dizula da. Haserako bi komentario horiek berriz urtean zehar askotan entzun ditudan eta esan dizkidaten bi komentario dira. Bi komentario hauek entzutean lehendabiziko burura etortzen zaidana beti hitz bera da, hau da HERRITARRA. Bi komentario horiek egiaztatzen dutena berriz oraintxe eskuartean duzun urtekaria da. Haserako bi komentario horiekin hasi eta nola egiten dugun galdetzera oso denbora gutxi igarotzen da.

“zenbat gauza eite itzue Zeaman?”, “astero bazue zeoze”...

“Nola” galdera zabal horren erantzun guztiak “nork” galderari erantzunda nahikoa da, hau da HERRITARRAK. Urtean zehar herrian hainbeste ekintza aurrera eramatearen eta bi komentarioak entzutearen edo urtekaria hain potoloa izatearen benetako erruduna zu zeu zara. Hori dela eta lerro hauen bidez berriro ere eskertu nahi nizueke (ez naiz sekula aspertuko) urtean zehar Zegaman ekintzak aurrera eramateko erakutsi duzun konpromezua, ilusioa eta borondatea.

“zenbat gauza eite itzue Zeaman?”, “astero bazue zeoze”...

Udalaren lehenbiziko helburua HERRITARRA Zegaman gustora, hitz honen osotasunean, bizitzea da eta horretarako dituen baliabide guztiak erabiltzen ditu. Datorren urtean ere bi komentario hauek askotan entzungo ditugula oso ziur nago.

Ea partaide eta egile zaren urtekari honek urtearen errepasso bat egin eta momentu polit bat pasatzeko aukera ematen dizun.

Besterik gabe ea datorren urtean aurten bete ez diren ametsak eta amets berriak betetzeko aukera ematen digun.

Zorionak eta urte berri on.

Aurkibidea



18

Jabier Otaegi



62

San Bartolomeak



113

Juan Irastorza

Agurra	1
Aurkibidea	2
Zegamako Oroitzapenak:	
Jose Manuel Gorospe "Peke"	4
Udala	6
Jabier Otaegi gogoan eta bihotzean	19
Zegamako etxeen izenak	23
Lehen eta orain	29
Jose Luis Ugarte	33
Arku eta bultzagailu tiro	34
Zegamako Euskara Plana	35
Gizarte ekimenak	36
XVI. Aizkorriko	
Lagunen Eguna	37
Zegamako Haur, Nerabe	
eta gazteen ekimenak eta parte	
hartzea Sustatzeko zerbitzua	38
Anduetza Parketxea	40
Tradizioak	42
Kultur Ekintzak	44
Asier Mendizabal	47
Kirol Ekintzak	48
Erlezain Eguna	50

XV. Zegama-Aizkorri	
mendi maratoia 2016	54
Carlos Moran	58
Behobia / Quebrantahuesos	59
Gure esku dago	60
San Bartolome Jaiak	62
San Martin Feria	72
Cava Festa	76
Xabier Arakama	77
Gipuzkoako	
eta Arabako Partzuergoa	78
Zentro meteorologikoa	79
Aizkorri Futbol taldea	80
Aizkorri Guraso Elkarte	81
Aitxuri Herri Eskola	82
Tobera Musika eta	
Dantza Eskola	84
Uxua Barandiaran	87
Jon Arakama	87
Elkartu Nahi	88
Karrazarro Kirol Elkarte	89
Orkatx Abesbatza	90
Amezti Elkarte	92
Amezti Mendi Elkarte	93
Gazte Herexa Elkarte	95

Tartaloetxe Kultur Elkarte	96
Tartaloetxe pilota elkarte	98
San Martin Parrokia	99
Zegamar Batasun Kasinoa	100
Jubilatuena Elkarte	102
Odol emaileen elkarte	103
Laida Ormazabal, Arantxa	
eta Lierni Ortiz	104
Jose Ramon Agirre	106
Ander Las	107
Jose Mari Berasategi	110
Juan Irastorza	113
Maria Isabel Arrizabalaga	116
Bioitxoin estankoa	120
Eroski city	120
Inazio Otaegi	121
Leire Lozano	124
Asun Mendizabal	128
Gure baserriak eta parajeak	130
Ba al zenekien?	132
Naturaren txokoa	134
Atzoko Zegama	135

Udalak antolaturiko ekimenak 2017

MARTXOAK

19

Erlezain
Eguna

EKAINAK

4-5

Arantzazura
peregrinazioa

MAIATZAK

27-28

Zegama-Aizkorri
Mendi Maratoia
eta Kilometro
Bertikala

UZTAILAK

2

Aizkorriko
Lagunen Eguna

ABUZTUAK

23^{tik}
aurrera

San Bartolome
jaiak

URRIAK

27-28

Cava Festa

AZAROAK

11

San Martin Feria

EGILEAK ETA KOLABORATZAILEAK

Joseba Izagirre	Tobera Musika eta	Jose txo Arizkorreta
Pili Elorza	Dantza Eskola	Manolo Arizkorreta
Izaskun Igoa	Elkartu Nahi	Lutxi Urbizu
Ibon Zabaleta	Txirrundulari	Olga Urbizu
Juan Jose	Elkartea	Alizia Acha
Gorrotxategi	Odol Emaileen	Maite Gorrotxategi
Olaia Elorza	Elkartea	Marilu Azurmendi
Urko Gomez	Orkatz Abesbatza	Juan Inazio Galdos
Maria Luisa	Amezti Elkartea	Juan Jose Garaier
Gorrotxategi	Gazte Herexa	Jesus Mari Larrea
Imanol Garmendia	Elkartea	Begoña Olarte
Eduarne Albizu	Gure esku dago	Bixente Ormazabal
Oihana Zubizarreta	Taldea	Iker Gomez de
Ainitze Azurmendi	Tartaloetxe Kultur	Segura
Jose Luis Berasategi	Elkartea	Nekane Rodriguez
Arantxa Gorrotxategi	Tartaloetxe Pilota	Julian Iraola
Igor Alustiza	Elkartea	Arantza Albizu
Nerea Tauschke	Zegamar Batasun	Julian Beloki
Imanol Ortiz	Kasinoa	Javi Collado
Isabel Elorza	San Martin Parrokia	Bittorio
Diego Arratibel	Jubilatuena Elkartea	Zabalgoeaskoa
Alfredo Moraza	Nekane Rodriguez	Euken Galdos
Maria Eugenia	Isabel Elorza	Jose Ramon Agirre
Amenabar	Jose Manuel Gorospe	Asun Etxegia
Asier Berasategi	Leire Lozano	Xabier Ormazabal
Julian Beloki	Juan Irastorza	Jose Luis Ugarte
Karraztarro Ehiz	Jose Mari Berasategi	Laida Ormazabal
Elkartea	Maribel Arrizabalaga	Lierni Ortiz
Aizkorri Futbol	Ander Lasa	Arantxa Ortiz
Elkartea	Pello Otaegi	Inazio Otaegi
Aizkorri Guraso	Luis Otaegi	
Elkartea	Arantxa Otaegi	
Aitxuri Herri Eskola	Jose Ramon	
	Ormazabal	
	Pili Arizkorreta	

2015ean JAIOTZAK

Xabat Zuñiga Arana 2015/12/06

2016ean JAIOTZAK

Larraitz Larrea Jauregui	2016/01/10
Beñat Larrea Carton	2016/02/06
Jakes Otaegi Ayerbe	2016/02/18
Naroa Garrido Morillo	2016/03/09
Intza Izagirre Aizpeolea	2016/03/12
Aizkorri Garmendia Arrondo	2016/03/12
Jone Zabaleta Delgado	2016/04/01
Izaro Madariaga Morales	2016/04/19
Ane Imaz Silva	2016/04/25
Urki Goiburu Irazusta	2016/05/24
Enaitz Mugica Zubizarreta	2016/06/08
Galder Garayar Rodriguez	2016/06/22
Laia Garayar Rodriguez	2016/06/22
Itzea Aguirre Aizpeolea	2016/07/20
Mohamad Kashaf Tufail Padrao	2016/07/29
Daniela Herrera Gomez	2016/08/02
Alejandra Herrera Gomez	2016/08/02
Lur Marcos Garcia	2016/08/06
Nahia Marcos Garcia	2016/08/06
Eva Maria Zota	2016/08/13
Ekaitz Antia Labaca	2016/09/09
Ilargi Azurmendi Ferreira	2016/09/24
Nere Encinas Prieto	2016/10/02
Hodei Garayar Ormazabal	2016/10/16
Nura Muñoa Zendoia	2016/10/22
Izei Iturbe Perez	2016/11/27

HERIOTZAK 2015

Martina Mujika Etxeberria	2015/12/07
Juan Luis izagirre Ezeiza	2015/12/06
Maria Jesus Urbizu Arana	2015/12/17

HERIOTZAK 2016

Jesus Mari Ugartemendia Lazkano	2016/01/13
Juana Aizpeolea Muñoa	2016/02/18
Jose Albizu Urreta	2016/03/07
Pilar Arrondo Arrondo	2016/04/11
Jabier Otaegi Goia	2016/05/07
Jesusa Begiristain Armendariz	2016/05/12
Julian Alonso Santa Catalina	2016/06/28
Iñaxi Dorronsoro Epelondo	2016/06/30
Juana Mujika Arrieta	2016/07/01
Pedro Maria Arakama Arrizabalaga	2016/07/04
Juan Antonio Oiarbide Berasategi	2016/08/15
Ana Ermigain Azurmendi	2016/08/15
Migel Arizkorreta Mujika	2016/08/23
Pedro Gorrotxategi Arrieta	2016/08/31
Victoriano Vaquero Martin	2016/09/01
Dolores Mujika Arrieta	2016/10/13



ZEGAMAKO UDALA

AGENDA - TELEFONOAK

Idazkaritza:

943 801 115

Faxa:

943 800 073

Bake Epaitegia:

943 801 115

Kultura, Euskara eta Ongizate saila:

943 801 115

Web orria:

www.zegama.eus

E-mail:

udala@zegama.eus

Anduetza Parketxea: www.zegamaturismoa.net

Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren web orria: www.zegama-aizkorri.com

BESTE TELEFONO BATZUK

Aitxuri Herri Eskola: 943 800 042

Haurreskola: 943 800 087

Tobera Musika Eskola: 943 801 570

Osasun Zentroa: 943 801 306 / 943 027 700

Eguneko Zentroa: 943 801 610

Udal Gimnasioa: 943 802 023

Udal Liburutegia: 943 802 137

Anduetza Parketxea: 943 802 187

Ostatua: 943 801 051

Sasieta Mankomunitatea: 943 161 590 / 943 161 555

Ertzaintza: 943 088 800

Zumarragako Ospitala: 943 035 000

Beasaingo Anbulategia: 943 027 700 / 943 027 701

Beasaingo Larrialdiak: 943 461 111 / 943 880 967

Gurutze Gorria: 943 161 010 / 943 162 150

Ur Zerbitzuak: 902 302 222

RENFE (Beasain): 902 240 202

SOS Deiak, Suhiltzaileak: 112

Taxia (Arantza Ormazabal): 645 006 737

Goierrialdea Autobusak: 943 885 969

Goitur: 943 161 823

Goieki: 943 161 537

Goimen: 943 161 244

Ordiziako Zerbitzu Forestala: 943 881 793

Goierri Beheko Industrialdea: 943 880 617

Goierriarra: 943 882 719

Goierriko Hitz: 943 160 056

Goierri Tebista: 943 085 477

Partzoneria: 943 801 560

Iberdrola: 943 884 654

Ikastolen Fundazioa: 943 160 089

INEM: 943 880 548

Langai: 943 884 401

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa: 943 886 600

Gazte informazioa: 943 805 634

Gipuzkoako Baso Elkartea: 943 652 900

Akabatutako animaliak biltzeko zerbitzua:

943 112 348

Gure eskerrik beroenak

KUTXAri

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIari

EUSKO JAURLARITZAko KULTU-

RA SAILAri urte guztian zehar eman

diguten laguntzengatik

Zegamako Urtekaria 2016

© Zegamako Udala

Lege-gordailua: SS-1324/99

Zegamako Udalak ez du bere

gain hartzen Urtekarian adierazitako

esanen eta iritzien erantzukizunik. Halaber,

adierazi, argitaratutako argazkiak Elkart

bakoitzak

Udalari utzitakoak direla.

Zegamako Oroitzapenak

JOSE MANUEL GOROSPE "PEKE"

**DONOSTIAN BIZI DEN ZEGAMAR
BATEN OROITZAPENAK**



Udaletxeko dei batek du idatzi honen kulpa. Hala hasi naiz memoriaren kutxaren barruan hautsak astintzen, jakin gabe zer eta zenbait irudi, emozio eta gogorapen azalduko diren. Honela behin, urrutiko jakintsu batek esan zidan, jaio aurretik norberak aukeratzen duela nun eta noiz jaio. Nik, Zegaman, Joxe karnizeoraren etxean jaiotzea aukeratu nuen, gerora Peke deitu izan didate, txikiena ez, baino gazteena nintzelako koadrilan.

Txikitatik hasi nintzen etxeko lanetan ahal nuena eginez. Jendeari enkarguak eramaten, generoa prestatzen, txorixoa, odolki, tripaki e.a. ikuiluan ganaduekin lanean, uda garaian soroan eta lan gehiena belarretan. Gogoan dut, nola joaten nintzen herriko zenbait baserrietara mezuarekin, halako egunetako eramateko aitak aurretik tratua eginda zeukan ganadua eliza atzean zegoen mataderira.

Ama Juana, "Buenavista" baserrikoa zenez, haruntza joateko grina izaten zuen, eta txiki-txikitatik hasi zen baserriira eramaten; lehenengo asto saskitan sartuta, oraindik ez baitzegoen biderik. Baserriko lehengusuak artzainak ziren eta oso gustokoa nuen beraien kontu eta istorioak entzutea.

Jolas zalea izan naiz beti, garai hartan gehienbat txapakin, kanikakin, tronpoekin e.a. jolasten genuen eta gogokoena pilota izan dut. Herrian baziren zenbait denda jostailu hauek erosteko, Bernarditarena, Maximarena, Perfektaarena, eta baita Martin zapateroa ere, tiragomentzat gomak erosteko.

Garaiko goxo dendak ere bazeuden: konfiterian txapa gainean azukrezko karamelu merkeak egiten zituzten, bolatuak ere bai ur basoan sartuta hartzeko, Angela Maiora bere saskiekin, plaza

izkinan egoten zen goxoki eta garaiko aldizkariekin, niri T.B.O. eta "Capitan Trueno" gustatzen zitzaidan. Herriko jaietan, "Helados Ibañez" etortzen zen Beasaindik.

Eskolan, lehenengo monjetan hasi nintzen, gogoratzen dut nola "queso de bola" ematen ziguten janari osagarri modura. Ondoren Arrieta eta Tomas Cabezon maisuekin ibili nintzen, garai hartako hezkuntza sistemaren adierazgarri onak ziren, beldurrraren menpean beti edozein gauzogatik, egurra nola ematen ziguten, erregimenaren abestiak ikasi eta abestu behar ziren. Tomas Cabezon maisuari, margotzea gustatzen zitzaion eta honela hilero arbelean marrazten zuen "consigna" bere mezuarekin eta guk kopiatu egin behar genuen ahalik eta ondoen, egun ona izaten zen. Seiluak ekartzeko ere eskatzen zigun, ea berriren bat aurkitzen zuen bere bildumarako. Gogoan

dut baita, 5-10 zentimo nola sartzen genituen leihoan zeukan otxolapikoan, esanez, pezeta bakoitzeko Afrikan nunbait ume bat bataiatu eta salbatuko genuela.

Monagilo ere izan nintzen bolada batean. Propinarekin Perfektaren dendara joaten nintzen eta “Artiach” gailetak erosten nituen. Don Jose parrokoarekin zenbait base-rietara joaten nintzen, “Jaun Sakratua” eramatera. Elbarri eta zahar jendeari errezoak latinez eginez.

Eliza oso presente zegoen. Hileko lehen ostiraletan Jaunartzea, eskolara joan aurretik, igandero mezataria, Aste Santutan izugarritzko elizkizunak, prozesioak, errezoak, Arantzazutik etorritako fraideen sermoak..., urte guztian ikusi gabeko jendea etortzen zen. Ostiral Santuan Segurara joaten ginen prozesioa ikustera, horrela herriko giro ilunetik alde egiten genuen.

Don Jabier Apaiza, gazteen dinamizatzaile handia izan zen. Hasieran sakristian hasi zen filminak botatzen, gero pelikulak botatzen zituen frontoi atzean zegoen gazteen lokalean, jolasak eta aktibitate asko egiten genituen lokal hartan.

Uda garaia gerturatzen zenean, parrokoaren etxera joaten nintzen Bula bat eroatera, honela jai egunean

(igandetan) baimena genuen lan egiteko pekaturik egin gabe.

Zazpi urterekin, solfeoa ikasten hasi nintzen eta txistua “Joxe Elizondorekin” (Jose Larrea), herriko txistulari zenbat urtetan ibili nintzen, prozesioetan, erromerietan, “Santu Espiritun, san Adrian, Arantzazura, inguruko herrietako jaietan, igande goizetan ere diana jotzen genuen herriko kaleetan, eta ordain bezala Manolo tabernan ardo goxoa eta pasta bat ematen ziguten.

San Juan jaiak ere gogoan ditut, zein giro ederra egoten zen, arbolaren inguruan, afaria familiar-tekoekin, musika... zain egoten nintzen San Bartolemetako jaiak iristeko, “tio vivo” “tiro-plato” eta txirrindu frogaz gozatzeko baina ikuskizunik handiena “lucha libre”ko saioa izaten zen frontoian, garaiko borrokalari onenak etortzen ziren Zegamara eta gure idoloa Goieneko Joxe zen.

Telebista faltan, komedian-teak ibiltzen ziren herriz-herri eta han joaten ginen etxetik aulki bat hartuta, giro polita sortzen zen eta zenbait zelebrekeri ere bai.

Gogoan dut, “Demetrio Rubio”ren kamioian, jendez beteta erromerian Urdalur aldera joaten ginela “Altza Pelipe” abestuz egun pasa.

Konstantinoren autobusa nola joaten zen jendez gainezka, poltsa, kaxa eta animaliz beteta Ordiziko ferira, eta baita egunero kaletik pasatzean bozina jo eta nola joaten nintzen korrikan pasatzen ikustera.

Uda garaian zenbait familia etortzen ziren oporrak pasatzera. Ezagunena Viana familia, orain kultur-etxea dagoen lekura, amona, matriarka eta neska mutil pilo bat.

Olaberriko presa ere oso gogokoa zen, bainu bat hartu eta lagunekin egoteko, erretetan ere ibiltzen ginen, ezkalu eta kangrejuak harripatzen, eta inguruko mendietan “txoriapi” bila, eta sagar edo gereziak hartzen ere bai.

Neguan berriz elurra egiten zuenean, barrika tabla batzuk hartu eta Mendiata aldera eskiatzeko asmoekin. Honela hasi zen gero neure gustokoen izan den jobi-lan tresna, munduko zenbait lekutara eramanez nauena.

Asko da kutxan gordeta duguna, baino gaurko nahikoa da. ondo izan.

“Aupa Zeama”.

Jose Manuel Gorospe
Zabaleta

“Peke”

Udala



ZEGAMAKO UDALA

KULTUR ETA KIROL ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK

2016. urtearen hasieran, aurreko urteko laguntzak banatu ohi dira herriko kultur eta kirol elkarteetan artean. 2015. urteari dagozkion banaketak honela egiten dira: kultur elkarteetan artean 5.610,00 euro eta kirol elkarteetan artean 9.179,00 euro. Aurrekontutan onartu bezela 2014. Urteari zegozkien %10eko gehikuntza bat izan dute jarraian adierazten denaren arabera:

Kultur Elkarateak

Orkatz Abesbatza 3.960,00 €.
Gazte Herexa.....1.650,00 €.

Kirol Elkarateak

Amezti Mendi E.....1.647,00 €.
Elkartu Nahi1.925,00 €.
Aizkorri F.T.2.035,00 €.
Tartalo Etxe P.E. 1.647,00 €.
Karraztarro 1.925,00 €.

MAPA TOPONIMIKO BERRIAK

20 urtetik gora izango dira, egun eskuarteetan dugun “Zegamako mapa” argitaratu zela. Alde batetik ale bakar batzuk geratzen ziren eta bestetik, mapa hauek herriko toponimiaz gain kale izendegia ere jaso ohi dute eta esan, azken 20 urteotan Zegaman aldaketa handiak eman direla. Honela, informazio geografikoa hobetu asmoz eta Zegamako toponimia sakonki jaso asmoz, Zegamako udal-mapa berria egitea erabaki zen urtarrilaren 19ko Gobernu Batzarrean. Lana Dunba-Burdinola enpresari adjudikatu zitzaion 10.825,34 (BEZ-a barne) eurotan. Udalak 7.111,27 eurotako diru-laguntza lortu du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburutzatik.

GIMNASIO ETA IGERILEKUKO KUDEAKETARAKO HITZARMENA

Zegamako udal gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osorik kudeatzeko 55.556 Euroko (Gehi BEZ) aurrekontua izanik, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz “Goierrri Kirol Teknikoak” enpresari adjudikatzea onartu zen.

ZEGAMAKO IRISGARRITASUN PLANA ETA HIRI ALTZARIEN INBENTARIOA ONARTU DA.

Udalak, ezinbestekoa du, irisgarritasun plana egitea eta berrikustea, ondorioz plan horretan jasotako egitasmoak betetzea izaten da helburua, herritar guztiengana irisgarritasuna bermatzeko. Aurreko irisgarritasun planak bezala aurten ere Ignacio Ibarretxe Parientek Zegamako Irisgarritasun Plana idatzi du. Irisgarritasun plan hau idaztearen kostua 24.200 € (BEZ barne) eurotako izan da eta plan berean herriko altzarien (banku, farola etabar.en inbentarioa ere egin da. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saitetik 15.000,00 euroko diru-laguntza lortu du Zegamako udalak ekimen honetarako.

11. EREMUAN -OLABERRIA II- 20 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKU ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA.

Azken urteotan jasan dugun krisia dela eta, eta batez ere erai-





Korrikarako zinta

kuntzak jazo duen krisia badirudi apaltzen ari dela eta Ugarte-zelai eremuan, 11. Eremuko-Olaberría II-A.20.11.3 partzelan Jon Mikel Murua Uribe-Etxeberriari, Ormazpei S.L. ren izenean 20 etxebizitza, garajeak eta trastelekuak eraikitzeke baimena eman zaio. Area 11 Olaberria II” dokumentuaren hirigintza fitxan jasotzen den bezala, IV. atalean, Area honetan eraikitzea aurreikusita dauden etxebizitzak salneurri tasatukoak edo udalarekin adostuak izango dira, eta horrenbestez partzela honetarako adostutako etxebizitza, garaje eta trastelekuen prezioak jarraituko dira.

KORRIKA EGITEKO ZINTA BERRIA EROSI DA

Udal gimnasioa abian 2011n jarri zen eta, jarri ziren tresnetatik arrakasta handienetakoa korrikarako zintek izan dute. Nahiz eta bi jarri ziren hasiera hasieratik, zenbait herritarren eskaeren ondorioz eta gimnasioak eskaintzen dituen zerbitzuak hobetze aldera gimnasio-rako korrika egiteko zinta berri bat erostea erabaki zen Argysan enpresari 8.526,44 (BEZ barne) eurotan.

ZEGAMAKO UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZAKO LANAK ETA EGUNEKO ZENTROAREN ERABILTZAILEEI ARRETA PERTSONALIZATUA ESKAINTZEKO ZERBITZUAK ESLEITU DIRA

Zegamako udaleko udalbatzarrak 2015eko azaroaren 25ean egin zuen bilkuran, Zegamako udaleko gizarte zerbitzuen etxez etxeko laguntzako lanak eta Eguneko Zentroaren erabiltzailleei arreta pertsonalizatua eskaintzeko zerbitzua kontratatzeko lehiaketaren deialdia onartu zuen.

Era berean, enpresa esleipendunak, udalarekin adostuta, jangela sozia-laren eta gizarte zerbitzuen balio anitzeko egoitzan kokatzen diren etxebizitza kudeaketa bideratzen da.

Lehiaketa, 2016ko urtarrilaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 2. alean argitaratu zen,

horren arabera, eskaintzak aurkezteko epea zenbatzen hasi zelarik, epe hori 2016ko urtarrilaren 25ean amaituz.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udal honetan, enpresa hauek aurkeztutako eskaintzak jaso ziren:

GSR. Gestión de Servicios Residenciales. Erkop.

Goxara S.L.

Eulen Servicios Sociosanitarios S.A.

Vida y Legado S.L.

Kontrataziorako eratu zen kontratazio mahaiak, 2016ko otsailaren 22ko bilkuran eskaintzak ireki eta hauek baldintzen pleguan eska-

tutako agiriak jasotzen zituztela egiaztatu ondoren, Baldintzen Pleguko 23. artikuluan adierazitakoaren arabera, eskaintza ekonomikoak ireki aurretiko balorazio txostena bideratu zen.

Horren ondoren, kontratazio mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egingako bilkuran, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak ireki zituen.

Proposamenak baloratu ondoren, kontratazioa arautzen duen baldintzen pleguko 24. artikuluan adierazitakoaren arabera kontratazio mahaiak esleipen proposamena egin dio Udalbatzarrari, honako balorazioaren arabera:

ENPRESA	1	2	3	4	5	GUZTIRA
GOXARA S.L.	26	19	9,106	8	5	67,106
GSR	30	21	9,105	7	5	72,105
EULEN	27	17	9,116	6	5	64,116
VIDA Y LEG.	5	1	9,128	1	1	17,128

Hau jarraituz, kontratua GSR Gestión de Servicios Residenciales enpresari esleitzeko proposamena egin zen, aurkeztutako eskaintza jasotako proposamena, baldintza eta prezioaren arabera eta baldintzen pleguan ezarritako irizpideen arabera.

PEOI LANGILE BATEN KONTRATAZIOA

Herria gero eta zabalagoa denez eta ondorioz lan eremua ere handitu denez, herriko peoi lanak egiteko pertsona bat kontratatzeko deialdi irekia zen, izenemate epe bat irekiz. Izena emateko baldintzen artean, herrian erroldatua egotea azken urtebete honetan, euskaraz jakitea eta desbrozadora erabiltzen jakitea zeuden. Honela 10 pertsonak eman zuten izena eta baldintzak betetzen zizutenen artean maiatzaren 12an langile hau aukeratzeko zozketa egin zen. Honela zozketan Iñaki Agirre Altube egokitu zen peoi lanak egiteko aukeratua 2016ko maiatzaren 13tik 2017ko martxoaren 1 arte.

HERRI- BIDEEN KONPONKETAK

Zegamako herri-bide guztien egoeraren inbentario bat egin da aurten. Hala nola herri bide bakoitzaren zenbait datu ezberdin jaso dira: luzera, aldapa maila, abeltzaintza ustiaketarik dagoen, inguruan bizi direnen kopurua... Honekin batera datorren urteetan herri-bide hauek zein konponketa behar dituzten ere jasota gelditu dira. Honen arira inbentario honetako zenbait herri-bideen konponketa egin da. Ondoren konpondu diren bideen aurrekontua eta berau konpontzeko



Etxe berria eraikitzen

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapen sailetik honako laguntzak lortu dira:

Lartxaun-Mazkarra-Goiena. 7.725,85 (BEZ barne) Euroko aurrekontua eta **4.635,51 Euro-tako diru-laguntza lortu da.**

Uztaran-Euzkitze Berri. 11.078,57 (BEZ barne) Eurotako aurrekontua eta 5.852,37 Euro-tako diru-laguntza lortu da.

Lartxaun-Olaran-Barrensoero. 20.909,68 (BEZ barne) Eurotako aurrekontua eta 12.545,81 Euroko diru-laguntza lortu da.

Errota Berri-Anatxe. 18.942,55 (BEZ barne) Eurotako aurre-

kontua eta 11.365,63 Eurotako diru-laguntza lortu da.

HERRI- BIDEEN KUNETA GARBIKETA

Herriko-herri bide guztien kuneta garbiketa egin da. Herri-bide batzuei irailan egin zaie garbiketa eta beste batzuei pista-jabeekin honela adostuta, abenduan. Lan hauek egiteko udalak lau langile herritar kontratatu zituen: Iraileko lanak egiteko Aitor Perez, Ander Orue, Jorge Garcia eta Mhammed Grioui. Abenduko lanak egiteko berriz Mhammed Gioui, Ander Orue, Segundo Arrizabalaga eta Unai Agirre.



BIOMASA GALDARA MARTXAN DAGO



Biomasa galdara egin den orubea



Biomasa kasetara egiten



Biomasa galdara



Biomasa galdara sartzeko kasetara

Jabier Otaegi kultur-etxearen atzeko aparkaleketan dago kokatuta biomasa galdara berria berau sartzeko egokitutako eraikuntza berri baten barnean. Orain arte udaletxeke, kultur-etxeke eta Ostatuko berogailu eta ur beroa berotzeko energia gasarengandik lortzen genuen. Pilotalekuko gimnasioan ere beste biomasa galdara bat dugula ikusirik eta berak ematen duen errendimendua oso ona izanik beste galdara hau jartzeko erabakia hartu genuen. Galdara honekin ekonomikoki gastuak lehengo sistemarekin baino txikiagoak izango dira eta ingurunearekiko gas galdarek baino askoz gutxiago kutsatzen du. Biomasa galdara hau martxan jartzeko gastuak honako hauek izan dira:

Galdararen erosketa eta instalazio denak GEUK S.L enpresak egin ditu eta 88.855,66 (BEZ barne) Euroko kostua izan du. Galdara sartzeko eraikina berriz IPARRAGIRRE S.L-k egin du eta 79.406,39 (BEZ barne) eurotako kostua izan du. Proiektu honi aurre egiteko berriz udalak lortu dituen diru-laguntzak honako hauek dira:

EEE-EVEtik 24.535 €

Gipuzkoako foru aldundiko Ekonomia eta Sustapeneko, Landa Inguruneke eta Lurralde Orekeko Departamentutik: 9.842,42 €

Gipuzkoako foru aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentutik: 46.711,43 €.

MARATOI EGUNERAKO BI LANGILE KONTRATATU DIRA

Zegama-Aizkorri mendi maratoia hartzen ari den dimentsioa ikusita eta nahiz eta bolondresak lan itzela egin proba hau egiteko, maratoia ospatu zen aurreko eta ondorengo egunetarako bi langile kontratatzea bidezkoa ikusten zen batipat herriari txukundu orokor bat emateko. Deialdia herritarren artean egin zen eta zozketa egin ondoren lan hauek Jorge Garcia Gonzalez eta Ahammed Griouik burutu zituzten maiatzaren 19,20,21,22 eta 23an.

TXAKURRAK TREBATZEKO GUNEA

Ander Lasa Agirrek txakurrak trebatzeko gune bat sortzeko proiektua aurkeztu zuen udalerekin. Gune hau Otzaurte inguruan dauden 20.025.018.003, 20.025.018.004, 20.025.019.017 eta 20.025.019.008 lursailetan kokatzeko proposamena ekarri zuen proiektuan.

Jadueran baimena emateko zegozkion agiriak aurkeztu ondoren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenerako, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka-



Parke berria

rako Departamentuaren txostena jaso ondoren, maiatzaren 8ko Gobernu Batzarrak basurde ehizean txakurrak trebatzeko parke bat irekitzeko udal baimena eman zitzaion Ander Lasa Agirre herritarri.

Ander Lasa berak proposatuta gune honetara dihoan bidea konpondu du. Proiektuak jasotzen dituen eskaeren artean 6 kilometroko itxitura eta txabola bat egitea daude. Txakurrak trebatzeko gune hau erabiltzea herritarrek dohain dute Anderren borondatez eta baita Zegamako udalak ere bertan zerbait antolatuko balu.

TXAKUR KAKAK BOTATZEKO ZAKARRONTZIAK JARRI DIRA

Zegamako txakurjabe guztiak bilera batetara deitu ondoren herrian txakur kakak sortzen duten arazoa mahai gainean jarri zen. Herritarren artean kexa asko jaso izan dira txakur kakak ez direlako jasotzen, Hori dela eta txakur kakak botatzeko zakarrontzi berezi batzuen beharra dagoela ikusi zen. Txakur kaka jasotzeko zakarrontziak herrian zein puntutan jarriko ziren ere txakur-jabeekin batera adosten zen bilera horretan. Bestalde txakur jabeek txakurren kakak jasotzeko eta kalean txakurrak lotuta eramateko konpromezua hartu zuten bilera berean. Honela zakarrontziak Contener

S.L enpresari erosiko zitzaikion 4.250 (gehi BEZ) eurotan eta honako puntuetan kokatu genituen:

- San Bartolome auzoan.
- Ugarte zelai kalea.
- Olaberria auzoa
- Aseginolaza anaiak 10 inguruan.
- Olan auzoan.
- Andraitz kalearen atzealdean.
- Aseginolaza anaiak 8 kalean
- Alderdi Eder kalean

PARKE BERRIAK

Parke honen egoera ikusirik berau berria egitea erabaki zen. Erabiltzaileak umeak izango zirenez eta merkatuan dauden parke mota ezberdin mordoak ikusi ondoren aukeraketa herri partaidetza bidezko bozketa bidez egingo zela erabaki zen. Hainbat enpresei aurrekontuak eskatu ondoren aukeratu hirurak erabaki jarri ziren bozketarako. Herritarren partehartze handiarekin gaur egun jarrita dugun parkea aukeratu zen eta berau jartzea uztailaren 26an onartu zen. Garra S.L enpresari esleitu zitzaion parkea jartzearen lana eta bere kostua 19.965 (BEZ barne) izan da. Parke berri hau egiteko Foru Aldunditik 10.221,39 Euroko diru-laguntza lortu du Zegamako udalak.



Txakur kaka jasotzeko ontzia



Murgizelaian mahai batzuk aldatu dira.

Bestalde igerilekuen aurrean kokatzen den parkearen egoera nahiko txarra zenez bertako kulunpioak ere aldatu egin dira eta bertan zegoen txirristari ere konponketa batzuk egin zaizkio. Lan hauek ere Garra S.L enpresak egin ditu eta berauen kostua 3.086,11 (BEZ barne) Euro izan da.

IGERILEKUKO PARKEKO ETA MURGIZELAIKO MAHAIK ALDATU DIRA

Egurrezko mahaiak zaharkitua zeudenez, uda aurretik aurten egurrezko mahai berriak jarri dira igerilekuko parkean eta baita Murgizelaiko parkean ere. Mahai hauek jartzeren kostoa 4.968,56 (BEZ barne) eurotako izan da.

OROIMENAREN EGUNA

Azaroak 10 da bilolentziaren biktimei gure elkartasuna adierazteko Eusko Jaurlaritzak aurrei-



Oroimenaren eguneko elkarretaratzea

kusita duen egun finkoa urtero. Honela, aurten ere elkarretaratzea iluntzako 19:00etan egin da udaletxearen aurrean. Esan iaz hasi ginela egun honetan elkarretaratzeak egiten eta nahiz eta iaz eguerdian egin zen, udalean iluntzea ordu egokiago zela adostu ondoren, iluntzako 19:00etan jarri zen hitzordua.

ZEBRA BIDEAK MARGOTU DIRA

Herriko zebra bideak eta lurreko zenbait zirkulazio seinalen egoera txarra zenez eta ia ikusi ere egiten ez zirenez berauek erreparatu eta margotzea erabaki zen. Horrenbestez, Tinbaux C.B enpresari esleitu zitzaion lana, jasotako aurrekontuaren arabera, 6.674,36 eurokoa (BEZ barne) kostua izan du.



Desfibriladore berria Kasino ondoan jarri da

DEFIBRILADORE BERRIA JARRI DA

Ikasturtean zehar Aitxuri herri eskolan egoten da desfibriladore bat baina udako kanpainan eskorako defibriladore hau eskolan oportretan daudela aprobetxatuz igerilekuan ezartzen dugu. Zerbitzu hobea eskaintze aldera Ostaturko sarreran guztien eskuragarri beste desfibriladore berri bat jarri da.

ELIZALDE KALEKO MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO APARKALEKUA

Herrian zehar ezinduentzat aparkaleku ugari badaude ere, gurgildun silakin manciatzeko modukorik ez zegoen. Honela, Elizalde kaleko aparkalekuetan minusbalidoentzat egokitua den aparkaleku bat egin da. Parkin hau egitearen kostua 1.355,20 (BEZ barne) eurotako izan da.



Parkina egokituta



Latsanekio bidea



Aizkorrondoa dotore elurra eta guzti

EGURTZETIK MUÑORAKO BIDEA

Bide honen publikotasunaz edo pribatutasunaz zenbait zalantza zeuden eta eztabaida ekidin aldera, bertako bide erabiltzaileekin adostu ondoren udalak hauekin hitzarmen bat sinatu du. Hitzarmen honen arabera bide hau publikoa izango da baina udalak jabe hauei urtero 1500 Euro emango dizkie. Jabeek diru hau bide publiko honen mantenimendu lanak eta txukun mantentze aldera jasoko dituzte.

LATXANEA BASERRIRA DOAN HERRI- BIDEA KONPONDU DA

Latxanea baserri aurreko errekak bide publiko honetan luizi batsortu

zuen eta berau konpondu beharra izan da. Bidea hau konpontzeko beharrezko baimenak eskatu eta Hidrografica del Nortek bere oniritzia eman ondoren egin dira konponketa lanak. Lan hauek Lurkide Hondarlanak S.L enpresak egin ditu. Lanen kostua 11.880,65 (BEZ barne) Eurotako izan da. Ordainketa udalaren eta pista jabeekideen artean egin da.

PLAN PAISAJISTIKOA EGIN DA

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Sailak deitutako diru-laguntza deialdira aurkeztea interesgarria izan zitekeela ikusi ondoren, Zegamako paisaian dauden gabeziak zein diren ikusi eta bildu dira proiektu batean.

Proiektua idaztea ARAUDI enpresari esleitu zitzaion eta egitasmo honetan jasotako gabeziei aurre egitea izango da hurrengo urteetako erronka. Esan bezala, egitasmo hau idaztearen lana ARAUDI enpresari adjudikatu zitzaion 32.065 (BEZ barne) eurotan. Berau egiteko udalak 23.850 Eurotako diru-laguntza lortu du Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro eta Lurralde Politika Sailetik.

ZERRALAN BERRIRO ERE MARTXAN DA

Zerainen kokatzen den Zerralan elkarte arrazoi ezberdinengatik urte askotan zehar itxita egon ondoren berriro ere bere atak

JABIER OTAEGI KULTUR ETXEA

Maiatzaren 7an golpe gogorra jaso genuen zegamar guztiok. Zegamako kultura eta batez ere musikaren arima zen Jabier Otaegi herritarra hil zen ustekabean. Honela Jabierrek gazte gaztetaik Zegaman kultur gintzan eta herri gintzan egin duen lan handia dela eta errekonozimendu modura, udalak, ahobatasunez, kultur-etxeari “Jabier Otaegi kultur-etxea” izena jartzea erabaki zuen uztailaren 11ko batzarrean.





Farola berriak jarri dira Ugarte-zelai kalean

ireki eta zerra zerbitzuak emango ditu. Zerralan elkartearen sorreran Idiazabal, Mutiloa, Segura, Zerain eta Zegamako herritarrak egon ziren herri bakoitzeko udalekin batera. Zerralan berriro martxan jartzeko legalki zeuden gabeziak konpondu dira eta funtzionamendu arauak ere adostu dira. Lehenik eta behin bazkideen zerrenda eguneratu da. Lehendik bazkide zirenei jarraitzeko asmoa duten galdetu zaie eta bazkide berriak egiteko aurkera ere egon da 200 Euro ordainduta. Ondoren bazkide guztiek elkartearekin kontratu bat sinatu dute eta 5 Euro ordainduko dituzte urteko. Honek Zerralan elkarteko instalazioak eta bertako makinak erabiltzeko eskubidea ematen die. Bertako instalazioak erabiltzeko

aurretik Xabier Dorronsororekin jarri behar da harremanetan eta berak bazkideari zerra erabiltzen lagunduko dio. Zerralaneko tasak honako hauek dira:

Zerra haundia: 50 € orduko

Zerra txikia: 40 € orduko

Su egurra egiteko: 50 € eguna (Tratorea barne)

FAROLAK ALDATU DIRA

Aurreko urtetan hartutako konpromezuari jarraiki kontsumo txikiagoa eta ingurugiroa gutxiago kutsatzen duten farolak jarri dira aurten ere. Urgain Berriko zubitik Ugarteko zubiraino dauden farolak aldatu dira hain zuzen ere. Lan hauek Leycolan S.A.L enpresak egin ditu 13.473,94 Eurotan (BEZ barne) hain zuzen ere.

AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA

Aurten ere aisialdiko begirale ikastaroa eskaini da. Ikastaro hau Urtxintxa elkartearekin batera antolatu da eta ikastaro honen bidez Aisialdiko begirale titulua ateratzea posible da ondoren Zegaman bezela beste herri askotan antolatzen diren udaleko edo Aisialdi egunetan begirale bezela lan egiteko. Ikasturtea urritik maiatzera larunbatetan izango zatekeen Zegaman bertan baina jende kopuru mini-



Ostatu aurrean obrak egiten

moak izenik eman ez zuenez ikastaroa bertan behera gelditu zen. Udalak, ikastaro hau urtero eskaintzeko asmoa du, batez ere herriko gazteak trebatzeko, uda garaian urtero antolatzen duen aisialdi kanpaina herriko langile trebatuak izan asmoz.

SAN BARTOLOME AUZOKO HARMAILETAKO UREI ERRETENA EGIN ZAIE

San Bartolome auzoan goiko etxeetara igotzeko harmailetan euria egiten zuenean ur hau hartzeko ez zegoen azpiegiturarik. Hori dela eta urarekin soilik eskailerak oso irristakorrek egoten ziren eta berau izozten zirenean arriskua oraindik eta handiagoa zen. Hau ikusirik ur horiek bideratu eta erreten bat egin zaie erre-

PRODUKTU FITOSANITARIOEN APLIKATZAILE IKASTAROA



Udalak antolatuta, produktu fitosanitarioen aplikatzaile karneta ateratzeko modua izan da aurten Zegaman bertan. Ikastaroan 30 herritarrek eta dozena erdi bat kanpotarrek parte hartu dute. 30 ordutako ikastaroa hau sei arratsaldetan eman zen Zegamako Jabier Otaegi kultur-etxean eta arratsalde batean praktikak egin ziren elizaren atzealdeko lorategietan. Ikastaroko gaiak astunak izan baziren ere, ikastera joandakoek karneta lortzea lortu zuten, baina entzundakoak entzunda, botikak erosi eta erabiltzeko gogoia urritu zen ikasleen artean.

BERDINTASUN SAILA

2015ean Berdintasun Sailean eta batzordean egin genuen lanarekin jarraituz, aurten ere ekitaldi desberdinak antolatzen saiatu gara, hona hemen laburpena:

MARTXOAK 8. EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Gure herriko emakumeek gizartean betetzen dituzten lanak ikusarazteko eta balioan jartzeko eguna izan genuen.

EGITARAUA

Autodefentsa tailerra:

Martxoaren 12an, 17:00etatik 20:00etara kultur-etxean. 13-20 urte bitarteko 15 neskak egin zuten.

Argazki erakusketa:

Mundubat Gobernuz kanpoko Erakundearen eskutik. Gaia:

“Emakume nekazariak, eskubi-deak eta errealitateak” Udaletxeko batzar aretoan egon zen ikusgai. Argazkilaria Enrique Pimoulier zen.



“Neskatoak” dokumentala ikusi ahal izan zen

Herritarren argazki proiektua. Gaia: “Zegamako Emakumeak” Jendeak bidalitako argazkiekin egin zen udaletxeko batzar aretoan.

Martxoaren 8an elkarretaratzea, iluntzeko 7etan “Emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu” lelopean.

FESTAK

Festak hasi aurretik etxeetara bidali genuen “Eraso sexistei aurre egiteko protokoloa” Emakumeek jakin zezaten zer egin behar zen kasu horietan.

Kaleetan eta tabernetan kartelak jarri genituen, izenburu honekin: “Zer egin eraso sexista bat gertatzen bada?”

BERDINTASUN TAILERRAK

Azaroan zehar 3 berdintasun tailer antolatu ziren:

- JAIKAK ETA BERDINTASUNA
- NOLA SUSTATU DEZAKETE ELKARTEEK BERDINTASUNA?
- BELDURRIK GABEKO GUNEA ERRAIKITZEN.

Tailer hauek proiektu zabalago baten barruan kokatzen dira: Foru Aldundiak eta Zegamako udalak lagunduta. Murgibe enpresako Idoia Lekuek zuzendu zituen.

AZAROAK 25 EMAKUMEEN-GANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUAN BERDINTASUN SAIL ETA BATZARRAK EGITARAU HAU PRESTATU ZUEN: NESKATOAK

Jon Abril Olaetxeak zuzendutako dokumentala. Bertan Ipar Euskal Herrian lanean franquismo garaian egondako emakumeak, beraien bizipenak kontatu zituzten. Emakume gehienak Bidasoaldekoak ziren eta dokumentala ikusterat joan zen jendeari asko gustatu zitzaion beraien kontatutakoa.

Azaroaren 25ean Elkarretaratzea egin zen udaletxe aurrean, iluntzeko 7:30ean “Emakumeen aurkako indarkeriarik ez” lelopean.

Egunen batean horrelako egunak antolatu beharrik ez izateko, lanean jarraitu beharko dugu, oraindik zoritxarrez asko baitago egiteko.



Udaletxe aurrean elkarretaratzea egin zen



Tailerrak antolatu dira herritarentzat

jila batekin arrisku hori ekidite aldera.

BASERRI ETA LURSAILEI BURUZKO GALDEKETA

Baserri eta lursailen egoera jakite aldera baserritarrei eta lursailen jabeei galdeketa bat luzatu zitzaien Zegamako errealitatea zein den jakiteko. Bertan galdetzen ziren datuen artean azpiegiturei buruzkoak zeuden: herri-bidearen egoera, urik duten, ur zikinentzako azpiegiturarik, telefonoa, internet.... Lurren erabilpenak: nekazaritzarako, abeltzaintzarako, alokatuko luketen, lanak eta erosketak partekatuko lituzketen, ikastaroen premiarik baduten eta azkenik Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoarekin duen erlazioa. Datu hauek denak jaso dira eta ondorioz, herritarren beharrak zeintzuk diren jakin eta gero, ahal den neurrian azaldu diren beharrei eta mejorei aurre egingo diegu.

BIOITXOIN DENDA BERRIAREN IREKIERA

Miren Urbizu Arrondok Juan Telleria 1 B beheko merkataritza lokalean tabako, tinbre eta bestelako en salmenta jarduerarako



Baldosak konpondu dira eskolan

egokitzeko eskaera aurkeztu zuen eta berau egiteko baimena eman zitzaion otsailaren 1ean. Lanak egin ondoren apirilaren 18an berriz berau irekitzeko baimena eman zitzaion. Bioitxoin denda herritarrei zerbitzua emateko dugu beraz. Ea zortetik haundiena izaten duten.

OSTATUTIK ELIZA ATZERAINOKO TUBOA ALDATU DA

Eremu honetako tuboak ematen zituen arazoak ikusirik eta berau askotan ataskatzen zela kontutan hartuta Ur Zerbitzuakekin dugun hitzarmenaren medioz Ostatutik eliza atzeko tuboa, Txanton tabernaraino gutxi gora behera, aldatu egin da. Aldaketa honekin bertako

arazoak bukatutzat ematen ditugu. Obra honen kostu osoa berriz Ur Zerbitzuakek bere gain hartu du.

ESKOLAN BALDOSAK ALDATU DIRA

Urtero legez eskolako kurtsoa bukatzean bertan egin behar diren konponketen zerrenda pasatzen digute eskolatik. Konponketa hauek irailerako egin behar izaten dira, ikasturtea hasi aurretik, kurtsoan ikasleak dabilzan bitartean enbarazorik ez egiteko. Erretako fluorestenteak, isten ez diren atekak, komunetan jarioak ohikoak izaten dira. Aurten ordea baldosa dezente zeuden erorita eta konponketa lanak batipat baldosak aldatzen zentratu dira.

2016KO HAUTESKUNDEAK

2016an, bi hauteskunde aldi izan ditugu, gure bozka emateko aukerarekin.

Ekainaren 26an, Estatuko Kongresurako Hauteskunde Orokorrak izan ziren eta irailaren 25ean Euskadiko Legebiltzarrerako Hauteskundeak.

Hona hemen, Zegaman izandako emaitzak:

EUSKADIKO LEGEBILTZARRERAKO EMAITZAK

EH-BILDU	384
EAJ-PNV	322
PODEMOS	62
PSOE	16
PACMA	4
PP	3
BESTEIA BATZUK	5

ESTATUKO KONGRESURAKO IZANDAKO EMAITZAK:

EH-BILDU	294
EAJ-PNV	282
PODEMOS	139
PSOE	23
PP	6
BESTE BATZUK	8



Dolors Montserrat, Udaletxeko aretoan senidetze egunean

Bitxikeria bezala, 2007an Zegama eta Sant Sadurni d'Anoiaren artean egin zen senidetze ekitaldian parte hartu zuen Sant Sadurniko udaleko zinegotzia zen Dolors Montserrat, ministra izendatu dute eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko kartera eman diote. Dolors Montserrat Zegaman izan zen bi herrien arteko senidetze ekitaldian.

JABIER OTAEGI GOGOAN ETA BIHOTZEAN, ESKER ONEKO HERRI AITORMENA

Azaroaren 19a izan zen zegamarrok eta leku askotatik etorritako lagunek Jabierri herri aitormen bateratua egin genion eguna. Egun hunkigarria izan zen guztiontzat. Zegamako herrigintzan egin zuen lan itzelaren errekonozimendua egitea zuen helburu ospakizunak. Ordea, egindako lanaren aitormen zintzoa ez-egik, Jabierri genion estimua eta maitasuna nabarmendu ziren omenaldiko ekimen guztietan. Seguru, gurekin zegoela eta behar heinean aitortu ez genizkion sentipenak azaleratu zitzaizkigun.

Goizeko 11:30etarako elkartu ginen San Martin Parrokiaren aurreko plazan, kiosko ingurura, guztiok elkarrekin adostuta genuen ibilbideari hasiera emateko. Elizako erlojuak hamaika t'erdia jo orduko, kanpai joaldi berezi batekin abiatu ginen kalejiran. Tobera Musika Eskolako zuzendaria, Iker Gomez de Segura gidari hartuta. Herriko dantzari eta txistulariak aurretik genituela, udal ordezkariak herritarrekin bat eginda, Sakristauenera bitarteko ibilbidea egin genuen, Jabierren

amari eta senideei harrera egiteko. Sakristauene aurrean, Orkatz abesbatzak abesti bat eman zuen, "Nerea izango zen", eta Orkatztxikiko abeslarietako batek lore sorta eskaini zion Maria Doloresi, Jabierren amari, senide guztiak lagun hartuta, bera ere kalejiran murgiltzeko eskariarekin.

Hala, herriko dantzariak, txistulariak, udal ordezkariak, kantariak, lagunak, senideak eta ama, denak bat eginda, Helenaren eta seme-alabaren etxeko atari aurreraino joan ginen. Helena emaztea, Malen, Manu eta Noa seme-alabak agurtu eta kalejirara bildu aurretik, lore sorta bat eskaini eta txistularien emanaldia izan zen.

Halaxe geneukan aurrez erabakita eta behin Jabierren familia guztia elkartu eta kalejiraren babesean hartu ondoren, Aitxuri Herri Eskolako patioraino joan ginen, txistu eta trikiti doinuz lagunduta. Han, Santa Ageda bezperako koplak abestu genituen, Jabierrek 1990ean Anastasia Larreari jasotako koplak hain zuzen ere. Aitormen bat gehiago, Jabierrek Zegamako kultur ondarea berreskuratzen eta zabaltzen egin zuen

lanari.

Jabierren familia maitasun babesean hartuta, lagun arte bikaina osatuz, ehundaka ahots elkarrekin abesten entzuteak, Aitxuri Herri Eskolako neska-mutikoen eta irakasleen aitormena edertu baino ez zuen egin.

Kalejiraren hurrengo urratsak Udaletxe aurreko Jose Maiora plazaraino eramanez gintuen, eguraldia ere lagun genuela. Han, udaletxe aurrean elkartu ziren 1972tik 2016ra bitartean Zegamak izan dituen eta bizirik dauden zinegotzi eta alkateak. Jabierrek zinegotzi lanetan Zegamari egindako ekarpena aitortzeko modurik ederrena, zalan-tzarik gabe.

Joseba Izagirrek, gaurko alkateak egin zuen familiaren aurrean, Jabier Otaegi zinegotzi ohiaren aitormen instituzionala, herrigintzaren eta kulturegintzaren konpromiso politikoa azpimarratuz eta, herriko kultur-etxeari JABIER OTAEGI KULTUR-ETXEA izendapen ofiziala egiteko, udal batzak hartutako erabakia ezagu-



taraziz. Joseba Izagirre alkateak, Iker Zubeldiak Jabierren omenez idatzitako bi bertso irakurritz amaitu zuen bere hitzaldia

Udalaren aitormen instituzionala borobiltzeko, kultur-etxearen obrak burutu zituen Eduardo Telleria alkate ohiak eta Joseba Izagirrek berak, Maria Doloresi eta Helenari, Jabierren herrigintzaren lekukotza jasotzen duen argazki bildumarekin osatutako oroigarri bana eskuratu zieten. Eskaintza horrekin bat egin zuten, 1972az geroztik Zegaman alkate kargua izan zuten Joxe Telleriak, Asun Mendizabalek, Juan Inazio Galdosek eta Edurne Albizuk, eta hauen udal korporazioetan zinegotzi kargua izan zutenek.

Horrela eman genituen gero, kultur-etxe aurrerainoko pausoak. Han, Izaskun Igoa kultur zinegotziak hartu zuen hitza eta Jabierren bizialdiko hainbat eta hainbat pasarte eta xehetasun gogorarazi zizkigun hitz bikainetan, emozioz – eta tarteka malkoz – edertuta. Segidan, Joseba Izagirre alkateak eta Helenak, JABIER OTAEGI KULTUR-ETXEA jartzen

duen plaka bistaratu zuten. Une horretan, herritarren bapateko erantzuna, txaloaldi luze eta bero bat izan zen.

Ordurarteko emozioen gorabeherak gutxi bailiran, Maria Doloresek, Jabierren amak astindu zituen berriro gure bihotzak bere hitzaldiarekin. Hunkigarriak izan ziren Jabierri luzatu zizkion hitzak. Hunkigarriak bere sentipenak azaltzeko erabili zituen espresioak. Hunkigarriak, Jabierren lanari jarribidea emateko luzatu zizkigun eskariak eta eman zizkigun animoak.

Dantzari txikien ekitaldiak eta Jabierren omenezko bertsoek osatu zuten ekitaldia. Iker Zubeldiak Jabierren omenez jarritako bi bertsoak, bertso-papera eskuan genuela, denok batera kantatu genituen, elizara bidean jarri aurretik.

Eguerdiko ordubateko kanpai joaldiarekin hasi ginen San Martin parrokia betetzen. Lepo bete ere. Julian Beloki aurkezle lanetan, Nekane Rodriguez organoa joz, Orkatz eta Orkatz-txiki abesbatzak, Orkatz abesbatzako abeslari

ohiak, Sant Sadurní d'Anoiako koruko kantariak, Osane Leitza zuzendari, Jose Inazio Ansorena txistuarekin, Tobera musika eskolako ikasle eta irakasleak hainbat musika-tresnarekin eta, tartean, Imanol Ortizek osatutako argazki bilduma ikusgarri bat Jabierren omenez... Amaieran, Helenaren esker oneko hitzak entzun genituen.

Ez zuen goizak besterik behar, bazkaltzera elkarrekin joan aurretik!

330 lagun elkartu ginen bazkaltzera pilotalekuan. Familiako ordezkaritza zabala ardatz. Eta amaiera, kantuz. Jabier bera hantxe balego bezala. Bai egon ere, 330 bazkaldarren gogo-bihotzetan.

Iker Zubeldiak bere bertsoetako batean zioen bezala:

“gure kriseilu bihurtzen zera oroitzapenen leizean, hamaika aldiz piztuko zera herritarren bihotzean”.

Halaxe joan zen eguna. Azaroaren 19a, Zegaman. Zure omenez, Jabier. Bejondeizula!



Eguerdi on guztioi:

Egun hunkigarria bizitzen ari gara. Dagoeneko pasa dira sei hilabete Jabierrek utzi gintuenetik eta oraindik ere bere presentzia oso hurbil dugu. Pertsonon artean gauza arrunta da bizitzak berarekin duen etena, heriotza alegia, gertutik sufritzea. Guztiok ditugu oso presente, sendiko, lagun edo ezagumen heriotzak eta noski gaur guztiok lehen planoan Jabier nahi dugu aintzat hartu.

Gutariko bakoitzak Jabierren irudi, iritzi eta oroitzapen ezberdinak izango ditugu ziurrenik. Baina guztiok bat etorriko gara Jabierrek bere bizitzako ardatz Herria, Aberria eta Familia izan dituela adierazten badugu. Gauza bera esan genezake musika eta irakaskuntzaren inguruan. Afizioa, pasio eta pasioa ofizio bilakatzeraino. Ikur hauek izan zituen Jabierrek patroiz bizitzan eta bere ibilbidea laburra izan bada ere iraupenean, emankorra izan da fruituetan.

Gizon konprometitua izan da Jabier. Oso umetatik izan zuen garbi besteen zerbitzura egon behar zuela eta bide horri ekin zion. Hain zuzen ere, 14 urte bete zituen arako hasi zen organoa jotzen batailoa jaso zuen elizan, Zegamako San Martinen, eta azken egunera arte jardun du horretan.

Zegamaren musikarekiko loturari, zaletasunari eta kulturari jarraipena eman zion eta 16 urte besterik ez zituela, Orkatz izena izango zuen abesbatza abiarazi zuen. 18 urterekin aldez, Joxe Larrea "Joxe Elizondo" musika eta txistu irakaslearen testigantzari jarraipena eman zion; txistu taldea berrantolatu eta indartuz.

1986 urtean hasi zen ordurarte "Iriarte edo Viana etxe" bezala ezagutzen zen eraikin hau Kultur etxe bezala lehen pausoak ematen eta, Jabi, kultur etxe honen lehen arnasaren partaide izan zen.

1987-88 ikasturtean sortu zen Tobera Musika Eskolako bultzatzaile nagusia izan da. Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloa udalerriak musika irakaskuntzaren bueltan elkartzen dituen eskolaren sorreran giltzarri izan zen Jabier.

Zegama eta Herrigintza ere bihotzean zaramatzen. 24 urte besterik ez

zituela lehenik eta 2003. urtetik aurrera gero, Udaleko zinegotzia auke-ratua izan zen. Kultura, Euskera eta Gazteria arloen ardura izan zuen zortzi urte horietan.

Errotik abertzale; lau haizetara zegamar. Aurtengo urtean utzi gaituen bere lagun-mina zen Jexus Ugartemendiak adierazten zuen moduan, aberria norberaren herritik eraikitzen hasten dela sinestu eta praktikan jarri zuena, izan da Jabier.

Adeitsua, eskuzabala, hiltun garbia eta etorri handikoa. Besteen alde lan egite horrek askotan bereak albo batean uztera eraman zezakeela uste arren, senar, aita, seme, anaia eta lagun eredugarria eta maitasun banatzaile izan da Jabier.

Danok dugu gogoan, aurtengo maiatzaren 7a. Bere eskenatokian, gehien gustatzen zitzaiona eginez eta bere maitasuna eta esker ona adieraziz agur egin zigun. Bere artaldea zuen Orkatz eta Coral Sant Sadurnikoak maitasunaren ereserkia ahotan genuela.

Eskertu beharrean nago zegamarren izenean Sant Sadurni D'Anoiatik etorri zareten abeslari, agintari eta herritarrei gure artean egoteagatik eta zuen maitasuna jasotzeagatik.

Volem agrair als integrants de la Coral Sant Sadurní, als representants institucionals i als amics de Jabier que habes vingut de la nostra població germana de Sant Sadurní.

Oroitzapenak bermatzen du Jabier gure artean dagoela eta horixe nahi dugu gaur egin. Bera oroitu, egindako lan oparua aitortu eta nola ez eskerrak eman, eskaini digun guztiarengatik. Bai. Bertaratu garenok Jabier presente izan nahi dugu eta xede hori betetzeko Zegamako Herriaren izenean gure kultur-Etxeari bere izena eman nahi diogu. Jabier Otaegi kultur-Etxea deituko diogu gaurtik aurrera, izenez gain bere izana ere gure artean hedada din.

Adiorik ez! Eskerrik asko Jabi!!!

Izaskun Igoak Irakurritakoa

Maria Dolores, Elena, Malen, Manu, Noa,

Jabiren senideok, denok,

ongiotorri udaletxe-atari honetara ere.

Udaletxeko arkupe-aurre honetan eskatu dizuegu geldialdi labur bat egiteko, kultur etxerainoko urratsa egin aurretik.

Zegamako kultur-etxeari Jabier Otaegiren izena ezarri aurretik.

Denok kabituko bagina, batzar aretara igo beharko genuke orain eta han oles egin Jabier Otaegi zinegotziari.

Bi legealdi egin zituen berak, zinegotzi, udaletxe honetan.

Lehenbizikoa 1991tik 1995era artekoa, Jesus Mari Larrea alkate zela.

Bigarrena, 2003tik 2007ra arte, hau, Juan Inazio Galdos alkate zuela.

Enborretik zetorkion ezpala.

Aita ere zinegotzi izan baitzen.

Ramon Otaegi Larreak 1983tik 1987ra arteko legealdia bete zuen udaletxe honetan zinegotzi lanetan. Eduardo Telleria zen orduan alkate.

Ez daukat zalantzarik, aitaren bizi-irakaspenak eragin zuzena izan zuela Jabirengan ere.

Honen herrimina eta herrigintza, bere kulturmina eta kulturgintza konpromiso politikoz jantzia egon da beti.

Eta konpromiso politikoz ez-ekiz, lanerako gaitasun personal handi batez, eta berezko buruzagitza eta jendetasun-ikutu nabarmen batez ere bai.

Batzar aretoan denontzako hadina lekuri ez-eta, udaletxepeko arkupe-aurre honetan jarri dugu topagunea.

Hemen elkartzeak ere badu Jabierreko loturarik.

Koruko taberna lanak zirela-eta zenbat egonaldi egin ote zuen hemen.

Herri eta lagunarteko bazkari eta afaritan, zenbat berriketa eta kantualdi, hementxe bertan.

Udaletxeko eginkizunak bukatu ondoren ere, zenbat eta zenbat egonaldi gure mundu kaxkar hau konpondu beharrean.

Berehala, kultur-etxeari emango diogu Jabiren izena.

Hala erabaki genuen 2016ko uztailearen 11 ko Udalbatzarrean, ahobatasunez, oraingo udala osatzen dugunok.

Jabi, besteak beste, kultur-etxeko batzordekide ere izan baitzen.

Hori eta beste hainbat gauza berehala entzungo ditugu Jabiren bizialdiko hainbat pasarte gogorazizko dizkigutenean.

Nik, gaurko udal taldea osatzen dugunon izenean, behin berritan, zera azpimarratu nahi dut zuen aurrean, ama, Elena, seme-alabak eta senide guztien aurrean.

Jabiren herrigintza eta kulturgintza, herri honekiko izan zuen konpromiso politikoa aitortu, goraiatu eta eskertu nahi izan ditugu gaur eta oraigarri batean bilduta jaso, horren lekukoa zeuen etxeetan izan dezazuen.

Herritarrok zor genion, zor diogu eta zor genizuen.

Oroigarria zeuen esku jarri aurretik, ordea, utzidazue, Iker Zubeldiaren baimenarekin, berehala elkarrekin kantatuko ditugun bi bertso hauek irakurtzen:

JOSEBA IZAGIRRE ALKATEAK IRAKURRITAKO AGIRIA

Hik bahun, Jabi, hitzez esaten zail den zerbaít. Bahuen hik halako zerbaít, Jabi, nola esan asmatu ezinekkoa. Jabi, halako zerbaít bahuen hik, esaten baino, estimatzen errazagoa. Hire doimuak bazian zerbaít, Jabi, bereizten hinduena. Halako doinu bat, Jabi, eure eurea, xamur ematen huena. Jabi, doinu bat bahuen hiregan, besteenganatzen hinduena. Utzi dizkiguk hik, Jabi, inoiz ahaztuko ez ditugun kontuak. Utzi diguk guri, hik Jabi, eta betirako, doinu hori, eure eurea. Eta hiri esker, Zegama Zegamago, geureago gaitut, eta, hiri esker, Zegama Zegamago, Jabi. Ama, senideak, emaztea, seme-alabak, lagunak, Jabi. Ama, senideak, emaztea, seme-alabak, lagunak, fededunak, adiskideak, ikasleak, politikariak, kantariak, euskaldunak, hango eta hemengo herritarrak... Hik bahun zerbaít... eta den-denak gaitut gaur, Jabi, inoiz baino eureago. Bejondeiala!

JULIAN BELOKIK EGINDAKO ETA IRAKURRITAKO AITORTZA

Jabier Otaegiri

Laino artetik zerura doa gure ahotsen norantza, guk nahi baino lehen gelditu baitzen erlojuaren orratza; expain ertzetan dastatu gendun begi humelduen gatza, Jabi, handia izan zen hemen utzi zenen lorratza, harrotasunak aterako du sartu zenigun arantza, eman zenigun ondarea da herrigintzaren ardatza, nola Tobera musika eskola eta Orkatz abesbatza, zuk sortu eta gure malkoez ureztatzen den baratza.

Halabeharrez ustekabeen adiskide bat galtzean sentimentuak loratzen dira egoeraren beltzean; ostiralero gurekin zaude kantari Kultur Etxean, organu hotsak salatu zaitu berriz igande goizean, txistularien goiz eresian zabiltza noraezean, koru txikiko ahots eztiak entzundako bakoitzean gure kriseilu bihurtzen zera oroitzapenen leizean, hamaika aldiz piztuko zera herritarren bihotzean.

Iker Zubeldia

Doimua: "Eguzkiak urtzen du han goian II", Maitalen Lujanbiok moldatua (Mikel Laboaren "Martxa baten lehen notak" abestian oinarritua).

Zegaman, 2016ko azaroaren 19an.

Jabier Otaegi Goia gogoan eta bihotzean

Oroitzapenak



Pello, Luis eta Arantxa Otaegi

Ez da erreza lerro bakan batzuetan anaiari buruz zerbait idaztea. Nola azaldu galeraren tamaina? Nola adierazi bizitako hainbat oroitzapen? ... Jabi guretzat dena nola adierazi? Zertzelada moduan bija anai zaharrenaren txikitako ondorengo oroitzapena: Monagilo ginela, hamaika urte inguruan, meza laguntzen geunden biok. Don Jose apaiza, meza nagusia, garai hartan hamar eta erdietan. Korua hasten da "Jaungoikoaren Bildotsa" lehenengo aldiz abesten. Tenorrak organoarekin. Azkeneko igandetan bezala Jabierrek ere ekiten dio, bere tiple abots ederrarekin. "Erruki Jauna" erantzuten du herriak. Bigarren aldiz ekiten dute korutik bi tenorrak, gure aitte haietako bat. Berriz ere Jabierrek aldaretik laguntzen duelarik. Honako honetan, bapatean, tenorrak isildu eta Jabi bakarrik uzten duten kantuan. Ez da ixiltzen eta herriak erantzuten du. Organoak hirugarren aldiz apaldiari hasiera ematen dio... tenorrak ixilik, Don Jose irriparrez, Jabierri begira. Jabi ere irriparrez, bere begirada bilurri biziarekin, ekiten dio: Jaungoikoaren bildotsa, Zuk kentzen dezu... eta bere ume ahots ederrak betetzen du eliza guztia. Eta bere begiradaz, ez dela isildu dio, atrebitu dela eta lortu duenaren barne poza adierazten digu. Apaizak eta herriak, bat egirik, bukatzen dugu: ... emaguzu bakea. Oraindik garbi garbi daukat Jabierrek jarri zuen aurpegi alai. Berak sarritan zion leloz bukatzen dugu: Izan bihotz! Maitasuna gailenduko da! Egun handirarte Jabi!!!



Joxerra, Pili, Maddi eta Garazi

Gogoratzen Manoloneko parranda berezi horietako batean esan nizuna? "Gutxien espero duzun unean iritsiko da hainbestetan amestu duzun pertsona hori eta une hori iristean, afari batera gonbidatuko zaitut. Eta... nork esango zuen pertsona hori nire ahizpa izango zenik? Baina, hasiera guztiak bezala ez ziran erraza izan e Jabi? Zenbat kezka, zenbat beldur. Harrezkero zenbat aldiz gogorarazi hizkidan nik behin esandako "ese temor de hallarme descubierto" Pablo Milanesen Yolanda abestiko hitz haiek. Beti izan zara trebea hitzei bizia ematen eta zuk duzun xarma hori lau haizetara zabaltzen. Haize zara osaba, ikusi ezin baina senti dezakegun haize. Eskerrik asko eskainitako maitasun eta irakatsitako guztiagatik. Eta nola ez, hemen utzi dizkiguzun altxor txikiengatik. Asko maite zaitugu.

Josetxo eta Manolo Arizkorreta

Hasieran bizilaguna, ezaguna, laguna, oso laguna... izan zen Jabi. Gerora arrebaran lagun handia, honen indar eta maitalea egin zen eta orduan "gure" egin genuen, "gure Jabi". Jabi egindakoaz ez dugu ezer berririk esango, baina guretzat izandakoaz... nola adierazi hitz gutxitan? Sentibera zen, hitza beteko zuen gizona, langilea, zuzena, bihotz handikoa, esku zabala, zintzoa, ardurasua eta honekin batera lagun artea oso gustokoa zuena, lasaia, patxadatsua, umoretsua, eta... askoz gehiago izan da Jabi. Gure Jabi.



Lutxi Urbizu

Musikarako zaletasunak elkartu gintuen Jabier eta ni. Don Jose Elizondo irakaslearekin ikasi genuen txistua jotzen eta melodiaz melodia hasi ginen musika maitatzen. Bideari jarraituz, Zegamako abesbatza sortzea erabaki genuen. Hasiera batean, Jabier Donostira joaten zen asteen zehar, irakasle-ikasketak burutzera. Ni ordea, Zegaman solfeoa ematen nuen eta aldi berean Jabierri abesbatzarekin laguntzen nion ahots desberdinen lanketarekin. Asteburua iristen zenean, guztiak elkartzen ginen eta landutako ahots guztiak batzen genituen Jabierren gidaritzapean. Elizkizunetan, herriko festetan eta Gabonetan kontzertuak ematen genituen, emanaldi guztiak esfortzu eta ilusio handiarekin prestatuz.

Nahiz eta musikarako pasio bera izan, denborarekin, gure bizitzek bide desberdinak hartu zituzten. Jabierrek Zegaman jarraitu zuen musikarekin eta nik etapa berri bati hasiera eman nion. Denboran atzera egin ezker, zalantzarik gabe Jabierren izaera azpimarratuko nuke. Beti sortzailea, beti langilea eta batez ere, beti musikarako pasioa helarazten zuena.

Kantua maitatuz joan zūtaigun Jabier, eta halaxe oroitzuko dugu beti. Hain maite zuen Orkatz Abesbatzaren melodia bakoitzean.



Olga Urbizu, Alizia Acha, Maite Gorrotxategi eta Marilu Azurmendi

Orkatz Abesbatzaren sorrerarekin hasi zen gure harremana Jabierrekin. Lutxik, Pellok eta Jabierrek abesbatza bat sortzeko ideia izan zuten. Beraien deiari erantzunez Elizako koruan kantari hasi ginen, guk 13-14 urte genituen (Jabierrek ere urte horiek zituen).

Pellok eta Lutxik utzi zutenean, Orkatz sortzeko ondorengo lanetan elkarrekin aritu ginen; elkarteak sortzen, zuzendaritzan laguntzen, gizonen abesbatza sortzen, Orkatz eta Orkatz Txiki sortzen, Italiako bidaia antolatzen, San Sadurniko elkartrukea antolatzen... Jende askok hartu genuen parte ondorengo urrats haietan. Gu ere ondoren, Orkatz uzten joan ginen, baina Jabierrek hor jarraitu du beti ilusioz beteta eta etengabeko lanean.

Horretan ari ginela, gure harremana musikatik haratago pasa zen. Gaztetako lagun talde izatera pasa ginen. Gaztetako lagungiroan elkarrekin momentu asko bizi izan genituen; han eta hemengo festak, afariak, ezkontzak e.a. Elkartzen ginenean dantzaren egitea gustoko zuen, kantuan aritzea zer esanik ez eta berrikeretan parte hartzea botatzea eta elkarriketa sakonak izatea ere asko gustatzen zitzaion. Lagungiroan oso alai izan zen Jabier.



Juan Inazio Galdos

Jabier Otaegi lehenik eta behin niretzako laguna zen. Gaztetatik lagunartean eta baita ere hainbat proiektuetan elkarrekin ibili ginen (Orkatz Abesbatza, Musika Eskolan, herrigintzan, ...) eta egia esan bizitzako atal askotan antzeko ikuspuntuak genituen.

Jabier hiztun handia zen, irudimentsua eta oso azkarra. Ahalmen handiko pertsona zen. Halaber, elkartzeko, akordioetara iristeko, arazoak leuntzeko balio berezia zuen Jabierrek.

Ideiak oso garbi zituen; baina garbi zuen ere aurrera egiteko besteen iritziak eta ikuspuntuak ere aintzat hartu behar zirela eta horretarako norberaren pentsamenduak eta nahiak ezin zitezkeela guztiz gauzatu. Esango nuke pertsona irekia zela, transbertsala.

Herrigintzan bere aportazioa zabala bezain aberatsa da. Orkatz Abesbatza erditu zuen, Tobera Musika Eskolaren bultzagile nagusia izan zen, Txistu Taldea sustatu zuen, kultur ekimen ezberdinetan ardatz izan zen, bi legealdietan udal-zinegotzia.....

Zegama eta Euskal Herria bihotzean zeramatzan eta bere pertsona Herriaren eta besteen zerbitzura jarri zuen. Ekintzaile nekaezina zen eta berarik gabeko Zegama ez da berdina izango.

Abenduaren 2an 50 urte beteko zituen. Uste dut bizitza ez dela justua izan ez berarekin, ez bere sendiarekin, ezta gurekin ere.

Bizipen ugari ditut Jabierrekin eta oroitzapen oso onak. Hutsune handia uzten dit eta espero dut dagoen lekutik lagun diezagula gure egunerokoa eta berak buruan zituen egitasmoak bide zuzenetik eramaten.



Juan Jose Garaiair

Gu abesten Jabierren gidaritzapean 1983-84 urtean edo hasi ginen, dozena bat lagun edo (Los Auténticos) izenarekin, denok gizonetzakoak eta emanaldiren bate edo egin genuen.

Gero Orkatzekin bat egin genuen eta geroztik, nik behintzat hor jarraitzen dut.

Jende asko ikusi det pasatzen korutik, eta egia esan, joandakoak itzuliko balira, esku zabalik eta gogotsu hartuko genituzke eta zer esanik ez, berriak edo behin ere ibili gabekoak etorriko balira ere bai.

Jabier, koruko arima eta indarra zen, baina hori horrela zen bere ondoan bere familiako laguntasuna eta bultzada izan zuelako eta horiei ere gure eskerra eta besarkada beroa.

Jabi, gure artean izango haiz beti!

Orain atal berri bat hasten dugu zuzendari berriarekin (Osane) eta berari gure laguntza osoa eskaini behar diogu, denok ondo joan gaitzen geure koruko ibilbidean. Adore eta aurrera !



Jesus Maria Larrea

Jabier Otaegi eta nire arteko lehen harremanak 1983. Urtean hasi ziren neu Kultur zinegotzia izanik eta Aitzkorpe dantza taldea zuzentzen nuen garaia izanik, bera txistulari modura partaide izan zelako eta ondoren 1985. urtean kultur-etxea egin zenean herriko kultur dinamika bertatik bideratu behar genuela erabaki genduelako.

Gure harremana oso estua izan zen urte haietan, eta izan da orain arte, politikarako grina zuenez, 1991tik 1995era kultur zinegotzia izan zen neurte alkatetzako legealdian eta nolabait aurrez pentsatuta geneukan helburuak betetzeko aukera ederra izan genuen.



Begoña Olarte

Jabi nire adinekoa izateaz gain, bizilagun izan dut txikitatik, gainera gu bion amak lagun taldekoak izanda, oso gertuko pertsona izan da betitik niretzat.

Txikitan ere makina bat jolas egin dugu elkarrekin, kalean, nire etxean nahiz Sakristauean. Zenbait oroitzapen goxo etortzen zaizkit burura. Adibidez, gogoratzen dut Axun, Florita eta Ixabel serora, elizarako olatak (formak) egiten nola aritzen ziren sukaldean eta gu sobratutako bazterrak jatera joaten ginen atzetik, edo pipi galtza luze telebistan ikusten ere, hamaika egonaldi goxo egina naiz Sakristauean, zenbait oroitzapen zoragarri...

Hala ere, Jabierrekin benetako harremana niretzat Orkatz Abesbatzaren inguruan hasi zen, oraindik oso gaztetxo ginen garai haietan, baina urte askotako harremana izan dugu abesbatzari esker, makina bat ordu asteroko saioetan, gida batzordeko bileretan, irteera ugari ere egin ditugu elkarrekin, Europa eta Espainiako zenbait txoko eta bazter Jabierrekin ezagutu eta gozatzeko ohorea izan dugu. Zenbait afari eta afalondo... zenbait kantu, dantza, barre... momentu onak benetan.

Orkatz Abesbatzaren sorrerako hazia, adin ezberdinetako kidez osatutako talde ausart batek erein zuen eta ernetako landareak (Orkatz Abesbatza) hogeita hamabost urte egin ditu. Horren sortzaile eta zaintzaile izan da Jabi. Berak, talde giro onari esker lan asko egin daitekeela irakatsi digu, eta guk Orkatz Abesbatzaren arima hori zaindiko dugu.

Eskerrik asko Jabi.



Bixente Ormazabal

Nik Jabierrekin bestek beste Musika Eskolako juntan topo egin nuen. Garai hartan, Musika Eskola egituratu nahi zen eta Donostiara joan ginen, Coronado abokatuarengana zein pauso eman behar genituen jakitera.

Bilera horretara, Jabier, Leontxio Garmendia eta ni joan ginen. Gogoan dut bilera iluntzeko 19:00etan genuela eta, bere despatxura sartu ginenean 20 bat lagun zeuden gure aurretik. Leontxiok zera esan zuen: "ez al deua hobe afaltzera joan eta geroago bilerara etortzea"? Gero Coronadorekin elkartu ginenean, guk Zegaman zegoen giro ona edo zegoen lagunarteko lankidetzari ari ginen hizketan Musika Eskola hori sortzeko eta berak esan zigun, hori dena oso ondo zegoela, horregatik egin behar zirela "paperak" ongi, lagunarteko lankidetzari hori bukatzen zenerako. Hamaika aldiz parre egin genuen, bidai hartan bizi eta ikasi genuenarekin.



Iker Gomez de Segura

Musika-eskolako lanaren jira-biran gorpuztu zen Jabierren eta bion arteko harremana. 2001ean Tobera Musika-eskolako zuzendari izateko hautatu nindutenean, tartean zen bera. Eta Toberaren gidaritzari neurria neronek hartu behar izan banion ere gero, Jabierrek esku luza izan zuen hasiera hartan guztian, trabatuta geratzen nintzenetarako.

Nahi bezainbeste lekutara eta nahi bezalako intentsitatez iristerik ez zuen gizona zen Jabier. Egunak motz zitzaizkion; hori seguru. Ondorioz, hobe berarekin harira joatea beti. Zorionez, biok ere, ez gara zurikeria-zale, eta eskertzen nuen bere zintotasuna. Gogoan dut duela lauzpabost urte nirekiko jarrera 'exigentea' izan zuen bolada. Ez nuen tamainako zorrotzasunaren zergatia ulertu, eta dezente nahasmena eragin zidan kontu hark. Azkenean, pare bat urte beranduago, aurrez aurre, zuzenean berari galdetuta izan nuen erantzuna: eskatutako guztia arduraz betetzen nuela ikusteak asetzen omen zuen! 30 urte atzerago Tobera sortzean irudikatu zutena baino musika-eskola nabarmen hobe omen zen gure hau. Halakoxea zen: bidegile, bide-erakusle eta sortzaile, baina baita akuilu, eskerroneko eta besteen lanari aitortza egitekoa ere. Eta halaxe joan zen niretzat: bosteko eman eta musika-eskolak 2016an antolatutako dantzari txiki egunagatik zorionak partitzen. Abesbatzaren eta musika-eskolaren artean egitekoa genuen bilera, ordea, aurreragorako utzi beharko dugu...



Arantza Albizu

Nik Jabierekin izan nuen lehen harremanetako bat, egungo kultur-etxea egiten ari zirela eta, gogoan dut udaletxean bilera bat nola izan genuen orduko Udal ordezkariekin, Eduardo Telleria zegoen alkate.

Gu gazteak ginen neurrian, errebeindikazioekin joan ginen udaletxera eta eskaeren artean, kultur-etxea guk antolatzea zen eta noski udalari dirua eskatzea guk erabakitzen genuenean erabiltzeko. Udaletxeokoez gazteoi antolaketa modu bat diseinatuzeko eskatu ziguten eta uda guztia kultur-etxearen erabilpena eta antolaketa diseinatzen pasatu genuen gazteok, irailen martxa eman genieziaion.

Kultur etxearen antolaketa diseinuan, kultur-etxea herriko elkarte eta eragile guztien bilgunea izan behar zela erabaki zen, horregatik 1986ko irailaren 26ko kultur-etxearen lehen aktan, gazteez gain herriko elkarte eta eragileak agertzen dira: Jose Larrea Dirintikoa eta Jesus Mari Ugartemendia izan ziren lehen bileran Udal ordezkari modura, Iñaki Albizu, Marilu Azurmendi, Luis Otaegi, Jabier Otaegi, Edurne Albizu, Iñaxi Urreaga, Demetrio Alustiza, Asun Lizarazu, Maite Rodrigo eta ni neu agertzen gara, Kasino, eskulanetako irakaslea, txistulari, abesbatza ... ko ordezkariak.

Orduan ere, Jabi izan genuen gure gidari eta negoziatzaile udal ordezkariaren aurrean, beste elkarteekin elkarlana herriarentzat ona zena ikusi zuena, eta udalak emandako dirua elkarren artean diru hura zertan gastatu behar genuen, adostasunera iristeko trebezia handia erakutsi zuena.

Orduz gero, lagunak izan gara, Orkatz abesbatzan ere topo egin genuen, biori zinegotzi izatera egokitu zitzaigun talde berean, nahiz eta legegaldi desberdinetan eta edozeini beti laguntzeko prest zegoen, egituratu gabe zegoen edozer egituratzeko eta antolatzeko zuen gaitasuna azpimarkatuko nuke eta pertsona bezala persona sentibera, leiola, zurikeriarik gabea eta watzapean zuen mezuak primeran definitzen du: "Izan bihotz" bihotz handiko pertsona. Eskerrik asko Jabi !



Xabier Ormazabal

Jabi gazte gazetetik, umetatik ezagutu nuen, alai eta hitzun, euskaldun, euskalzale, lagunaren lagun ordu txiki zale, eztabaidalari amorratu, ekintzaile, eta umore finekoa.

Ezagutu nuen senar, aitte, lagun, senide, seme eta suhi. Arantzazun, tabernetan (Gloria Fuentes), Elizan, etxeetan, kontuetan, kantuetan, gertukoa, gozo eta xamur sentitzen nuen, dut Jabi....



Maite Rodrigo

1981 aldera musikako instrumentuak ikasten ari ginela, Lutxi (kalekokoa), Peio eta Jabi (sakristaumeokoa), Karmen eta Pili Arizkorreta Baron, Olga Urbizu, Maite Gorrotxategi, Alizia Acha, Marilu Azurmendi, neu eta ez naiz gogoratzen zenbat pertsonen artean hasi ginen abesbatza bat sortzeko gaiarekin bueltaka. Hasieran, deialdia luzatu genuen eta askoz gehiago pentsatu gabe, ensaioekin hasi ginen, ategianean Lutxi gidari genuela eta asteburuan Jabi, honela eman genion sorrera, orain hain talde indartsua bihurtu den ORKATZ ABESBATZARI. Ez genuen inoiz pentsatuko guzti honek ze suposatuko zuen gerora.

Nik ordu arte Jabierekin ez nuen gehiegiko harremanik, baina guzti hau antolatzeko suposatu zigun ordu askotako bilera eta saioak egiten hastea eta ondoriozta zuen lagun taldea sortzea eta nire nerabezagoan bide-lagun izatea arlo askotan, Musikan batik bat, baina baita arlo pertsonalean ere.

Gauzak horrela, Jabi izan zen 1986 urtean, Orkatz Txikiko zuzendari izateko animatu ninduen eta gutxienean uste banuen ere, Tolosako Leidorren Abesbatzen lehiaketa batetan parte hartzeko gai ere izan ginen, ETBko abesbatzen lehiaketa batetan ere bai... Oso talde polita nuen, heraiakin nahiko erraz lan egiteko aukerakoa eta ni benetan eroso sentitzen nintzen. Hala ere, guzti hau niretzat reto pertsonal handia izan zen eta Jabiri zor diot eta eskertzen bihotz-bihotz, nirekin sinistu eta aukera eman zidalako.

1990-1991an ezkondu eta ama izatean, nire bizian aldaketa pertsonal handiaren aurrean, etapa hau bukatu nuen eta beste eginkizun batzuetan buru belarri sakontzea lehen helburu izan arren, abesbatza beti egon da nire bihotzean eta nola kontuak hogeita bost urteen ondoren Orkatzeko kide naiz berriro ere, atsegin handiz.

Musikaren zaletasuna ardatz eta taldearen indar bereziak erakarpenak badu nolabait zerikusia zurekin Jabi.



Bittorio Zabalgoeaskoa

Jabi eta biok elkar ezagutu ginen egunetik "filin" antzeko zerbait sortu zen gure artean. "Filin" hau azaltzeko hiru hitz erabiliko ditut: 1. "Lagunduz" agertu zidan bere egiazko lagun izatea.

2. Bere "Leialtasunak" ez zidan hutsik egin inoiz, eta honen ondorioz, "fidagarria" zen.

3. Pertsona guztienganako "errespetoa" zuena, nahiz eta desberdin pentsatu. "Dohain" haundia izan da Jabi ezagutzea eta bere ondoan gozatuz bizitzea. Eskerrik asko!



Nekane Rodriguez

Jabier txiki-txikitatik ezagutzen nuen. Abesbatzagaratik batez ere. Abesbatza txikian hasi eta ondoren abesbatza handian ere ibilia naiz urte dexentetan. Konfirmazio katekesi taldean ere elkarrekin ibili ginen eta hortik hasi nintzen organoa jotzen mezetan berarekin batera. Herrikoa izanik toki, leku eta saltsa desberdinetan topo egin dugu.

Jabitzaz esango nuke, gaztelaraz esaten den moduan "era un vividor de la vida" zentzurik onenean, hau da, egiten zuen guztia sentimendu handiz eta benetan biziz, eta egiten ari zena benetan sinestuz egiten zuela, momentu eta ekimen guztiak ehuneko ehunean, bizitzen zituela. Mila esker Jabi, erakutsitako guztiagarrik.



Julian Beloki

-BETI GOGOAN...

Lagun arteko ortordu, taberna ertzeko berriketaldi eta mundua konpontzeko gogoetaldi eta eztabaiden ondoan, bi kontu azpimarratu behar ditut Jabierekin izandako harremanetatik.

Lehenbiziko, Orkatz Abesbatzaren ingurukoak. Eguberri jaialdia antolatzen hasi zen urtetik gaur arte - Marina eta biok ezkondu ginen urtean, 1987ko abenduaren bostean ezkondu eta Gabonak Argentinako Corrientes herrian pasa genituelako -, behin bakarrik hutsegingo nuen jaialdiaren aurkezle eginkizunetan. Jabik, behin ere ez.

Eta jaialdi horiek utzi didaten oriotzapenik estimatuena, zera da: Jabi, Orkatz-txikiko ume eta neska-mutuez inguratuta ikustea, sakristian, kontzertua hasi aurreko giroa sortzen... Idatzizko hitz apur hauetan esaterik balego!

Musika kontuetatik aldendu gabe, bigarren kontatu nahi nukeena, nola lankidetzat hartu nuen Jabi Euskadi Irratiko zuzendari nintzela, domu santuen inguruan Tolosan egin ohi den Nazioarteko Koru Lehiaketako kontzertuetan aditu lanak egiteko, irratian ematen genituen laburpen-saio berezietan bere iritzia eman zezan.

Ai, Jabi! Gogoan al daukagun irratsaioa egitera presaka etorri, kotxea, giltza-txamarra-kartera eta guzti, Andia kalean itxi gabe utzi huen larunbat arratsalde hura? Goizaldeko ordubata aldera topatu ziaten kotxea Donostiako Udaltzaingean, dirurik eta gasolinarik gabe, baina txamarra, giltzak eta lapurrak barruan zirela. Diruak diru, ha'ze lasaitua hartu genian biok, Jabi!



Jose Ramon Agirre

Jabierrekin hainbat tokitan egin nuen topo. Joxe Telleria alkate zegoela ni zinegotzi nengoen eta orduan aritu ginen Viana Etxea edo egungo Jabber Otaegi kultur-etxea erosteko tratuan. Ez naiz oroitzen Joxe Telleriak sinatu zuen salerosketa edo Eduardo Telleriak egin zuen kultur-etxea martxan jarri zenean, Jabier han zegoen eta Jabier zen Zegaman araudiak egiten zituena, kultur-etxean edo edozein tokitan.

Kultur etxeko bilera haietan parte hartu nuen, eta uste dut oso ideia ona izan zela, kultura batzordea kultur-etxean lantzea, batzorde irekiak zirelako eta oso aberasgarria izan zen esperientzia hura. Garai haretan ere Jabier oso liatuta ibiltzen zen alde guztietan zebilen eta iritsi ezinda. Elkarte ezberdinak elkarrekin lan egiteko balio izan zuen kultur-etxea martxan jartzeak.

Bestalde, ni Guraso Elkartearen nengoela ere topo egin nuen Jabierrekin, bera zinegotzi baitzegoen. Eskola berriak egiteko ez dakit zenbat bileretan parte hartu genuen eta behin Gasteiza ere joan ginen bi guraso, bi irakasle eta Jabier. Isabel Celaa zegoen kontseilari eta ez gintuen ongi tratatu eta ez zegoela dirurik esan zigun. Guraso elkartetik eskutitz oso gogorra bidali genuen Jaurilaritzara, Jabierren oniritziarekin eta, gero askotan komentatzen genuen zein ongi etorri zen eskutitz hura: Ikastolei dirurik ez emateko errekurtsoren bat bazegoen ikusten denez, eta tribunalak diru hura ikastolei emateko agindu zuen, honela PSOEkoek, ikastolei zuzenean ez emateagatik Zegamako Aitxuri Herri Eskola emateko bideratu zuten eta, hori behin bahino gehiagotan aipatu genuen Jabierrek eta biok, "eskerrak eskutitz hura bidaltzeko erabakia hartu genuen!"



Eukén Galdos

Jabi eta biok txikitatik lagunak izan ginen. Gainera 5 urtez biok monagilo bezala elkarrekin aritu ginen. 13 urterekin utzi genion monagilo izateari eta gerora komentatu izan ohi genuen monagilo jantzia eta apaiza txiki utzi genituela (Don Clemente zegoen apaiz). Monagilo lana bikoteka egiten zen eta Jabi eta biok osatzen genuen bikotea; "Txatxe eta Matxe" deitzen ziguten. Lagun eta kide ikaragarria izan nuen mogagilo eta baita gero bizitzan zehar ere.

Niretzat, Jabierren doairik nagusia zera zen: momentu guztietan bazekiela zer egin eta baita zuen patxada eta tenplea eguneroko gauza eta arazoan aurrean.



Axun Etxegia

Berarekin lankidetzan ibili nintzen ni kultur etxeko batzordean. Gaur Jabier Otaegi kultur-etxea den honetan elkartzen ginen hilean behin. Sei zortzi bat lagun juntatzen ginen herriaren kultur egoeraz hitzegiteko. Jabierren buruan beti zegoen ohitura zaharrak berreskuratzearen gogoia. Horretarako beti gazteen beharra zegoela ere azpimarratzen zuen.

Gaur egun Gazte herexa badago, garai haietan nahiko hitz-aspertu egin genuelako dela esango nuke. Gaur egun dagoen gazte lekuaren oinarriak ere bertan egon ziren. Orduan hasi ginen lokala ordu batzuetan gazteen esku uzten, beraiek pelikulak ikusi, elkarrekin egon,... egin zezaten. Urte haietan, Goierriko gazte jendea Ordizian elkartzen zen, baina guretzat oso garrantzitsua zen herriko gazteak herrian geratzea. Egutegian bereziak ziren egunetan herria hutsik geratzen zela eta hori berreskuratzeko inauteriak berpiztu nahi izan genituen. Ordutik Zegaman inauteriak ostiral –mehe egunean ospatzen dira, gazteak elkartu, afaria egin eta dantzan eta parrandan bukatu. Baita urte zahar gaua ere, tabernekin lankidetzan iluntzeko pintxo potea, zozketak, baratxuri-zopa janak,...

Esan dezaket, Jabierren ondoan lan egitean asko ikasi nuela. Hizlari bikaina zen, jendea konbentzitzeko trebetasun bikaina izaten zuen, baita edozein ekintzetara motibatze ere. Hitzez bizitzen zuen guztia. Hori bai, azkeneko minutu arte ez genuen jakiten irtengo zen edo ez. Eta berak beti "lasaaaiiii, haure irtengo data". Hau esan eta lasai gelditzen ginela pentsatuko zuen gainera. Bilera orduaren hasiera jarrita izaten genuen, baina Jabi beti berandu ibiltzen zen. Hori bai, azaldu gabeko egunak esku batekin kontatzekoak izango dira. Bukaera ordua berriz....aspertu arte edo bertako argiak saltatzen zuen arte (truko batzuk asmatu genituen hori ekiditeko ere).

Mila esker Jabi erakutsitako guztiagatik.



Javi Collado

Jabierrekin nire aurreneko hartu-emanak korua sortzarekin batera izan zirela esango nuke.

Urteak pasatu ahala, koruko irakaslea zena laguna egin nuen. Bere emazte Helena, txiki-txikitatik izan dut adiskide (Helenita).

Anekdotak bezala, 2015eko udaran, Murgizelaira koadrilan afaltzera joan eta mundua konpondu nahian eguna argitu zitzaigun.

La oskua!!!

Ederki pasatu genuen!



Izaskun Igoia

Zazpi edo zortzi urte nituela hasi nintzen ni txistua ikasten. Jabi izan zen nire lehen irakaslea. Zineko gela handian ematen genituen gure klaseak. Hasierako egunetan nota bakarra joz pasatu genituela uste dut bi edo hiru aste.

Notak ikastearekin batera txistuaren hotsa maitatzen erakutsi zidan Jabik. Hala ere gurasoei ematen ziren informetan beti gauza bera esaten zien. Etxean gehiago jo beharko nuela. Esan egiten zien eta nik kasurik ez. Oso doinu ezagunak izaten ziren gehienak eta berehala etortzen zitzaidan ama edo amona notatxoren bat gaikeki egiten nuen. Horregatik ez nuen jotzen nik etxean. Hori ikusirik nire saioa baino ordu erdi lehenago joateko esaten zidan ondoko gelan aste horretako lezioa ikasteko.

Gaur egun bezala berehala hasten ginen kontzertuetan ikasitakoa erakusten. Nire lehenengo kontzertuan "Gona gorria" eta "Elizara joan" abestiak jo nituen. Nire urduritasunean Jabik berak lagundu zidan berak silbote doinuaz.

Hasiera hasieratik esaten zigun txistua kalean jotzeko instrumentu bat zela eta berehala hasi ginen txistu taldean jotzen. Berak nahi izaten zuen bezala estreinaldia Arantzazuko peregrinazioan ematen genion. Oso egun berezia zen egun hau txistularientzat, nik horrela bizi izaten nuen behintzat. Ordutik aurrera egin ditugu elkarrekin zenbait kalejira. Ni hasi nintzenez elkarrekin urte batzuk zeramatzaten taldea zegoen. Nire adin ingurukoak oso gutxi ginen baina giro ederra zegoen eta beste bat bezala sentitu nintzen.



Julian Iraola

Jabi niretzat "lagun mina" zen, kinto laguna, kuadrilakoa, txiki-txikitatik bide laguna. Arazoren bat nuen bakoitzean berarengana jotzen nuen aholku eske, eta arazoei beti beste ikuspuntu batetik begiratzen zien, beti zuen irteeraren bat, eta ezin zenean bere azken hitza "lasai" izaten zen. Hamaika momentu pasatu ditugu elkarrekin. Azken aldian larunbatero kafe bat hartzekotan geratu ginen eta bizi-moduak dituen argi-ilumez hitzegiten genuen. Parrandaren bat eta opor batzuk elkarrekin egindakoak gara. Gogoan ditut Asturiaskoak, Canarietara joan ginenekoak, gero abesbatzarekin Britainia, eta Lisboa ere bai... mutil aproposa zen lagunartean kontuak esan eta giro ezinhobean egoteko.

ZEGAMAKO ETXEEN IZENAK



Arrizalaganea

Zegamako Udalaren babesean, Burdinola elkarteak eta Dunba enpresak argitaratu duten mapa toponimiko berrian 812 toponimo edo leku-izen kokatu dira, ikerketa eta behaketa prozesu sakon baten ondoren. Kontuan izan dira, horretarako, hilabeteetan zehar jasotako informazioa (gaur egungoa eta historikoa) eta maparen ezaugarriak (eskala, tamaina, helburua). Hori horrela, esan behar da mapak ez duela egindako ikerketa guztia jaso, baina ondo islatzen duela egindako ahalegina. 812 leku-izen horietatik 263 baserrien, kaleko etxeen, ermiten, errota eta burdinola historikoen izenak dira. Hirutik bat. Pisu han-

dia dute kopuru osoa kontuan hartuta, eta pisu handia dute, halaber, etxeen izenek herritar askoren jatorriarekin eta bizipenekin lotura estua duten neurrian. Sakon eta arduraz aztertu beharreko kontua, dudarik gabe. Eta horrela egin dugu.

Etxeen izenak sarritan oso aspaldikoak dira, duela lau, bost mende edo lehenagoak. Eta ez bakarrik eraikin zaharrenak. Berrienak ere, parajearen izena hartu duten neurrian, izen zaharra erabiltzen dute. Denborarekin, ordea, hasierako izena desitxuratu egin ohi da eta gerta liteke oraingo izenak eta lehengo izenak ia antzik ere ez izatea: Sagastitxipi (zaharra) eta

Txaapitxi (berria) izenekin gertatzen den bezala. Horrekin lotuta, adierazi behar da Zegamako mapa toponimikoa egiteko gure eskura zegoen dokumentazio historiko eta bibliografikoa aztertu dugula, gaur egun ezagutzen den izena nondik datorren jakin ahal izateko. Azterketa hori, gero, aintzat hartu da izena normalizatzeko garaian, historiaren, hizkuntzaren eta ondarearen erakusle diren neurrian. Esan beharra dago, bestetik, Zegamako mapa toponimikoan hainbat etxe izen ez ditugula kokatu arrazoi desberdinengatik: kokagunea ezagutzen ez zelako (Larranburu, esaterako), etxearen lekuan orain beste etxebizitza bloke bat dagoelako (Etxeaundi, Ugarkalde, esaterako), azken hamarkadetan egin diren etxeen izenak kontuan hartu ez direlako (Ibai-ondo, Aizkorpe, esaterako) eta abar. Beraz, den denak ez daude.

Jarraian mapan kokatu diren etxe eta eraikinen izenak zerrendatuko ditugu, honako informazioarekin batera:

1. Izen normalizatua (Euskaltzaindiaren arauak kontuan hartuta)
2. Gaur egungo ahoskera
3. Toponimoa lehen aldiz aipatzen den urtea (arakatutako dokumentuetan, beti ere). Dena den, kontuan hartuz agiri zaharrenetan askotan ez dela etxearen deskribapenik egiten (goikoa den, behekoa, hemendikoa, handikoa...)



Egikolea

izen generikoa (Amiano, Aintia, Asurmendi...) lehen aldiz azaltzen den urtea ere aldamenean jarri dugu.

4. Historian zehar izan dituen adierakideak edo beste izen batzuk.

JOSE LUIS UGARTE
(*Burdinola elkarteko kidea*)

Izen normalizatua / egungo ahoskera / Lehengoz aipatzen den urtea / adierakideak

- AIERDI / aierdi / 1809
- AINTIERDIKOA / antxierdi, anttierdi / 1618 (Aintia 1516) / *Aintia de medio*
- AINTIETXEBERRI / antxietxeberri, anttietxeberri / 1788 (Aintia 1516)
- AINTIGOENA / antxigoena, anttigoena / 1773 (Aintia 1516) / *Aintia de suso, Aintia de arriba*
- AINTIMUÑO / antximuño, anttimuño / 1878 (Aintia 1516)
- AITAMARREN / atxamarren / 1402 / *Aitamarrenaundi*
- AIZPURU / aizpu / 1859
- ALTAMIRA / altami berrie / 1838 / *Altamiraberria*
- ALTAMIRAZAR / altami zarra / 1618 / *Altamira*
- ALTZIBARRAUNDI / altzibergoena, altziberrerdikoa / 1805 (Altzibar 1402) / *Altzibar mayor, Altzibargoena, Altzibarrerdikoa*
- ALTZIBARTXIKI / altziberbarrena / 1805 (Altzibar 1402) / *Altzibar menor, Altzibarbarrena, Olaetxe*
- ALTZITURRIAZPIKOA / altziturriazpikoa / 1775 (Altziturri 1516) / *Altziturri de yuso, Altziturri de abajo*
- ALTZITURRIGARAKOA / altziturrigarakoa / 1775 (Altziturri 1516) / *Altziturri de suso, Altziturri de arriba*
- ALTZOKARANGOENA /- / 1861 (Altzokaran parajea 1618) / *Altzokarangarakoa, Altzokaran de arriba*
- AMIANOBARRENA / amiñabarrena / 1663 (Amiano 1516) / *Amiano de yuso*
- AMIANOERDIKOA / amiñaerdi / 1929 (Amiano 1516)
- AMIANOERDIKOA ZAHARRA / amiñaerdi zarra / 1775 (Amiano 1516) / *Amianoerdikoa, Amiano de medio*
- AMIANOGOENA / amiñagoena / 1620 (Amiano 1516) / *Amiano de suso, Amiano de arriba*
- AMUNDARAIN / amondrain / 1788
- ANDIKOETXE / andikoetxe / 1910 / *Bentazarra*
- ANDUETZA / andutza / 1402 / *Anduetza mayor, Anduetzaandia, Anduetzamuñoa*
- ANTONENEA /- / 1775 / *Zaraguetanea*
- ANTONERROTA / antonerrota / 1859 / *Santa Krutz*
- APAZTEGI / apaztei / 1774
- ARAKAMAAZPIKOA / aakamaazpikoa / 1618 / *Arakama de yuso, Arakama de abajo*
- ARAKAMAERROTA / aakamaerrota / 1925



Erlotxo

- ARAKAMAGARAKOA / aakamagaakoa / 1817 / *Arakama de suso, Arakama de arriba*
- ARAKAMAGOITIA / aakamagoiti / 1618 / *Arakamagoitikoa*
- ARAKAMANEA / aakamane / 1806 / *Amiano-Arakama*
- ARANAETXE / anatxe
- ARANAETXE ZAHARRA / anatxe zarra / 1516 / *Aranaetxe, Arana*
- ARANTZADIZELAI / aantzazelai / 1618
- ARANTZADIZELAIONDO / aantzazelaiondo / 1878
- ARANTZAZAAZPIKOA / aantzazaazpikoa / 1618 (Arantzaza 1408) / *Arantzaza de yuso, Arantzaza de abajo, Arantzaza*
- ARANTZAZAGARAKOA / aantzazagaakoa / 1618 (Arantzaza 1408)
- ARBELTXO / arbeltxo / 1779 / *Arbelekoa*
- ARGAITZ / argaitz / 1516
- ARITZAGAETXE / atxatxe / 1784
- ARITZAUNDIBERRI / aizeaundiberri / 1910
- ARITZAUNDIZAR / aizeaundizar / 1811 / *Aritzaundi*
- ARIZTIBERRI / aiztiberri / 1997 / *Aritzalde*
- ARIZTIERDIKOA / aiztierdi / 1910 / *Zupietaberri*
- ARIZTIMUÑO / aiztimuño / 1402
- ARIZTIZAR / aiztizar / 1811 / *Arizti*
- ARREGIETXE / arretxe / 1762 (Igartua 1402) / *Igartubarrena*
- ARRETXE / arretxe / 1788 / *Arretxe mayor, Maximanea*
- ARRETXEBERRI / arretxeberri / 1859
- ARRETXETXIKI / joxearretxe / 1859 / *Bartolozurinea, Arretxe menor, Joxearretxe*
- ARRIETAAUNDI / arrittaaundi / 1788 (Arrieta 1402) / *Arrieta mayor*
- ARRIETAGARAKOA / arrittagaakoa / 1788 (Arrieta 1402) / *Arrieta de arriba*



Dirintibarrena

- ARRIETATXIKI / arrittatxiki / 1788 (Arrieta 1402) / *Arrieta menor, Arrieta de abajo*
- ARRIZABALAGANEA / artzalanee / 1758 (Asurmendi 1618) / *Arrizabalaga, Asurmendi-Arrizabalaga*
- ARTZANEA / artzane / 1984
- ASTREGI / astregi / 1609
- ASURMENDI ERROTAK / asemendi errotak / 1779 (Asurmendi 1618) / *Asurmendierrota, Asurmendi*
- ASURMENDIBARRENA / asemendibarrena / 1775 (Asurmendi 1618) / *Asurmendi de abajo, Asurmendibekoa*
- ASURMENDIGOENA / asemendigoena / 1618 (Asurmendi 1618) / *Asurmendi de suso*
- ASURMENDIMUÑO / muño / 1788 (Asurmendi 1618) / *Muñoa*
- AURTENOEA / artiola / 1493 / *Zatizabal*
- AZKONIETA / azkonitta / 1618
- AZTIÑA / aztiñe / 1618
- BARRENSORO / barrenso / 1618
- BENTA (BARRENALDEA) / benta / 1788 / *Bentaberria*
- BENTA (SANDRATI) /- / 1859
- BERASATEGI / berastei / 1618
- BERUNTZA / beuntze / 1402 / *Beruntzaandia, Beruntza mayor*
- BERUNTZASAGASTI / beunsaasti / 1402
- BERUNTZATXIKI / beuntxiki / 1788
- BOLITURRI / ugarte / 1815 / *Ugarte, Migelantonea*
- BONBANE / bonbane / 2016 (Untzurruntzaga 1516)
- BONBANE ZAHARRA /- / 1609 (Untzurruntzaga 1516) / *Bonbanea, Bonbaetxea, Untzurruntzaga de medio*
- BUENABISTA / buenabista / 1910
- DIRINTIBARRENA / dintibarrena / 1609 (Dirinti 1516) / *Dirinti de yuso, Dirinti de abajo*
- DIRINTIGARAKOA / dintigaakoa / 1788 (Dirinti 1516) / *Dirinti de arriba, Dirintigoikoa*
- EDURRETAKO AMA BIRJINA / edurretako amabirjiñe / 1638 / *Elurretako Ama, Nuestra Señora de Gesalbizar*
- EGIKOLEA / eikola / 1859
- EGILLEOR / eilleor / 1788
- EGURTZA / eurtze / 2016
- EGURTZA ZAHARRA / eurtze zarra / 1618
- EGUZKITZABERRI / euzkitzaberri / 1838
- EGUZKITZAZAR / euzkitzazar / 1618 / *Eguzkitza*
- ELIZALDE / perfektane / 1788 / *Elizalde mayor, Elizaldeandia*
- ELIZMUÑO /- / 1788 / *Muñotxo*
- ELIZMUÑOBERRI /- / 1833 / *Elizmuño nueva*
- ELIZMUÑOTXIKI /- / 1997
- ELORREGINEA / elorregiñe / 1770 (Gorrotxategi 1402) / *Elorregietxe, Elorregi, Gorrotxategietxea*
- ERLOTXO / erlotxo / 1859
- ERREMENTARI /- / 1776 / *Casa fragua*
- ERREMENTARIBERRI /- / 2016
- ERREROTXIKINEA / errerotxikine / 1997
- ERROTABERRI / errotaberri / 1620 / *Pantxikoerrot, Goenolea, Goenerrot*
- ERROTATXIKI / errotatxiki / 1997 (Altzibar 1402) / *Altzibar, Lojatxiki*
- ERROTAZAR / errotazar / 1497 / *Zatizalibar*
- ERTZILLA / ertzille / 1516
- ESPIRITUSANTU / espisantu, santiespiritu / 2016 / *Santi Spiritu*
- ESTANKOZARRA /- / 1997 / *Tabernaberri*
- ETXALUZZEA /- / 1779 / *Errekatzurinea*
- ETXEBERRIAZPIKOA / etxeberriazpikoa / 1775 (Etxeberri 1402) / *Etxeberria de abajo, Etxeberri-Bikuña, Bikuñaetxea*
- ETXEBERRIBARRENA / etxeberribarrena / 1775 (Etxeberri 1402)
- ETXEBERRIERDIKOA / etxeberrierdikoa / 1773 (Etxeberri 1402) / *Etxeberri de medio*
- ETXEBERRIGARAKOA / etxeberrigaakoa / 1788 (Etxeberri 1402) / *Etxeberrigoena, Etxeberri de arriba, Etxeberrigoitikoa, Arrondo-Etxetxuri*
- ETXEBERRITXO / etxeortxo / 1775 (Altziturri 1516)
- ETXETXURI / etxetxuri / 1997
- ETXEZURIETA / etxezurita / 1910
- EZPALEO / ezpaleo / 1878
- EZPALEOTXIKI / ezpaleotxiki / 1997
- GALBETEETXEA /- / 1401 / *Galbete, Frantxikotanea, Laxkorainena, Etxezar*
- GARAKOA / gaakoa / 1788 / *Garaialde, Garakalde*
- GAZTAÑADIBARRENA / gaztiñaribarrena / 1878 / *Andrakortaeta*

- GAZTAÑADIETXATXOA / etxatxo / 1618 / *Etxatxoa, Gaztañadi, Olarangaztañadi*
- GESALBERRI / gesalberri / 1859 / *Bentaiturri*
- GESALETXE / gesaletxe / 1859
- GOIKOETXALDE / goikoetxalde / 1609
- GOROSPE / goospe / 1618 (Gorospe 1402) / *Gorospe de suso, Gorospe menor, Gorospetxiki*
- GOROSPEOLA / goospela / 1618 (Gorospe 1402)
- GOROSPEOLAZAR /-/ 1606 (Gorospe 1402) / *Gorospeola, Gorospeerota, Gorospe*
- GORROTXATEGIBARRENA / gosateibarrena / 1620 (Gorrotxategi 1402) / *Gorrotxategi de yuso*
- GORROTXATEGIGOENA / gosateigoena / 1775 (Gorrotxategi 1402) / *Gorrotxategigoikoa*
- GUARDAETXEA /-/ 2016 / *Basetxea*
- IBARRETAZPIKOA / ibarretaazpikoa / 1778 (Ibarreta 1402) / *Ibarreta de abajo, Ibarreta de yuso*
- IBARRETAGARAKOA / ibarretagaakoa / 1774 (Ibarreta 1402) / *Ibarreta de suso, Ibarreta de arriba, Ibarretagoena*
- IBURUZTETA / iruzta / 1516
- IDIAKAITZERROTA / axañe / 1775 (Idiakaitz 1516) / *Idiakaitz, Idiakaitzetxerria, Etxeberri, Axariñekoa*
- IDIAKAIZBARRENA / ikaizbarrena / 1775 (Idiakaitz 1516) / *Idiakaitz de yuso, Idiakaitz mayor, Idiakaitzetxeandia, Txankanea*
- IDIAKAIZGOENA / ikaizgoena / 1618 (Idiakaitz 1516) / *Idiakaitz de suso, Idiakaitz menor*
- IDIAKAIZKO ZENTRALA / ikaizko zentrala / 2016
- IDITXO / iitxo / 1814 (Altzokaran parajea 1618) / *Altzokaranazpikoa, Altzokaran de abajo*
- IDITXOBERRI / iitxoberri / 1878 (Altzokaran parajea 1618)
- IGARTUGOENA / iartuen / 1782 (Igartua 1402) / *Igartua de arriba*
- ILURRIOS / ilurrios / 1878
- INTSAUSTI / intxausti / 1775 / *Intsaustizarra, Intsaustiberria*
- INTXAURRONDO / intxaurrondo / 1775
- INTXAURSOROETA / intxaurtxota / 1844
- IRIARTEZAR /-/ 1402 / *Iriarte*
- IRIGOIEN / irion / 1609 (Ondarra 1402)
- IRUETXETABARRENA / iruetxetabarrena / 1817 (Gesalbizar 1494) / *Iruetxetatxikia*
- IRUETXETAGOENA / iruetxetagoena / 1788 (Gesalbizar 1494) / *Iruetxetamuñoa, Iruetxetaandia*
- ITURBURUBARRENA / iturbubarrena / 1775 / *Iturburu de abajo*
- ITURBURUGOENA / iturbugoena / 1774 / *Iturburu de arriba, Iturburu de suso*
- ITURBURUTXIKI / iturbutxiki / 1768 / *Iturburu menor*
- ITURRALDEAUNDIA / iturralde / 1618 / *Iturralde mayor, Iturralde*
- ITURRALDETXIKI /-/ 1788 / *Iturralde*
- IZARRAGA / izarre / 1516





Gesalberri

- JARLEKU / jarleku / 1809
- JAUREGIERROTA / jauregi / 1788 / *Jauregi*
- KALEKOAUNDI / kalekoaundi / 1824 (Ondarra 1402) / *Kalekoa mayor*
- KALEKOBERRI / kalekoberrri / 1997 (Ondarra 1402)
- KALEKOERDIKOA / kalekoerdi / 1819 (Ondarra 1402) / *Kalekoa de Medio*
- KALEKOTXIKIA / kalekotxiki / 1859 (Ondarra 1402)
- KALTZADAMAKURRA / txakurtxulo / 1821 / *Txakurtxulo*
- KAMIÑEROETXEA / kamiñeroetxea / 2016 / *Mikeleteetxea, Aduana, Otsaurte-Administración*
- KAMINPE / kainpe / 1765
- KAPITANETXEA /-/ 1779 / *Konfiteria, Kapitanenea*
- KAXONEA / kaxone / 1837 / *Apaztegi, Bidarte*
- Koba / koa / 1795 (Leizaibar 1574) / *Kobakoa, Kobagoikoa, Kobaetxea*
- KOBABURU / koaburu / 1859 (Leizaibar 1574)
- KONTSEJUA / kontzejue / 1788 / *Casa concegil, Concejo*
- KURUTZESANTU / kurutzesantu / 1844 / *Santa Krutz, Zatizabalondoa*
- LABEKOA /-/ 1859
- LANDABE / landabe / 1837
- LANDAETA / landata / 1516
- LANDERRIARTU / landerritu / 1618
- LANGANEA / langane / 1910 / *Kamiñoondoa*
- LARREKOA / larreko / 1516 / *Larrea*
- LARTZAGUREN / lartxaun / 1402
- LATSAAUNDI / latse / 1788 / *Latsa mayor, Asurmendilatsa*
- LATSARERDIKOA /-/ 1859 / *Latsaberri*
- LATSATXIKI /-/ 1775 / *Latsa menor, Asurmendizabala*
- LEIZAIBAR / lizabier / 1574 / *Kobabekoa*
- LOKATZA / lokatza berri / 1997
- LOKATZAZAR / lokatza zar / 1620 / *Kortatxo, Kortatxomuñoa, Lokatza*
- LONJA / loja / 1409 / *Altzibar*
- MAITEGI / maittei / 1409
- MAIZKERRA / maxkarre / 1618
- MAZKIARANBARRENA / mazkianbarrena / 1775 (Mazkian 1402) / *Mazkian de yuso, Mazkian de abajo*
- MAZKIARANERDIKOA / mazkianerdi / 1788 (Mazkian 1402) / *Mazkian de medio*
- MAZKIARANGOENA / mazkiangoena / 1775 (Mazkian 1402) / *Mazkian de suso, Mazkiarangoikoa*
- MENDALDE / mendalde / 1430
- MENDIGARAETA / mendiata / 1618
- MOLEO / moleo / 1823 / *Asurmendiberria*
- MURGIA / murgi / 1516
- MURGIALDAI / murgialdai / 1402
- MUSASORO / musaso / 1516
- NAPARRITURRI / naparriturri / 1862
- OLABERRI / olaberri / 1777
- OLAONDO /-/ 1859
- OLARANBARRENA / olanbarrena / 1774 (Olaran 1402) / *Olaran de yuso, Olaran de abajo*
- OLARANERDIKOA / olanerdi / 1782 (Olaran 1402) / *Olaran de medio*
- OLARANGOENA / olangoena / 1609 (Olaran 1402) / *Olarangoitia, Olarangoitikoa, Olaran de arriba, Olaran de suso*
- OLATXO / olatxo / 1788
- OLLARANTXO / ollaantxo / 1615
- OLLARI / ollei / 1620
- ONDARGOENA / ondargoena / 1516 (Ondarra 1402)
- ONDARRETXE BERRI / ondarretxeberrri / 1402 (Ondarra 1402) / *Etxeberrria*
- ORMAZABALAZPIKOA / ormazalazpikoa / 1775 (Ormazabal 1402) / *Ormazabal de abajo, Ormazabal de yuso*
- ORMAZABALGARAKOA / ormazalgaakoa / 1817 (Ormazabal 1402) / *Ormazabal de arriba, Ormazabal de suso*
- OROSIÑETA / oosiñeta / 1859 / *Gesalberri*
- OSIÑA / osiñe / 1811 / *Osiñetaberria*
- OSPITALAUNDI / ospitalaundi / 1997 / *Ospitala, Etxeaundi*
- OSTATUA / ostatue / 1817
- OTSAURTEKO BENTA / otsaarteko benta / 1861 / *Benta*
- OTSAURTEKO ERMITA / otsaarteko ermita / 1969
- PADRENEA / padrene / 1788 (Igartua 1402) / *Padretxea*
- PAGOETA / sakona / 1859 / *Sakangoena, Sakona*

- PERUNEA / perune / 1910 (Altzokaran parajea 1618) / *Altzokaranberri, Altzokaran*
- PILARRETXE / pilarretxe / 1997 / *Zilarretxe*
- POSTAETXE / postaetxe / 1775 / *Casa de posta, Postaberria, Postaetxeta*
- POTENTENEA / potentene / 1788 (Gorrotxategi 1402) / *Potente*
- PRENDAETXEA / prendane / 1788 (Idiakaitz 1516) / *Aizkorpe*
- SAGASTIKOA / sagastikoa / 1609 / *Sagasti, Sagastiberri*
- SAGASTITXIPI / txapitxi / 1788
- SAKRISTAUNEA /- / 1997
- SAN BARTOLOME / san bartolome / 1772
- SAN MARTIN / san martin / 1773
- SAN PEDRO / san pedro / 1618
- SANDRATI / sandrati, san adrian / 1788
- SANJUANETXE / sanjuanetxe / 1788 (Idiakaitz 1516)
- SANTA AGEDA / santa ageda / 1788
- SEKRETARIOZARRANEA /- / 2016
- SORALUZE / soaluze / 1615
- TABERNAZAR /- / 1788 / *Taberna vieja*
- TELLERIA (ALTZIBAR) / telleri / 1997
- TELLERIBERRI / telleriberri / 1820 / *Tejería nueva*
- TELLERIANEA / telleriana / 2016
- TELLERIAZAR / tellerizar / 1788 / *Telleria, Tejería*
- TEOFILONEA / teofilona / 2016
- TOKI-ALAI
- TOKI-TXOKO /- / 1934
- TREN-GELTOKIA / estazioa / 1878 / *Estación, Estazioa*
- TXANBERONEA / txanberone / 1878 / *Osiñaberri*
- TXANBOLIÑENEA /- / 1997
- TXANTONENEA /- / 1997
- TXINTXONEA / txintxone / 1618 / *Soraluze*
- TXOKOLOENEA /- / 1997
- UBITARTE / uittarte / 1618
- UGARTEZAR / uartezar / 1402 / *Ugarte*
- UNTZURRUNTZAGABARRENA / untzurruntzaga / 1609 (Untzurruntzaga 1516) / *Untzurruntzaga de yuso, Untzurruntzagabekoa*
- UNTZURRUNTZAGAGOENA / goiene / 1618 (Untzurruntzaga 1516) / *Goiena, Untzurruntzaga de suso*
- UPAINTEGI / opaintei / 1779 (Gorrotxategi 1402)
- URGANEA / urgañ / 1861
- URRETANEA / urretane / 1776 (Untzurruntzaga 1516) / *Untzurruntzaga-Urreta, Untzurruntzaga nueva, Urretakoa*
- URTARAN / uztaan / 1859
- URZELAIETA / izulaita / 1618
- URZELAIETAZAR / izulaitazar / 1997
- VILLA SAN JOSE
- ZABALEKOA / zabalekoa / 1788 (Idiakaitz 1516)
- ZATIZABALAUNDI / zatizaalaundi / 1773 (Zatizabal 1618) / *Zatizabal mayor*
- ZATIZABALTXIKI / zatizaltxiki / 1770 (Zatizabal 1618) / *Zatizabal menor*
- ZATIZALIBAR / zatizalier / 1618
- ZESTERONEA /- / 1997
- ZOTALETXE /- / 1810
- ZOTALPE / zotalpe / 1844 / *Sakonaundia*
- ZUBIMUSU /- / 1842 / *Zubiondo*
- ZUFIAURRE / zupier / 1609 (Ondarra 1402)
- ZULOAGAERDIKOA / zulaerdi / 1788 (Zuloaga 1516) / *Zuloaga de medio*
- ZULOAGAGOENA / zulagoena / 1788 (Zuloaga 1516) / *Zuloaga de suso*
- ZULOAGAMUÑO / zulamuño / 1663 (Zuloaga 1516) / *Zuloagaandia, Zuloaga mayor*
- ZUPIETA / zupita / 1844 / *Zupietazarra*
- ZUPITXO / zupitxo / 1860 / *Apeaderoko etxea*
- ZUPITXOETA / zipitxota / 1997 / *Zupitxoetaberri*
- ZUPITXOETAZAR /- / 1859 / *Zupitxoeta*
- ZUPURRUTI / zupurti / 1574
- Arakatutako artxiboak eta bibliografia

Zegamako Udal Artxiboa

Gipuzkoako Artxibo Ataria

Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxiboa

Donostiako San Millango Artxiboa

Eusko Ikaskuntzaren “Fuentes documentales medievales del País Vasco” bilduma

Zegamako urtekariak

Zegamako monografiak eta ipuin bildumak, egile hauenak: *Isabel Elorza, Juan Carlos Mora, Angel Irigoras, Xabier Azurmendi, Pio Berasategi, Joxantonio Ormazabal*

1997ko Zegamako mapa toponimikoa

Lehen eta orain



Iturburuko bidea hautsita



Iturburuko bidea konponduta



Parke zaharra ezer gabe



Parke berria



Mahai zaharrak Aitamarrenen



Mahai berriak Aitamarenngo parkean



Aitamarenngo mahaiak aldatua



San Bartolomeko harmailak errejilak gabe



San Bartolomeko harmailak



San Bartolome harmailak errejilekin



Txaratxipiko bidea hautsita



Txaratxipiko bidea konponduta



Igerilekuko itxitura hautsita



Igerilekuko itxitura berria



Latsaneko bidea hautsita



Latsaneko bidea konponduta

ELKARRIZKETA

JOSE LUIS UGARTE GARRIDO



Zegamako udal mapa toponimikoaren egilea

Noiztik zabilta lan hauetan?

Urte asko dira, nire aisia orduetan, Goierri inguruko mendi eta basoetako ondarea aztertzen ari naizena. Gizakiak gure paisaian utzitako aztarnak irakurtzeko gogoak mugiarazten nau horretara, mendizaletasunarekin batera. Legazpi, Urretxu, Zumarraga, Aztiri, Aizpee, Mutiloako Ergoena miatu ditut urteetan, ingurune fisikoa ez ezik, haiekin lotutako artxibo historikoak ere bai. 2015. urtearen amaieran, mapa toponimikoa egin behar zelako aitzakiarekin, Zegamari heldu nion, lehendik ere zerbait aztertuta baneukan ere.

Zegamako parajeak metroz metro pasatu dituzu? bitxikeria asko aurkitu al dituzu?

Urteetako eskarmentuak erakutsita, hilabete gutxitan (baina intentsioetan) informazio asko atera dut Zegamaren gainean. Artxibo zaharrak arakatu ditut, mendiak hainbat aldiz zeharkatu ditut, herritar askorekin egon naiz... Aitortu behar dut asko asebate nauela lanak eta oso aberatsak izan direla joan-etorri guztiak. Baina horrekin batera, aitortu behar dut ez dudala gaia agortu, ez eta gutxiago ere. Nik

nahi baino gutxiago ibili naiz, epeak behartuta, eta hainbat leku, herritar... hobeto ezagutu gabe geratu naiz. Sentitzen dut hau esatea, baina Zegamako toponimia lana ez dago bukatuta, nik egindakoa beste proposamen bat besterik ez da, denborarekin zuzentzen eta osatzen joan beharko dena.

ZEGAMAKO MENDIA BERE IRAGAN ABERATSA ERAKUSTEN DUTEN AZTARNEZ BETETA DAGO

Zein inpresio utzi dizu gure udalerriak zer azpimarkatuko zenuke?

Nik Zegama aspalditik ezagutzen dut, azaletik bada ere, eta ikusi dut oso aldatuta. Hirigunea biziberrituta ikusi dudana bezala, baserri ingurua, berriz, gainbehera. Erori eta hustutako baserri eta saletxeak dozenaka eta dozenaka dira. Mendia utzita dago (beheko aldea, batez ere), bide zaharrak itxita, zabortege txikiak nonahi... Eta, aldi berean, iruditzen zait mendiak (orain hondatuta dagoen mendi horrek) potentzialitate handia duela zerbait zainduz gero. Kontuan iza-

nik Zegama mendizaleen bilgunea dela, gero eta gehiago, plangintza bat egitea beharrezkoa ikusten dut: baserriak eta saletxeak arau batzuen arabera berritzeko, bide zaharrak errekuperatzeko, estrata eta barrutietako harrizko paretei eusteko, landa eremua zaintzeko, ehiz postuak erregulatzeko... azken finean herriko iragan aberatsari eusteko eta herritarrak herriaz harro egoteko. Ez da erraza, hala ere; horretan ari diren udalerrri ereduak falta baititugu.

Zertarako balio digu toponimia hain sakon aztertzeak?

Toponimia lana egitea aitzakia bat izan da nerretzat Zegamako paisajea eta jendea hobeto ezagutzeko, eta horrekin batera, bere ondarea eta historia. Zegamako mendia bere iragan aberatsa erakusten duten aztarnez beteta dago (galtzada zaharrak, hilarriak, megalitoak, karobiak, teileriak, iturriak, ermitak, errotak, burdinolak, saletxeak, saroiak, paretak...) eta maparen bidez ondare hori bisibilizatu nahi izan dut. Esan beharrik ez dago, Zegamako izen zaharrek herriaren ondare eta historiarekin erabateko lotura dutela.

EDURNE ALBIZU

XXVI. EUROPAKO HISTORIAURREKO ARKU ETA BULTZAGAILU TIRO TXAPELKETA SAN ADRIAN – LEIZARRATEN

2016ko ekainaren 4 eta 5ean XXVI. Historiaurreko Arku eta Bultzagailu Tiro Txapelketa ospatu zen. Hau da Zegaman eta San Adrianen kirol eta kultur ekintza hau ospatzen den bigarren aldia. Aurten Euskal Herriko eta inguruko lurraldeetako (Errioxa, Asturias, Kantabria, Catalunya, Frantzia,...) 20 bat lagunek hartu dute parte.

SAN ADRIANGO TUNELAREN INDUSKETA

Uztailean indusketa arkeologikoen X. Ekinaldia egin zen San Adriango Tunelean, bertan Zegamako Udala eta biztanleak biziki parte hartzen duelarik.

Lanak Paleolito garaiko datu berriak ekarri dituzte (14.000 urte gutxi gorabehera), garaiko biztan-

leen tresna eta faunaren hezur ugari jasoz (oreinak, ahuntzak).

Era berean baieztatu ahal izan da Erdi Aroko okupazio maila garrantzitsua (X-XI. mendeak gutxi gorabehera, eta bereziki Erromatar garaiarekin lotutako bizilekuen zolata batzuk (Igo mendea K.a.-III. mendea K.o.).



Aurtengo indusketa lanak



Txanponak agertu dira indusketa lanetan

Zegamako Euskara Plana



MATRIKULAZIO KANPAINA

Irailaren 8tik 20ra euskara ikasteko matrikulazio kanpaina ireki genuen. Hiru ikastaro mota eskaini ziren:

- Jubilatuentzat ikastaroak
- Etorkinentzat ikastaroak
- Euskalduntze ikastaroak

Euskalduntzeko 4 pertsonak eman zuten izena edo interesatu ziren baina talderik ez zenez sortu, Goierriko beste euskaltegietara bideratu ziren, beraien ikasmailatan matrikulatu ahal izateko.

EUSKARA IKASTEN DUTEN HERRITARRENTZAT DIRU-LAGUNTZAK

2015-2016 ikasturtean euskara ikasten aritu diren eta oinarrizko diren bi baldintzak betetzen zituzten 6 herritarrek egin zuten diru-laguntza eskaera. Ondorioz, 3.643,50 € banatu da diru

laguntzetan. Hauetako bati hila-bete batzuk falta zitzaizkion urte bete herrian erroldatua izateko baina, hala ere Gobernu batzarrak, ordaintzea erabaki du laguntza.

EGUTEGIAK

Aurten ere, 2017ko patrikako egutegia banatuko da herritarren artean. Egutegi honetan herriko eta eskualdeko telefono eta helbide elektronikoko interesgarrienak jartzen ditugu leku berean eskura izan ditzagun. Aurten euskararen erabilera sustatu nahi duen txan-txangorria izango da eramango duen logoa.

EUSKARA BATZORDEA LANEAN

Euskara Batzordea ere lanean ari da, lehen aipatutako ikastaroak antolatzeaz gain, Euskara Eguna ere antolatu zuen abenduaren 3rako." Kantu eta Kontu "saioa

eman zen herriko ludotekan euskara eguna ospatzeko.

ARIAN METODOA

Bestalde, herritarrei euskara ikasteko aukera erreztu asmoz, eta jakinik arrazoi batengatik edo bestearengatik askorentzat herri-tik irtetzea zaila dela, Euskara Batzordean Elkar etxeko ARIAN euskara ikasteko metodoa erostea erabaki da eta udal liburutegian jartzea edozein herritarren esku, bakoitzak bere gisa euskara ikasteko modua izan dezan.

ARIAN metodoa, Europako erreferentzia markoaren barnean dago txertatuta eta beste edozein hizkuntzetan dauden maila beretan dago mailakatua.

A1.1, A1.2, B1.1 B1.2 ETA B2.A B2.2.



Aitxuri Herri Eskolako haurrek egin zuten kartel ederra



Gizarte ekimenak

JUBILATU ETA PENTSIODUNENTZAT SOIN HEZIKETA IKASTAROA

Jubilatu eta pentsiodunentzat bideratua dagoen patxaran ariketa egiteko ikastaroa da. Astean bi egunetan biltzen dira, astearte eta ostegunetan eta Joakin Elkoro ordiziarra da ikastaroaren arduraduna.

Urtez urte, ikasle ugari biltzen ditu, 2015-2016 ikastaroan 23 pertsonak parte hartu zuten, 2016-2017 ikasturtean ere 23 lagun elkartu dira, talde orekatua benetan.

JUBILATUEN EGUNA

Uztailaren 10ean Udalak antolatuturiko Adinekoen Eguna ospatu zen. Urtero bezala, eguna txistularien kalejirarekin hasi zen; ondoren herriko Parrokian dantzarien arku ederra pasatuaz Meza entzun ahal izan zen, bertan Orkatz abesbatzaren kantuak lagun izan zirelarik. Meza entzun ondoren herriko Ostatu jatetxean bazkari oparoa dastatu ahal izan zen, eta bazkalostean sari banaketa izan zen.

Aurten ere, eguraldiak lagun, Ostatuan bertan bazkaria egiteko aukera izan zen.

ETXEBIZITZA BABESTUA

2005eko urriaren 10ean Zegamako lehen onuradunarekin jarri zen martxan zerbitzu hau.

Etxebizitzako onuradun finkoak bi gizonetara baina, momentu honetan, eta aldi baterako beste gizon bat eta emakume bat ere badaude.

Bertan bizi ahal izateko, onuradun bakoitzak tasa bat ordaindu behar izaten du eta zerbitzu guztiekien aurtengo tasa honen zenbatekoa, hilean 715,72 €koa izan da. Tasa hau, hala ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuen balorazio baten ondoren zehaztuko da.

Ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu: Etxearen garbiketa, arropa garbiketa eta plantxa, Katering zerbitzua (otorduak), beharra izanez gero, mediku tratamenduen gestio eta kontrola, administrari lanak, autonomia eta laguntza beharrean gainbegiratzea.

EGUNEKO ZENTROA

Zegamako Eguneko Zentroa 2014 urrian 10 urteko istorioa bete zuen zerbitzua da. Gaur egun, 8 plaza publiko onartuak dituen zentroa da eta plaza guztiak bete izan ditugun arren, 2016 urtean zehar zazpi laguneko taldea izan dugu, urtean zehar bi baja izan ditugu eta bi alta guztira, beraz urtea zazpi pertsonekin bukatu da.

Aurten izan ditugun onuradunetik bost zegamarrak dira, zeraindar bat eta mutiloak bat eta bi segurar.

GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA

Gaur egungo krisia dela eta, gizartearen mailarik xumeenen beharrak direla eta laguntzak areagotzeko herri mailan egiten den Elikagaien banaketa da. Krisialdi honetan, gaizki pasatzen ari diren familiak asko daude gure inguruan eta gutxieneko beharra, hau da, elikadura, asetzea litzateke helburua.

Helburu horrekin, Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Caritasek elkar lanean, elikagai banaketa sistema bat antolatu zen Zegaman 2014an, bi urte hauetan zenbat familiei eman zaielarik laguntza hau.

Urtean zehar hileko lehen asteazkenean, herriko Caritasko bolondres talde baten bidez, behar duen edozein familia edo pertsonak jaso ahal du jan lote bat.

Jan lotea lortu ahal izateko, Udaleko Gizarte Zerbitzuen balorazio bat egitea derrigorrezkoa da eta diskrezioz saiatzen da aurrera eramatea.

Edozein herritar beharrean egon ezker, beraz, dudarik gabe Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eskaera egitea animatzen da.




Jubilatuena taldea, soinketa gelan Joakin Elkororekin

XVI. Aizkorriko Lagunen Eguna



Ohikoa denez, uztailaren lehen igandean ospatu genuen aurten ere, Aizkorriko Lagunen Eguna Zegaman, uztailaren 3an, hain zuzen ere. Lehen taldea, goizeko 6:30etan abiatu zen Zegamako Maiora plazatik eta gidari Amezti Mendi Elkartekoak izan zituzten.

7:30etan, beste irteera bat egin zen San Adriandik, Aldaolako aparkalekutik abiatuta, hau ere Amezti Mendi Elkarteko gidaritzapean, eta bi irteeretako mendizaleek goizeko 9:30etan egin zuten topo Aizkorriko tontorrean. Aurten ere, bi taldeak bat eginik argazki bat atera zuten ibilaldi honen lekukoa utzi duena eta herriratz abiatu ziren, egurdian plazan Euskal Parrilako lagunek bertaratzen ziren guztientzat prestatzen ari ziren Eusko Labeldun hegaluzea eta sagardo dastatzeko asmotan. Mendi irteeran parte hartzen duen guztiei udalak bi tike oparitzen dizkie, gosari modura, hegaluzea dasta dezaten. Hegaluze banaketarako herriko bost elkarte gastronomietako bazkideak izan ziren aurten ere paregabeko laguntza emanaz, hegaluzearen prestaketa eta banaketan. Mila esker guztioi.



San Adriandik abiatu zen talde bat



Aizkorri bi taldeetako partaideek topo egin zuten

Zegamako Haur, Nerabe eta gazteen ekimenak eta parte hartzea Sustatzeko zerbitzua

Zortzi urte dira jada Zegamako Udalean gazteria atala jorratzen ari garela. Gaztematika, hau da, Gipuzkoako Haurren, Nerabeen eta Gazteen Sustapenerako Sistema, egonkortzen doa Gipuzkoa mailan eta zegamarrok gazteria arloan oinarri sendo bat konpartitzen dugu gainontzeko Gipuzkoako beste herriekin batera.

GAZTEEN ATALA

Gaztelektik adinagatik irtendako gazteak Gazte Herexa elkartearen inplikatu daitezten sustatzea da helburuetako bat, herriko eragile aktibo izan daitezten ahalbidetuz. Bestalde, Gazte Herexa elkartearekin koordinazio espazioak mantendu dira eta elkarlana bultzatu. Azkenik, herriko gazteek garatu nahi dituzten proiektuak gauzatu ahal izateko bitartekoak eskuragarri jartzen dira zerbitzu honetatik.

NERABEEN ATALA

Kultur-etxean dagoen Bele Gazte Gaztelekuak 12-18 urte bitarteko nerabeentzako zerbitzua eskaintzen du. Astean hamar orduz egoten da irekita nerabeen zerbitzurako, astelehen, asteazken, ostiral eta larunbatetan. Beraien proposa-

menak aintzakotzat hartuta antolatzen dira ekintzak. Aurten egindako jarduerak asko izan dira eta batzuk aipatzekotan segidakoak esango ditugu; sukaldaritza tailerrak, irteerak, eskulanak, merienda eta afariak, pelikula emanaldiak, kirolak.... Jarduerak eta metodologia arloak ebaluatzeko, hiru hilero suspertzailea nerabeekin biltzen da, hobekuntza proposamenak hurrengo hiruhilean landuz.

2016 urtean 12 urte betetzen dituzten nerabeei ongi-etorri festa egin zitzaizen urtarrilean, guztira hamasei neska-mutil izan direlarik aurtengo gaztelekuko partaide berriak. Gogoz eta irrikaz eman diote hasiera gaztelekuko ikasturte berriari.

2016-2017 ikasturteko helburu eta ekimenen berri zuzenean emateko, nerabeen gurasoekin aurkezpen bilera bat burutu zen urrian.

Jorratzen aritu garen beste alderdi bat berdintasunaren alorra izan da, nerabeekin hezkidetza landu da Beldur Barik Lehiaketan parte hartuz. Urte guztian zehar, euskara sustatu da baita ere zerbitzutik.

HAURREN ATALA

Joan den urtean bezala, aurten ere jolas txokoa irekita egon da frontoiko gelan 0-11 urte bitarteko haurrentzat, astelehenetik ostiralera 16:30etatik 18:30etara.

Uda garaian, Udaleku irekiak antolatzeaz gain, bi urteko haurrentzat udako haur txokoa antolatu da lehenengoz aurten. Azken eskaintza hau antolatzearen arrazoia, guraso batzuk egindako eskaera izan da. 2015eko irailan, bi urteko haurren gurasoek eskaera bat egin zuten udalean haurtzako zerbitzu bat eskaini zezaten. Horrela, udala gurasoekin bildu eta beraien beharrak eta nahiak ezagutu ondoren, zerbitzua eskaintzea adostu zuten. Zerbitzu berri honen funtzionamendua ona izan da, guztira bi urteko zortzi haurrek parte hartu dutelarik eskaintzan eta talde honekin hezitzaile lanetan Oihana Arizkorreta aritu da.

Udako haur txokoa eskaini den data berdinetan, ekainak 24tik uztailak 29ra udaleku irekiak antolatu dira 3-11 urte bitarteko haurrentzat. Guztira 92 haur aritu dira udalekuetako eskaintzaz gozatzen eta beraiekin bederatzi hezitzaile;



Udalekuetan San Fermin eguna ospatzen



2016ko gaztelekuko partaide berriak



Gaztelekuan fruta koktelak egiten



Udako oporretan Oria erreka garbitzen



Eskulan ginkanako txapeldunak



Olaberriako karting zirkuitora irteera



Isabel Elorzaren gidaritzapean San Pedrotik San Adriango ibilbidea egiten



Instant1ean lehiaketan parte hartzen Zegamako nerabeak

Nelson Bautista, Josune Azurmendi, Sara Irastorza, Bakarne Larrea, Maddi Ormazabal, Xabier Azurmendi, Garazi Ormazabal, Nerea Galdos eta Iosune Zabaleta. Bost astetan ekintza ugari burutu dituzte eta hurrek, gurasoek, hezitzaileek eta udalak egindako balorazioak oso onak izan dira.

KOORDINAZIO SISTEMA

Koordinazio sistema garatu eta egonkorzea eta komunitatean txertatutako zerbitzua izateko helburuarekin, Gazteria Batzordeko bilerak egiten jarraitu dugu aurten ere. Bertan, herri mailako haur, nerabe eta gazte eragileek

eta udal mailan gazteria gaiekin lotura duten sustatzaileek parte hartu dute.

Bestalde, Zegamako Udaleko Gazteria Departamentuko Zinegotziaren, Izaskun Igoaren eta Ainitze Azurmendi saileko suspertzailearen artean hitzartutako jarraipen bileren maiztasuna bi hilean behinekoa izan da.

LURRALDE MAILAKO SAREA

Gipuzkoa mailako gazteria saileko sarean, Zegamako Udaleko Gazteria Suspertzaileak parte hartu du; alde batetik haur, nerabe eta gazteen parte hartze zerbitzuaren

lan taldean. Bestetik lurralde mailako Foro Teknikoetan eta azkenik gazteriako aplikazio informatikoa elikatzen jarraitu du herriko haur, nerabe eta gazteen datuak sartuz.

KOMUNIKAZIOKO EKINTZAK

Herritarrei zerbitzua ikusgarri egiteko eta ezagutarazteko helburuarekin, udaleko web orri berria erabili da, bertan haur, nerabe eta gazteen saileko informazioa sartuz. Bestalde, oporraldietako ekintzak bereziak eta ikasturteko ekintzak zabaltzeko eta haur, nerabe eta gazteetara iristeko, sare sozialei etekina atera zaie.

Anduetza Parketxea

Ekimen ugari antolatzen dira Anduetza parketxean

Anduetza Parketxeak Gipuzkoako Parketxe Sarean bere bidea egiten jarraitzen du eta urtez urte, bisitari kopurua igotzen ari da. Aurten, 6.500 bisitarien langa gainditu da.

Anduetza Parketxeak, Aizkorri-Aratz natura parkearen interpretazio zentroa izanik, helburu nagusizat ingurumen hezkuntza du. Oinarritzko arreta zerbitzuaren bidez, bertara etortzen diren guztiei parketxea erakutsi eta behar duten informazioa ematen diegu.

Horretaz gain, urtean zehar jarduerak eta programa ugari antolatzen ditugu gure eskaintza aberasteko eta bisitari gehiago erakartzeko. Ikastetxe eta taldeei jarduerak bereziak eskaintzen dizkiegu eta beste jarduerak asko herritar guztiei zuzenduak izaten dira.



Keparen okindegian, primeran pasatu zuten

Aurten egindako jarduerak nagusien errepasoak egingo dugu.

Urtarrilean Gaztagintzaren sekretuak jarduerak arrakasta handia izan zuten eta Gipuzkoa osoko familia ugari gerturatu ziren.

Otsailean Gema Arrugaetak Artzainak liburua aurkeztu zuten eta artzaintzaren inguruko mahai-ingurua antolatu genuen.

Apirilean txoriak kantuz ezagutzeko irteera egin genuen Mikel Olano adituaren gidaritzapean.

Maiatzean Aizkorriko narrasti eta anfibioak ezagutzeko ibilaldia egin genuen Ander Izagirre adituarekin. Natur ingurunearen erabileraren inguruko mahai-ingurua ere antolatu genuen Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren egitarauaren barruan.

Ekainean Historiaurreko tiro eta arku txapelketan Europa osoko bisitariak izan ziren. Bestalde, Oltzako saroira irteera ederra egin genuen Urbiako parajearen artzainen lanbidera gerturatuz, Mari Paz Oiarbide artzainaren laguntzaz.

Uztailean, Donostiako Arrano etxean sendatutako gautxoriak askatu genituen, aurrez hitzaldia emanda.

Uztailean ere DSS2016-ko BIDEA ekimeneko bi mendi-etapek Otzaurte izan zuten helmuga eta abiapuntu. Gidaritza lanetan eta dinamizazio jarduerak antolatzen parte hartu genuen.



Keparen okindegian opilak egiten



Marimundukoren ipuin harrigarriak entzun genituen



Mikel Urdangarinek kontzertu bikaina eman zuen

Urtero legez, San Adriango igarobideko indusketak erakusteko txangoak ere egin genituen.

Irailean Akabuko martxea dokumentalaren aurkezpenak arrakasta itzela izan zuen.

Urrian, saguzarrak hurbiletik ikusteko gau-irteera egin genuen eta Ehizaren feriaren barne, animalien argazki erakusketa jarri genuen parketxean.

Azaroan Zegamako eta Partzuegoko sarioei buruz hitzaldi interesgarria eskaini zuen Luis Mari Zalduek.

Aurreko udazkenean bezala, Zur eta Lur kultur programa antola-

tu dugu Udalarekin elkarlanean. Mikel Urdangarinen kontzertua, Marimundukoren ipuin harrigarriak eta Olentzeroren bisita eta talo tailerra egin dira.

Ekitaldi horiek guztiak arrakasta handia izan dute eta bisitari ugari erakarri ditu. Hala ere, azpimarratzekoa eta eskertzekoa da bihotzez zegamatarren harrera ona eta parte-hartze ikaragarria.

Zegaman antolatzen diren ekitaldi nagusietan ere parte hartzen dugu, hala nola: Mendi Maratoia, San Martin Feria, Erlezain Eguna...

Azkenik, esan, Anduetza Parketxearen ekimenez Zegamako Aitxuri Herri Eskolakoek hainbat

jarduera burutu dituztela. Urte hasieran, Zegamako okindegia bisitatu zuten. Halaber, Parketxearen inguruan 2015ean landatu ziren 35 zuhaitz singular eta berezien azterketari jarraipena eman diete Aitxuri eskolako haur eta gazte txoek. Ikasleek beraien zuhaitzak nola hazi diren ikusi ahal izan dute, hauek neurtuz, aztertuz eta argazkiak ateraz, besteak beste. Zuhaitz hauek eta heuri buruzko informazioa jasotzen duten karteltxoak babeste aldera, Anduetza Parketxearen eta Zegamako Udalaren ekimenez, itxiturak egin dira zuhaitz bakoitzaren inguruan egurrezko zutabe eta sokez eta kalte-tutako karteltxoak ere berritu dira.



Anduetzan dauden zuhaitzen jarraipena egiten



Zuhaitzak urtero neurtzen dituzte haurrek

Tradizioak

GABONAK

Urte amaitzear dela iristen zaizkigu Gabonak. Xarma berezia duten egunak dira hauek heldu nahiz haurrengan. Oporrak askorentzat, ilusioa, emozioa... denak elkartzen dira eta horri olentzeroren etorrera gehitu behar zaio. A ze pagotxa!!!

Egunik aipagarriena abenduaren 24a izan ohi da. Goizean zehar Aitxuri Herri Eskolako haurrak eta gurasoak irteten dira herriko kaleak kantuz betetzera. Baserritarrez jantzi eta herrian zehar gabon abestiekin alaitzen dituzte kaleak. Egun preziatua da batez ere haurrentzat, Olentzeroren etorrera irrikaz bizi baitute. Hala ere, eskolan, oporrak hartu aurretik, Olentzerori eta Mari Domingiri harrera egiteko beta izaten dute haurrek, beraien lehen eskaerak eginez.

Arratsaldeko hiruetatik aurrera, Gazte Herexakoen txanda izaten da egun honetan. Giro onean, Ostatuan bazkaria egin ondoren, baserriz-baserrri ibiltzen dira gabon abestiak kantatuz, iluntzerako herri-gunera iritsiz. Arratsaldeko seietan, Olanan auzotik, herritarrek irteten dira kantuan Olentzerorekin batera eta herriko txoko eta auzo desberdinetan abestu ondoren, Ostatu aurrean esaten zaio agur Olentzerori.

Errege bezperan ere, urtarrilak 5ean, errege magoei ongi etorria egiten zaie herrian. Maxkarraldeketik barrena etortzen dira errege magoak Zegamara eta elizan egiten dute ospakizuna. Haurren eskariak jaso ondoren, erregeek beraien bideari jarraitzen diote, opariak prestatuz.

SANTA AGEDA BEZPERA

Otsailaren 4an, ostegunez aurten, ohiturari jarraituz Santa Ageda

bezperako kantu eskea egin zen. Herritar mordoxka bat elkartu zen kantuan kalez kale ibiltzeko, Tobera musika eskolako ikasleen laguntzarekin. Kopla zaharrak, kopla berriak, bertsoak... denetarik kantatu ohi da egun honetan, makilak eskutan hartuta. Kantu eskea amaituta, elkartutakoak ostatuan mokadutxo bat egin zuten egunari amaiera emanaz.

ARANTZAZURA PEREGRINAZIOA

Maiatzaren 15 eta 16an, Arantzazuko Peregrinazioa ospatu zen. Jai egun bereziak izan ohi dira hauek zegamarrentzat. Igandean, goizeko 8:00etan, 9:00etan eta 10:00etan izan ziren autobusak apeaderora igotzeko. Handik, motxilak eta makilak hartu eta bideari ekin zion jendeak. Giro ederrean, hamaiketako egin eta Arri Urdin inguruan egiten den bazkariatz gozatzeko aukera izan zuten bertaratuek. Udalak, tradizioari jarraituz, xerra eta tomatez betetako ogitartekoak banatu zituen eta bukatzeko kafea eta pattarra edonorentzat. Handik Arantzazurako bideari ekin zioten herritarrek. Iluntzean, batzuk autobusez Arantzazutik Zegamarako bidea egin zuten eta beste batzuk berriz bertan igaro zuten gaua.

Maiatzaren 16an, astelehenez, ondo gosalduta ondoren, Goiko Bentatik abiatu zen prozesioa. Herriko txistulariek, San Inazioaren martxaren doinua joz, Arantzazuko elizarako bideari ekin zioten udal agintari eta erromesek.



San Pedro eguneko ospakizuna

Bittorio Zabalgojeaskoak, Arantzazuko fraideekin batera, meza eskaini zuen. Meza amaitu ostean, eliza aurreko eskaileretan herri-tarren argazkia atera eta tertulian egon ondoren, bazkari goxoa egin zuten erromesek. Jarraian, batzuk oinez eta beste batzuk autobusez, Zegamaranzko bidetara ekin zioten. 19:00ak inguruan iritsi ziren oinez etorritako erromesak Zegamako San Bartolome ermitaren ingurura, aurrez Oazurtzan merienda eginda. Herriko txistularien laguntzarekin, Arantzazuko amaren irudia hartuta, prozesioa egin zen San Martin parrokiaraino. Bertan otoitzalditxoak egin ostean, udalak ogitartekoak eta ardoa banatu zituen bertaratu-tako guztien artean. Aldi berean, XXVIII. Kasinoko ipuin lehiaketako sariak banatu ziren kioskoko plazan.

IDIAZABALDARREI HARRERA

Maiatzaren bukaeran, hilaren 29an, urtero legez, idiazabaldarrak San Adrian ermitan izan ziren. Ohitura den moduan, itzuleran, Olaberria auzoko Gurutze Santuaren ermitan, Joseba Izagirre Arozaren harrera jaso zuten Idiazabalgo udaleko agintariek eta herritarrek, Ioritz Imaz alkateari aginte makila eman ziolarik. Herriko txistula-

riekin batera, plazarainoko bidea egin zuten eta bertan lore sorta bat eman zitzaion Idiazabalgo alkateari. Ondoren, denak batera, Ostatuan hamaiketako bikaina egin zuten, autobusez Seguranzko bidetara ekin aurretik.

SAN JOANAK

Uda sasoi hasi berritan, San Joanak izaten ditugu ate joka. Ekainaren 23an, San Joan bezperan, arbola jasotzea egin ohi da, festari hasiera emanez. Ondoren, mokadutxoak plazan udalak eskainita. Gaueko hamarrak aldera, eguna iluntzarekin batera, udaletxe aurreko plazan sua piztu zen, txistulariak eta Tobera musika eskolako dantzariak giroa alaituz.

Ekainaren 24ean, San Joan egunez, herri afaria egin zen udal arkupetan.

ERMITETAN MEZAK

Olaberriko Gurutze Santuaren ermitan mezak

Maiatzaren 3an, Gurutze Santuaren egunean, ospatu zen aurtengoan Olaberriko Gurutze Santuaren ermitan meza, Bittorio Zabalgojeaskoaren eskutik.

Santu Espiritu ermitan Meza

Urteroko tradizioari jarraituz, maiatzaren 29an Sebastian Ugaldet Meza eman zuen Santu

Espiritu ermitan. Meza ondoren, hamaiketako eder bat egiteko aukera izan zuten bertan egondakoak, Atxa familiak, Urmeteta harategiak, Fermin Larreak eta Jose Domingo Ariztimuñok borondate onez eskainitakoa.

San Adrianen Meza

Ekainaren 19an, San Adrian ermitan meza ospatu genuen zegamarrok Bittorio Zabalgojeaskoaren eskutik. Ohikoa den legez, jende mordoxka bildu zen meza entzuteran eta ondoren, udalak eskainitako hamaiketako dastatzeko aukera izan zuten bertaratuak.

San Pedro baselizan Meza

Ekainaren bukaeran, hilaren 30ean ospatu zen aurtengoan San Pedro baselizan meza, Txelis Agirretxeren gidaritzapean. Meza ondoren, antolatzaileen esku-zabaltasunari esker, giro ederrean, merienda goxoa dastatu ahal izan zuten bertara hurbildu zirenek.

Iruetxetako ermitan Meza

Abuztuak 5ean, Elurretako Andre Mariaren egunean, Iruetxetako ermitan ospatu zen meza Bittorio Zabalgojeaskoaren gidatuta. Ondoren, bertakoek mokadutxo goxoa prestatu zuten bertaratu zirenen-tzat.



Kultur ekintzak



Akabuko Martxea egin zuten protagonistak Zegaman izan ziren

“EZ DIRA ASPALDIKO KONTUAK”

Urtarrilaren 30ean, iluntzeko 19:00etan, “Ez dira aspaldiko kontuak” antzezlanaz gozatzeko aukera izan genuen herritarrok. 242 sarrera saldu ziren eta, 16 urtetik beherakoek sarrera dohain zuteenez, hirurehun bat ikusle izan ziren San Martin Parrokian.

Antzerkiaren gidioia Lourdes Imaz segurarrak idatzi zuen eta Donostiaz gain, Goierriko beste 7 herritan eman zuten eman-kizuna 2015-2016 urteetan. “Ez dira aspaldiko kontuak” antzezlanak 1936ko gerra ostean hasi eta

ikastolen sorrerekin amaitzen diren gaiak azaldu zituen. Zegama, Goierri eta Euskal Herrian jendearengan gerra ondoren kokatu zen bildurra islatzen du eta aldi berean Frankismoaren amaieran, euskararekiko eta gizartearekiko ausardia izan zuten jende multzo baten lana oroitzeko ere balio izan zuen. Antzezlanean Jose Ramon Agirre herritarrak parte hartu zuen, Zegamako ikastolaren sorreran, 1970ean, ikastolara beren seme-alabak eramateko elkartu zen guraso taldearekin batera lanean ariturako gazteetako bat izan zen bera.

“AKABUKO MARTXEA” eta “DOMINIK” DOKUMENTALAREN EMANALDIA

Irailaren 8an, iluntzeko 19:00etan “Dominika” eta “Akabuko martxea” izeneko dokumentalak bota ziren Zegamako Aitxuri Herri Eskolako gimnasioan. “Dominika” eta “Akabuko Martxea” dokumentalek, emakumearen garrantzia artzaintzan eta Zegama eta paraje hauetatik artzainek negua pasatzera Bizkaiko kosta-aldera egiten zuten oinezko ibilaldiak jaso dituzte bere altzoan. “Akabuko Martxea” dokumentalean, jaiotzez zegamarra den Mikel Etxezarreta eta Eli Arrillaga



“Akabuko martxea” dokumentalaren kartela



senar-emazteak protagonismo zuzena hartu dute. Bestalde, herriko udalaren ordezkari modura, Joseba Izagirre alkateak, Aitxuri Herri Eskolako ikasleak, Iker Zubeldia bertsolariak, Xabier Arakama musikariak, Migel Goiburuk (ibilera hauek askotan egindako herritarra), eta Isabel Elorza historialariaren laguntza ere izan du dokumental honek, eta Donostia 2016 programazioaren barnean aurkeztua izan zen joan den ekainaren 6an.

Esan Zegamako emandia, Donostikoaz at, lehenengo emanaldia izan zela jendaurrean, aukera paregabea izan genuen herritarrok bertatik bertara ikusi eta protagonistekin egoteko eta emanaldia 300 pertso-tik gora etorri ziren, besteak beste inguruko herrietako artzainak ere izan ziren.

Dokumental honen proiektuaren buru, Fredi Paia eta Aitor Gisolala izan dira eta Zegamako Udalez gain, Getxo eta Idiazabalgo Udalak, Hazi Fundazioa, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurunearen Zuzendaritzaren laguntza ekonomikoa jaso du.

SAN ADRIAN, SAN TELMON

Otsailaren 23an, San Telmo Museoan, San Adrianen egindako azken indusketan lortutako materialarekin erakusketa jarri zuen Arantzadi Zientzia Elkarteak. Bertan, Zegamako alkatea den Joseba Izagirre gonbidatua izan zen, inaugurazioan sarrerako hitzak esateko eta, Zegamako udalari eskerrona agertu zitzaion indusketa hauei urtero ematen dien laguntza dela eta. Zegamako udalak, San Adriango indusketetan parte hartzen duten zientzilariei, urtero eskolako gimnasioan lo lekua ematen die besteak beste.

BERTSO JAIALDIA

Apirilaren 12an, Erlezain Egunaren barnean, aurten ere Kasino elkartearekin lankidetzan, bertso saioa antolatu zen kiroldegian. Artingo saioan Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Julio Soto eta Sebastian Lizaso izan ziren. Kasino elkarteak antolatzen duen bertso jaialdi honek, Zegamako udalaren babes ekonomikoa du. Jaialdiaren kostua ezin bada sarrerekin estali, udalak

aurre egiten dio falta den diru kopurua jarriz. Era honetara, urtero maila goreneko bertso saioa herrian izateko parada dugu elkarlanari esker.

IPUIN KONTALARIA

Maialen Zubeldia ipuin kontalariaren bisita izan genuen 2015eko abenduaren 28an, Jabier Otaegi kultur-etxean. Lehenengo saioa, 3-4 eta 5 urtekoei zuzendua izan zen arratsaldeko 17:00etan eta 17:30etan bigarren saioa izan zen 6-9 urte bitartekoentzat.

TAILA, MARRAZKETA, PINTURA ETA ESKULAN TAILERRAK

Auten ere, Jabier Otaegi kultur-etxean urte osoko tailerrak izan ditugu, Iñaxi Urreaga eta Itziar de la Granjaren eskutik. Bertan herriko emakumeak parte hartzen dute batez ere eskulanak landuz. Bestalde, Maria Luisa Gorrotxategirekin ere, apaiz-etxeko geletan, pintura tailerra egiten dute bi taldetan ikasturte osoan. Bi talde hauetako kideek obra- arte ederrak erakusten dizkigute urtero San Bartolo-



“Akabuko martxea” dokumentalak arrakasta handia izan zuen

metan, kultur-etxean jartzen duten erakusketa ikusgarrian. Jabier Arrietak, berriz, tailako mahaiek leku berezia behar dutelako, gimnasioko ludotekako txoko batean ematen du udaberririk uda arteko ikastaroa.

Azkenik, Itziar de la Granjak, haur eta gaztetxoei marrazketa ikastaroa ematen die ludotekako gelan eta apaiz etxeko geletan.

ZUR ETA LUR Zegaman **Kultur jarduerak Anduetza** **parketxean**

Zegamako Udalak eta Anduetza Parketxeak ZUR eta LUR Zegaman ekimenaren bigarren edizioa antolatu dute udazkenerako. Aurtengo edizioak ere kultur jardueraz osatutako egitaraua dakar Anduetza Parketxearen eta Zegama herriaren ezagueraz sustatzeko helburuarekin. Aurreko urtean Zegamako Udalaren eta Anduetza Parketxearen artean sortutako elkarlanak arrakasta handia izan zuen, bai zegamarren artean bai beste leku ugari hiritarren artean. Honenbestez, aurtengo ere, egitarau aberatsa prestatzeari ekin diogu Anduetza Parketxean:

MIKEL URDANGARIN **kontzertuan**

Azaroak 11, ostirala, 19:30ean

Hasera batean, Anduetz Parketxean aurreikusita bazegoen ere Mikel Urdangarinen emanaldia, aurrez erosi ziren sarrera multzoa kontutan hartuta, San Martin Parrokira pasa zen euskal kantautorearen emanaldia. Mikel Urdangarin bere gitarra esku artean izateaz gain, Nika Bitchisvili biolinista izan zuen lagun eskenatokian.

Bere azkeneko diskoa, “M MXV” izeneko diskoa, urtebeteko bakarreko bira intentsu batetik jaiotako lana izan da.

MARIMUNDUKOren ipuin **harrigarriak**

Azaroak 26, larunbata.

17:00etan (lehen emanaldia) **eta 18:00etan (bigarren emanaldia)**

Marimunduko (Maitane Aizpurua) izan zen gonbidatua eta bere eskutik, Euskal Herriko ipuin eta mitoetara gerturatu ginen. Maitane Aizpurua, Ataungo Jentilbaratza Kultur Elkartearen kidea da eta Joxe Miel Barandiaranek bildutako hainbat ipuin eta kontakizun

harrigarri azaldu zituen. Hainbat pertsonai mitologiko etorri ziren Anduetza Parketxera haurren gozamenerako eta aurtengo Etsai izan zen protagonista berria.

Haurrei zuzendua badago ere, adin guztiko bisitariak primeran pasatu zuten kontakizun berezi hauek entzuten. Emanaldia euskaraz izan zen. Ipuin-kontaktaz gain Anduetza parketxea ikusteko aukera izan zuten bisitariak, Aizkorri-Aratz natura parkeko interpretazio zentroa.

OLENTZEROREn kontakizuna **eta Talo tailerra**

Abenduak 17, larunbata. **17:00etan.**

Euskal Herrian Olentzerok Gabonetan opariak ekartzen ditu, nahiz eta ikazkina izanik batzuetan egur ikatza ere ekartzen duen. Oraingo honetan, Olentzero pertsonaia mitologikoaren jatorria kontatzen eta etorri zen Anduetza Parketxera. Haurrek primeran pasatu zuten. Ondoren berarekin taloak egin eta askaria egin zen bertaratuen arean.

ASIER MENDIZABALEN ERAKUSKETA OTSAURTEN



Donostia 2016ko Bake Itunaren proiektuaren Aldiriak sailean, Asier Mendizabalek erakusketa bat jarri zuen urrian Otsaurteko ermitan.

Erakusketaren izenburua: Enborra zuritu. Konposizioa eta moldaketak izan zen. Erakusketaren muina, Zegaman aldi berean urte gutxi batzuetan soilik egon ziren bi eskultoren, bi monumenturen narrazio-ildo bitxia izan zen. Alde batetik Otsaurteko baselizan, aldea dagoen eta Julio Beobidek amaitu gabe utzi zuen San Joseren taila aukeratu zuen eta bestetik, Cara al Sol abestiaren konposatzailearen Juan Telleriaren omenezko monumentua.

Asier Mendizabal eskultorearen hitzetan “irudiok iradokitako harremanek, beren gorabeheren bitartez, ikonolatriatik ikonoklastiara bitarteko eremua hartzen dute barne eta haien aldaera guztietan osatzen duten irudikapenarekin harreman sineskor bera agertzen dute”.

Erakusketaren inaugurazioan, Donostia 2016ko zuzendaria izan den Pablo Berastegi izan zen, Asier Mendizabalekin batera eta Zegamako udaleko ordezkari modura Izaskun Igoa zinegotzia izan zen bertan. Erakusketaren ondoren, Otsaurteko Bentan lagunarteko bazkaria egin zen Donostiatik etorritako ikusleekin batera.



Kirol Ekintzak

Hona hemen 2016an zehar antolatu diren kirol-ekintza esanguratsuenak:

IV. SAN SILVESTRE KROSA 2015

2015eko abenduak 31an, laugarren urtez jarraian, Zegamako IV. San Silvestre lasterketa antolatu zuen Udalak Elkartu Nahi elkar-tearekin lankidetzan. Pasa den urtean ere bi lasterketa antolatu ziren, bata haurrei zuzendutakoa eta bestea gaztetxo eta helduei.

Lehenik haurrak izan ziren protagonista, hotzari aurre eginez, lasterketa ederra ikusteko parada izan genuelarik. Haurren lasterketa amaituta, helduen txanda izan zen ondoren. Arratsaldeko 17:30etan hasi zen helduen lasterketa eta 5,25km-ko ibilbidea egin behar izan zuten lasterkariak, guztira 274 korrikalarik parte hartu zutelarik. Batzuk herritarrak, beste batzuk goierri bailarakoak, gipuzkoarrak, Euskal Herrikoak eta baita espainiarrak ere.

Helmugaratzen lehena Unai Hernandez izan zen, 2014ko irabazle bera, 17 minutu eta 2 segundo behar izan zituelarik 5,25km-ko bidea egiten. Bigarren, Mikel Etxeberria zumaia-rra eta hirugarren berriz Manu Hurtado beasaindarra. Emakumeen podiumean lehena Naroa Sagarna ormaiztegiarra izan zen, 20 minutu eta 31 segundo behar izan zituelarik ibilbidea egiteko. Bigarren postuan Irene Guembe Zizur Nagusikoa eta hirugarren berriz Karmele Ormazabal zega-

marra 22 minutu eta 3 segundoko denborarekin. Karmele bera izan zen lehen neska zegamarra eta Auritz Mendizabal berriz lehen mutil zegamarra 17 minutu eta 53 segundoko denborarekin.

Podiuma egindako korrikalari guztiek jaso zuten saria eta beste sari batzuk parte hartzaile guztien artean zozketatu ziren. Sari-rik preziatuena 2016ko Zegama-Aizkorri Mendi Maratoirako hiru dortsal izan ziren.

Amaitzeko, korrikalari eta antolatzailentzat Ostatuan luntxa eman zitzaien, giro bikaina urteari agur esateko!

XVI. FRONTENIS TXAPELKETA

Otsailaren 13an, 16.enez frontenis txapelketari eman zitzaion hasiera. Guztira hamaika bikotek parte hartu zuten. Finalera Jabier Telleria eta Xabier Azurmendik osatutako bikotea eta Esteban Oiarbide eta Azketak osaturikoa iritsi ziren eta bertan, Jabier Telleria eta Xabier Azurmendi, osaba-ilobak, izan ziren nagusi.

GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO FINALISTAREN EGUNA

Gipuzkoako Eskolarteko Finalistaren Eguna ospatu zen urriaren 23an Zegaman. Guztira, 986 mendizale elkartu ziren bertan; 37 ikastetxetako 598 neska-mutil eta 388 guraso. Partehartzea, ia zko ediziotik %9,5 igo dela azpimarratu zuten antolatzailerek. Denen artean, Aizkorriko magaletik ibilbide ederra egin zuten. Hala,

“jarduera arrakastatsua” izan zela azaldu zuten, eta esker ona agertu parte hartu zuten haur eta gurasoei, antolaketa lanetan lagundu zuten Amezti Mendi Elkarteari eta laguntza edo babes eman zuten gainontzeko enpresa eta eragileei.

2016KO URREZKO AIZKOLARIEN BANAKAKO TXAPELKETA

Apirilaren 2an, Erlezain Eguna bezperan, Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako lehen kanporaketa jokatu zen pilotalekuan. Bertan, zortzi aizkolarik parte hartu zuten bi taldetan banatuta. Hauxek izan ziren parte hartu zuten aizkolaria: Xabier Zaldua (Zumarraga), Jokin Alkizalete (Asteasu), Aitor Urteaga (Idiazabal), Julen Aranberri (Zumarraga), Goizeder Beltza (Etxarri-Aranatz), Iban Resano (Dorreo) eta Hermenegildo Herrero eta Alvaro García segoviarrak. Hurrengo kanporaketa-rako txartela bi aizkolari hauek lortu zuten: Xabier Zalduak eta Iban Resanok.

II. ZEGAMA-AIZKORRI KILOMETRO BERTIKALA

2016ko maiatzaren 20an, ostirala, bigarrenez antolatu zen Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikala. Zegamako plazatik abiatu ziren lasterkariak baina zati kronometrata Harrihaundin hasi (505m) eta helmuga Iraulen (1520m) izan zuen. 3.000m-ko ibilbidean 1015m-ko desnibela igo behar izan zuten parte-hartzaileek. Egu-



Gipuzkoako eskolarteko finalistaren eguna Zegaman ospatu zen

raldi paregabea lagun, 179 korrikalarik amaitu zuten ostiraleko proba eta arratsaldeko 16:00etan abiatu zen lehen taldetxo Zegamako plazatik. Iban Murua elgoibartarra izan zen bizkorrena Iraulera igotzen, 36 minutu eta 43 segundo behar izan zituelarik. Bigarren postuan Bartzelonako Oriol Cardona izan genuen, lehenengoak 4 segundoko aldea atera ziolarik eta hirugarren Manresako Agusti Roc izan zen, 38 minutu eta 2 segundoko denbora eginez. Emakumezkoetan, bizkorrena Maite Maiora mendararra izan zen, 45 minutu eta 43 segundoko denborarekin. Bigarren postuan Aldeanueva de la Verako Vanesa Ortegak egin zuen, 48 minutu eta 7 segundo behar izan zituelarik. Emakumetako podiuma osatzeko, hirugarren, Gasteizko Virginia Pérez korrikalaria izan genuen, 51 minutu eta 26 segundoko denborarekin. Herritarren artean berriz denbora onena Carlos Moranek egin zuen, 52 minutu eta 17 segundo behar izan zituelarik proba amaitzeko.

XV. ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA

Maiatzaren 22an, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiko hamabosgarren edizioa ospatu zen. Eguraldi txarra zela eta edizio gogorrenetarikoa izan zela aipatu zuten korrikalariak. 388 korrikalarik amaitu zuten proba, lasterketa utzitako korrikalariak asko izan zirelarik edizio honetan. Dena dela, aurtengoan ere luxuzko podiuma osatu zen. Gizonezkoetan, Kilian Jornet, Lauenstein Marc eta Luis Alberto Hernando izan ziren bizkorrenak hurrenez hurren. Emakumezkoetan garaile Yngvild Kaspersen izan zen, bigarren Megan Kimmel eta hirugarren Oihana Kortazar.

Lasterkari zegamarrak ere ugari izan ziren eta gizonezkoetan bizkorrena Beñat Katarain izan zen eta emakumezkoetan berriz Uxua Barandiaran.

V. ZEGAMA-AIZKORRI JUNIOR TRAIL

Maiatzaren 22an, maratoiaz gain izan zen beste proba bat ere, V. Zegama-Aizkorri Junior Trail proba. 10,4km-ko ibilbidea egin behar izan zuten parte hartu zuten 60 korrikalari gaztek. Gizonezkoetan garaile Jacako Daniel Osanz izan zen 46 minutu eta 30 segundoko denborarekin. 7 segundo beranduago sartu zen bigarrena, Otxandioko Aitor Ajuuria eta hirugarrenari 4 segundo atera zizkion bigarrenak, Josep Morales Sant pere de Ribeskoari. Emakumezkoetan garaile Lide Urrestarazu ordiziarra izan zen, 55 minutu eta 27 segundoko denborarekin. 19 segundo beranduago sartu zen helmugan bigarrena, Irati Zubizarreta beasaindarra. Hirugarren Bergako Maria Beringues izan zen, 59 minutu eta 37 segundo behar izan zituelarik. Zegamarren artean Arantxa Ortizek egin zuen denborarik onena, 1 ordu 28 minutu eta 40 segundo behar izan zituelarik proba amaitzeko.

XXXIX. HERRITARREN ARTEKO FUTBITO TXAPELKETA

Maiatzaren bukaeran, herritarren futbito txapelketari eman zitzaion hasiera. Aurtengoan sei talde izan dira elkarrekin lehian. Maiatzean hasi eta abuztuaren 23an eman zioten amaiera San Bartolome jaietan finalarekin. Txapelketa honi buruzko informazio zabalagoa San Bartolome jaietan aurkituko duzu.

LXXXIII. SAN BARTOLOME TXIRRINDU PROBA

San Bartolome jaien barruan, abuztuaren 28an, igandez, LXXXIII. afizionatuen San Bartolome Txirrindulari lasterketa ospatu zen. 130 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten txirrindulariek eta Lizarte taldeko Oscar Rodriguez izan zen irabazle, Caja Rural-Seguros RGA taldeko Josu Zabalarri eta RH Polartec taldeko Diego Noriegari esprinean irabazita.

HERRITARREN ARTEKO XVIII. SAN MARTIN TORNEOA

Udazkenean, herritarren arteko XVIII. San Martin torneoa antolatu zuen Tartaloetxe Pilota Elkar-teak Udalarekin lankidetzan. Asteburutan pilota jardunaldi bikainak ikusteko aukera izan da eta San Martin azokarekin batera, arratsaldean ospatu ziren finalak, frontoia jendez beteta zegoela. Finalean, lau pilota partida ikusteko aukera izan zen, lau kategoria ezberdinetako pilotariak hain zuzen ere. 2016ko azaroaren 12an txapela jantzi zuten bikoteak hauexek izan ziren: Aratz Collado-Julen Galdos, Oinatz Otaegi-Enaitz Landa, Ander Ormazabal-Ander Otegi eta Estebe Ariznabarreta-Unai Agirre.

ZEGAMAKO I. MENDI DUATLOIA

Azaroaren 26an, larunbatez, ospatu zen Zegamako I. Mendi Duatloia. Euskal Herriko mendi duatloi zirkuituko azken proba izan zen Zegamakoa. Irailean hasi eta guztira hamabi lasterketa izan dira kirolariak burutu behar izan dituztenak. Zegamarrek egindako lana txalagarria izan da.



Herriko pilotari-harobia sendo dago



Erlezain eguna



Aste Santua atzean utzi eta apirileko lehen igandean, erlezaintzarekin izan genuen zita. Gipuzkoako XVIII. Ezti Lehiaketa ospatu zen bertan eta honekin batera, erlezaintzari eta gozogintzari loturiko hainbat ekitaldi: hitzaldiak, erakusketak, beste lehiaketa batzuk, artisau-azoka....

Dena dela, igandekoa izanik ere egun nagusia, aurreko egunetan ere ospatu ziren zenbait ekitaldi:

Apirilaren 1ean, ostiralez, Silvana Huegun dietista izan genuen kultur-etxean “Erlauntzako produktuak. Ezaugarri nutrizionalak. Nola eta zertarako kontsumitu” hitzaldia ematen. Bertan, dietista den aldetik, erlezaintzako produktuek gure elikadurarako dituzten onurak ezagutarazi zizkigun eta gure elikadura ohituretan zertarako eta nola erabil ditzakegun. Jende mordoxka bildu zen bere hitzaldia entzutera eta asko ikasitako sentsazioarekin atera ginen denok bertatik.

Apirilaren 2an, larunbatez, 2016ko Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako kanporaketa ospatu zen kiroldegian. Bertan, 2 taldetan sailkatuta, 8 aizkolari aritu ziren nor baino nor. A taldean Hermenegildo Herrero, Goizeder Beltzak, Julen Aranberri “Elo-riaga II”k eta Xabier Zalduak neurtu zituzten indarrak elkarren aurka eta Goizeder Beltza eta Xabier Zaldua izan ziren bi onenak. Hauen artean jokatu zen finalean, Xabier Zaldua izan zen garaile eta honen bestez, berak lortu zuen hurrengo faserako txartela.

B taldean berriz, Iban Resano, Alvaro Garcia, Jokin Alkizalete II eta Aitor Urteaga aritu ziren lehian. Hauen artean bi onenak Iban Resano eta Jokin Alkizalete II izan ziren eta elkarren aurka jokatu zuten



finalean, Iban Resano nagusitu zen hurrengo fasean aritzeko txartela lortuz.

Apirilaren 3a izan zen aurtengo egun nagusia. Egun honetan, izan zen zer ikusi, zer ikasi eta zer dastatua. Goizean goizik, herriko txistulari taldearen musika-rekin batera, hasiera eman zitzaion Erlezain Egunari.

Herriko plazetan zein kiroldegian, orotariko produktuak salduz, hainbat postu jarri ziren: bitxiak, beste-



Erlearen argazkia ikusgai



Ezti lehiaketako sarituak



Eztia erosteko aukera izan zen



Argizariz egindako kandelak



Erlautzen erakusketa



Jendetza bildu zen gozo dastaketarako

lako osagarriak, gozoak, ukenduak, egurrezko sukalde-tresnak... denetarik izan zen ikusgai eta nola ez, baita hainbat ezti mota eta erlezaintzako produktu ere, propolia eta argizaria esaterako.

Bestalde, kiroldegi barnean, hainbat txoko atondu ziren. Salmentarako gunean eztiak eta gozo zein pastelak izan ziren batik bat salgai. Gipuzkoako gozogile onenen pastelez hornitutako erakusketa txokoa ere izan zen eta bertan gozotegi hauetako pastelak izan ziren ikusgai: Rafa Gorrotxategi, Unanue, Hawaii, Arruti, Ezeiza, Gorrotxategi, Oiartzun, Egaña, Zegamako Okindegia eta Adarra. Goiz osoan zehar erakusgai izan ziren eta Erlezain Eguneko

festa nagusiaren amaieran, jendartean banatu ziren guztiak. Izan ere, pastelak ikusi soilik ez, dastatu ere egin behar dira!

Beste txoko bat, erlezaintzako tresnen erakusketari eskaini zitzaion. Bertan, egun zein antzina erlezainek hainbat zereginetarako erabiltzen zituzten tresnak jarri ziren ikusgai, mota ezberdinetako erlauntzak esaterako. Erakusketa honek, jende askoren arreta piztu zuen eta bertan izan ziren Gipuzkoako Erlezain Elkarteko kideak, tresna bakoitzaren erabilpenari eta historiari buruz azalpenak emateko.

Erakusketaren alboan, hitzaldiei eskainitako txokoa jarri zen eta

bertan, Erlezain Elkarteko kideek hainbat gai interesgarriri buruzko azalpenak eman zituzten. Aurtengoan ere erlezainak hainbeste kezkatzen dituen liztor asiarrari buruzko hitzaldia eman zen eta berritasun gisa, lore-hautsak edo polenak dituen propietateak azaldu ziren. Azalpenak entzuteaz gainera, lore-hautsa dastatzeko aukera ere izan zuten Mahala jogurtarekin batera bertaratu zirenek. Eta txoko honetan bertan, hurrei ere eskaini zitzaien tartea, izan ere, bertan ipuin-kontakteta saio ireki bat ospatu zen. Txoko honetan burututako ekintzek ere harrera oso ona izan zuten eta jende mordoxka bildu zen bertan.



Rafa Gorrotxategik gozokiak egin zituen



Goxoak ere izan ziren dastatzeko

Pastel erakusketaren alboan, gozogintzari eskainitako beste txoko bat osatu zen eta bertan, Rafa Gorrotxategi gozogile entzutetsuak, malba zuriaren esentziarekin eginiko karameluak egin zituen antzinako teknika eta tresnak erabiliz. Bi saio egin zituen eta bietan jende ugari hurbildu zen txoko honetara karameluak nola egiten ari zen ikustera eta baita hauek dastatzera ere.

Haurren marrazkien alboan berriz, ezti lehiaketa herrikoa burutu zen. Ezti lehiaketan lehiatzen diren Gipuzkoako bailara bakoitzeko ezirik onenak jarri ziren dastagai eta nahi zuen orok hauek dastatu eta guztietan onena zein zen adierazteko aukera izan zuen. Herritarren artean, ezirik gogokoena Mire-

AURTENGO MARRAZKILARI SARITUEN IZENAK

3 URTEKOAK

1. Nahia Izagirre
2. Enaitz Mendizabal

4 URTEKOAK

1. Aizpea Garmedia
2. Garazi Albizu

5 URTEKOAK

1. Iurgi Landa
2. Paule Galdos

1GO MAILAN:

1. Adei Izeta
2. Katixa Gallego

2 MAILAN:

1. Enaitz Landa
2. Abiot De Prado

3 MAILAN:

1. Oier Errasti
2. Manex De Prado

4 MAILAN:

1. June Collado
2. Ainitze Maizkurrena

5 MAILAN:

1. Beñat De Prado
2. Lander Carrete

6 MAILAN:

1. June Ormazabal
2. Olaia Aizpeolea



Jaione Karrera, Julian Urkiola eta Maria Iraola



Epaimahaia lanean



Eskolako haurrek ere, marrazki dotoreak egin zituzten

lla Telleria idiazabaldarrarena izan zen eta Zegamako Udalaren eta Gipuzkoako Erlezain Elkartearen eskutik oroigarria jaso zuen.

Eguneko bi zita nagusiak berriz, oholtzan izan ziren: Urteko erlezainei omenaldia eta XVIII. Gipuzkoako Ezti Lehiaketa alegia.

Lehiaketan 21 ezti parte hartu zuten eta hauek epaitzeko luxuzko epaimahaia izan genuen, Jokin Arrospide Mahalako ordezkaria, Rafa Gorrotxategi gozogilea eta Egoitz Galarraga Erlezain Elkarteko aditua izan ziren eta euren iritziz hauexek izan ziren hiru ezti onenen egileak:

1. **Aimar Zuloaga**
(Donostialdekoa)
2. **Jose Antonio Galdos**
(Goierrri Goialdekoa)
3. **Iñigo Erauskin**
(Tolosaldekoa)

Aurtengo erlezain omenduak berriz hiru izan ziren, eta hiru aurrez oso ezagun gainera zegamar guztiontzat: Julian Urkiola, Maria Iraola eta Jaione Karrera. Urte askotan zehar, Zegaman ospatu dugun Erlezain antolatzaile eta arima izan dira hirurak eta horixe eskertu nahi izan zien Zegamako Udalak eta Gipuzkoako Erlezain Elkarteak omenaldi xume batekin. Lehenik, Tobera Musika Eskolako

dantzariak agurra dantzatu zieten, ondoren, Udal ordezkariak txapel bana jarri zieten eta azkenik, Erlezain Elkartearen eskutik euskal makila bana jaso zuten. Dena dela, omenaldiko unerik hunkigarriena, Zegamako Orkatz Txiki abesbatzako haurrek Julianek hainbat eta hainbat urtetan abestu izan duen erleari eskainitako bertsoa abestu zutenekoa izan zen. Eta guztion harridurarako, hiru omenduek esker oneko bertso bat abestuz eskertu zuten eginiko omenaldia.

Goizeko egitarauari amaiera, pastel erakusketan jarritako pastelak dastatzearekin eman zitzaion eta ohikoa den moduan, jende asko hurbildu zen hauek dastatzera.

XV. Zegama-Aizkorri mendi maratoia 2016



XV. Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia, maiatzaren 22an egin zen, behin-berritan, bikain.

BOLUNTARIOEN OMENEZ

Aurtengo maratoiaren kronika labur honek hiru txapeldun ditu boluntarioen podiumean: **Juanjo Berasategi**, **Jesus Mari Mendizabal** eta **Jabier Otaegi**. Hirurak omendu genituen maratoiaren irteerako orduan, udaletxe aurreko plaza korrikalariz eta ikuslez beteta, emozioz gainezka, senitartekoei lore sorta bana, korrikalari eta ikusleen txalo zaparrada eta honako bertso hau zeraman oroigarria eskaini genienean:

*Adiskidea izan zinen zu,
maratoiaren lanabes,
urte askoan esku zabal-ta
bihotz oneko bolondres.
Horregatik gaur zugana gatoz
miresmen eta ohorez,
Zegama-Aizkorri maratoiaren
izenean esker onez.*



Zegamako boluntario taldea, aurtengo Maratoirako eta Kilometro Bertikalerako Aizkorri ur eta bestelako materialen garraioa egin zuten egunean

MARATOIA

Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiak hamabost urteko ibilbidea osatuko du aurten. Bikain osatu ere, behin berritan, korrikalari parte-hartzaileen kategoria, ikuslegoaren erantzuna eta antolakuntza maila, guztion ahotan, goraipamenetan utziz.

Eguna bera, maiatzaren 22a, ez zen horrelako kirol-gertakari baterako eska litekeenik eta ez zen hoberena izan eguraldiari zegokionean. Euritsu. Hotz. Labainkor. Lokaztsu. Hala eta guztiz, bereberezko gogortasunean eta eguraldiaren eskasean, bikain, ikuskizun bikaina hamabosgarren edizio hau ere.

Eta, bikainetan bikain, behin berritan, gizonetzkoetan Puigcerdáko **Kilian Jornet Brugada** [Sabadell, 1987], bere zortzi-

garren txapela jantziz. Ez zion inori aukerarik eman eta ez zen, noski, aurkarien gogo faltaz izan. 3:50:03-tan osatu zuen ibilbidea, bigarrenari, Suitzako Corcelles-Cormondrèche udalerriko **Marc Lajensteini** [3:59:22] bederatzi minutu pasako alde kenduz. Hirugarren, **Luis Alberto Hernando Alzaga** jakatarra helmugaratu zen, suitzarrarengandik 43" segundora.

Emakumezkoen kategorian, Zegamako lasterketa aurten lehenbiziko aldiz egin arren, Norvegiako fiordoan eta egunsenti borealen paraje ikusgarrietan, Tromsø hirian sortutako **Yngvild Kaspersen** gazteak erabateko nagusitasuna erakutsi zuen [4:50:58], bigarrenari, Estatu Batuetako Silverton hiriko

Megan Kimmeli ia bederatzi minutuko alde kenduz. Hirugarren postua, gure maratoia, urrats ezagutzen duen **Oihana Kortazar Arantzetaren**tzat izan zen.

Lasterketan parte hartzeko eskaerien kopurua azalean oilo ipurdia sentiaraztekoa izan da aurten ere, izena emateko epea ireki bezain azkar. Sei mila eta zazpiehun lagundik gora gelditu ziren azkenean, lasterketan parte hartzeko aukerarik gabe, irteerako helmuga-puntuak elkartu ziren 520 lasterkarien inbidiatan. Berez, 551 dortsal zeuden lasterketarako baimenduta. Irteera hartu zutenetik 388 iritsi ziren helmugara, lasterketa denboraz amaituta, eta 132 erretiratu egin ziren. Irteeran banatutako dortsalak baino 31

SAILKAPENA. XV.ZEGAMA-AIZKORRI MENDI-MARATOIA

GIZONEZKOAK:

- 1 JORNET BURGADA, KILIAN [3:50:03] - PUIGCERDÀ
- 2 LAIJENSTEIN, MARC [3:59:22] - CORCELLES-CORMONDRÉCHE [SUIZA]
- 3 HERNANDO ALZAGA, LUIS ALBERTO [4:00:05] - JACA

EMAKUMEZKOAK

- 1 KASPERSEN, YNGVILD [4:50:58] - TROMSO
- 2 KIMMEL, MEGAN [4:59:46] - SILVERTON
- 3 KORTAZAR ARANZETA, OIHANA [5:06:37] - MUTRIKU

lasterkari gutxiago agertu izanak eta bidean inoiz baino lasterkari gehiagok amore eman behar izanak, arrazoi nagusi bat du: eguraldia, hezea eta, batez ere, hotza.

Hotzak gorabehera handiak sortu zizkion hainbat eta hainbat korrikalariri. Oinetakoz eta jantziz hain arin joateak, gorputzean eraman beharreko pisuan bere alde on nabarmena izan arren, maiatzaren 22an egin zien bezalako eguraldiarekin, gogortasun handia eskatzen du, horrelako lasterketetan eskarmentuz zaildua egotea. Arau-

tegiak dioena betez, derrigorrez eraman beharreko xira fin baten babes hutsak ematen ez duen gogortasun puntu bat. Alde horretatik, ibilbidean zeharreko kontrolgune askotako antolatzaile boluntarioek ez ezik, Urbiako bentan bertan, Gurutze Gorriko sorospen zerbitzuek eta Emilio Txurrukaren antolakundeak mugiarazitako *todoterrenoek* lan-karga berezia izan zuten aurtengo maratoi egunean.

Momentu latzak igaro arren, zorionez ez zen istripu edo zauritu larriegirik izan.



Gizonezkoen podiuma



Emakumezko txapeldunak: Yngvild, Megan eta Oihana

KILOMETRO BERTIKALA

Maratoiaren bezperako Kilometro Bertikalak bigarren edizioa izan du aurten. Iazkoaren kontrara, eguraldi onarekin. Aurten ibilbidea zerbait aldatu beharra ere egon da, azkeneko metroetan, Atxuri aldera egin ordez, Iraulera bideratuz: Arriaunditik [505 m.] Irauleraino [1520 m.], 3 kilometroko joaldia. Lasterketa modalitate honetan, nola gizonezkoetan hala

emakumezkoetan, euskaldunak gainditu ziren. Gizonezkoetan **Iban Murua Rodrigo** elgoibartarra [36'43"], Bartzelonako **Oriol Cardona Coll** eta Manresako **Agustí Rocen** aurretik.

Emakumezkoetan, Zegamako maratoina etorri urte asko daramatzan Mendaroko **Maite Maiora Elizondo** txapeldun

[0:45:43], Aldeanueva de la Verako **Vanesa Ortega Trancón** eta Gasteizko **Virginia Perez Mesonero**ekin podiuma osatuz. Kilometro Bertikalaren bigarren edizio honetan 179 izan ziren parte-hartzaileak, eurretatik 16 emakumezkoak, 163 gizonezkoak. Oinarri sendoa hartzen ari da lasterketa hau ere Zegamako mendi-festa handiaren itzalean.



SAILKAPENA. II. ZEGAMA-AIZKORRI KILOMETRO BERTIKALA

GIZONEZKOAK:

- 1 MURUA RODRIGO, IBAN [0 :36:43] - ELGOIBAR
- 2 CARDONA COLL, ORIOL [0 :36:47] - BARCELONA
- 3 ROC, AGUSTI [0:38:02] - MANRESA

EMAKUMEZKOAK

- 1 MAIORA ELIZONDO, MAITE [0:45:43] - MENDARO
- 2 ORTEGA TRANCÓN, VANESA [0:48:07] - ALDEANUEVA DE LA VERA
- 3 PÉREZ MESONERO, VIRGINIA [0:51:26] - VITORIA-GASTEIZ

GAZTEEN LASTERKETA

V. Zegama-Aizkorri Junior Traila Daniel Osanz Laborda jakatarrak irabazi zuen, 46'40"ko denboran eta bigarren **Aitor Ajuria Elkorobarrutia** otxandioarra helmugaratu zen, Sant Pere de Ribeseko **Josep Morales Lopez** orpoan zuela. Emakumezkoetan, aldiz, bi

euskaldun goierritar buru: **Lide Urrestarazu Agirre** ordiziarra txapeldun [55'27"] eta **Irati Zubizarreta Armendariz** beasaindarra bigarren. Hirugarren, podiuma osatuz, Bergako **Maria Beringues Brunet**. Guztira 60 korrikalari gazte helmugaratu ziren, 10 emakumezko eta 50

gizonezko, 10 kilometro eta 400 metroko ibilbide lokaztua osatuta. Nabarmen egin du gora parte hartzaileen kirol gaitasunak eta goi mailan dabiltzanak helmugaratzen ikustea nahiko, hamazortzi urteko mugarria gainditu eta maratoni nagusira noiz iritsiko irrikatzen daudela ohartzeko.

SAILKAPENA. V. ZEGAMA-AIZKORRI JUNIOR TRAIL

GIZONEZKOAK:

- 1 OSANZ LABORDA, DANIEL [0:46:30] – JACA
- 2 AJURIA ELKOROBARRUTIA, AITOR [0:46:37] – OTXANDIO
- 3 MORALES LÓPEZ, JOSEP [0:46:41] – SANT PERE DE RIBES

EMAKUMEZKOAK

- 1 URRESTARAZU AGIRRE, LIDE [0:55:27] – ORDIZIA
- 2 ZUBIZARRETA ARMENDARIZ, IRATI [0:55:46] – BEASAIN
- 3 BERINGUES BRUNET, MARIA [0:59:37] – BERGA

KILIAN JORNET ETA EVEREST MENDIA

Kilian Jorneten proiektuak ezagutzen ditugunean, beti daukagu joera bere ahalmenen hegaldiak mugarik ez al daukan galdetzekoa. Zortzi aldiz jantzi du txapela Zegaman, Hondarribiatik Gironaraino, Kantaurik itsas-ertzetik Mediterraneoko uretara sei egunen buruan egin zuen zeharkaldia Pirinioak zeharkatuz, sei bider jantzi du munduko mendi lasterketan koroa, egun berean bi aldiz igo eta jeitsi du Mont Blanc mendia... Eta jarrai genezake horrela, mutil honek ez al dauka mugarik, harriduraz eta miresmenez galdezka.

Bere erantzunak ordea beti garamatza urrats berri bat aurrera. Berarentzat mugarik ez balego bezala. Oraingoan Everest mendia du [8.848 m.] jomuga, helburu, erronka, hegaldi... Urrats berria, nolana ere, 2012an ekin zion **“Summits of my Life”** [“Nire

bizitzako gailurrak”] proiektu pertsonalean. Orain arte, Mont Blanc [2013], Matterhorn [2013], McKinley [2014] eta Aconcagua [2014] mendiak igo ditu, bere oinak, bere bihotza eta bere gogoetak, alpino erara, alperreko kargarik gabe, behar-beharrezkoena baino ez eramanez, berak bere buruari

eman diezaiokeen adorea, apenas beste laguntzarik gabe. Aurten, abuztuan, Everest igo nahi du, oxigenorik gabe, soka finkorik gabe, beste inork egingo ez lukeen eran.

Bere hitzetan jarrita [El País egunkaritik jasoak]:



Kilian Jornet Santu Espiritun

“El Everest será probablemente uno de los ascensos más exigentes que he afrontado nunca”.

“Todo esto será un gran aprendizaje para ver cómo reaccionará mi cuerpo en altura, así como por enfrentarnos a la montaña con este estilo”.

“Si no lo conseguimos no es un fracaso. La montaña es la que manda y nosotros tenemos que ser humildes ante ella. Siempre estará allí, esperándonos, para una próxima ocasión”.

2017ko maiatzaren 28an egingo den Zegama-Aizkorri Maratoiaren

XVI. ediziorako, beraz, denborak argitu beharko duen zalantza: etorriko ote da aurten **Kilian Jornet** bederatzigarren txapela jaztera? Everestek dauka erantzuna.

ALBERTO ZERAIN ETA DAULAGHIRI MENDIA

Maratoiaren aurkezpen ekitaldian txalo jo genion **Alberto Zeraini**, emozioz eta miresmenez, egun batzuk lehenago Dhaulagiri mendi gailurra [8.167] lortu berria zelako. Maiatzaren 19an lortu zuen, **Mariano Galán** mendizale argentinarrekin batera.

Berez, **Juanito Oizartzabal** zuen oraingoan espedizio-kide. Honek, ordea, arnasbideetako arazoak medio, bertan behera utzi behar izan zuen ahalegina. Alberto Zerainek, aldiz, goi lainoak ukitu zituen bere hatzekin, maiatzaren 19an, igoera gogor eta neketsu baten ondoren. Hala adierazi zuen Dhaulagiri mendiaren gailurretik irratiz egin zituen lehenbiziko hitzetan:

“Egunon, Dhaulagiri mendi gailurretik. Birrikak hartuak dauzkat, azkeneko aldapa horrek hestutu nau... Nik hau lortzeko bultzaka aritu diren guztiekin konpartitu nahi dut igoera hau eta bereziki Juanito Oizartzabalekin, badakit-eta hor egongo dela nire gorabeheri begira eta arduratuta...”

Azaroaren 12ko San Martin ferian, Zegaman pasa zuen eguna Albertok lagun giroan, maiatzeko nekeen aztarnarik gabe, sasoiko eta umoretsu.



Alberto Zerain, XXXXX

CARLOS MORAN

ESPAINIKO TXAPELDUN ULTRA TRAIL DISTANTZIAN

2007an hasi nintzen mendi lasterketetan parte hartzen. Urte horretan VI. Zegama-Aizkorri mendi maratoia irailaren 23an ospatu zen, Munduko Kopako finala eta Euskadiko Kopako azken proba izanik. Lehen zegamar postua lortu nuen eta baita nire lehen txapela ere. Geroztik, urtero parte hartu izan dut Zegama-Aizkorri maratoian eta aurten baita Zegama-Aizkorri II. Kilometro Bertikalean ere.

Azken hamar urte hauetan mendi lasterketa askotan parte hartu izan dut, gehienak etxetik gertu, baita kanpoan ere, hala nola, hain eza-

guna den Chamonixeko Ultra Trail de Mont Blanc, eta iazko irailean Italiako Alpetan ospatzen den Tor des Geants 330 Km-ko mendi lasterketan ere.

Aurtengo denboraldirako erronka bat jarri nion neure buruari eta gorputzari: FEDME-k (Espainiko Mendi Kirol eta Eskalada Federazioa) antolatutako Espainiko Ultra Trail mendi lasterketako Kopan parte hartzea. Koparen barneko proba puntuagarrien kopurua hirukoa izan da:



Carlos Moran, lasterketan

- Ultra del Montseny, 80 Km eta 4.500 metroko desnibel positiboa: Gironako Viladrau herrian apirilaren 2an.
- Monduber Trail, 83 Km eta 3.900 metroko desnibel positiboa: Valentziko Tavernes herrian irailaren 24an.
- Gran Vuelta Valle del Genal, 130 Km eta 6.200 metroko desnibel positiboa: Malagako Gaucin herrian urriaren 29an.

Hiru lasterketetan nire kategorian, Beterano B (50 urtetatik aurrera), postuaren arabera puntuak lortu ditut eta azken 2 probak irabaziz, nire kategoriko Espainiako Ultra lasterketako txapelduna izan naiz.

Orain, egun batzuetan gorputzari atseden eman eta datorren urteko egutegia pentsatu eta antolatzen hasiko naiz.

Zegamarrak

BEHOBIA-DONOSTIA

LASTERKETAN

Aurtengoan azaroaren 13an ospatu zen Behobia-Donostia lasterketa ospetsua. Zegamarrek ere parte hartu zuten lasterketan eta egindako lana txalogarria izan zen. Zorionak guztioi! Segidan aipatzen dira zegamarren denborak eta bakoitzak egindako postua.

POSTUA	IZEN-ABIZENAK	DENBORA
605	Xabier Morillo Mendizabal	01:18:45
1545	Saioa Arkonada Perez	01:24:05
1831	Urko Agirre Txoperena	01:25:08
2876	Aritz Toledo Zurutuza	01:28:28
4176	Antonio Otero Rey	01:31:27
5478	Asier Berasategi Urdangarin	01:34:04
6313	Jesus Berasategi Zurutuza	01:35:40
6501	Uxua Barandiaran Zurutuza	01:36:01
7459	Jon Azurmendi Ormazabal	01:37:40
8430	Iker Alzelai Arakama	01:39:03
11371	Leider Agirre Katarain	01:43:39
11375	Lierni Galarraga Aguirre	01:43:39
11376	Ruben Zabaleta Apaolaza	01:43:40
14999	Angel Segurola Alonso	01:49:39
18552	Jose Francisco Alustiza Azurmendi	01:56:16
19655	Ion Gorrotxategi Urteaga	01:58:47
19667	Igor Elizegi Arrizabalaga	01:58:49



Behobia-Donostia lasterketan parte hartu zuten zenbait zegamar.

QUEBRANTAHUESOS

Ekainaren 18an ospatu zen hain ezaguna den Quebrantahuesos proba. Aurtengoa XXVI. edizioa izan da. Sabiñanigotik abiatu eta 200km-ko ibilbidea izan ohi da. Honez gain, 85km-ko beste proba bat ere ezaguna da egun berean, hau ere Sabiñanigotik irtetzen delarik, Treparriscos proba hain zuzen ere. XIII. edizioa izan da 2016an ospatutakoa. Aurten ere, Zegamako txirrindulari ordezkari-tza zabala izan da bertan. Hona hemen parte hartu zuten herritarren zerrenda eta denborak:

Ander Perez	6:00
Ruben Zabaleta	6:56
Gorka Lozano	6:59
Aritz Irastorza	6:59

EHUNMILAK

Aurtengo uztailaren 8an ospatu den Ehunmilak lasterketan 88km eginenez parte hartu duten bi zegamarrak: Gaizka Ormazabal eta Ruben Zabaleta.



TREPARRISCOS

Eneko Arratibel	2:46
Mikel Larrea	3:14
Eñaut Alberdi	3:19
Axier Zeberio	3:28
Aritz Agirre	4:00
Oier Irastorza	4:44
Ibon Zabaleta	4:44

Gure esku dago

HERRION TXANDA DA

Erabakiaren aroari begira jarri da Gure Esku Dago egitasmoa 2016 urtean. Azken helbururaino iristeko eman beharreko pausuak marrazten hasi gara Goierrin, baita Zegaman ere. Herri kontsulta egin dugu 2016an, eta ondoren herriz herri Euskal Herriko itun bat eraikitzen hastea izango da asmoa; denon artean finkatzeko non, zer, noiz eta nola erabaki behar den.

Oroimenean gordeta geratzeko moduko urtea izan da 2016a. Hainbat hilabetetako lan gogorraren ondoren, Zegamako bizi-lagunok ere gure botoa emateko aukera izan dugu, gure iritzia ematekoa. Azken finean, gure etorkizunaren jabe garela erakutsi dugu eta guk ERABAKI egin nahi dugula.

Guztira 621 herritar gerturatu ziren ekainaren 5ean lehen Farmazia zen lokalean



Herri kontsulta egiteko prest

prestatu genuen hauteslekura. Horieta-
tik 594 herritarrek erantzun zioten 'bai'
jarritako galderari; eta 27k 'ez'. Baina
emaitzen gainetik, parte hartzea da Gure
Esku Dago nabarmendu nahi izan due-
na; gure geroaz erabakitzeko borondatea
badagoela erakutsi dugulako. Botoa emateko
aukera zuten zegamarren %49k har-
tu zuen parte.

Galdeketa eguna, festa egun bikaina
bihurtu zen. Baina, hori guztia ez zen
posible izango hilabetez hilabete lanean
aritu direnengatik, ekainaren 5ean aritu
zirenengatik eta festan parte hartu zuten
guztiengatik izan ez balitz. Beraz, eske-
rrik asko guztioi hau posible egiteagatik!

NONDIK SORTU ZEN GALDERA?

Idiazabalen otsailean, 18 zegamarrek har-
tu zuten parte, egin zen eztabaida irekitik
ateratako mamia mahai gainean jarrita,
27 lagun arduratu ziren galdera zehaz-
teaz. Zegamatik Mila Alustiza izan zen
talde horretan. Apirilean aurkeztu zen
galdera: 'Nahi al duzu euskal estatu buru-
jabe bateko herritarra izan?'.

URTEAN ZE HAR, HAINBAT EKINTZA

- Abenduan galdeketarekin borobilduko
genuen urteko egitasmoa aurkeztu ge-
nuen Zegaman. Hala, abenduaren 24an,
aurkezpena gonbidapenak banatu eta
sinadura bilketari ekin genion, txistor-ja-
narekin.



Otordua prestatzeko bolandresak



Gure esku dagoko eragileak

- Urtarrilean talo-festa egin genuen. Ordurako, 250 sinadura jaso genituen galdeketari babesa emanaz. Guztira 344 firma jaso ziren (%26,44), 4 zegamarretik batek eman zion babesa.
- Apirilean Sant Sandurni d'Anoiako ANC-ko (Katalunia-ko Asanblea Nazionala) kideekin hitzaldia antolatu genuen.
- Maiatzean, 50 lagun inguru elkartu ginen bertso-afarian Iker Zubeldia, Julio Soto eta Alaia Martinekin.

GALDEKETAREN ONDEREN ZER?

Azken hilabeteotan, kalean ikusi ez arren, ezkutuko lanean buru belarri gabiltza. Ekainaren 5ean izan ziren galdeketek, beste hainbat herri ere animatu ditu eta 2017an Euskal Herriko beste hainbat txokotan izango dira galdeketak.

Baina Goierrin ez gaude geldirik. Ia galdeketak eginak dituzten herrietako eta eskualdeetako kideekin elkarlanean ari gara hurrengo pausak zehazteko. Dagoeneko galderari erantzun diogu, eta erabakia hartu ondoren, honek erronka berriak ireki dizkigu. Alde batetik, erabakian parte hartu ez dutenen iritzia ere jaso nahi dugu; eta bestetik, zer nolako euskal estatua izan nahi dugun erabaki behar dugu orain. Horregatik, etor zaitez parte hartzera eta zuk nahi duzun herria eraikitzen!



Lagunarteko bazkaria egin zen udal arkupeetan

San Bartolome Jaiak

Urtero legez, abuztuan San Bartolome jaiak ospatzeko garaia izan ohi dugu. Abuztuaren 23an eguerdiko 12etan eman zitzaizkien jai ei hasiera beleari ongi-etorria eginez eta bost jai egun bikainen eta ekitaldi anitzen ostean, abuztuaren 28an esan genion adio beleari zapi zuriak astinduz.

Aurtengo jaietako programari erreparatuz, pasa den urtean egin ziren Tartalo eta Mari erraldoiei eman zaie protagonismoa. Erraldoi hauek, eskolako 4. maila amaitutako haurrek ibiltzen dituzte festetako kalejiretan.

ABUZTUAK 23, ASTEARTEA MOZORROEN EGUNA

HERRITARREN ARTEKO TXIRRINDU PROBAK

Jaietako lehen ikuskizuna izan ohi da urtero herritarren arteko

txirrindu proba. Haur, gazte zein helduk parte hartu dute aurtengoan ere, guztien parte hartzea txalogarria izanik. Haur eta gazteak herri-gunean aritu ziren talde bakoitzak ibilbide desberdin

bat eginez eta 14 urtetik gorakoak XLVI. Apeaderora Igoera, Jabier Berasategiren omenez XIX.a egin zuten. Hona hemen aurtengo probetako irabazleak:

Hona hemen aurtengo probetako irabazleak:



6 URTETIK BEHERAKOAK	7, 8 ETA 9 URTEKOAK	10 ETA 11 URTEKOAK	12 ETA 13 URTEKOAK	APEADERORA IGOERA
Neskak	Neskak		Neskak	Neskak
Nora Elizegi	Jessenia Brochero		Saioa Berasategi	Ainara Mendoza
Myphu Amenabar 2 1 3 Maia Perez	Miriam Otaegui 2 1 3 Ane Moran		Ainhoa Arakama 2 1 3 Eneritz Kortabarria	
Mutilak	Mutilak	Mutilak	Mutilak	Mutilak
Eneko Otegi	Aratz Murua	Haitz Goia	Xabier Intxausti	Aitor Perez 2 1 3 Eneko Arratibel
Jurgi Landa 2 1 3 Heber Martin	Abiot De Prado 2 1 3 Enetz Goiburu	Adur Arrizabalaga 2 1 3 Ander Otegi	Egoi Telleria 2 1 3 Miguel Angel Ramirez	Tarteko helmuga: Ruben Zabaleta
				Beteranoetan (45 urtetik gorakoak)
				Pedro Luis Arizkorreta
				Tarteko helmuga: Pedro Luis Arizkorreta



6 urtetik beherako mutilak



7,8,9 urteko mutilak



7,8,9 urteko neskak



10-11 urteko mutilak



12-13 urteko mutilak



12-13 urteko neskak



Apeaderorako igoeran parte hartu zuten txirindulariak



Apeaderorako igoeran neska txapelduna



Apeaderorako igoerako mutilen podiuma

BELEAREN JAITSIERA

Jaiei hasiera emateko, eguerdiko hamabietarako guztia prest zegoen. Koadrilak mozorroturik plazan Joselontxo's txarangarekin eta gurea den Belearen Jaitsiera kanpai-jotze eta suziriekin. Horrela eman genien hasiera bost egu-

netako jaiei, gogotsu eta indarrez beterik, herritarrak festan murgilduz.

MOZORROEN KALEJIRA

Eguerdiko hamabietan koadrila mordoxka bildu zen plazan mozorroturik. Joselontxo 's txarangarekin batera plazatik abiatu zen kale-



Mozorroen kalejira



Mozorroen kalejira



Mozorroen kalejira



Futbito txapelketako irabazleak, Ipurbeltz taldea



Futbito txapelketan bigarren gelditu zen Haizea taldea



Pitxitxiaren saria eta atezainik onenaren saria

jira. Jende andana zegoen kale bazterretan, mozorroak eta hauek prestatuturiko ikuskizunenez gozatzeko. Denetariko mozorroak prestatu zituzten; herri txiki infernu handi, patinatzaileak, aleman koadrila, disney-ko pertsonaiak, euliak simaurretan, boxeolariak, ... giro ezin hobea eta umorea izan ziren nagusi eguerdi parte guztian. Kalejiraren ondoren, bazkaria egin zuten koadrilek Eliza atzeko plazan.

BEZPERA NAGUSIAK ETA HERRITARREN ARTEKO BOLO TXAPELKETA

Atsedeen pixka baten ondoren, bezpera nagusiak izan genituen San Bartolome ermitan. Ondoren, herritarrentzat bolo-jokoa Txarape auzoan, herriko agintariek eman ziotelarik txapelketari hasiera. Bolo-jokoa, gaztetxoak aritu ziren lehenik eta helduak ondoren. Haurren mailan irabazle suertatu zirenak segidakoak izan ziren:

- 1.Saria: Manex Ormazabal**
- 2.Saria: Andrei Filip**
- 3.Saria: Unai Moran**



Helduen bolo txapelketan Ibai Arrizabalaga nagusi gizonetzkoetan



Haurren bolo txapelketako hiru irabazleak saria jasota



Helduen bolo txapelketan Idoia Yarza nagusi emakumezkoetan

Helduen mailan berriz hauek izan ziren irabazleak:

Gizonetzkoetan lehenengo saria: Ibai Arrizabalaga.

Emakumezkoetan lehenengo saria: Idoia Yarza

HERRITARREN ARTEKO FUTBITO TXAPELKETAKO FINALA

Arratsaldeko 18:00etan eman zitzaion hasiera futbito txapelketako finalari. Haizea eta Ipurbeltz taldeak izan ziren aurtengo finalista eta irabazlea Ipurbeltz taldea izan zen. Pitxitxiaren saria Xabier Azurmendi Telleriak irabazi zuen eta atezain onenarena berriz Mikel Rey atezainak.

BURUHANDI ETA ERRALDOIEN KALEJIRA ETA MOZORROEN SARI BANAKETA

Iluntze aldera, Joselontxo's txarangarekin, buruhandi eta erraldoien kalejira egin zen herriko kaleetan zehar. Haurrak irrikaz zeuden festetako lehen egun honetan buruhandi eta erraldoiak ikusteko. Kalejira amaitu ostean eta epaimahaiak bere lana burutu ondoren, mozorroen sari-banaketari ekin zitzaion. Honako hauek izan ziren aurtengo mozorro sarituak:

12 eta 16 urtekoen saria: Margolariak.

16 urtetik gorakoen saria: Zumba

Mozorrotutako beste koadrila guztientzat ere izan zen saririk. Oilaskoa eta cava zein freskagarriak aukeran.

EGAN TALDEAREN KONTZERTUA

Iluntzean eta gauean Egan taldearen kontzertua entzuteko parada izan genuen. Berrogeita sei urteren ondoren, Xabier Saldiasen aurtengo urrian utzi du ohol-

tzetan profesionalki kantatzeari. Zegamako plazan azken urtez bera entzuteko aukera izan genuen. Giro aparta sortu zen bertaratutako arteen eta jende ugari aritu zen dantzan.

ABUZTUAK 24, ASTEAZKENA. SAN BARTOLOME EGUNA

PROZESIOA ETA MEZA NAGUSIA

Aurtengoan asteazkenez egokitu zen jaietako egun nagusia, San Bartolome eguna. Ohikoa den



San Bartolome eguneko prozesioa



Soka dantza dantzatu zuten herriko agintariak

moduan, Zegamako txistularien goiz eresiarekin eman zitzaion hasiera egunari eta jarraian, San Bartolome ermitatik abiatuta prozesioan ekarri zen San Bartolomearen irudia San Martin Parrokiara bere ohorez Meza emateko. Ibilbide horretan, herriko txistulariak, dantzariak, agintariak eta herritarrak izan zituen lagun.

SOKA-DANTZA

Meza ondoren, 12:30etan, herriko agintarien eskutik soka-dantza ikusteko aukera izan genuen udaletxe aurreko plazan, Tobera Musika eskolako dantzariak eta txistulariak lagunduta. Jende mordoak hurbildu zen aurtengoan ere herriko agintariak dantzan ikustera.

HAURREI ONGI-ETORRIA

2015eko San Bartolome egunetik 2016ko San Bartolome egunera bitartean jaiotako haurrei ongi-etorria egin zitzairen ondoren. 30 haur izan ziren ongi-etorria jaso zutenak eta ekitaldi hau, urtero bezain arrakastatsua izan zen aurtengoan ere. Jende asko bildu zen plazan ekitaldi berezi hau ikustera. Lehenik eta behin, agintariak haurrei banan-banan jaietako zapi bana jarri zizkien lepoan ongi-etorriaren oroigarri gisa eta ondoren, Tobera musika-eskolako dantzariak agurra dantzatu zieten guztiei. Hona hemen ongi-etorria eman zitzairen haurren zerrenda:

Xabier Arakama Arana
Galder Garaiar Rodriguez
Laia Garaiar Rodriguez
Aizkorri Garmendia Arrondo
Naroa Garrido Morillo
Urki Goiburu Irazusta
Ane Imaz Silva
Intza Izagirre Aizpeolea
Aratz Iztueta Zubizarreta
Joanes Iztueta Zubizarreta
Beñat Larrea Carton
Larraitz Larrea Jauregi
Izaro Madariaga Morales
Laia Martinez Moyano
Enaitz Mujika Zubizarreta
Haizea Nieto Gahona

Jakes Otaegi Aierbe
Kimetz Otaegi Olanan
Aimar Pelaez Garzon
Elene Telleria De Los Mozos
Julen Telleria De Los Mozos
Jone Zabaleta Delgado
Xabat Zuñiga Arana
Itzea Agirre Aizpeolea
Lur Marcos Garcia
Nahia Marcos Garcia
Alejandra Herrera Gomez
Daniela Herrera Gomez
Mohamed Kashaf Tufail Padrao
Eva Maria Zota

TOBERA MUSIKA-ESKOLAKO DANTZA TALDEAREN DANTZA-SAIOA

San Bartolome eguerdiko ekitaldiei amaiera emanaz, Tobera Musika Eskolako dantzarien saioaz gozatzeko aukera izan zen. Dantza mota eta talde desberdinak aritu ziren eguzkipean, ikuskizun bikaina eskainiz. Hau amaitutakoan, merezitako hamaiketako dastatzeko aukera izan zuten Kasinoa elkartearen.

APAR-JAIA

Arratsaldeko ekintzak haurrei zuzendutako apar-jaiarekin hasi ziren. Eguraldi beroa zela eta, apar



Haurrei ongi etorria



Pilotari federatuak pilotan jolasteko prest

festa modu bikainean egiteko aukera izan zuten. Haur mordoxka hurbildu zen bainujantziak soinean aparretan jolas egiteko gogoz eta bistakoa izan zen ederki pasa zutela gainera.

PILOTARI FEDERATUEN PARTIDAK

San Bartolome arratsaldero bezala, frontoian izan zen hurrengo zita. Pilotari federatuen bi pilota partidez gozatzeko aukera izan genuen, biak binakako partiduak izan ziren. Herriko nahiz kanpoko pilotariak izan genituen jaialdian. Lehenengo partiduan Iban Matxindandiarrena herritarra Zabalarekin aritu zen jokatzeko Azurmendi eta Imazen aurka. Bigarren partiduan beste herritar bat, Unai Atxak Ongairekin jokatu zuen Azketa eta Arratibelen aurka.

ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA

Arratsaldeko 19:30etan, buruhandi eta erraldioen txanda izan zen eta Tobera Musika Eskolako txistu taldearekin batera egin zuten bidea San Bartolome egunean. Betiko moduan, arrakasta itzela izan zuen eta jende ugari ibili zen kalejiran, haur nahiz helduak.

XII. GAZTE AFARIA ETA GURI 5 TALDEAREKIN DANTZALDIA

Buruhandiak erretiratzeaz bat, Guri 5 taldearen saioa hasi zen plazan. Jende ugari hurbildu zen hauen doinuekin gorputza zertxobait mugitzeko eta jarraian, Gazte Herexa elkarteak antolatuta,

Gazte Afaria egin zen frontoian, afari aurretik, musikaz gidaturik poteoa egin zutelarik. Hamabigarren urtez antolatu zuen Gazte Herexa afari hau, ez da marka makala! Afaria amaituta, gaueko musika hasi baino ordu erdi lehenago, Tobera Musika Eskolako Patxara taldearen emanaldia ikus- teko parada izan zuten bertar- tuek. Ondoren, Guri 5 taldeko musikariek, giro paregabea egon zen plazan.

ABUZTUAK 25, OSTEGUNA, SAN BARTOLOME BIGARRENA. UMEEN EGUNA PAELLA LEHIAKETA

Goizeko 09:30etarako prest ziren herriko bost elkarte gastronomi- koetako bina bikote Aitxuriko patioan, urteko paellarik onena egiteko asmotan. Parte hartu zuten elkarteak segidakoak izan ziren: Txarape Elkarte, Kasino Elkar- tea, Tartaloetxe Elkarte, Amezti Elkarte eta Jubilatuen Elkarte. Udalak jarritako osagaiak jaso, mantalak jantzi eta esku bete lan izan zuten paellarik onena egi- teko. Batzuk era batera, beste batzuk bestera... baina guztiek izan zuten estimazio bikaina. Aur- tongo honetan ere ez zen arroz ale bakar bat ere soberan gelditu.

Talde bakoitzak bere lana eginda, epaimahaikideen txanda iritsi zen. Aurtengoan bi luxuzko epai-

mahaikide izan genituen: Euken Galdos eta Ainhoa Berasategi. Euren aburuz, hauexek izan ziren aurtengo bi paellarik onenak egin zituztenak:

1. Saria: Anartz Goia eta Nekane Arantzamendi (Tartaloetxe elkarte)

2. Saria: Mari Carmen Lardizabal eta Begoña Etxezarreta (Jubilatuena Elkarte)

URTEKO HILDAKOEN ALDEKO MEZA

San Bartolome jai hauean, urtean zehar hildako zegamarrak ere gogoan izan genituen eta urtero egin ohi den moduan, San Bartolome bigarrenenean Meza izan zen hauek oroitzeko. Meza, Bit- torio Zabalgojeaskoak eman zuen San Bartolome ermitan.

HAUR JOLASAK

Aipatu bezala helduentzat entrenimendurik izan bazen ere, haurrak izan ziren San Bartolome bigarren honetako prota- gonistak. Gazte Herexa elkarte- ko zenbait kidek hainbat eta hainbat jolas dibertigarri antolatu zituzten



Itxura ederra zuten lehiaketara aurkeztutako paellek



Beroari aurre eginez, haur jolasak herriko plazan



Bertso saioa plazan

herriko gaztetxoentzat udal-letxe aurreko plazan eta gazte-txoek erantzun bikaina izan zuten. Mozorro dotore eta koloretsuz jantzita hurbildu ziren plazara bero itzelari aurre eginez eta jolasetan parte hartu ondoren, bakoitzak opari bana jaso zuen gainera!

BERTSO-SAIOA

Plazan hurrek utzitako lekua, helduek bete zuten berriro ere eguerdi partean. Bertso-saio dotorea eskaini zuten bazkal aurreko orduak alaituz Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano eta Iñaki Muruak. Gai-jartzaile jardunean berriz Joanes Etxaide izan genuen

aurtengoan.

Dena dela, ez zen eguerdikoa izan bertso-saio bakarra. Bertso-gosez gelditu zenak, eguerdian Ostatuan izan zen bertso-bazkarian eta iluntzean, arratsaldeko seietatik aurrera, plazan eman zuten bigarren saioan parte hartzeko aukera izan zuten.

PLATER-TIRO TXAPELKETA

Otzaurteko Bentaren atzealdean ospatu zen aurtengoan ere plater-tiroa eta antolaketan lagun, Karraztarro elkartekoak izan genituen. Zegama, ehiztari ugariko herria izaki, arrakasta handia izan zuen txapelketa honek eta hauek izan ziren aurtengoan eskope-

tarekin abilenak:

Senior mailan

1. Postua: Estebe Ariznabarreta
2. Postua: Jon Arakama
3. Postua: Joseba Arakama

Junior mailan

1. Postua: Egoitz Rivas

Helduen mailan:

1. Postua: Fermin Mazkarian

PUZGARRIAK

Goizean jolasean hasiera eman zitzaion haurren egunari, saltoka eman zitzaion jarraipena arratsalde partean. Bi puzgarri jarri ziren Elizondo plazan haurren gozamenarako. Guztiek izan zuten jira eta buelta saltoka ibiltzeko parada eta baita kirol pixka bat egitekoa ere.

ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA

Eguraldia lagun, hurrek biziki gozatu zuten hainbeste itxarondako buruhandien aurretik korri eginez, eta lau erraldoiek berriz, herriari bira emateko arazorik ez zuten izan Tobera Musika Eskolako trikitilarien doinuen errit-mora dantza eginaz.

HERRI AFARIA

San Bartolome bigarrenaren egunari amaiera emateko herri afaria egin zen pilotalekuan. 500dik gora lagun izan ziren aurtengoan ere frontoian lagun giro ederrean lumagorri oilaskoa eta Sant



Erraldoiak herriko plazan



Herritarren arteko toka txapelketako irabazleak

Herritarren arteko toka txapelketako emakumezkoen podiuma

Sadurní d'Anoiako cava dasta-tzeko.

JOSELU ANIAK TALDEAREKIN ERROMERIA

Buruhandi, erraldoi eta trikitaliak udaletzeko atarira erretiratzear bat, Joselu Aniak taldearen saioa hasi zen plazan. Lehen saioan, hurrei egokitutako abestiak jo zituzten eta 00:00etatik aurrera berriz, helduen jirakoak. Giro bikaina jarri zuten beste behin ere plazan.

ABUZTUAK 27, LARUNBATA. KUADRILEN EGUNA

HERRITARREN ARTEKO TOKA TXAPELKETA

Egun bateko atsedenen ondoren, gogotik hasi zuten zegamarrrek festetako bigarren asteburua. Olaberriko auzokideek antolatuta, goizeko 10:30etan Toka txapelke-

tari eman zitzaion hasiera. Jende mordoxka bildu zen plazan aurtengoan ere hain geurea dugun joko honetaz gozatzeko asmoz. Gizonak zein emakumeak izan genituen nor baino nor lehian eta hauexek izan ziren aurtengoan abilezia handiena erakutsi zutenak:

Gizonezkoetan

1. Juanjo Garaiar
2. Luis Lasa
3. Iker Alzelai

Emakumezkoetan

1. Garbiñe Arakama
2. Mila Alustiza
3. Nagore Arrieta

KUADRILEN EGUNARI HASIERA

Eguerdiko 13:00a aldera, blusa koloretsuak soinean, koadrilen egunari hasiera eman zitzaion plazan koadrilen elkartzearekin. Aurtengoan Beti Boga txaranga izan genuen lagun eta giro bikaina

sortu zuten kalean. Eguerdiko poteotxo amaituta, Aituriko patioan bildu ziren koadrila denak, elkarrekin bazkaltzeko.

DANTZA LEHIAKETA

Bazkal ostean, berriz, giroa gehiago alaitzeko, dantza txapelketa antolatu zen. Bikote dezente eman zuten izena eta baita giro bikaina sortu ere! Mota askotako dantzak dantzatu behar izan zituzten, vals-ak, arin arin eta fandagoa, rocka, salsa... eta guztien artean dantzaririk onenak Eli Arrieta eta Leire Ormazabalek osatutako bikotea izan zen. Ikuskizun bikaina eskaini zuten biek hala biek eta baita lehiaketara aurkeztu ziren beste bikote guztiek ere. Bejondeizuela!

BURUHANDI ETA ERRALDOIEN KALEJIRA

Abuztuaren 27.a izan zen erraldoiek kalejira burutu zuten azken



Eli eta Leire izan ziren koadrila eguneko dantza lehiaketako irabazleak

Giro bikaina jarri zuten Beti Bogan txarangoek



Mari eta tartalo erraldoiak ere egunero irten ziren kalejiran



Aizkolariak gogor lanean udaletxe aurreko plazan

eguna. Beti Bogan txarangarekin, kuadrilekin eta buruhandiekin batera, agur egin ziguten hurrengo urtera arte lau erraldoiek eta haurrek biziki aprobetxatu zuten azken egun hau.

TXIMELETA TALDEAREKIN DANTZALDIA

Iluntzean, ordubetez, Tximeleta taldearekin plazan dantzatzeko aukera izan genuen. Atsedentxo baten ondoren, 00:00etatik

aurrera hasi ziren berriro musikariak plaza girotzen. Larunbata izaki, jende mordoxka bildu zen plazan eta giro paregabea sortu zuten musikariek.

ABUZTUAK 28, IGANDEA LXXXIII. SAN BARTOLOME TXIRRINDULARI LASTERKETA

Afizionatuen mailako San Bartolome probaren laurogeita hiru-

garren edizioa jokatu da jadanik aurtengoan. Goizeko 10:00etan eman zitzaion probari hasiera eta 130Km-ko ibiliaren ostean, 13:00a inguruan iritsi ziren helmugara txirrindularirik azkarrenak. Tarte horretan, Lierni, Atagoiti, Aztiria eta Barbaris igo behar izan zituzten besteak beste. Hauexek osatu zuten aurtengo edizioko podiuma:

**1. Postuan:
Oscar Rodriguez (Lizarte)**



70 Probitziako bolo txapelketan sarituak izan ziren parte hartzaileak



San Bartolome txirindu probako sarituen podiuma

2. Postuan:

Josu Zabala
(Caja Rural-Seguros RGA)

3. Postuan: Diego Noriega (RH Polartec)

Mendiko saria:

Alexander Unzueta
(Ampo-Goierriko Txirrindularitza Bultzatuz Taldea)

Taldekatu saria:

Ampo-Goierriko Txirrindularitza Bultzatuz Taldea

PROBINTZIKO BOLO TXAPELKETA

Txirrindularitzaz gain izan zen beste kirol probarik ere igande honetan. Txarapeko bolalekuan Gipuzkoako bolaririk onenak izan ziren elkarrekin lehian. Bolarien parte hartzea handia izan zen. Aurtengo irabazleak segidakoak izan ziren:

Gizonezkoetan:

1. Postuan: Iñaki Maiz
2. Postuan: Zeferino Agirre
3. Postuan: Patxi Ormazabal

Emakumeetan:

1. Postuan: Aitziber Makazaga
2. Postuan: Naiara Peñagarikano
3. Postuan: Garbiñe Alustiza



San Bartolome txirrindu probako sarituen podiuma

Herritarra:

1. Martin Retegi

HERRI KIROLAK

Arratsaldeko 18:00etan aizkora-saioari eman zitzaion hasiera. Jose Mari Esnaolak egurrak presatu bazituen ere, berak ez zuen aizkora saioan parte hartu aurtengoan. Hiru bikote aritu ziren lehian: Imanol Berasategi eta Joseba Arakama, Joxe Mari Arakama eta Lakiola, Josetxo Arin eta Jesus Mari Oiarbide. Aizkolariek lan txukuna burutu zuten, plazan

elkartu zen ikuslegoaren gozamenarako.

SARDINA JANA ETA SAGARDO DASTATZEA

Iluntzean, urtero arrakastatsu izan ohi den beste ekintza bat burutu zen Kultur Etxe aurreko plazan, sardina-jana eta sagardo dastatzea. 60Kg sardina erre ziren guztira eta estimazio bikaina izan zuten aurtengoan ere, ez zen apenas batere sobratu. Eta sardinei lagun eginez zintzurra bustitzeko zer sagardo trago bat baino hoberik! Bederatzi sagardotegi ezberdinetako sagardoak izan ziren dastagai: Eula, Aburuza, Zabala, Urbitarte, Isastegi, Iparragirre, Oiharte, Lizeaga eta Oatza.

BURUHANDIAK PLAZAN ETA ADIO BELEARI

Iluntzean buruhandiak izan ziren plazan txikientzat. Gaueko hamarretan, adio esan genion beleari datorren urtera arte. Jaiei ezezik oporrei ere amaiera emateko unea izaten da zegamarrontzat "Adio Beleari" saioa eta hori dela-eta, pena pixka bat sumatu zitekeen hainbat herritarren aurpegietan baina tira, gero ta gutxiago falta dela pentsatu behar datorren urteko San Bartolome jaietarako!



Sardina janean eta sagardo dastaketan jendearen parte hartzea handia izan zen

San Martin Feria



Azaroaren 12an izan da aurten San Martin feria. Zegamarrontzat oso egun berezia eta herrikoia izaten da bai herrian bizi garenontzat eta baita kanpoan bizi diren zegamarrentzat ere, aitzakia paregabea jaioterrira bisita egin eta betiko lagunekin egun pasa egiteko.

San Martin feriaren aurretik kultur ekimenak egin izan ditugu eta aurten ere. Azaroaren 9an, iluntzeko 19:00etan, Anduetza parketxean “Zegamako eta Partzuergoko Saroiak” gairi buruz hitzaldia izan genuen Luis Mari Zaldua filologoaren eskutik. Hitzaldian 28 pertsonak parte hartu zuten Euskal Herriko saroiaren jatorriaz gain Zegamako saroiaren xehetasunak ere jaso genituen.



Maila handia izan da aurten ere gazta lehiaketan



Behorak, ikusgai



Aharia ere dotore zeuden



Behiak ere lasai egon ziren goiz partean



Artalde ugari izan zen lehiaketan



Produktu berezien eskaintza izan zen

Bestalde, azaroaren 11n, Mikel Urdangarin abeslariaren kontzertua izan genuen San Martin Parrokian ilunzeko 19:30etan. Jendeak gustoz hartu zuen abeslaria eta 250 pertsona bildu ziren bere doinuez gozatzeko.

Larunbaten berriz, azaroaren 12an, feria nagusia izan genuen. Jakina da feri honetan hiru ardatz izaten ditugula: herriko ganadu lehiaketa, Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Gazta Lehiaketa eta herriko artisauen erakusketa.

Herritarren arteko ganadu lehiaketan, 36 ganaduzalek eman zuten izena: bederatzi behi suizo eta mestizoen artean, bi zezen, 33

behor eta 3 muxal, 6 zaldi, asto bat, 6 ardi talde, 3 bildots talde, 9 ahuntz talde, txerri bat eta basurde bat izan ziren ikusgai. Aurten base-rri bakoitzeko ganadua elkarrekin jarri da, eta ganadua lotzeko sistema berria estreinatu da era honetara ganaduen aurrealdea hobeto ikustea lortuz.

Artisaueri dagokienean, urtero gure artean izaten dugun Eugenio Mendizabal zeraindarra izan genuen eskuz gazta egiten, Jabier Arrieta tailagintzan aritu zen, Fermin Mazkiaran gaztainak erretzen aritu zen, Mari Paz Oiarbide eta Ioritz Etxeberria, ogia eta gazta saltzen aritu ziren eta Altzibergo

Josetxo Mendiak, barazki ekologikoen postua jarri zuen.

Azkenik, aurten XVIII. Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko artzainen arteko gazta lehiaketa burutu zen.

Aurten 16 artzainek partu hartu dute lehiaketan. Honako hauek hain zuzen ere:

Aizpea gaztandegia, Azkarra S.C., Felix Etxezarreta, Jabier Muñoa, La Leze S.C., Aixtra S.C., Sat Olano, Unai Lekuona, Zabaleta S.C., Aranburu Elkarte, Olalde artegia S.L., Patxi Lopez de Uralde, Ander Barandiaran, Abel Goiburu, Ioritz Etxeberria eta Baztarrika.



Maxkik gaztainak erre zituen



Egurrezko sukaldeko tresnak erakusgai



Aranburu Elkartea, Unai Lekuona eta Zabaleta S. C.ko ordezkaria



Ander Lasa eta Zigor



Gazta lehiaketan irabazle, epaimahaikide eta Udal eta Foru ordezkariak

Epaimahaiaren iritziz maila goreneko gaztak aurkeztu ziren lehiaketara. Hona hemen emaitzak:

AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALEKO ARTZAINEN ARTEKO XVIII. GAZTA LEHIAKETA

1) Unai Lekuona,
ARAIA
(211 puntu)

2) Aranburu Elkartea,
IDIAZABAL
(208 puntu)

3) Zabaleta S.C.,
MUNIAIN
(207 puntu).

Epaimahaia, Seu d'Urgelleko Isidoro Alberich zinegotziak, Sant Sadurni d'Anoiako Josep Maria Ribas zinegotziak, Zigor Iturrieta sukaldari ezagunak eta Ohiana Kortazar korrikalariak osatu zuten eta alderdi teknikoa, Idiazabal Jatorri Izendapeneko Jose Ramon Agiriano eta Jesus Salmeronek osatu zuten.

HERRIKO GANADU LEHIAKETAKO IRABAZLEAK:

ARDIAK:
Ioritz Etxeberria

BILDOTSAK:
Jose Migel Azurmendi

AHUNTZAK:
Ander Lasa

ANTXUMEAK:
Ander Lasa

PIRENAIKA BEHIAK:
Belen Azurmendi

BEHI MESTIZOAK:
Andres Zabaleta

BEHI SUIZOAK:
Juanito Azurmendi

ZEZENAK:
Jon Antia

ZALDIAK:
Iker Zubeldia

ETXE BEHORRAK:
Jabier Arrondo

MENDI BEHORRAK:
Ibai Aizpeolea

SAN MARTIN FERIA | ZEGAMA



Ganadu lehiaketako sarituak eta ordezkariak



Nagusien mailako txapeldunak eta txapeldun-ordean



Infantilen mailako txapeldunak eta txapeldun-ordeak



Benjaminen mailako txapeldunak eta txapeldun-ordean



Alebinak mailako txapeldunak eta txapeldun-ordeak

Behin ganadu lehiaketa eta gazta lehiaketako sariak banatu ondoren, lehiaketara aurkeztutako gazta guztiak herritarren artean banatu ziren, herriko bost elkarte gastronomietako kideen laguntzarekin.

Arratsaldean, eguraldia okertu zenez, buruhandiak ezin izan ziren atera, eta pilota partiduak ikus-teko modua izan zen pilotalekuan. Hona hemen aurtengo emaitzak:

Arratsaldeko 18:00etan, herritarren arteko XVIII. San Martin pilota txapelketako finalak jokatu

ziren Hona hemen aurtengo emaitzak:

ALEBINAK

ARATZ COLLADO-
JULEN GALDOS 16 /
OIER ZEBERIO-
UNAX NUÑEZ 15

BENJAMINAK

OINATZ OTAEGI-
ENAITZ LANDA 16 /
ABIOT DE PRADO-
URTZI ETXEBERRIA 14

INFANTILAK

ANDER OTEGI-
ANDER ORMAZABAL 18 /
ARATZ IZETA-
OIER ERRASTI 13

NAGUSIAK

ESTEBE ARIZNABARRETA-
UNAI AGIRRE 22 /
LUIS MALKORRA-
IORITZ ETXEBERRIA 18

Cava Festa

Cavak dastatzeko
aditu baten aholkuak
jaso ziren



Hirugarren urtez ospatu zen urriaren 21ean eta 22an Cava Festa. Beste bi urtetan izan duen arrakasta izan du aurtengoan ere. Udalak, herriko elkarten laguntzarekin antolatutako festa izan da. Bi egunetan, ostiralean eta larunbatean, jende andana elkartu zen pilotalekuan. Aurtengo berrikuntzen artean aipatu behar da, cava festan izan ziren cavak lehiaketa baten bidez aukeratuak izan zirela. Lehiaketa hau Sant Sadurní d'anoiako Cal Feruk (Sant Sadurní d'anoiako ardo eta cavetan espezializatutako denda) antolatutakoa izan zen. Bertako eta inguruko cava bodegek aurkeztu zituzketen

beraien cavak lehiaketa honetara. Guztira 48 cava desberdin aurkeztu ziren. Honela, urriaren 8an, Zegamako udal ordezkariak, Sant Sadurní d'anoiako beste zenbait cava aditu eta herritar batzuekin batera, cava dastatze itsu batean parte hartu zuten, Zegaman izango ziren bederatzi cava onenak aukeratzuz.

Urriaren 21 iluntzean, 20:00etan ireki zituen Cava Festak atea. 19:30etan cava dastatzea antolatu zen ludotekan. Bertan, Xavier Roig, Cal Feruko sommelierak, cavaren elaborazio-prozesuari buruzko nondik norakoak eta

cava mota ezberdinek dituzten ezaugarriak azaldu zituen besteak beste. Jendearen parte hartzea handia izan zen eta gustura egon ziren bertaratuak.

Behin cava dastatzea amaituta, pilotalekuko atea ireki zituzten 20:00etan festari hasiera emanaz. Cava desberdinak eta Eusko Labeldun hainbat produktu dastatzeko aukera izan zuten. Aurtengoan segidako bederatzi cava hauek izan ziren dastagai: Llopart, Joan Colet Rius, Muscandia, Celler Vell, Olive Batllori, Sumarroca (gorria), Maria Rigol Ordi, Castelo de Pedregosa eta Covides.



Aurten dastatzeko zeuden cavak ikusgai

Elkarteen laguntza ezinbestekoa izan zen Cava Festan



Pilotalekua beteta egon zen bi egunetan

Aipaturiko lehen lau caven kopa 3€an saldu zen eta azken bostena berriz 2€an. Afaltzeko berriz, Lumagorri oilasko izterra piparrekin, saltxitxak, txorizoa, entsalada, hamburgesak, solomo burua piperrekin, ajoarrieroa, gazta eta menbrilua eta pastak izan ziren

aukeran. Cava festak iraun zuen bi egunetan, 459 botila cava kontsumitu ziren eta 650 janari errazio inguru banatu.

Larunbateko festa ere ostiralekoaren ildo beretik joan zen. 19:30etan, cava dastatzea izan zen eta jarraian, 20:00etatik aurrera

01:00era arte afaltzeko eta cava dastatzeko aukera paregabea izan zuten bertaratutakoek.

Cava festara etorri nahi izan zuten kanpotarrek, garraio publikoa izan zuten etxera itzultzeko eta horrek hainbat kanpotar animatu zituen Zegamara etortzera.

Xabier Arakama Ruiz de Eginu



Xabi Arakama trikitilari eta musikaria geldirik ez da egoten. Bukatzeaz dugun 2016 urte honetan, Vallekaseko BOIKOT taldearekin hirugarren denboraldia osatu du. Estatu guztian eta atzerrian 50 kontzertu baino gehiago eskaini ditu rock jaialdi nagusienetan, horietako batzuetan 50.000 ikus-entzuletik gora eduki izan dituztelarik. Abuztuaren 26an estatuko zinematian estreinatu zen Cuerpo de Elite filmaren promozioako abestia ere egin zuten, arrakasta handia lortu zuelarik. 2017ko apirilean diska berria aterako dute eta bertako abesti asko Xabik egin ditu. Honetaz gain, zuzeneko ikuskizun haundi bat prestatzen ari dira, Iban Zubeldia ordiziar argi diseinatzaile haundiarekin elkarlanean.

KAOTIKO eta BETAGARRIko taldekide batzuekin batera Xabik sortutako XAIKO taldearekin ere kontzertu dexente eskaini dituzte eta Otsandioko Gaztetxearen 25. urteurreneko abestia ere egin zuen Xabik taldearentzako maiatzean. Azkenik Xabik taldea desegitea erabaki zuen BOIKOTekin burubelarri erabat murgilduta egoteagatik. XAIKOK azken kontzertua uztailaren 12an eskaini zuen Santurtziko jaietan. Bi urte ta erdi iraun duen Xabiren proiektu berezi honek, ibilbide oparoa eduki du: 50 kontzertutik gora eskaini dituzte Euskal Herrian, zein Katalunia, Madril eta Alemanian zehar. Honetaz gain, diska luze bat eta beste 5 abesti orgijinal utzi dituzte.

Zegamako Tobera Musika Eskolan eta Ormaiztegiko Txindatan ere jarraitzen du bere trikitixa eta perkusio klaseak ematen.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoa



GIPUZKOAKO ETA ARABAKO PATZUERGOAK 2016.EAN HARTUTAKO ERABAKI ETA BURUTUTAKO EKIMEN GARRATZITSUENAK

Aurten Partzuergoan egin diren ekintzen artean, bereziki nabarmendu daitezke Ordenazioa Planaren onarpena, eta larreetako hobekuntza lanak, hartarako Foru Aldundiak emandako dirulaguntzei esker. Bestalde, ohikoa den moduan, aurten ere ehiza postuen eta pista konponketa, zein ondoren azalduko diren beste hainbat proiektu burutu dira.

Lehendakari aldaketa: Uztailean ospatu zen juntan Segurako alkateak, Eñaut Telleriak, Donemiliagako alkatea den David Lopez de Arbinari urtebeterako lehendakartzaren erreleboa pasatu zion.

Azaroko juntak Ordenazio Planaren onarpena: Ordenazio plana Partzoneriko Mendi eta Basoko analisi eta ikerketa jasotzen duen dokumentu tekniko bat da; datozen 10 urtetarako larreen eta basoen aprobetxamendu jasagarria, baliabide hauen kontserbazioa eta Partzoneria osatzen duten herritarren garapena uztartzen dituen kudeaketa proposamena da. Foru Aldundiaren azterketa eta onarpenaren zain dago, martxan jarri ahal izateko.

Larreetako hobekuntzak: Hainbat mantenimendu eta hobekuntza lan (itxiturak berritu, kendu, harrapalekuak berritu, urak bideratu, askak egin, etab.) egin dira Foru Aldundiaren diru-laguntzarrekin.

DIRU-LAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren, 2016ko Kapital naturala eta biodibertsitate programa barruan, “Urbiko 2016-2018 kardua kontrola” diru-laguntza eskatu da, kardua inbasioak mendiko larreen kontserbazio egoerari eragindako afekzio maila zehaztea eta kardua kontrolatzeko praktika onak zehazteko helburuarekin. Proiektu hau HAZI eta Oñatiko udaletxearekin batera eskatu da. Diru kopurua 3 urtetarako: 6.460 € (gehi BEZ). Ebazpena atera gabe dago azaroaren bukaeran.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-aren Garapen eta Lehiakortasun sailaren 2016ko Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Eremuak sustatu eta garatzeko laguntza programa barruan, “Gipuzkoa eta Arabako Patzuergoan argi-horniketa energia-iturri berriztagarriekin” proiektuarentzako finantzaketa eskatu da. Urbiko Fondak, aisialdirako hain puntu estrategikoa dena, batera batzuk elikatzen dituen gasolio sorgailua dauka, eta proiektu honekin erregai fosil-sorkuntza hau fotovoltaikoa den beste ekoizpen batekin ordezkatu nahi da. Diru kopura 6.240 € (gehi BEZ). Ez da onartua izan.

Mendi gazta programan sartzeko Iosu Etxezarreta artzaina aukeratu izan zen. Helburua erabiltzen duen txabola (Toki Eder) behar diren inbertsioak eginez Mendi Gazta egiteko egokitzea da. Diru kopurua 50.000 € tako izan da. Foru Aldundiak inbertsioaren %65 estaltzen du eta kudeaketa

EREMUA ETA EGINDAKO LANA

GASTUA

Altzarian, Arkain, Iramendi, Apota eta Santi Ispiritu parajetan 85,68 Ha. tan traktorezko garo xehaketa.	23.562,00 €.
Otzaurtetik Letaingo parajera itxitura berritu hesola berriekin	17.830,89 €
Txurro magalean, saredun itxitura zaharra kendu	6.885,55 €
La Reserva eremuan kardua eskuz xehatu	15.752,00 €
Apota eta Otzaurteko paso kanadiarra, eta Irumendiko balsa garbitu eta egokitu	1.335,95 €
Beundako 5,27 Ha sasi eta garoa eskuz xehatu	4.347,75 €
Altzarian egin behar den harrapalekurako materiala	19.684,10 €
Urbiko Belarriturriko aldapa hormigonatu	32.581,72 €
Fonda-Perusaroi tramoan zuloak bete eta bidea errepasatu	14.340,57 €
GUZTIRA	136.320,53 €



Patzuergoko antena

Landa Garapen elkartearen bidez egin da. Partzoneriko artzainek inbertsioen %15ari aurre egin behar izaten diote. Gainontzekoa, Partzuergoak hartu du bere gain.

EHIZA

Ehizako postuen erreparoa egin, bi ehiza-postu berri (Apoa 4 eta Aginarian 7), gorputz berri bat sartu (Apoa 8) eta beste postu baten (Apoa 9) leku-aldatze lanak egiteko Lizelan enpresari esleitzea erabaki zan. 15.650 €tan (gehi BEZ).

Herrietako zozketan Zegamari 11 postu tokatu zitzaizkion: lehen mailakoak 2, bigarren mailakoak 3 eta hirugarren mailakoak 6.

Juntak aho batez onartu zuen enkantean desertu geratu ziren postuak Parzoneriako udal bakoitzari dagokion portzioaren arabera banatzea eta tasak eta aprobe-txamenduaren %20a Partzoneriak ordaintzea.

BIDEETAKO HOBEKUNTZAK

Urdalur-Apoa bideturte bitarteko bidea konpondu egin da. Campezo enpresak egin du. 11.493,24 € (gehi BEZ).

Otzaurte sarreran 2 baden ipini dira. Campezo enpresak egin du. 3.264,63 € (gehi BEZ).

PROIEKTUAK

Siresa enpresak lideratzen duen HY-POWERBOX proiektua, EUROSTARS programa europarraren barruan sartu da.

Artzain txaboletan argi-indar hornitze-sistema autonomoagoak nola lortu aztertze proiektu

hau, hainbat energia-berriztagarri konbinatu (eguzkia, Haizea eta ura) erabileran oinarritzen da. Tonttor txabolan egingo dira hiru urtetarako (2016-2018) den proiektu honetarako neurketak.

KULTURA

Segura, Idiazabal, Zerain, Mutilo eta Zegamako mendi elkarteak aurten Partzoneria eremua hobeto ezagutzeko antolatu duten ibilaldia aurrera eramateko Partzoneriak diruz lagundu eta parte hartu du. Ibilaldia Irailaren 24rako antolatu zen, hain zuzen, Komun Haundia deritzon lurraldearen ekialdean. Ibilbidea 16,5 kilometrotakoa izan zen, Urdalurko urtegitik abiatu eta, Illarragorri (Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa bat egiten duten tontorra), Atabarrate, Larrebil, Iramendi, Beundako txabola eta Txurroren iparraldeko magaletik Garagartzako haitzetara eta, bukatzeko, berriro ere Urdalurko presara.

Maria Eugenia Amenabar Arsuaga
Partzoneriako Teknikaria

Zentro meteorologikoa

Hemen dituzue 2015eko abendutik 2016ko urrira bitarteko meteorologiari buruzko datu batzuk. Datu hauek, www.euskalmet.euskadi.net web orritik eskuratu ditugu:

PREZIPITAZIO GEHIEN EMAN ZEN EGUNA
2016-02-27 • **83,3 l/m²**

T. MAXIMOA EMANDAKO EGUNA
2016-09-07 • **38,3°**

T. MINIMOA EMANDAKO EGUNA
2016-02-17 • **-1,7°**

HAIZEAK ABIADURA HANDIENEGOKO EGUNA (Km/h)
2016-02-09 • **109 km/h**

HEZETASUN ERLATIBO HANDIENEGOKO EGUNA (%)
2016-09-17 • **%100**

ARGIBIDEAK

Prezipitazioa l/m² Euria, m2 bakoitzean zenbat litro.
T. max (°C) Temperatura edo hozberorik altuena.
T. min. (°C) Temperatura edo hozberorik baxuena.
Haizea abiadura (Km/h) Haizearen indarririk handiena.
Hezetasun erlatiboa (%) Hezetasun handiena.

	Prez. (l/m ²)	T. max. (°C)	T. min. (°C)	Haizearen abiadura (km/h)	Hezetasun erlatiboa (%)
Abendua 2015	18	21	3,3	96,7	93
Urtarrila 2016	204,9	19,2	0,2	96,7	95
Otsaila 2016	285,8	16,9	-1,7	109	96
Martxoa 2016	262,1	22,5	0,6	81,1	94
Apirila 2016	130,6	21,4	1,8	79	94
Maiatza 2016	65,1	28,7	3,4	91,7	94
Ekaina 2016	95,1	35	8,8	61,4	97
Uztaila 2016	39,1	37,3	10,7	64,2	97
Abuztua 2016	32	37,6	11,7	54,3	96
Iraila 2016	111,7	38,3	9,5	83,6	100
Urria 2016	36,5	26,4	5,4	61,7	95

Aizkorri

Futbol taldea



Aizkorri Futbol Taldeak, azkeneko urtetan egindako lanaren fruituak, pixkanaka, jasotzen ari dira. Bukatutako denboraldian 2 talde federatuekin hartu dute parte Gipuzkoako lehiaketetan:

1. MAILAKO KADETEAK, 25 jokalariekin (3 zegamarrak).

1. MAILAKO INFANTILETAN, 22 jokalarik hartu dute parte (6 Zegamarrak).

FUTBOL ESKOLAN;

aurten Zegamar asko hasi dira ikasten eta gozatzen futbolarekin.

2008. urteko 10,

2007. urteko 9,

2006. urteko 3,

2005. urteko 7 jokalaria.

Gaur egun, Aizkorri Futbol Taldearen atzetik 180 pertsonako taldea dago (jokalaria, eskolako ikasle, entrenatzaile, delegatu eta juntakideen artean), jende asko beraz, baina bere lana eta ekarpena eman nahi duten zegamarrentzat, beti dago leku bat.

Otsailak 24an, Joxe Gereñuren omenez eginiko bigarren futbol txapelketa ospatu zen. Hainbat futbol taldek parte hartu zuten, equipo honen sortzailearen omenez.



Ainitze Maizkurrena



2005eko alebinak:

Aitor Omazabal, Mikel Ormazabal, Aratz Izeta, Iker Goiburu, Haitz Goia, Aner Aizpeolea, Mikel Goiburu eta Arkaitz Elorza.



Aizkorri futbol taldeko jokalaria Jose Gereñurekin.



2007ko benjaminak:

Unax Larrea, Enez Iturbe, Xoan Otero, Eneko Agirre, Oier Errasti, Oier Urbitarte, Manex de Prado, Teo Aranegi eta Luis Sudupe.



2008ko benjaminak:

Aratz Collado, Unax Nuñez, Abiot de Prado, Oier Zeberio, Julen Galdos, Oinatz Otaegi, Enaitz Landa, Xuban Gomez eta Manu Otaegi.

Aizkorri Guraso Elkarte



Ohikoa denez, Aizkorri Guraso Elkartean, atzera begirada bat botaz, urtean zehar egindako ekintzen laburpen bat egiteko garaia iritsi da 2016ko urte honetan.

Inauterietako ostiralekoa izan da lehena. Bertan haurrak ikastolan mozarrotu ondoren, txokolatada antolatzen da bertaratutako guztientzat. Jarraian, haurrak horren gustuko dituzten buruhaundiak izaten dira.

Kurtso amaierako festak ere izaten du bere xarma, opor luzeak iritsi baitira. Herriko kiroldegian haur jolasak antolatu dira, aurpegiak margotuz eta ohikoak diren taldeko jokuak ginez.

Bertan ere **“kirol festa”** egiten da Ekainean, haurrak eskola bukatu aurreko larunbatean, Xabier Intsaustik antolatuta gurasoen

laguntzarekin. Aurtengoan ere **ikastolako bazkaria** antolatu da. Jokoen ondoren, herriko ostatuan, ikasle, guraso eta irakasle artean 120 lagun inguru elkartu gara. Guraso Elkarte oso pozik dago festa honek duen arrakastarekin.

San Martin ondorengo igandean ere, bada haurrentzat pozgarri. Aurtengoan TOR magoak egin du bere antzezlan. Ondoren txokolate beroa banatu delarik.

Dakizuen bezala, eskola orduetatik kanpoko **zaintza zerbitzuak** ere, aurrera jarraitzen du goizeko 8:00etatik 9:00etara bitartean ikastolako jangelan Marian Telleria begirale bezala delarik.

Negu partean, igandetako **bideo emanaldiak** ere jarri dira kultur-etxean, igande arratsalde hotzak pasatzeko aukera paregabea izanik.

Elkarteko partaide guraso denak izan arren, hauteskunde bidez aukeraturiko ordezkari bat arduratzen da Elkartearen betebeharrak kudeatzen eta aurrera eramaten. Bi urtero ordezkari horren erdia berritzen da.

Beste behin gogora arazi nahi genuke Elkartearen egitekoa seme alaben heziketan Eskolako Irakasle Klaustroari laguntzea dela, eskola orduz kanpoko aktibitateetan eta aktibitate osagarrietan gehienbat.

Bestalde, finantziarioari dagokionean, gurasoen ekarpen eta Udal zein Foru Aldundiaren ohiko diru-sarrerak jasotzeaz gain, inguruko enpresa batzuen laguntza ere jasotzen dugu. Jakin badakigu, aurtengoan, krisia dela eta enpresa hauek esfortzu berezia egin behar izan dutela eta hau hala izanik, eskerrik beroenak luzatu nahi genizkieke guztiei Aizkorri Guraso Elkartearen izenean.

Aitxuri Herri Eskola



Aitxuri Herri-Eskolak bere esker ona erakutsi nahi die eskolarekin lankidetzan aritu diren partaide eta herritar guztiei.

Ezinbestekoa da eskolarentzat herrian diren erakunde, lantegi eta norbanakoen laguntza eta esperientziak jasotzea. Era hone-tan, herriko kultura, ohitura eta bizimoduan murgiltzeko aukera izaten dugu ikasle eta irakasleok. Izan ere, bizitzarako behar ditugun konpetentziak eskuratzeko oinarria da tokian tokikoa ezagutzea eta guregandik hurbil daudenengandik ikastea. Horrela, gure Curriculumean,

teorian, lantzen ditugun hainbat eduki errealitatean ikusi ahal izaten ditugu.

Ez dago zalantzarik irteera eta ekintza osagarri guztiak helburu didaktikoekin erabat lotuta daudela, eta gelaz kanpo jasotzen denak laguntzen diela ikasleei horiek errazago lortzen.

Aspaldi-aspalditik izan ditugu eskolan herritarrak lankidetzan, eta lerro hauen bitartez eskerra luzatu nahi genieke horiei guztiei. Ez da erraza denak aipatzea, beraz, azkenaldian gure artean izan ditugunak aipatuko ditugu.



Hainbat urtetan jende askoren laguntza izan dugu eskulanetako tailerrak aurrera eramanez ahal izateko. Guzti horien artean aurten Joxepa nabarmendu nahi dugu; izan ere, aurten jubilatua egin baitzaigu. Bere garaian eskulanetan ibili zen, baita jangelako eta autobuseko zaintzan, jangela apaintzen, sukaldaritzan ...



Iazko ikasturtean hemen izan genituen herriko alkatea bere lanari buruz hizketan, eta Arantxa bere egunerokotasunean, ikusmen urritasunarekin, nola moldatzen den azaltzen. Umeei ikaragarri disfrutatu zuten Nirroekin.



Eskolan istripu txikiak ere izaten ditugu, eta horiei aurre nola egin erakutsi ziguten garai hartan eskolako ama erizainak zirenak: Isabel, Marilu eta Edurne. Gainera, eskolako guraso guztiek izan zuten aukera lehen sorospenak ikasteko.



Herriko organojole eta eskolako guraso izanda, Jabirekin aukera izan zuten ikasleek elizako organoaren zenbait sekretu ezagutu eta entzunaldiaz gozatzeko. Ondoren eta bitxikeri bezala, kanpandorrera igo ziren berarekin.



Gauza asko hondatzen dira ume artean. Hona hemen arazoak konpontzen laguntzen digutenak: Ramonek San Nikolasetako bakuloa egin zigun; Miguelek, puskatzen diren motor txiki eta bizikletak berriak bezala jartzen ditu; Juanito mila ofiziotako eginkizunetan aritu da Aitxurin.



Agenda 21 proiektuaren barruan hainbat jarduera burutu ditugu urteetan. Museoko Nerea gidari izan dugu ekintza askotan, errotako Luisekin batera, Zuhaitz Egunean herriko udalekoekin, Museoa antolatutakoetan ...



Arakama anaiak beti prest agertu dira, euren langintzaren berri emateko, mintegiak erakutsiz, eta guretzat ezezagunak diren hainbat azalpen emanez.



Iaz hemen izan genuen Inazita loreen bitxikeria batzuk azalduz.

Baratzarekin egin diren lanak ez ditugu ahazten. Bertan aritu ziren Maria Luisa, Laura, Joxe eta Guraso Elkarteko gurasoak buru belarri.



Zegamako eta kanpoko lantegiak ezagutzeko aukera ederra izan dugu behar izan dugun guztietan. Josebak Kaldereria erakutsi zigun, Kepak okindegia, Pilik Atxaren Lazkaoko oilategia eta Luis Marik Gasteizko Mercedes kotxe lantegia.



Begoñaren ahotik desagertzen ari den transhumantziari buruzko makina bat istorio jakin genuen, eta Mari Pazek Oltzeko bizimodua eta artzantza munduko gorabeherak azaltzeaz gain, gazta nola egiten den erakutsi zigun.



Aspaldi hasi zen Olentzero gure eskolara etortzen. Emozio guztiak gainezka izaten dituzte Aituriko haurrek, batzuk negar, beste batzuk parre, zenbait ze aurpegi jarri ere ez dakitela ... Eginkizun hauetan lagundu digutenen artean Angel, Ricardo, Joxe, Sebas, Fernando ...

Gabonak girotzeko zuhaitz erraldoi bat izaten dugu ikastetxearen sarreran, Jose Domingori esker.

Eskolako lana utzi eta gero ere, bere premia izan dugun guztietan hemen izan dugu gure artean. Eskola barruan ikasleei taloak, ogia eta gaztaia egiten erakutsi die, eta kanpoan, berriz, Murgizelaiko udaberriko festan sukaldari izaten dugu. Bestalde, talde desberdinekin joan izan da herriko zuhaitzei buruzko azalpenak ematera.

Ekintza hauetan, bere gogobizi eta ilusia denongana ailegatzen zaigu.

Gure herrian hain ospetsua den Maratoian parte hartu izan duten herritar korrikalariak ere bertan izan ditugu, euren esperientziak, zailtasunak, ilusioak ... azalduz. Ikasleek irrikaz entzuten dute nola prestatzen diren eta idolotzat hartzen dituzte.

Tobera Musika eta Dantza Eskola

www.tobera.org

30
ikasturte
ekinean



URTEKO EKINTZEN ERREPASOA

Urtarrilaren 5ean, Erregeen Kabalagata antolatu zuen TOBERA Musika-eskolak, herriko kaleetan.

Zeraingo Otatza sagardotegiak urtarrilaren 15 iluntzean upelen irekitze-ekitaldia egin zuen, eta ekitaldi horretan TOBERA Musika-eskolako trikitiko eta panderoko ikasleen taldeak izan zuen musika jartzearen eta giroa epeltzearen ardura.

Urtarrilaren 30ean, Idiazabalgo San Blas jaien egitarauaren barruan, hainbat txistu-talderen arteko alardea egin zen. Tartean izan ziren TOBERA Musika-eskolako 6 txistu-ikasle beren irakaslearekin batera.

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, Zegamako herritarren abeslari-taldeari batu zitzaizkion TOBERAko trikitiko eta txistuko ia 30 ikasle.

Otsailaren 18an, berriz, normalean musika-eskoletako ikasleek eskura

izaten ez duten aukera eskaini zien TOBERA bere ikasleei: operaz bertatik bertara gozatzea. Hala, G. Verdiren *La Traviata* opera ezagunaren entsegu orokorra ikustera eraman ziren 40 ikaslelik gora, Donostiako Kursaalera. RTVEN "This is Opera" saioa aurkezten duen Ramón Gener-ek hitzaldia egin zuen gainera ikasleentzat.

Otsailaren 20an eta 21ean, Andoaingo Piano Jaialdiaren XI. edizioaren barruan, hainbat musika-eskolatako piano-jotzaileen emanaldiak izan ziren. Bi egunetan TOBERAko 9 lagun aritu ziren, 7 bakarkako modalitatean eta beste 2 lau eskutarakoan. Emaizta bikainak lortuta itzuli ziren etxera: 3k urrezko domina eskuratu zuten, 5ek zilarrezkoa eta beste 1ek brontzezkoa.

Apirilaren 3ko Erlezainen Egunean 'Agurra' dantzatu zieten TOBERAko hiru dantza-ikaslek zenbait erlezaini, eta txistuko zenbait ikaslek txistularien bandarekin

batera jo zuten egunean zeharreko kalejiran. Arku-egiteak egun seinatuetan, Zegaman: Jaunartzeetan –maiatzean–, jubilatuen egunean –uztailean– eta herriko zaindarien egunean –abuztuan–. Maiatzaren 1ean lore-sorta eman zitzaion Idiazabalgo alkateari Idiazabalgo herritarrek Arantzazura egindako Erromesaldian.

Apirilaren 24an, 200 dantzari eta musikari elkartu zituen TOBERA Musika-eskolak Zegaman, Dantzari Txiki Egunean. Fin aritu ziren *Aurtzakako*, *Azpillako* eta TOBERAko kideak. Musika-eskolaren sortzaileetako izandako Jabier Otaegi zenak ekintza huraxe izan zuen azkena ikusten musika-eskolaren aldetik, eta egindako lanagatik zorionak ematen agurtu zitzaigun eskolako patio estalitik. Betirako. Honezkero, esana dago berari buruzko guztia. Gure aldetik ere, honakoa erantsi baino ez: ez zaitugu ahaztuko.



Txulalai



Talde ugari dituzte aukeran instrumentuetako ikasleek: konboa, helduen gitarra-taldea, Zegamako eta Segurako Txistulin Txiki taldeak, Zegamako eta Segurako Txistulin taldeak, eta trikiti-taldea.



Azken urte luzeotako harrerarik onena du 2016/2017 ikasturteak herritarren artean: 150 ikaslek baino gehiagok 250 matrikulatik gora dituzte eginda. TOBERA Musika-eskolan izena ematea Zegamaren alde egitea da.

Maiatzaren 1ean, Beasainen egin-dako Dantzari Txiki Egunera joan ziren dantzako ikasleak. Eta maiatzaren 29an Ordiziako Dantzari Txiki Egunean izan ziren TOBERAko 30 bat partaide, dantzariak eta txistulariak, egun osorako.

Apirilaren 18tik maiatzaren 1era bitarteko bi asteetan, 15 proposamen tentagarri metatu zituen musika-eskolak *'Musikaren Hamabostaldia'* izeneko ekimenean. Bate-tik, musika-hizkuntzako eskolak atek irekita eman ziren apirilaren 18an eta 21ean Zegaman eta 21ean eta 25ean Seguran. Bestetik, entzunaldi-zikloa antolatu zen. Hala nahi izan zutenek, aukera izan zuten instrumentuak probatzeko. Apirilaren 18an, Segurako TOBERAGazte abesbatzak eta pianoko, txistuko eta danbolineko ikasleek jendaurreko saioa eman zuten Seguran. Biharamunean txistuko, danbolineko, trikitiko, panderoko eta perkusioko ikasleen txanda izan zen Zegaman. 25ean, Zegamako pianoko eta gitarrako ikasleek eskaini zuten herrian entzunaldia. Gitarraren kasuan, klasikoa, akustikoa, elektrikoa eta baxu elektrikoa entzun ahal izan ziren. 26an, saxofoiko eta zeharkako txirulako ikasleek elkarrekin jo zuten Zegaman, eta trikitiko, panderoko eta perkusioko ikasleekin batera Seguran. Azkeneko entzunaldia 28an izan zen, gitarrako ikasleen eskutik, Seguran.

Elkartrukea: aurten Iruñeko *Música Sin Barreras* elkartearekin egin du trukea TOBERAk. Apirilaren 20an Zegamako gimnasioan izan zen kontzertu bateratua, eta 27an Iruñean. Zegaman egindako elkartruke-kontzertuan bi eskoletako 80 partaide inguru aritu ziren elkarrekin, eta Iruñeko emanaldira 50 kide baino gehiago joan ziren TOBERA ordezkatzuz. Urteko ekintzarik esanguratsuenetakoa izan da hori, harrera paregabea izan baitu herritarren artean.

Música Sin Barreras elkar-teak duen berezitasuna da disfunzio fisikoak edota burukoak dituztenen integrazioa bideratzen duela musikaren bitartez. Down sindromearekiko sentiberatasuna jorratzeko, Zegamako Aitxuri eta Segurako Laiotz herri-ikastetxeen esku materiala jarri zen gaia lan zezaten, eta musika-eskolan ere zenbait ikasleekin sakondu zen gai berean. Gainera, Zegaman eta Seguran tailer bana eskaini zen Atzegi elkartearen gidaritzarekin, adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkartearekin. Zegamako apirilaren 5ean izan zen kultura-etxeko Oria aretoan, eta Segurako 7an, Segurako kultura-etxeko areto nagusian. Edonor joan zitekeen bertara, ikasleez gain. Bi tailerretan 80tik gora lagunek hartu zuten parte.

Bestalde, apirilaren 23an Euskal Herriko trikitilarien bi urtez

behingo jai nagusia ospatu zen Beasainen, eta TOBERArik trikiti-, pandero- eta perkusio-ikasleak joan ziren hara.

Musika-eskolen Europako Elkar-teak (EMUK) antolatzen du EMUSIK, Musika-eskolen Europako Jaialdia. Aurten Donostian izan da jaialdiaren hamabigarren edizioa, Donostiaren kultura-hiriburutzaren barruan. Iaz, 2015eko maiatzaren 9an (Europaren Egunean), Anoeta estadioan egin zen jaialdiaren irekiera-ekitaldirako entsegu nagusia, eta bertara joan ziren TOBERA Musika-eskolako txistuko eta gitarrako zenbait ikasle. Aurten, maiatzaren 6an, irekiera-ekitaldian bertan ere, Ilunben izan dira gure musika-eskolako 3 ikasle, eskolako irakasleetako batek lagunduta. Ekitaldi berezia bezain "hunkigarria" bizi ahal izan zuten. Izan ere, nazioarteko 4.000 musika-ikasle inguru eta Euskal Herriko beste 4.500 bat elkartu zituen EMUSIK jaialdiaren inaugurazio-saioak Ilunben.

Ekainaren 21a musikaren nazioarteko eguna da, eta bezperan eta biharamunean kokatu ditu 2016an TOBERAk kurtsoari agur esateko kontzertuak. Ekainaren 20an Seguran, hango jai patronalen egitarauaren barruan, 60tik gora ikasle elkartuta egin zen ikasturte-amaierako Kontzertua Segurako plazan. 22an, berriz, Zegamako plazan, 90

musikarik hartu zuten parte 18:30 eta 21:00 bitarte luzatu zen jaialdian. Festa-kutsua izan zuten emalndiek, eta, tartean, hainbat ikaslek musika-hizkuntzako ziklo-amaierako egiaztagiriak eta 2. nahiz 3. nibel-bukaerako Diplomak eskuratu zituzten. Afari-merienda eginda bukatu ziren 2 saioak. Zegamakoan, Jabier Otaegiren omenezkoa ere egin zen. Maila handiagoan, berriz, azaroaren 19an egin zitzaion herri-omenaldi hunkigarria Jabierri, eta musika-eskolak horretan lagundu zuten.

Ekainaren 23an, San Joan bezperako suaren inguruan, erromeria irudikatu zuten euskal dantzatako eta txistuko ikasleek Zegaman.

Segurako jaietan, San Joan zaindariaren egun handian bertan – ekainaren 24an, alegia–, iluntzeko berbena edo dantzaldia ireki zuen musika-eskolako ikasleek osatutako konbo taldeak (*Patxara* izena hartuta). Talde honen estreinako dantzaldia izan zen, musika-eskolaren ohiko ekintzetatik kanpo, eta herrikideen txalo-zaparradak eta ani-

moak ez zituzten faltan izan. Jarrera bikaina agertu zuten musikako ikasle gazteek jendaurrean, agertokia kontrolpean hartuta. Sei lagunek osatutako taldeak Zegamako festak ere girotu zituen gero, abuztuaren 24an, arrakasta errepikatuz.

Ez zen hori TOBERAk Zegamako jaietan egindako ekitaldi bakarra izan. Abuztuaren 24an, San Bartolome egunean, dantza-saioa egin zuten dantzatako eta txistuko ikasleek elkarrekin, Zegamako plazan. Gainera, hirugarren aldiz, musika-eskolako dantzatako ikasle ohiak agintarien soka-dantzaren gidari izan ziren. Eta 25ean trikitilariak eta pandero-jotzaileak kalejira egin zuten erraldoi eta buruhandiekin batera.

Uztailaren 17 eguerdian Donostiaren kultura-hiriburutzaren barruko **2016 Bidea** programan esku hartu zuten TOBERAko zenbait ikaslek. San Adrian igarobidean Ordiziako Urrup antzerki-taldeak egin zuen girotze-antzezpenean musika jarri zuten.

Irailaren erdialdeko asteburuan, TOBERAko zenbait txistu-ikasle gazte Portugalen izan ziren Idiazabalgo beste musikari eta dantzari batzuekin batera. Ez zen lehenengo aldia txistuko ikasle gazte hauek Euskal Herritik kanpora zihoazena jotzera. Iazko udan bertan, uztaillean, Galizian izan ziren Urretxuko Lurra Dantza-taldekoekin batera, nazioarteko folklore-jaialdi batean.

Musikarion zaindari Santa Zeziliaren eguna azaroaren 22an da, eta egun seinalatu horretan egin zuen TOBERA Musika-eskolak kontzertua Zegaman. Euskal Herriko Musika-eskolen Elkar-teak (TOBERA bertako bazkide da) sustatutako *Musikalean* ekimenaren barruan joan zen kokatuta. Azaroaren 30ean, berriz, astean zehar Mutiloan egindako Kultura-astearen barruan, TOBERA Musika-eskolako trikitiko, pandero eta txistuko zenbait ikaslek kalejira egin zuten.

Iker Gómez de Segura

TOBERA Musika-eskolaren izenean



Ekainaren 22ko emanaldia

UXUA BARANDIARAN ZURUTUZA

1982ko azaroaren 12an jaioa. Beasaindarra izan arren, hamar urte baino gehiago da Zegaman bizi naizela. Kazetaritza ikasketak egin nituen baina administrari moduan lan egiten dut Beasaingo Salvatore auzoan dagoen Otaizabal Aroztegia S.L. lantegian. Aurtengo urtean mendi lasterketa askotan parte hartu dut, ez dakit denak gogoratzeko gai izango naizen baina arrazoi desberdinak tarteko niretzat garrantzitsuenak edo esanguratsuenak hauek izango lirateke.



Uxua, Zegamako maratoia amaitu eta gero

- IV. Antzuolako 8 miliak lasterketan 3. emakumea
- II. Kolazinoko mendi eguna (Bedia herrian ospatzen den lasterketa honetan kilometro bertikal modukoa egiten da eta proba horretako saria lortu nuen aldapa hori igotzen emakumerik azkarrena izan nintzelako.)
- XII. Berako mendi maratoi erdia
- I San Son proba, Segura-Zegama mendi lasterketa
- XV. Zegama Aizkorri mendi maratoia
- Aragoiko Pirineotako Gavin herrian ospatzen den Crestas de Gavin lasterketan 1. emakumea
- XII. Camile Extrem (Izaba herrian)
- Montsenyko lasterka (Kataluniako San Esteve de Palatordera herrian)
- Viladecans (Katalunian) herrian ospatu zen lasterketan 2. emakumea
- Quereño (Galizia) herrian izandako Tres Lunas race mendi lasterketan 2. emakumea
- A Fonsagrada (Galizia) herrian ospatu zen mendi lasterketan 2. emakumea
- IV. Donostiako 3 mendiak proban 3. emakumea
- Tuterako I. Trail Santa Barbara S.D.R. Arenas mendi lasterketan 2. emakumea
- Azkenik, LII. Behobia-San Sebastian lasterketan parte hartzeko asmoa daukat.



JON ARAKAMA

Jon Arakama herritarra txirrindularitzan dabil azken urteotan eta 2. mailako kadete modura eta jubenen mailako 1go urteko mailan honako emaitza hauek lortu ditu korritu dituen frogetan:

ERREPIDEKO FROGETAN LORTUTAKO POSTUAK

Beasain-5	Gipuzkoako banakako erlojupeko txapelketa. Bergara-2
Zestoa-10	Errepideko gipuzkoako txapelketa. Oñati- 10
Deba-5	Tolosa-8
Artajona-5	Azpeiti-8
Urretxu-1	Mutilva-8
Ataun-4	
Gipuzkoako taldekako erlojupeko txapelketa. Zumaia- 2	

PISTAKO FROGETAN LORTUTAKO POSTUAK

Gipuzkoako Challengea. Donosti- 4
Gipuzkoako txapelketa. Donosti -3
Kopa España-eliminazio. Tafalla-4
Kopa España scratchen. Tafalla-9
Euskadiko txapelketa. Berriz-2
Espainiako txapelketa persekuzio indibiduala. Valencia-4
Espainiako txapelketa persekuzioa selekzioka. Valencia-2



Urretxuko frogan txapela jantzi zuen Jonek



Jon pistako froga batean

Elkartu Nahi

Elkartu Nahi T.E.an, 2016ko urte honetan, beste urteetako antzeko egitaraua gauzatu da. Hala ere, urteroko probez gain, 2 proba berri gehitu dira egutegira.

XXXII. ELKARTU NAHI SARIA:

Proba hau 2016ko maiatzaren 14an burutu zen junior mailako txirrindu proba da. Bera, Zegamako herrian bertan hasi eta inguruko mendate batetik (Lierni) pasatzen den zirkuitu bati bi itzuli eman ondoren, Barbariko mendate gogorra pasa eta berriro ere, herrian bertan ezarririko helmugan amaitzen da.

Proba honetan, Jokin Alberdi izeneko txirrindularia izan zen garaile eta lasterketa handi bat gauzatuz bakarrik iritsi zen helmugara.

I. ZEGAMA SARIA:

Aipaturiko proba berrietako bat da hau. 2016ko Ekainaren 4an gauzatu zen. Herriko eta inguruko gaztetxoei txirrindularitza ezagutu eta probatzeko aukera emateko asmoarekin sortu den proba da. Bertan Benjamin, Infantil eta Alebin mailako gazteek hartu zuten parte, eta beraien artean bi herritar izan genituen, Adur Arriabalaga eta Hartz Goia. Ibilbidea,

herriko hainbat auzotatik igarotzen zen zirkuitu bati bueltaka izan zen.

LXXXV. SAN BARTOLOME SARIA:

2016ko Abuztuaren 28an gauzatu zen Elite eta 23 urtez azpikoekin lasterketa. Hau, Torneo Euskaldun izeneko txapelketarako puntuagarria da. Urteroko moduan herriko jaietako azken igandean ospatu zen eta Lizarte taldeko Oscar Rodriguez izan zen garaile.

Ibilbideari dagokienean, aurreko urteko bera izan zen. Zegaman irten eta bi itzuli Idiazabalgo herritik, ondoren beste bi jarraian Lierniako gainera, eta beste bat Aztiriako gainera, Ormaiztegitik barrena igoaz. Aztiriako igoera honen ondoren, Barbariko igoera egin eta bertatik helmugara etorri ziren txirrindulariak. Ibilbide gogaikarriaren ondorioz, hiru txirrindulari iritsi ziren Zegamako herrira, sprint polit batean erabakiz garailea.

I. ZEGAMAKO MENDI DUATLOIA:

2016ko Azaroaren 26an gauzatu zen, bigarren froga berri hau. Azken 3 urteetan, herriko hainbat gaztek osaturiko, ELKARTU NAHI T.E. - ZEGAMA taldea

aritu da modalitate honetako Euskal herriko kopan parte hartzen, eta aurtengoan kopa honetako azken proba

Zegamara ekartzeko aukera izan dugu, orain arte ikusi gabeko proba berri bat herritarren ikusizunerako jarriaz.

V. ZEGAMAKO SAN SILVESTREA:

Azken urte hauetan egin bezala, aurtengoan ere, Abenduaren 31rako San Silvestre proba antolatzeke lanetan gabiltza. Herritarren artean, gustukoa delakoan, arratsalde polit bat pasatzeko eta korrikarako afizioa duten herritarrek aprobetxa dezaten, betiko ibilbidean, giro polit batean, gauzatuko da proba.

Aipaturiko ekintzez gain, Elkartu Nahi T.E.-k beste ekintza batzuetan ere lagundu du, esaterako herriko jaietan, herritarrentzat antolatzen den, Apeaderorako txirrindu igoeran.

Amaitzeko Elkarte honetako kideek eskerrak eman nahi dizkiegu proba hauek egiten laguntzen diguten herritar eta lagun guztiei.

Mila esker eta urteberri on!!



Karraztarro Kirol Elkarte

Mus txapelketako txapeldunak eta txapeldun-ordeak. Jabi Rodriguez eta Jon Urbizu segurarrak eta Urbitarte aita-semeak



Aurtengo urtea ere amaitzean da eta uso pasari dagokionez aurtengo denboraldian ez da zorte handirik izan gure inguruan. Pasari dagokionez uso gehien urriaren amaieran ikusi zen, nahiz eta geroago ere uso dezente pasa. Birigarroak aldiz, denboraldi hasieran egun politak izan zituen baina orokorrean ere urte kaxkarrak izan da.

Beste urteetan bezala, Karraztarro Kirol Elkartearen esfortzu handi batez egoera txarrean edo bukatu gabe zeuden postuen konponketara bideratu da. Urteroko lanaren ondorioz Zegamako linearen egoera hobetzea lortu dugu, nahiz eta oraindik lan asko falta egiteko. Lan neketsu honek bere fruituak ematen ditu eta hori ehiza denboraldian zehar ikusi ahal izan da, sortetara gerturatu den jende ugariarekin.

Urtean zehar ekitaldi ezberdin asko antolatu ditugu eta lehena otsailaren amaieran ospatutako Mus txapelketa izan zen. Bertan Jabi Rodriguez eta Jon Urbizu segurarrak gailendu ziren, aurkari Urbitarte aita-semeak izan zituztelarik. Herriko ehiztarienezat zuzendutako ehiza txikiko txapelketa hasiera batean atzeratu egin zen elurraren ondorioz. Geroxeago burutu ahal izan zen, apirilaren 9an, eta hogei parte-hartzaileen artean Mikel Urbiztondo suertatu zen irabazle bost eperrekin, jarraian Imanol Otaegi eta Jon Lekuona lau eperrekin izanik. San Bartolometako tiro-platoan Estebe Ariznabarretak irabazi zuen Jon Arakamarekin lehiatutako despenpatea irabazi ostean eta hirugarren postuan Joseba Arakama sailkatu zen. Irailaren 24an Goierri mailako Compact Sporting txapelketa antolatu genuen, inguruko tiratzaile hoberenak bertan izan genituelarik.

Ibon Agirre ataundarrak irabazi zuen guztien artean plater gehien hautsita. Bigarren postuan Aitor Larrea geratu zen eta hirugarrenean Adur Alustiza, lehen zegamarrak Felix Larrea izanik. Azkena eta ekitaldi garrantzitsuena, oihartzun aldetik behintzat, Ehiza feria izan zen. Iaz aipatu bezala, ekitaldi hau indartzeko ahaleginetan ibili gara, eta udalaren eta ACPT Eren (Asociación de Cazadores de Paloma Torcaz de Euskadi) laguntzaz helburuak bete ditugula uste dugu, nahiz eta oraindik zer hobetua izan.

Hau aurrera eraman ahal izateko, behar beharrezkoa da kolektibo eta elkarte ezberdinen laguntza eta hortaz guztion parte-hartzea ezinbestekoa da. Amaitzeko eskerrak eman ekitaldi edo beste zenbait arlotan lagundu duzuen guztioi.

JARRAI DEZAGUN
HORRELA ETA
MILA ESKER!



Ehiz txikiko txapelketa Mikel Urbiztondok irabazi zuen



Goierriko Compact Sportin-eko irabazlea: Ibon Agirre



San Bartolometako plater tiraketako irabazlea Esteban Ariznabarreta izan zen



Ehiz txikiko partaideak Ultzaman ZEGAMAKO URTEKARIA | 89

Orkatz Abesbatza



Lehenengo entsaioak 1981. urtean

Orkatz Txiki eta Orkatz ez ziren besterik gabe bat batean sortu, eta horren berri ondotxo zekien Jabik. Bera izan zen hogeit hamar pertsona inguruko taldetxo batekin elkartu eta entsaioak egiten hasi zena 1981. urtean. Handik lau urtera, 1985. urtean ospatu zen lehenengo Eguberri Jaialdia, eta taldetxo hortan abesten zutenek ederki gogoratzen dute ikasitako lehenengo abestia "Guztiz Ederra" izan zela.

Orkatz eta Orkatz Txikiren bisita zaharren egoitzetara

1982. urteko abenduaren 31 izan zen Orkatz Txiki lehenengo aldiz Segurako Zaharren egoitzetara joan zen eguna.

Ordutik hona urtero bisitatu dute Orkatzeko txikiak Segurako Zaharren egoitza (azken urteetan baita Zegamakoa ere) eta Orkatzek Beasaingoa. Jabi izan zen honen bultzatzaile; bere ustez egin beharreko zerbait zen Gabonak egoitza hauetan zeuden guztiak ospatzea, eta hauek alaitzeko Gabonetako abestiz egoitza hauek giroa. Oso serio hartzen zuen Jabik urtero zer egin hau eta ikustekoa zen zer nolako kontuak eta alaitasuna partekatzen zituen bisitatzen genituen bakoitzekin. Berak beti esaten zuen kantatzeaz gain, kantuaren bidez goza-arazi egin behar zela, eta ongi baino hobeto betetzen zuen hau Jabik; eta hau jakin badakite Orkatz eta

Orkatz Txikiren bisita izan duten hauek guztiak.

Irteerak: une zoragarriak elkarrekin

Ez dira gutxi izan urte hauetan guztietan Orkatzek eginiko irteerak. Hamaika lekutan izan gara Orkatzeko partaideak eta leku bakoitzean gure kantuak utzi eta une bereziak ekarri ditugu. Irteera horietako batzuk aipatzekotan, argazkietan jarritako hauek hautatu ditugu. 1990ean Madrilgo Euskal-etxea bisitatu genuen Vicente Larrearen (Elizondokoaren) bidez; Italiara (Veronara eta Erromara) joan ginen 1991an eta bertan izan ginen guztiok gogoratzen dugu Romeo eta Julietaren balkoian kantatu genuen abestia: "*Gobbo so pare, gobba sa mare...*", eta baita Erromako Jesúa elizan Loiolako Inazioaren jaiotzaren bosgarren urteurreneko mezan abestu genuela ere; 1994. urtean Bretañan izan ginen eta Paris bisitatu genuen, bertako abestia *Signum: "cum decore, cum amore,..."* izan zen dudarik gabe, 1998an Portugalera joan ginen, bertan azpian ageri den Gloria Fuertes en olerki honen ahotsa bukatu zuen, eta 2001ean Europa erdialdera egin genuen bidaiak, askok gogoratuko dute "*Euskal Herriko...*"

Bidaiak hauetan guztietan, beste hainbatetan bezala abestuz disfrutatu genuen eta denon bihotzean tokitxo bat hartzen duten oroitzapen ezinhobeak



1982. urteko abenduaren 31n Orkatz Txiki lehenengo aldiz Segurako Zaharren egoitzan.



Portugalgo bidaiak (1998) zer esana eman zuen Gloria Fuertes en olerkia.

ekarri genituen hauetako bakoitzetik. "*Una imagen vale más que mil palabras*" esaten da, eta argazki hauek dira horren adibide. Irudi hauetako bakoitzekin garbi ikusten baita Orkatz ez dela abesteko elkartzen den talde soil bat; horretaz gain anitza den familia izan da beti, eta hori da gure nahia, hala izaten jarrai dezala!

San Sadurni eta Orkatz

Orkatzek 1981. urtetik hona hainbat abesbatzekin izan du harremana, eta horien artean aipatzekoa da San Sadurniko abesbatzarekin izan duen hainbat urtetako elkartrukea. Jabi izan zen elkartruke hauen hasieratik egon zen bultzatzaileetako bat; 1989. urtean egin zen lehenengo elkartrukea San Sadurniko abesbatzarekin. Urte hartako maiatzaren 5, 6 eta 7an etorri ziren lehenengoz Zegamara (27. urteurrena aurtengoa), eta ordutik aurrera, elkartu izan garen bakoitzeko, harremana sakonduz joan gara. Hemen ikusten da, Jabik bertakoak ez ezik, kanpokoak ere oso ondo zaintzen zituela, denoi une dibertigarri eta ederrak oparitzen.



Orkatz Abesbatza Madrilgo Euskal-etxean 1990. urtean.



Orkatz Abesbatza Veronan 1991n.



Orkatz Abesbatza Bretañan 1994. urtean.



Orkatz Abesbatza Pariseko Eiffel dorrean 1994.urtean.



Orkatz Abesbatza Pragan 2001ean.



Orkatz Gazteak Zegamako San Martin elizan Jabiren zuzendaritzapean.

Orkatz Gazteak

Orkatz Gazteak taldea Jabik sortu zuen 2014.urtean. 1996-2001.urte bitartean jaiotako Orkazkideek osatu dute talde hau. Orkatz Txikin abesten zuten, eta ahots aldaketa zela eta, Jabik hirugarren taldetxo hau sortzea erabaki zuen. Hemen ikusten da berriro ere Jabik Orkatzekiko zuen konpromezu eta prestotasuna; bi talde zuzentzea gutxi ez balitz, hirugarren honekin ere ostiraletan entsaiatzen zuen. Urte hauetan Orkatz Gaztekoek ikuskizun zoragarriak oparitu dizkigute eta oso gustura eta Jabirekin eskertuta sentitzen dira, talde honetako parte izateko aukera izan dutelako.

Orkatzen etorkizuna

2016ko maiatzean 7an erren gelditu zen Orkatz taldea. Inork espero eta nahi ez zuena gertatu zen San Sadurniko abesbatzarekin kontzertua ematen ari ginela. Hori gertatu zenean uztailaren 17ko kontzertua hitzartuta genuen eta nola edo hala adostutakoa betetzea erabaki genuen guztion artean. Hori egiteko Imanol Elizasorekin jarri ginen harremanetan; berekin prestatu genuen uztailaren 17an abesteko programa eta kontzertuko egunean ere berak zuzendu gintuen. Egun hau oso hunkigarria izan zen gu guztiontzat, eta erraza izan ez bazen ere kontzertu txukuna eman genuen. Askok eskertzen dugu Imanolek egin zuen lana eta

erakutsi zuen jarrera, oso gustura egon ginen berarekin eta asko ikasi genuen. Eskerrik asko, Imanol! Honetaz gain, uztailaren 10ean (Jubilatuena eguna) eta abuztuaren 24ean (San Bartolome eguna) urteroko legez Orkatz Abesbatzak Zegamako San Martin elizan izan ziren elizkizunetan parte hartu zuen. Egun hauetan Orkatzek egindako kantuak ezinezkoak izango ziren Maite Rodrigorengatik izango ez balitz; bera izan baitzen entsaio eta emanaldi hauek zuzendu zituen, eta ondo zuzendu ere! Benetan txalogarria egin zenuena, Maite! Eskerrik asko!

Udara igaro zen eta konturatzerako ikasturte berria ate joka genuen eta nola edo hala, Jabik egindako talde honi beste gidari bat bilatzen saiatu ginen. Ez genekien ondo zein eta nola, baina denok ados geunden talde honek jarraitu behar zuela, abesten jarraitu nahi genuela, Jabirengatik eta gurengatik. Hori horrela, Osane Leizarekin egin genuen topo eta irailaren 16tik gaur arte, ostiralero bildu gara berarekin Orkatz Txiki eta Orkatz.

Osane Bakaikun jaio zen 1978. urtean. Majisteritza musikala ikasi zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta hamabost urte daramatza Iruñerriko eskola batean lanean euskara eta musika irakasten. Musika ikasketez gain, hainbat zuzendaritza ikastaro egin ditu Osanek. Gainera, gu

zuzentzeaz aparte berak ere abesten du; Etxarri Aranatzeko abesbatzan hasi zen abesten; Iruñeko Ganbara Abesbatzan egon zen ondoren, eta orain, Elkhos ahots taldean dago. Neska bikaina da Osane; lanerako prestotasun aparta erakusten du, eta egoera hau berarentzat samurra ez bada ere, ezin hobeto egokitu da Orkatz taldera, bai txiki eta baita haundiekin ere.

Berarekin egindako lehen emanaldia Jabiren omenaldikoa izan zen, egun hunkigarria baina aldi berean zoragarria izan zen azaroaren 19a Orkatzkide guztiontzako.

Eguberri Jaialdia ere, urteroko legez, ari zaigu gerturatzen. Aurtengoan abenduaren 18an ospatuko dugu. Eguberri Jaialdi ezberdina izango da aurtengoa, baina seguru gaude, zauden lekuan zaudela ere Jabi, gurekin gozatuko duzula.

Eskerrik asko guztiagatik Jabi!!! Eta lasai, zure Orkatzek, gure Orkatzek, jarraituko du eta!

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi kantuz igortzen ditut nik penak ihesi...

Kantuz iragan ditut gau eta egunak kantuz ekarri ditut griñak eta lanak kantuz biltzen nituen aldeko lagunak kantuz eman dauzkate, obra gabe, famak kantuz hartuko nauia zeruko jaun onak.



Orkatz taldea Murgi Zelaian 2014-2015 ikasturteari bukaera ematen.

Amezti Elkartea



MUS TXAPELKETA

Urtarrilaren 30ean ospatu genuen Amezti mus txapelketa. Aurten ere parte-hartzaile kopuru handia izan genuen eta lehia gogorraren ondoren finalean, Aitor Arakama eta Mikel Goiburuk osatutako bikotea gailendu zitzaion Joseba de la Hera eta Xabier Azurmendik osatutako bikoteari. Finala bukatu eta gero lagunarteko afaria egin genuen musean aritutako guztiekin.

BATZAR OROKORRA

Aipirilaren 30ean egin genuen aurtengo batzar orokorra, bertan ohikoak diren gaiak landu ziren eta besteak beste urteko kontuak onartu ziren, hain zuzen ere 2015eko kitapena eta 2016rako aurrekontua.

Zuzendaritza batzordean aldaketa bat egin zen, Antonio Morillok utzi zuen batzordea eta Juan Mari Ormazabal sartu zen. Batzarrak egindako lanarengatik eskerrona agertu zion irten zen kideari.

HERRIGINTZA

Ameztiren heburua sortu zenetik herrigintza izan da eta ia hain ahazturik dauden auzolanaren baloreak berreskuratu eta gizartean txertatzea. Horretarako, norberaren esana baino ekina adibide hobereena izaten dela eta, herrigintzako hainbat aukeretan parte hartu du urtean zehar.

San Bartolome jaietan azken urteotako ekimenari eutsiz, gaueko hondakinak garbitzen aritu ziren udal langileei eta txirringularen frogako antolatzaileei gosaria prestatu genien elkartearen.

Paella lehiaketan ere parte hartu genuen San Bartolome jaietan gainerako elkarteekin lehiatuz eta lehiaketa ondoren herritarren artean paella banaketan parte hartuz.

Era berean, Aizkorriko Lagunen Egunean, uztailaren 3an, herriko plazan Euskal Parrilakoei hegaluzea prestatzen eta banatzen lagundu genien.

San Martin ferian ere gure laguntza ematen diogu udalari, gazta lehiaketara aurkeztutako gaztak zatitu eta herritarren artean banatzen.

Azkenik, III. Cava festan ere lanean gogor aritu gara. Udalerriko beste elkarteekin batera parte hartu genuen cava festako afariko jakiak eta cavak banatzen eta baita txartelak saltzen ere.

BAZKIDEEN ARTEKO AFARIAK

Bazkideen arteko erlazioa ere landu dugu aurten ere. Horretarako bi afari antolatzen ditugu urtero, eta bazkideen artean loteriaren partizipazioak ere banatzen ditugu ea hirugarren afari bat egiteko aitzakia sortzen zaigun. Bazkideen arteko afariak uztailaren 23an eta abenduaren 7an egin genituen. Bietan ere giro ederra izan zen.



Aitor Arakama eta Mikel Goiburuk jantzi zuten txapela



Xabier Azurmendi eta Joseba de la Hera, txapelkun-orde geratu ziren

Amezti

Mendi Elkarte



Ohartu ordurako iritsi zaigu urte bukaera eta honekin batera urtean zehar egin ditugun irteeren azterketa egiteko unea. Hona hemen urtean zehar egin ditugun mendi-irteeren zerrenda eta aipatzekoak:

Urtarrilean, behin Gabonak iragan ondoren aterkia hartu eta euri nahiz haizeari aurre eginez, Zegamatik irten eta Altxibarko tejeritik gora Barbari auzora joan ginen, ondoren basoetatik barrena Zeraingo herrira iritsiz. Bertan hamaiketako egin ondoren, berriro Hermasoro inguruetatik igaroz, berriro herrira itzuliz.

Otsailean, Tolosako Bedaio auzotik abiatuz, Urdileko lepotik barrena, Urritzako Haitza (788m) igo eta Nafarroako Azkarate herrira joan ginen. Bertan indarrak berreskuratu eta Zarateko lepotik, berriro Bedaia itzuli ginen. Balerdi mendiaren magalean, eguzki goxoa lagun, paisaia ederrak ikusi ahal izan genituen, aurreko astean eginiko elurtea nabarmena zelarik Malloak mendizerran zehar.

Martxoan Bizkai aldean izan ginen. Buztinkaleko mutilak bertako bazterrak erakutsi nahi zizkigula eta, Elantxobe portutik abiatuz, Ogoñoko lurmuturretik igaro eta Urdaibaiko itsasertzeaz gozatuz, Lagako hondartzara joan ginen. Bertatik, Akorda auzora



2015 urtean Amezti irteera ondoren Urretanen gosaldun ondorenekoa

igo eta Ibarrangelutik bueltan, berriro Elantxobera helduz. Bertan gainera, autobusak plazan bira emateko lekurik ez duenez, plataforma baten gainean nola ematen duen ikusteko aukera izan genuen. Ereñon bapo bazkaldu ondoren, arratsaldean itzuli ginen herrira.

Apirilean, Nafarroan izan ginen. Arantzatik abiatuz lehenik Mendaurko gainean (1131m) izan ginen. Tontorrean, Trinitate ermita dago eta bertan zegoen haize bortitzari babes egin eta hamaiketako egiteko aprobe txatu genuen. Inbidi pixkat ere pasa genuen, bertan zeuden beste mendizale batzuk, butaniloa atera eta ajoarrieroa jaten hasi zirenean!! Ondoren, Mendieder gaina egin eta berriro Arantzara jeitsi ginen herriari bira moduko bat emanez,

nahiz taldekide batzuk “ataju” bat hartu zuten. Bazkal ostean inguruan zehar turismo pixkat eginez, San Juan Xarreko ermita-zuloa bixitatu genuen.

Maiatzaren lehen egunean, Aizkorriko gurutzeta dagokion tokian jartzen izan ginen. 2015eko udazkenean Aizkorriko gurutzeta zerraz moztua agertu zen. Honela, bizkarrean jeitsi, konpondu eta indartu ondoren, berriro bere tokian jarri genuen. Segurako lagun talde batek gurutzeta eta materiala garraiatzen lagundu ziguten eta bere jatorrian, duela 30 urte inguru, gurutze bera jartzen egon zen oñatiar gizon bera, aurten ere gurekin izan da lan honetan. Espero dezagun, gurutzeta betirako bertan izan dadila!!

Bestalde, maiatzean antolatutako irteera Zaraia mendilerroa izan dugu, Deba Garaira. Oñatiko Araotz auzotik gora, Santikutz lepotik abiatu ginen. Lehenik Degurixako zelaietara iritsi ginen, gero handik, harkaitz azpian dagoen ate moduko zulo batetik iragan eta Kurutzeberri alderantz joateko. Eguraldia okertzen joan zitzaigun eta horrela gainera jotzerako momentuan zegoen haize eta lainoak ez zigun nahi genuen tontorra aurkitzen lagundu eta Kurutzeberri ordez, Elurretako Aitza



(1155m) gainera iritsi ginen. Beherakoan babes bila, Kargaleku izeneko etxaboletan bokadiloa jan eta berriro autora jeitsi ginen.

Urtero bezela, Aizkorriko Mendi Maratoia ere izan dugu, aurtengoan eguraldi traketsa izan dugularik lagun.

Ekainean, Sabiñanigoko eta Gasteizko Mendaur mendi taldeekin batera egin genuen irteera, aurtengoan Pirineotara. Larunbatean Jakan gaua pasa genuen. Anekdotak gisara, igande goizean autobusa hartzerakoan taldeko 2 “beteranoak” falta zitzaizkigun, ez dakigu gauean parranda egin eta izarak itsatsi zitzaizen edo zer. Cotefabloko tuneletik irten eta Toronzue (2263m) mendian izan ginen. Itzulera, Linas de Broton bazkaldu ondoren egin genuen.

Uztaileko lehen igandean Aizkorriko Lagunen Eguna ospatu genuen ohi bezela. Lagun talde ederra elkartu ginen herritik nahiz Aldaolatik joandakoen artean.

Uztailaren erdigunean asteburu bat Aizkorri inguruan iragan genuen. Larunbatean, Zegamako mugen zati handi bat zeharkatu genuen. Maittegitik abiatuz, basoan gora, Barbari alderantz joan, handik Bostaizetatik gora Arranoaitza eta Oazurtzetik Andraitza igoz. Aizkorri arteko tontor denak puntarik punta igaro ondoren, Urbira jeitsi, bertan afaldu eta gaua pasatuz. Egin zuen eguraldi paregabearekin, paisaia ederrez gozatzeko aukera ederra izan genuen, horien artean Urbiko zelaietatik eguzkia nola ezkututzen joan zen.



Frantziako Pirineotan, Oulettes de Gaube

Igandean, Donostiako Bidea 2016 etaparekin bat eginez, Arantzaura jeitsi ginen eta Otzaurterainoko bidea egin genuen, guztira 150 bat lagunek. Tartean hitzaldi eta erakustaldi ezberdinetan parte hartuz.

Irailan, Frantziar Pirineotan egon ginen. Larunbatean, Gavarnieko zirkoa eta bertako ur jauzi handian egon ginen. Gaua Cauteretsen igaro ondoren, igandean Pont d’e Espagnetik Oulettes de Gaubera arteko ibilbidea egin genuen, hau da, Vignemale azpira arte. Eguraldia lagun, Pirineotako mendi ezagunetako baten glaziarren magala eta bertako ikusmira ederrak ikusteko aukera izan genuen.

Urrian, Gipuzkoako Eskolen arteko Finalisten Eguna Zegaman antolatu dugu. Denera ia mila ikasle nahiz guraso elkartu ginen bertan. Goizeko 9:00etan ekin

zuen lehen ibiltariak Elor Txikitik zehar 10 km-tako bideari. Eguraldiari dagokionez, denetik izan zen, ostarteak, euri zaparrada bortitza eta ohikoa den haizea ere izan zuten bertaratuak. Hala ere orokorrean, ikasleak gustora ibili zirela aipatu zuten. Bukaeran, dagokien ikasleek beraien diploma jaso ahal izan zuten eta denak opariren batekin itzuli ziren.

Azaro nahiz abenduan, eguna motza eta izaten dela eta herri inguruan egin ditugu. Azaroan, Etzegarate eta Lizarrausti bitarteko 14 km-ako ibilaldia eta Abenduan, Ameztirako urteroko bixita, Urretaneko hamaiketako barne.

2017 urtean, gurekin batera egun eta paisaia ederraz gozatu nahi baduzue, ateak zabalik ditugu.

ZORIONAK ETA 2017 BERRI ON



Donostia 2016 bidea egiñez, Urbiko zelaietan



Zegama Mugaz Muga egunean Maittegitik gora Barbari alderantz

Gazte Herexa

Elkartea



Gazte eguna ospatu zuten apirillean



Herriko gazteak, ederki pasatu zuten lagunarteko afarian

Behin 2015ko Gabonak bukatuta, eta epe honetan ospatutako bazkari eta kantu eskea atzean utzita, Gazte Herexak 2016. urteari harrera eman zion.

Zegamako gazte elkartearen urteko lehenengo ekitaldia, Otsailaren 5ean izan zen. Egun honetan, herria mozturro ezberdinez eta giro apartaz jantzi zen, inauterriak ospatu nahian. Herriko gazteak “Txanton” tabernan 7:30etan trikitilari bikote batekin elkartu eta hauen kantuen atzetik, herriko tabernetan zehar poteoa egin zuten. Ondoren, “Ostatu” jate-txean afaria izan zuten. Nahi zuenarentzako, festa polita aurreikusuten zen!

Behin neguko hotzak bukatuta, apirilaren 2. gazte eguna ospatu

zen. Eguna, bazkari batekin, udal-txe portikupean hasi zen; eta nola ez, giro aparta sortu zen hurbildu ziren gazte guztien artean. Behin, tripa ondo beteta, joko ezberdinak eginez pasa zuten arratsaldea. Egunari amaiera emateko, poteo eta afaria ere antolatu ziren.

Aipatzekoa da ere, gazte herexak herriko festetan eginiko lana. Denboraldi bat geldu egon ostean, San Bartolome egunean, gazte afaria antolatu zuten herriko frontoian, lehenik “triki-poteoan” giro ezin hobea zabalduz. Bertatik ordu gutxira, abuztuaren 25ean, “Umeen egunean”, umeentzako jolasak aurrera eramane zituzten. Goiz honetan, jolasak ezezki; inguratutako ume guztiek opari bana jaso zuten Gazte Herexa eta udal-txearen partetik.

Eta azkenik, herriko festetako lanekin bukatzeko, bigarren larunbatean, “kuadrilen egunean” zehazki, abuztuak 27, udal-txeak antolatutako bazkarian laguntzaile bezala parte hartu zuten. Gazte Herexaren egun honetako eginkizuna, bazkari-tikeen lana aurrera eramane eta bazkariaren ondorengo animazioa antolatzea izan zen; Urteroko legez, dantza txapelketa antolatu zen patioan bazkalostean. Giro ederra izan zen bildu zen jendearen artean.

Zegaman, 3. urtez, urriaren 21 eta 22an Cava festa antolatu zen, herriko talde ezberdinen laguntzaz; tartean Gazte Herexa izanik. Udalak antolatutako ekintza honetan lagundu zuen elkarteak. Giro ederrean ospatu zen ekintza hau ere, besteak bezala.



GOIERRI AUKERA
metal eta aluminio arrotzeria

Acero inoxidable
Herrería
Aluminio



Pol. Ind. MALLUTZ 10 -12 ORDIZIA • T. 943 881 563 • F. 943 881 407
aukera@goierriaukera.com • www.goierriaukera.com

Tartaloetxe

Kultur Elkarte



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON GUZTIO!

Dagoeneko 2016. urtea bukatzeaz dagoen honetan, urteroko legez, hemen gara atzera begirada bat emateko asmoarekin; urtean zehar egindako hainbat ekintzen aipamen txiki bat baik ere egiteko garaian gaude. TARTALO bezala egiten ditugun ekintza gehienak esan dezakegu errepikamenak direla, urtero ekintza berdintsuak egiten ditugu. Hala ere TARTALOKo pilota atalean, harro, esan dezakegu egiten den lana txalotzekoa dela benetan; bai, hainbat gazteren zaletasuna piztu eta indartu ez ezik aukerak jartzen saiatzen garela beraien teknika hobetzen eta hainbat txapelketetan parte hartuz gure herriaren eta gure pilotarien izena maila handian jartzea lortzen hari direlako bai pilotari gazteak eta bai teknikari eta laguntzaileak, ere. Zorionak zuei!

Ondorengo, azken hamabi hilabetetan egindako edo parte hartutako hainbat ekintzen aipamentxo bat da:

GABONETAN SENIDE, PRESO ETA IHESLARIAK GOGOAN

Gure ekintza batzuek urteko azken egunetan izaten direlako ematen du atzetik aurrera asten garela



Abenduaren 26an aizkora desafioan parte hartu zutenak

kontakizunekin, baina horrela da, lehenik iazko abendu bukaera aldera egin genituenak kontaktzen hasiko gara; zergatik, ba, haiek jaso gabe daudelako eta aurtengoak ospatzen ditugunean, dagoeneko, urtekaria kalean izango delako.

Abenduan, TARTALOK, euskal preso sakabanaketaren amaiera eta etxeratzea eskatzeko zer ekintza egin ideia batzuei bueltaka gabiltzala, non azaltzen zaigun bi herritar aizkora desafioa egin nahi zutela esanez; beraiek ere preso giza eskubide urraketen aurka dardenez, agian, ekintza bateratu bat egitea posible izango zela adieraziz. Ondorioz, Joxe Mari Arakama "Euzkitze" eta Joxe Mari Esnaola "Txapas", bi desafiataileak gain, abenduaren 26an herriko pilotalekuan, herri kirol saio zabalago bat egitea erabaki genuen. Desafioa desafio, Ande Arbenoiz Urruñarrak (Lapurdi) lasto fardoak altxatzen eta Jon Unanue (Goenatxo III.) Azkoitiarra harri jasotzen, erakustaldi ederra eman zuten; hauez gain, umorea eta giroa gehiago berotzeko asmoarekin Gabiriako Aratz Igartzabal eta Zegamako Iker Zubeldia bertsolarien sormena eta umorea entzun eta gozatzeko aukera paregabea izan genuen bertaratu ginenak.

Desafioko lanari dagokionean "Txapas"ek zutik ebaki zuen enborra eta "Euzkitze"k ohiko eran, lurrean. 400 € jokatu zituzten eta irabazle, orainoan, Joxe Mari Esnaola izan zen. Bestalde, aipatu beharrezkoa da kiroldegira gerturatu zirenak eman zuten sarrera-laguntza, lortutako diru guztia sakabanaketak eragiten dituen gastuei aurre egiteko bideratu zen.

Bestalde, urteroko ohiturari helduz, abenduaren 31ko preso, senide eta iheslarien aldeko elkarretaratzea egiteaz gain, gaztaina eta gazta jatea izan genuen udal-etxe aurreko plazan.

URTARRILEAN DENOK BILBORA

Urtari hasiera ematearekin batera, urtarrilaren 9an, Euskal Preso eta Iheslari politikoen giza eskubideen aldeko eta dispersioarekin amaitzearen aldeko Sarek egindako deiarekin bat egin eta bertara joateko deia zabaldu genuen TARTALOK ere. Berrito, datorren urtarrilaren 14ko, Sarek manifestazio baterako deia luzatua du; Salutzen dut / Yo denuncio kanpainaren barruan. Kanpaina honen bidez presoak pasatzen hari diren giza eskubideen urraketa salatu, preso gaixoak etxeratzearen alde eta dispersioaren kontrako denuntzia bat izatea nahi dute. TARTALOK ere asmo hauekin bat egiten dugunez, Bilbora joateko deia luzatu nahi dizuegu herritar guztiori, sinatzeko zuen salaketa eta izena emateko bertara joateko antolatu den autobusean.

ORDEZKARITZA SEGURAKO HIPARRA HEGOAN

Aurtengo Hiparra-Hegoa aste kulturalarekin bat, besteak beste, TARTALOK hiru bikotek parte hartu zuten Seguran egiten den sukalki txapelketan. Aurtengo gaia, GURE ESKU DAGOREN inguruan antolatu zuten, Euskal Herria eta Katalunia elkarri begira jarritz. Hitzaldiak, Castellak, dantzak, politikarien solasaldiak, bertsolariak, umeentzako ekintzak... zer ez zuten antolatu aste guztian zehar gure aldame-neko herrian.



Iparr-hegoan ere parte hartu genuen



San Bartolometan, paella lehiaketan txapelkun

Esan dezakegu azken urteetako ediziorik jendetsuenetako izan dela aurtengoa. Horren adierazgarri izan daiteke Kataluniatik bakarrik, lau autobusetan, ia 200 lagun etorri zirela aste bukaera pasa; horri Ipar Euskal Herritik eta Segura inguruko beste herrietatik gerturatutako jendea gehitzen badiogu, pentsa. Guri dago-kionean antolatu zituzten ekimen batzuetan pertsonalki parte hartu bagenuen ere, ofizialki sukalki txapelketan parte hartu genuen TARTALO bezala. Esan bezala aurtengo parte hartzea ez zen makala izan eta plazako karpara bertaratu ziren seiehun bat lagunei jaten emateko arduraren partaide izan ginen aurten ere. Saririk ez jaso arren hurrengo urtean ere gure partaidetza ziurtatu genien Segurarrei; diotenez, gu gabe ez delako berdin.

ELKARTEAREN EGUNA

Aurtengo TARTALO eguna ekainaren 18an ospatu genuen, hainbat bazkide eta herritarren parte hartzearekin; goizean elkarteari izena ematen dion Saadar mendiko trikuharrira irteera antolatu genuen; arratsaldean pilota partidak eta ondorengo afariarekin amaitu genuen aurtengo elkartearen eguneko egitaraua.

SAMARTOLOMETAN

PAELLARIK ONENA TARTALOKOA

Urtero herriko jaietan antolatu ziren den Paella Lehiaketan parte artzen saiatzen gara elkarte bezala. Aurten ere bi bikote izan dira TARTALOKO ordezkariak; Jabier Matias eta Andoni Gallegok osatzen zuten bikotetako bat eta beste bikotea Nekane Arantza-

mendi eta Anartz Goiak osatua izan ziren. Aurtengo Samartolometako paellarik onena, epaileen iritziz, TARTALOKO ordezkariak, Nekane eta Anartzek egin zutena atera zen garaile. Zorionak irabazleei ez ezik parte hartu zenuten bikote guztioi!

ELKARTASUN EGUNA

Herriko festetan euskal preso, iheslari eta senideei herritarren elkartasuna adierazteko asmoarekin, abuztuaren 26an, elkartasun eguna antolatu genuen. Ostirale-tako elkartaratzeaz gain herriko tabernetatik zehar poteoa eta ilunabarrenean udaletxeko plazan afaria izan genuen bertaratu ginen herritarrak; giro ezin hobean bukatu genuen eguna.

MUS TXAPELKETA

Elkarteetako ohiturari jarraituz aurten XXIV. TARTALO Mus txapelketa antolatu genuen. Beti bezala, iraileko azken ostiralean jokatu ziren kanporaketak, parte hartu zuten 17 bikoteraren artean eta urriko lehen ostiralean, 7an, finala jokatu zuten aurrerako geratu ziren zortzi bikotek. Aurtengo bikote irabazlea Xabi Azurmendi eta Joseba de la Hera gazteek osatzen zutena izan zen; aldiz, bigarren geratu zen bikotea Jabi Telleria eta Imanol Azurmendik osatutakoa izan genuen. Giro ederrean pasa genituen bi ostirale-tako saioak eta lehenengo zortzi bikoteaz gain elkarteko bi kidek osatutako lehen bikotearentzat izan ziren sari ugari. TARTALOETXE Kultur Elkartetik eskerrak eman nahi dizuegu bai aurkeztutako muslari parte hartzailei eta nola ez sariak eman dituzuen laguntzaileri, guztioi mila esker.

SAN MARTINETAKO TXAKOLINA

San Martinetako ferien barruan, ba dira urte batzuk, TARTALOTIK, Txakolin dastatzea antolatzen dugula. Aurten ere asmo horrekin hainbat txakolindegitako produktak aukeran jarri ditugu bertara gerturatu diren herritar naiz kanpotarrentzat. Dakizuen bezala basoa erostearen truke salda beroa eta nahi hainbat txakoli ezberdin dastatzeko aukera izaten dute bertaratuak. Aurtengoan ere salda, pintxo eta txakolinarekin topa eginez ospatu genuen giro paregabea San Martin feria.

GABONETAN ERE EZ GAUDE DENOK!

Urteroko legez, aurten ere, abenduaren 31ko iluntzean udaletxe aurrean elkarteko gara gure artean ez daudenak etxera etor daitezen aldarrikatze eta beraien senideei gure elkartasuna adierazteko. Dagoeneko gure artetik 17 urte hauetan falta zaigun Arkaitz eta beste ehunka euskal preso eta iheslari gure elkartasuna luzatu nahi diegu egun honetan ere. Herritar guztioi gonbitea luzatzen dizuegu bertan parte hartzeko. ETXEAN NAHI DITUGU!



Mus txapelketako txapelkun eta txapelkun-ordeak

Tartaloetxe pilota elkartea

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!



Aurtengoan ere jarraitu dugu haur nahiz gaztetxoekin pilotan jolas-tuz. Aipatzekoa da umeen artean zaletasuna badagoela eta beren kopurua handiago egin dela.

2016 amaiera honetan federaturik ditugun pilotariak honakoak dira:

Alebinak: Aratz Izeta

Infantillak: Unai Barandiaran, Egoi Telleria,

Kadeteak: Iñaki Galdos (aurten Lazkaoko taldearekin jolasten)

Nagusiak:

Iñigo Suarez (beasaindarra), Xabier Azurmendi,

Iban Matxinandiarena, Iñigo Intxausti (segurarra), Unai Atxa, Beñat Azketa (beasaindarra), Iñaki Zabala (beasaindarra), Xanet Imaz (segurarra)

Emaitzei dagokionez, aipatu beharra dago Beñat Azketak eta Unai Atxak aurtengoan Nagusien Ohorezko mailan parte hartu dutela. Horrela, afizionatu mailako Gipuzkoako pilotari onenekin lehiatu dira eta kategoriari eustez gain, maila ona eman dute. Gainera, Lezoko txapelketan garai-pena lortu zuten. Gainontzekoetan aipatu Unai Barandiaran eta

Egoi Telleriak ere Leintz Gatzagan txapela lortu zutela.

Beste urteetan ohi bezela, Gipuzkoako federazioak antolzen dituen txapelketez gain Euskal Herrian osoan zehar eta batipat Gipuzku eta Nafarroan hamaika txapelketetan parte hartu dute.

Pilotako zaletasuna duten haur orok ateak zabalik dituztela aipatu nahi genuke. Etor deitezela frontoira entrenamendu egunetan.

Herritar guztioi gonbitea berriz ostiral iluntzetan izaten diren partidetara etortzeko.



Unai Barandiaran eta Egoi Telleria Leintz Gatzagan



Unai Atxak eta Beñat Azketak Nagusien ohorezko mailan jokatu dute



Pilotarien harrobia sendo dago

San Martin Parrokia

Jarrian, 2016an zehar izan ditugun ospaketak aipatuko ditut.

BATAIOAK

Bataioak hiru txandatan ospatzen dire: Jesusen bataioaren festan (Errege festaren ondorengo igandea), Bazko bigarren igandean eta iraileko igande batean (gurasoen artean aukeratutakoa). Elkartean ospatzeak garrantzi eta emozio berezia du beti, denok arduradun garelako adieraziz. Hauek dira aurreko bataioa hartu duten umeen izenak guztira hamar:

- ANGEL DANIEL AYBAR ISAAC
- LUKEN ALBIZU GOROSPE
- XABIER ARAKAMA ARANA
- AIMAR PELAEZ GARZON
- JOANES IZTUETA ZUBIZARRETA
- ARATZ IZTUETA ZUBIZARRETA
- KIMETZ OTAEGI LOARAN
- HELENE TELLERIA DE LOS MOZOS
- JULEN TELLERIA DE LOS MOZOS
- LARRAITZ LARREA JAUREGI
- JAKES OTAEGI AIERBE
- NAROA GARRIDO MORILLO
- ENAITZ MUJIKAZUBIZARRETA
- JOSE ZABALETA DELGADO
- INTZA IZAGIRRE AIZPEOLEA
- DANIELA HERRERA GOMEZ
- ALEJANDRA HERRERA GOMEZ

Honelako ospakizunak bereziak eta alaiak izaten dira beti: “ bizi berri” baten hasierak poz handia sortzen du familiarengan eta sinismendunengan. Zorionak Guraso guztioi !

LEHENENGO JAUNARTZEAK

Aurtengo urtean hamairu neska-mutikok ospatu dute lehenengo Jaunartzea. Emozio, urduritasuna, poza, musuak, opariak eta abar... denok gustora!

Hauek izan dira:

- ADUR ARRIZABALAGA
- BEGIRISTAIN
- UGUTZ SUDUPE AZURMENDI
- XABIER BARANDIARAN MUJIKAZUBIZARRETA
- AINITZE MAIZKURRENA
- LARREA
- IRAITZ IZAGIRRE
- UGARTEMENDIA
- ARENE MARTIN GOIKOETXEA
- ANDER OTEGI ARIZTIMUÑO

Egun ederra benetan. Umeak dauden tokian ez da inoiz falta gardentasuna eta poza. Denok festa alai bat gozatzeko aukera izan genuen, Zorionak eta segi lagun eta adiskide onak izaten Jesusen Ebanjelioaren bidetik.

BAKE ETA ON GUZTIOI!

Bittorio Zabalgogeaskoa

HERIOTZAK (2015-2016)

Urte honetan hildako senideen zerrenda (2015eko azaroaren 1etik 2016ko urriaren 30era) hauxe dugu:

- MARIA TERESA LARREA MENDIZABAL
- MANUELA ASURMENDI ARRIZABALAGA
- MARTINA MUJIKAZUBIZARRETA
- JUAN LUIS IZAGIRRE EZEIZA
- MARIA JESUS URBIZU ARANA
- JESUS MARI UGARTEMENDIA LAZKANO
- JUANA AIZPEOLEA MUÑOZ
- JOSE ALBIZU URRETA
- PILAR ARRONDO ARRONDO
- JABIER OTAEGI GOIA
- JESUSA BEGIRISTAIN ARMENDARIZ
- JULIAN ALONSO SANTA CATALINA
- IÑAXI DORRONSORO EPELONDO
- JUANA MUJIKAZUBIZARRETA
- PEDRO MARI ARAKAMA ARRIZABALAGA
- JUAN ANTONIO OIARBIDE BERASATEGI
- ANA ERMIGAIN AZURMENDI
- MIGEL ARIZKORRETA MUJIKAZUBIZARRETA
- PEDRO GORROTXATEGI ARRIETA
- VIKTORIO VAQUERO MARTIN
- DOLORES MUJIKAZUBIZARRETA

Zegamar

Batasun Kasinoa



Ipuin lehiaketako sarituak

2016a ere bukatzen ari garen honetan Batasun Kasinoan egin diren ekintzen berri emango dizuegu beti ere gure asmoa herritarron partaidetza sustatzea eta herri giroa sendotu nahian helburu izan dugularik.

Otsailean, Batasun Kasinoan egin-dako Batzar Orokorraren ondorioz, batzorde erdia berritua izan zen eta eta aurrez esperientzia zutenak eta berriak elkarkidetza sendoa egin dugu, denon artean urteroko ekintzak aurrera eraman ahal izateko.

Apirilaren 2an eta urteroko legez, Erle eguneko oholtzaren montaian parte hartu ondoren, bertso jaialdia ospatu zen frontoian, lau bertsolariekin: Iker Zubeldia, Oihana Iguaran, Andoni Egaña eta Miren Amuriza, Jon Zaldua gai-jartzen aritu zelarik. Aste Santuko oporren bukaeran egon arren giro bikaina egon zen eta gozatu egin genuen lau bertsolarien emanaldiekin. Jendearen txalo zaparrada bikaina entzun ondoren Kasinoan trago bat hartuz amaitu

genuen ekitaldia datorren urtera arte. Kasino elkarteak eskerrak eman nahi die hau aurrera eramateko urtero urtero parte hartzen duten herriko denda, taberna eta enpresei euren laguntza izango ez bagenu askoz ere zailagoa izango zelako ekintza hau urtero antolatzea.

Maiatzaren 6an Goierriko 8 herritako pentsatuta dagoen I Mus txapelketarako Zegamako kanporaketa burutu zen kasino elkartearen ondoren finala Liernin izango delarik.

Maiatzean, Peregrinazioa iritsi zen eta ezaguna da, batez ere haurren artean, Zegamako Peregrinazioaren ondoren, ipuin lehiaketaren sariak banatzen direla. Aurtan, Maiatzaren 16an, Kasinoko XXVIII. Ipuin lehiaketa, azkeneko urtetan bezalaxe Jose Antonio Ormazabal "Aierdi" herritar idazlearen omenez burutu zen, izen honekin V edizioa zelarik. Eskolako ikasleek parte hartzen dute eta eurek izan ziren baita ere gaia aukeratu eta jarri zutenak, aurtan

gaia "Zegamako Eskolako Altxorra" izan zelarik. Denetik aurkitu dute ikasleak eskolan, eskolatik kanpo. Batzutan altxor materialak dirua, harri bitxiak, urrezko joiak... Baina baita inmaterialak ere: lagunak, guraso jostalariak... eta beti ere ipuin gehienetan, imajinazioa, emozioa eta suspentsea nabarmenak izan dira. Zorionak eskolako haur guztiei eta bultzatzen dituzten irakasleei, marrazki zoragarriak egin dituztelako haur hezkuntzan eta 1. mailatik hasita 6. mailarainoko partaidetzak denoi bizi poza ematen digulako eta, lehiaketari izena ematen dion Jose Antonio Ormazabal bezalaxe, zer nolako idazle bikainak datozen gure herrian erakusten dutelako urtez-urte. Guztira 198 haurrek parte hartu dute. Horietatik 93k marrazkia egin dute eta argazkian azaltzen dira bi, hiru, lau eta bost urtekoek egindakoen lagin bat. 105 haur izan dira ipuina idatzi dutenak eta argazkian Aitxuri herri eskolan azken urtean egongo diren gaztetxoak jarri nahi izan ditugu.



Marrazkiak egiten dituzte txikienek



Piperrak erretzen adituak bihurtu gara



San Bartolometan paella lehiaketa parte hartzen digu



Lagunarteko afaria



Aitor Urbizuk eta Egoitz Irastorzak eraman zuten txapela

Urte erdia pasa eta gero udan bete beterik sartuta Kasino elkarteak, beste elkarteekin batera hainbat ekitaldietan parte hartu du. Horrela, uztailearen lehenengo. igandean, Aizkorriko lagunaren eguna ospatzeko, eta mendi bueltaren ondoren indarrak errekupe-ratzeko, sagardo freskoaren banaketan, hegaluzea kutixi modua prestatzen eta bertan elkartu ziren guztiei zerbitzen kasino elkarteak kideek parte hartu zuten.

San Bartolomeko festetan kasinoko kideak bi paella eder prestatu zituzten eta lehen saria irabazi ez bazuten ere, primerakoak zeudela ezin ukatu eta herritarrek horrela erakutsi zuten berehala bukatu zirelako eta hainbat gorai-pen entzun zituztelako parte hartu zuten bi bikotek.

San Bartolomeko festetan baita ere, Kasinoan elkartzen dira San Bartolomeko lunch nagusienerako bat eginez hainbat herri ordezkari, kasinoko kide batzuk bertan direlarik.

Ehize garaian, urriaren 15ean, piparrak bere onenean daudenean, IV piparrada antolatu genuen.

Piparrak elkartearen aurrean erretzen hasi ahala pipar usain gozoa herrian zabaldu zen eta ekarritako 900Kg pipar, zitzu bizian jasotako enkargu guztiekin agortu ziren. Honekin batera, gosari goxoak ere prestatu ziren nahi izan zuten guztientzat. Kasinoko hainbat kideek hartu zuten parte lan guztietan eta gida batzordearen izenean esker-rrak nahi diegu guztiei eman.

Urria baita ere, berriro ere auzolanen, beste elkarteekin batera, herriak antolatutako Cava festa ondo irteteko, lan desberdinetan parte hartu zuten kasinoko hainbat kideek.

Eta urtea bukatu aurretik bi ekitaldi nabarmen adierazi behar dira: bata San Martin ospakizuna eta bestea Kasinoko Mus txapelketa.

San Martin ospakizunean, gazta lehiaketaren ondoren, kasinoko kideek, bertaratuen artean gazta, banatzen aritu dira beste hainbat herritarrekin batera.

Mus Txapelketari dagokionez azaroaren 25ean eta abenduaren 2an ospatu da. Elkarte desberdinetako txapeladunen artean lehia-

tzeko kideak irten dira bertatik. Lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu eskerrak emateko herriko tabernari, dendari eta enpresetako kide guztiei, sari gisa emandako opari guztiagatik.

Mus txapelketa, urteroko legez, arrakastatsua izan da; guztira 25 bikotek hartu dute parte giro ezin hobean. Lehenengo kanporaketak egin ondoren zortzi bikote sailkatu ziren abenduaren 2an finala jokatu ahal izateko. Egoitz Irastorzak eta Aitorri Urbizuk osatutako bikoteak eraman du txapela. Zorionak bereziki bikote honi baina ezin ahaztu txapelketa posible egin duten beste neska-mutil eta gizon-emakume guztiak ere. Gure esker ona guztiei.

Honekin urteari bukaera emango diogu baina aurretik ekintza zuzenetan parte hartu duzuen guztioi, ikusle gisa egon zaretenoi, laguntza eskaini diguzuenoi, aholkuak emanetz gure ezjakintasunean ondoan egon zaretenoi... bihotz bihotzez eskerrak eman nahi dizuegu. Ea datorren urtea oparoa datorren guztientzat. 2017. urte zoriontsua opa dizuegu Batasun Kasinoko kide guztion partez.



Mus txapelketarako opari asko....



Giro ederra sortu zen, partaidea artea

Jubilatuen Elkartea

Hauexek dira aurten Jubilatuen Elkartean burutu ditugun ekintzak:

IRTEERAK

Iratxera irteera

Apirilaren 21ean egin genuen urteko lehen irteera eta helmuga Iratxe izan genuen. 8:30ak aldera Zegamatik abiatu eta Iratxe Jate-txean egin genuen lehen geldialdia hamaiketako egiteko. Ondoren nahi zuenak, Lizarrako Karlisten museoa bisitatzeko aukera izan zuen. Eguerdian berriz, Iratxe Jatetxera itzuli ginen bazkaltzera eta bazkalostean, bingoan jolas-teko eta dantzatzeko aukera izan genuen jatetxean bertan.

Milagro eta Arnedora irteera

Ekainaren 16an, Milagro eta Arnedora egin genuen irteera. Goizean goiz Zegamatik atera eta lehen geldialdia El Montecillo jate-txean egin genuen. Bertan gosari legea egin eta ondoren Milagroko gerezi feria ikustera joan ginen. Han bueltaxka bat eman ostean, berriro ere gosaldia genuen jate-txe berera itzuli ginen bazkaltzera. Bapo jan ondoren, berriro ere Zegamarako itzulera bidaiari ekin genion.

Laredora irteera

Uda aldera, uztailaren 21ean aurten, ohikoa dugunez, Kantabriako Laredo herria izan genuen helmuga. Dena dela, ez ginen zuzenean Laredora joan, bidez, Bilbon gelditu ginen hamaiketako egin

eta bueltaxka bat emateko asmoz. Bilbotik, Laredora joan ginen eta han, herrian bueltaxka bat eman ostean, Islasera joan ginen Arenillas jatetxean bazkaltzera.

Pasaia eta Donostiara irteera

Irailaren 22an, Gipuzkoako hiriburua izan genuen helmuga. Bertan, bazkari dotorea egiteko aukera izan genuen Kaskazuri jatetxean eta bazkalostean, Pasaia aldean eman genuen bueltatxo bat.

Gernikara bidaia

Urteroko legez, urriko azken astelehenean, urriaren 31an aurten, Gernikako azoka berezia ospatzen zela-eta, bertara irteera egin genuen. Gernikara joan, azoka ikusi eta urteroko ohiturari jarraituz Amurrioko Ruperto jatetxera



Jubilatuen pentsio duinen alde egindako elkarretaratzea

joan ginen bazkaltzera. Arratsaldea berriz, Gasteizen pasa genuen. Esan behar, irteera hau ez zela soilik jubilatuei zuzendutakoa izan, nahi zuten herritar guztiek parte hartu ahal izan zuten bertan.

ELKARTEEN ARTEKO MUS TXAPELKETA

Aurten, elkarten arteko mus txapelketa antolatzea Jubilatu Elkarteari egokitu zaigu. Maiatzaren 14an ospatu zen txapelketa eta bertan, lehia borrokatuaren ostean, Koldo Otaegi eta Jon Arakama izan ziren garaile.

JUNTAKIDEAK

Aurten, juntaren berritzerik ez da egin eta hauexek gara Jubilatuen elkarteko juntan jarraitzen dugunak: Jose Mari Bitarte, Juan Mari Ormazabal, Milagros Alustiza, Jose Manuel Landa, Juani Peñagarikano, Ana Jesus Larrea, Mari Karmen Lardizabal, Begoña Etxezarreta, Fernando Urbizu eta Miguel Anjel Igoa.

SAN BARTOLOME JAIETAKO PAELLA LEHIAKETA

Abuztuaren 25ean, herriko jai nagusien barruan urtero antolatu ohi den paella lehiaketan parte hartu genuen aurtengoan ere. Bikote hauek izan ziren gure

elkarteko ordezkariak lehiaketan: Begoña Etxezarreta eta Mari Karmen Lardizabal alde batetik eta Juani Peñagarikano eta Ana Jesus Larrea bestetik.

BAILARAKO LEHIAKETA GASTRONOMIKOA

Goierrri mailan egiten den lehiaketa gastronomikoan ere parte hartu genuen. Irailaren 21ean ospatu zen Beasainen eta bertan, Begoña Etxezarreta eta Joani Peñagarikanok parte hartu zuten.

DONOSTIAKO JUBILATUEN MARTXA

Urriaren 22an Donostian ospatu zen jubilatuen martxan hartu zuten parte gure elkarteko kide batzuk. Hona hemen bertan parte hartu zuten elkartekideak: Jesus Telleria, Begoña Etxezarreta, Jose Mari Bitarte, Kontxi Manzanal, Mari Karmen Lardizabal, Juan Jose Garaiar, Juan Mari Ormazabal eta Axun Mendizabal.

LOURDESKOA AMAREN EGUNA

Urteroko moduan, otsailaren 11an, Lourdesko amaren egunean Meza ospatu genuen jubilatuen elkartean. Meza entzun ondoren, txokolate beroa izan zen dastagai elkarteko kideek prestatuta.

BATZAR OROKORRA

Aurtengo batzarra martxoaren 19an ospatu genuen eta jarraian txokolate jana egin genuen.

URTEKO KUOTA KOBRATZEA

Martxoaren 21, 22 eta 23an urteko kuota kobratu zitzairen elkartekideei.

GABONETAKO LOTERIA BANATZEA

Azaroaren 24 eta 25ean, Gabonetako loteriaren partizipazioak banatu ziren elkartekideen artean.

GAZTAINA JATEA

Azaroaren 26an, gaztaina jana egin genuen elkartean.

KULTUR ASTEA ETA SAN TOMAS EGUNA

Abenduaren 12tik 16ra kultura astea ospatu genuen elkartean. Aste honetan zehar mahai jokoak egin genituen eta San Tomas egunean, mahai jokoetako irabazleei sariak banatu genizkien. Halaber, egun honetan, txistor jatea ere egin genuen eta baita aginaldo banaketa ere. 1938an jaiotakoei banatu zitzaizkien saskiak eta beste bi, zozketatu egin ziren, bata San Tomas eguneko festan parte hartu zuten elkartekideen artean eta bestea, elkartekide guztien artean.

Odol emaileen elkartea

2016. urtean Zegaman hiru aldiz eman da odola. Urtarrilaren 13an, 36 odol emate izan ziren, maiatzaren 27an, 35 odol emate izan ziren eta irailan 30ean berriz 34 odol emate izan ziren.

Aurten 25 aldiz odola eman dutenak Antton Aramendia eta Noemí Bonikowsky izan dira. Olaberrian ospatu zen emaile egunean jaso zuten intsignia eta diploma.

Eskerrik asko odol emaile guztioi eta ez zaretenok gonbidatuta zaudete odol emaileen elkartetik.



Antton Aramendia eta Noemí Bonikowsky

ELKARRIZKETA

LAIDA ORMAZABAL, ARANTXA eta LIERNI ORTIZ

Areto futboleko jokalaria Idiazabalen

“Lagun asko dauzkagu hiruok areto futbolean jokatzeagatik ezagututa”



Laida Ormazabal



Arantxa Ortiz



Lierni Ortiz



Laida Ormazabal, Arantxa Ortiz eta Lierni Ortiz areto futbolean aritzen dira Idiazabalen. Aurretik Euskadiko txapeldunak izan dira eta Arantxa 21 urte azpiko Gipuzkoako taldean aritu da. Hemen euren esperientzia.

Nolatan bukatu duzue Idiazabalgo Areto Futboleko taldean jokatzen?

Laida: Zegaman eskola kirolean aritzen nintzen eta oso gustura

ibiltzen nintzen, gero Segurara joan nintzen zelai handiko futbolarera. Han taldea desagertu zenez, orain dela 4 urte Idiazabalen hasi nintzen.

Arantxa: ni Zegaman aritu naiz betidanik, aurreko urtean taldea atera ez zenez, eta nire ahizpa beti Idiazabalen gustura egon dela nekienez, hara joatea erabaki nuen areto futbolean jolasten jarraitu ahal izateko.

Lierni: nire istorioa ere antzekoa da, txiki txikitatik gustatu izan zait futbolean jolastea. Lehen Legazpin bizi ginen eta hango taldean jolasten nuen. 9 urte nituela Zegamara etorri nintzenean eskolako jolastorduan nire klase-kideek esan zidaten neskek ez zutela futbolean jokatzen, saskibaloian ibiltzeko. Baina niri gustatzen ez zitzaidanez, eta kaskagorria naizenez, futbo-

lean jolasten jarraitu nuen eta 7 mutilekin batera eskola kiroleko taldea osatu genuen. Hurrengo urtean neska taldea ateratzea lortu genuen azkenean. Orain dela 10 urte, Zegamako taldea desagertu zenean, Idiazabalera joan nintzen.

Emakume asko al zarete?

Futbol zelai handian Gipuzkoa mailan nahiko liga indartsua dago, maila bat baino gehiagorekin. Areto futbola ordea, ez da hain kirol ospetsua. Beti ematen zaio indar gehiago telebistan ikusten dugunari, eta kasu honetan futbol zelai handiko futbola da nagusi eta mutilena gainera. Hala ere, azken urteetan emakumeen areto futbola indartzen saiatzen ari gara Gipuzkoako beste talde batzuekin batera. Oso giro ona daukagu taldeen artean, gure lehiakideak gure lagunak kontsideratzen ditugu (afariak eta guzti egiten ditugu) eta guztiok batera talde berriak sortzeko indarrean gabiltza. Gure ahalegina bere fruitua ematen ari dela dirudi, orain dela 4 urte 3 ekipoko liga izatetik, aurten 8 ekipoko liga izatera pasa baikara. Idiazabalgo klubetik esfortzu berezia egin da betidanik nesken kirola bultzatzeko eta aurreko urtean nesken bi talde ateratzea lortu zen, mutilena bat bakarrik ordea. Honetaz oso harro gaude.

Hala ere arraroa al da neska izanda futboleko jokatzen duzula esatea?

Gero eta gutxiago, baina oraindik ere batzuetan aurpegi arraroak ikusten ditugu. Lazkaon urtero ospatzen den 24 orduko areto futboleko txapelketan aurten sari berezia zegoen talde mistoentzat, nesken jokoa bultzatzeko asmoarekin jarri zuten antolakuntzatik. Guk bi aldiz pentsatu ere egin gabe, talde misto bat osatu genuen eta bertara joan. Gure sorpresa-rako ez zegoen beste talde mistorik eta saria irabazi genuen. Zegamako areto futboleko txapelketan

bertan ere, aurreko urtean lehen-goiz neska taldea atera genuen eta aurten talde mistoa. Honen aurrean horrelako komentarioak esan dizkigute kalean: “baño hori ez al da mutilentzako bakarrik?”, “onbre, neskak e jolaste al dezue ba horta?”

2015/2016 denboraldian Euskadiko txapel-dun ezta?

Bai, Idiazabalen bi talde zeuden. Bat 18 urtetik gorako neskekin eta bestea gatzetxoekin. Azken talde hau kopako semifinaletara iritsi zen (bertan Arantxak jokatzen du), beste taldea berriz (Laidarena eta Liernirena) Euskadiko txapel-dun izan ginen. Hau irabaztean, Espainiko bigarren mailara igotzeko aukera eman ziguten, baina diru, azpiegitura eta konpromiso aldetik salto handia dagoenez, ezin izan dugu igo. Hala ere ilusio handia egin zigun irabazteak, kontuan hartu behar da 2000 biztanleko herri batetik ateratako taldeka bat garela eta Bilboko taldeen aurka ere irabazteko gai izan ginela.

Arantxa, eta zu Gipuzkoako 21 urtetik beherako taldean aritu zara ezta?

Bai, nire taldeko beste hiru pertsonekin batera Euskadiko probintzien arteko txapelketa batean parte hartu genuen. Bertan, Gipuzkoako beste taldeetako kideekin oso esperientzia aberatsa bizi izan dut, areto futboleko mailan zein pertsonalean. Bigarren gelditu ginen, Arabaren kontra irabazi egin genuen, baina bizkaitarrak gu baino gehiago izan ziren.

Zein da kirol honetan aritzeaz ateratzen duzuen gauzarik positiboa?

Jendea eta taldeko giroa. Ez dugu lehian aritzeko jokatzen, disfrutatzeko baizik. Taldean 19 neska gara eta guztion artean oso momentu onak partekatu ditugu. Klubeko mutilekin ere erlazio

oso ona daukagu, askotan batera entrenatzen baitugu. Hainbat anekdota eta istorio kontatzeko gai izango ginateteke, batzuk barre-garriak, beste batzuk hunkigarriak eta momentu tristeagoak ere bai, baina lagun asko dauzkagu hiruok areto futboleko aritzeagatik eza-gututa.

Etorkizunari begira, ze asmo dituzue?

Laida: aurten neska talde bakarra ateratzea lortu dugu Idiazabalen, bertan jokatzen jarraituko dut, aurten karrera amaituta futboleko jarraitzeko asmoa baitaukat.

Arantxa: nik ere Idiazabalen jarraituko dut, aurreko urtean Laida eta biok lehiakideak izan ginen bi talde ezberdinetan jokatzeagatik, baina aurten gustura jokatuko dut berarekin.

Lierni: ni berriz, ikasketak direla eta Bilbon biziko naizenez, bertako talde batean jokatuko dut aurten. Pena ematen dit Idiazabalen denbora asko daramadalako, baina badakit edozein opor edo jaiegunetako entrenamenduetan beraiekin elkartzeko jarraituko dudala.

Hala ere gustatuko litzaiguke Zegaman areto futbola indartzen joatea. Askotan, neskek batez ere, ikasketak direla eta kirola uzten dute. Bi gauzak aurrera eramatea posible dela adierazi nahi dugu ordea eta ez hori bakarrik, kirola dela eta, askotan ikasketak hobeto joan zaizkigula uste dugu hiruok, burua esnatzeko eta pertsonen arteko erlazioak hobetzeko modu onena baita. Aurtengo denboraldian, 8 neska-mutil zegamar izango gara Idiazabalgo taldean eta egunen batean taldea Zegaman sortu ahal izatea oso polita izango litzateke.

EDURNE ALBIZU

JOSE RAMON AGIRRE

EZ DIRA ASPALDIKO KONTUAK



“Ez dira aspaldiko kontuak” antzeslanaren saio bat

Urtarrilaren 30ean, “Ez dira aspaldiko kontuak” antzezlanean parte hartu zenuen. Nolatan?

Segurako Lourdes Imazek deitu zidan. Lourdes Imaz, Idiazabalgo ikastolako irakaslea izan zen, ikastolen sorreran eta hainbat oroitza-pen zituen buruan. Oroitzapen hauek antzerki batean nahi zituen itsatsi eta garai hartan herrietan ikastolen sorreran parte hartu genuenoi deitu zien. Zegaman guraso eta gazte asko ibili ginen eta Zegamako bat behar zuenez, niri deitu zidan antzeslan hau egiteko.

Ez al zizun kezkarik sortu jendaurrean antzesteak?

Oso esketx motzak izango zirela esan zigun eta horrela animatu nintzen.

Noiz hasi zen ikastola martxan Zegaman?

1970ean hasi lehen lehengo aldiz. Aurreko urtean ere saitu ginen baina ez zen nahiko guraso multzoa prestatu martxa emateko. 1970ean ordea guraso oso dezidituak iritsi ziren, urtebete gehiago ere bazen eta inguruko herritan ere ikastolak sortzen hasiak ziren, Seguran ordu-rako bazegoen eta horrek gehiago animatzen zuen. Bazan gurasoen artean, ikastola ireki artean eskolara seme-alabarik bidali ez zuenik ere. Konbentzimentu handiko gurasoak iritsi ziren ikasturte horretan.

Udalak utzi al zizkizuen gelak?

Ez gelak Elizarenak ziren, garai hartan dena elizaren inguruan mugitzen zen. Garai hartan Don Jose Antonio zegoen apaiz eta honi galdetu genion eta ez zigun baimenik eman, oso taker jarri zen gainera, ikastola eraso bat bezala hartzen zuen. Guk ez genuen lortu eta emakume talde bat, Ixiar Etxabe, Maria Lourdes Garmendia, Miren Ormazabal joan ziren apaiza konbentzitzera, hauek esku gehiago zuten apaizekin. Beste herriekin komunikazio handia geneukan eta bagenekien beste herrietan elizak gelak uzten zituela ikastolak jartzeko. Honela, gotzaitegira ere joan ginen, gela hauek lortzeko baimen eske. Gotzaitegian, Don Jose izeneko apaiz batek hartu gintuen eta hark esan zigun herrira etorri berria zen Don Jose Urangarekin hitz egiteko, hark lagunduko zigula eta. Horrela izan zen.

Hasiera hura oso kuriozosa izan zen, guk ere ez genekien zer zetorren etorkizun hurbil batean. Alkate Manuel Urbizu zegoen, eta jendaurrean ikastolaren kontra azaltzen bazen ere, gero, ahopean, “sigue así que vas bien” esaten zizun. Papertegian ere kargua zeukan eta horrek ere pixu handia edukiko zuen

pentsatzen zuen guztia ez esateko. Honela, nahiz eta ezezkoa eman publikoki, Manuel alkate zegoela eta orduan Eduardo Telleria, iturgin lanetan aritzen zen, eraikin horretan komuna prestatu zuten ikastola ireki ahal izateko eta azkenean, bere alaba bat eta semea ere bidali zituen ikastolara.

Ikastolen hasiera nahasia bezain tentsoa izan zen.

Antzeslan honek garai hartako bizi-penak piztu dizkizu?

Bai garai hartan bizitako bizipen ugari lehen planora ekarri dizkigu antzeslana egin dugunoi eta baita garai hartako guraso, gazte irakasle eta ikasleei ere.

Eta gazteok genituen lokalak ere elizak utzitakoak ziren. Don Jabier apaizarekin bi gela goxo antolatatu genituen Guraso eta gazteok, haurrentzat eta gela horien ondoan beste gela bat herriko gazteontzat moldatu genuen, azkenik, beheko solairuan taberna bat ere jarri genuen. Eraikin hura zen herriko gazte guztiak elkartzeko toki bakarra, edozein gauza antolatzeko, Kultur astea antolatzeko etabar.

EDURNE ALBIZU

ELKARRIZKETA

ANDER LASA AGIRRE



Non eta noiz jaio zinen?

Zegaman jaio nintzen Koba base-
rrian 1978an.

Noiztik duzu afizioa ehizerako?

Ehizerako afizioa txiki txikitatik
baina, basurdetarako afizioa 15 bat
urterekin hasi zitzaidan.

Nola hasi zinen basurdetan?

Beti Txaratxipiko kuadrilaren
inguruan ibiltzen nintzen eta
horiekin hasi nintzen basur-
detan. Lehenengo aldiz basurdea
bota nuenean, kuadrila horrekin
Andoina joan nintzen aitari esko-
peta "harrapatuta", ez papel eta ez
ezer.

Zer jarri duzu zehatz mehatz ?

Basurde-txakurrak entrenatzeko
parke bat, hau da, basurde-txaku-
rrek basurdearen arrastoa jarrai-
tzen ikasi behar dute eta horreta-
rako legezko toki bat prestatu dut.

Non jarri duzu?

Zegaman Naparriturri parajea
Otzaurte inguruan.



Noiztik somatu zenuen horrelako eremu baten beharra?

Basurdetan ehizean hasi nintze-
netik, izan ere txakurrak treba-
tzeko ez zegoen inon tokirik eta
beti legez kanpo ibiltzen ginen,

**TXAKURRAK LASAI
TREBATZEKO TOKIA
BATEN BEHARRA
IKUSTEN NUEN ETA
DENOK LASAI ARITZEKO
ETA INORI KALTERIK EZ
EGITEKO TOKI BAT**

gauzez, halako tokitan basurdeak
zeudela eta adibidez Otzaurte
aldera joan eta gauzez txakurrak
jaregin, eta beti harrisku batean

ibiltzen ginen, batzutan txakurrak
galdu etabar.

Horregatik txakurrak lasai treba-
tzeko tokia baten beharra ikusten
nuen eta denok lasai aritzeko eta
inori kalterik ez egiteko toki bat.

Egoera hau oso deserosoa zen
guztiontzat eta harriskutsua ere
bai.

Horrelako itxiturarik ba al dago beste inon?

Bai Frantzian badaude. Frantzian
txakurrak dituen oso kontro-
latuta dago eta behin kopuru
batetik gora badituzu, txakurrak
zein parketara eramaten dituzun
demostratu behar duzu.

Frantzian ehiza hemengo aldean
oso aurreratuta dago. Han ehiz-
taria oso ongi ikusita dago, indar
handia dute ehiztariek.

Eta noiz hasi zinen behar hau gauzatzeko asmotan?

10 urte izango dira idea hau
buruan dudala. Foru Aldundian
ere kontsulta egin nuen. Aurpegi
arraroa jartzen zidaten, ez zuten



Basurde bat parkean



Ehiztariantzat babesera badago



Txakurrak lanerako prest



Purik ere lan asko egin du

ikusten, ez hanka eta ez buru bezala hartzen zuten nire ideia.

“Gauza kontrolatu bat eduki edo denok legez kanpo ibiltzea da hobe?” “Zen nire arrazonamendua.

Inguruan itxitura txiki batzuk badaude baina denak legez kanpoak eta oso txikiak eta itxitura horretan basurdea sartuz gero, txakurrek segituan harrapatzen dute eta ez du balio.

Hala ere, handik bost sei urtera ehizako federazioak egin zuen itxitura txiki bat, baina federatuentzat bakarrik.

Iñigo Mendiola zerbitziburuk eremua handi batean ikusten zuen baina, eremu handi hori zer zen ez zuten definitzen. Ingurugirokoak ez zuten begi onez ikusten “Bienestar animal” delakoa zela eta.

Hauei ere, azaldu nien neu nintzela lehenengo basurdeak ondo zaintzearen interesa nuena, izan ere, basurdeak gaizki tratatuz gero, eta basurderik gabe geratuz gero, parkeak ez zuela ezertarako balio eta bueno, azkenean ulertu zuten.

Parkearen izaera ulertu eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak nire bidean lagundu didala esan behar dut.

Honela, idea honekin hamar bat urte eraman ditut beroaldi handia etorri arte. Terrenoa erosteko tratua luzea izan zen. Terrenoa erosterako bi kilometro mallazo erosita neuzkan eta beste 2000 poste ekarrita neuzkan. Terrenoa erosi nuenean oraindik ez neukan

Foru Aldundiaren baimenik baina garbi neukan horrelako eremu bat behar nuela.

Edozein txakur sartu al daiteke parke honetan?

Ez “arrastrekoak bakarrik”, “agarrekoak” debekatuta daude. Hau da, txakur batzuk basurde arrastoa jarraitzen dute eta ez diote basurdeari heltzen, beste txakur batzuk hozka egiten dute eta hauek debekatuta daude parke honetan.

“TXAKURRAK TREBATZEKO ETA GIPUZKOAN LEGEZTATUAKO, JARDUERA BAIMENA DUEN TAMAINA EGOKIKO “PARKE BAKARRA DA”

Zenbateko azalera du parkeak?

37 Ha. ditu. Eremu polita da txakurrak trebatzeko eta Gipuzkoan legeztatuako eta jarduera baimena duen tamaina egokiko parke bakarra da. Gipuzkoako ehiz federazioarena txikia da.

Inguruan, Sabiñanigo, Ainsan daude.

Errez egin al duzue itxitura?

Uste baino errezago. Eguraldiarekin zorte handia izan genuen, udazken lehorra tokatu zen iaz eta lur ona tokatu zitzaigun eta ez zitzaigun batere harkaitzik tokatu buelta guztian eta honek asko

erreztu zigun lana. 6 km.ko itxitura egin dut eta lan honetan aitak, Purik, eta lagunek lagundu didate. Itxitura egiten irailaren 17an hasi nintzen eta azaroaren erdirako itxita geneukan buelta guztia.

Nondik izaten dituzu bezeroak?

Inguruko probintzi guztietatik. Santanderetik ere bai. Ez jakin baina, egia esan parkea oso toki onean dago kokatua, Donostitik 40 minutura, Gasteiztik ordu betera, Bilbotik ordu betera, Iruñatik 40 minutura eta errepide nagusitik 10 minutura dago. Bezeroentzat oso ongi komunikatuta dago. Dagoeneko 74 bezero desberdin izan ditut eta askok errepikatu dute.

Inguru honetatik ordu eta erdiko denboran sartzan diren eremuetatik etorri zaizkit bezeroak.

Aste egunean ere jendea etortzen zait, eta asteburutan ere bai. Hiru-lau ordu hemen entrenatu eta jendea bere lantokira joaten da. Web orria egitekotan nintzen baina ez dut behar, dagoeneko ahoz aho ezagutzera eman da.

Bestalde herriko ehiztariei parkearen erabilera dohain uzten diet.

Basurdeak nondik lortzen dituzu?

Granja zinegetiko batetik ekarri ditut. Arabatik baina bertan jaiotakoak behar dira.

Basurdeak bertan jaiotakoak dira hoberenak. Itxitura horretan bizi-modua ateratzen ohitutako basurdeak dira hoberenak.



Sei kilometroan itxi du parkea

Horregatik emeentzat itxitura bat egin dut haztegi modura, basurde kumeak bertan hazteko, baina hala ere, beste itxitura txiki bat egin dut 7 Ha.koa, basurde txikiak hazteko. Izan ere, basurde txikiak ezin dira parke handian libratu. Gainera parke handia, sasiz eta zizkinduta egotea komeni zait eta ez da ona basurde asko ibiltzea. Bestalde parke handia eta haztegiaren artean beste tarte bat utzi dut, parke handian dabilzan txakurrek haztegi basurdeen usainik har ez dezaten, bestela haien parean geratuko lirakeke gehiago ibili gabe.

Erreza izan al zen hasiera?

Ez, hasiera gogorra izan zen. Hasieran txakurrek basurdeak

harrapatzen zituzten, lo egin gabe ere egon nintzen bolada batean. Telefonoa hartu eta jendeari ez etortzeko gogoarekin egon nintzen. Jendeak ulertzen zuen hasiera hartan basurde egokiak ez edukitzea, beste parke batzutan ere ibilita zeudelako baina gaizki pasatu nuen.

Gero Napar batek bi basurde erregalatu zizkidan eta haiekin hasi nintzen.

Orduan zein da basurderik hoberena?

Bertan jaiotakoa edo txiki txikitatik bertan hazitakoa, parkeko eremuan bizitzen ohituta dagoena eta jendearekin ikaritzen ez dena.

Eta txakurrik hoberena?

Txakurra ez da ikaratu behar basurdeak aurre egiten badio, basurdearen arrastoa edo usaina aurkitzen badu zaunka egin behar du bere atzetik joanez, eta basurdea geratzen bada, txakurra ere geratu egin behar da zaunka eginez jarraituz. Azkenean, ehiztariari basurdea non dagoen markatu behar dio.

Beste zerbitzurik ematen al duzu?

Bai, batzuk txakurrak hemen uzten dizkirate eta nik entrenatzen ditut, gutxienez astean behin eraman behar ditut parkera.

Basurdeek zer jaten dute?

Artalea eta orain gatzura ekartzen diet Idiazabalgo Aranburunetik, hau oso ona da basurdeentzat eta asko gizentzen dira, gainera basurdeek gatzura nahiago dute pentsua baino.

Beste proiekturik ba al duzu buruan?

Bai, ona gainera baina udal-txearekin borroka egin behar. Bai, hemen, etxe ondoan karabanak gordetzeko garajeak egingo nituzke. Lanik ematen ez duten negozioak jarri behar dira edota goza arazten dizuna.

EDURNE ALBIZU



Ander eta bere alaba, parkean

JOSE MARI BERASATEGI GURIDI



Noiz jaio zinen?

1930ean jaio nintzen abenduaren 20an, Zuloagagoenan, beraz ia 86 urte ditut.

Zuloagara joaten al zara oraindik?

Bai, normalean semeak eramaten nau eta gero oinez etortzen naiz etxera.

Zenbat baserri daude Zuloaga izenekoak?

Zuloagamuino, Zuloagaerdikoa, Zuloaga eta Zuloagagoena.

Gurea dago bakarrik erorita, Zuloaga etxeak hiru bizitza zeuzkan, bestalde, auzo horretan Apaztegi ere badago eta Apaztegiak bi bizitza dauzka. Kaxone edo Bidarte ere han dago nahiz eta saletxe modura ezagutu dudak nik.

Bizi lagun asko izango zineten gazte denboran?

Bai ume kuadrila galanta elkar-
tzen ginen auzoan.

Zuloagatik kalera etortzeko zein bide erabiltzen zenuten?

Batzutan Larrekotik jaisten ginen eta bestetan, Maxkarreko estradatik. Guretzat Maxkarreko bidea erosoagoa zen.

Santalde ermita ezagutu al zenuen?

Zutik ez nuen ezagutu baina zimentuak bai, zimentuak garbi garbi ikusten ziren gure gazte garaian. Hango harriak, Ondarretxeberri egiteko ekarri omen zituzten. Geroztik berriro egiteko ibili omen ziren auzotarren batzuk baina Don Jose Andres apaizak esan omen zuen ez zuela lan gehiagoren beharrik.

Auzo horretan beste aztarnarik ezagutu al duzu?

Aztarnarik ez baina zulo handi bat badago bidearen ondoan eta Intxaustiraino iristen omen da. Gure ume garaian harriak botatzen aritzen ginen eta kin-kan kin-kan denbora luzean joaten zen harria amildegitik behera. Hesiakin itxita egoten zen inor eror ez zedin eta orain sasiak hartuta dago.

Zein lan egiten zenuten bada baserrian?

Lana ikaragarri eta denetik ereiten genuen, babarruna, garia, artoa... Gariak ongi ematen zuen, nahiz eta haizeak pixka bat kastigatzen zuen, udazkenean bildu eta eguzkitan lehortu eta gero ganbaran





Jose Mª eta Luisa Ormazabalgo familiarekin



Jose Mª eta Luisa emaztea eta lau seme-alabak

harri baten kontra jotzen genuen alea hartzeko.

Ogia erretzeko laberik ba al zenuten?

Bai, hiru bizitzetarako labe bat geneukan.

Ganadurik ba al zenuten?

Bai, hiru edo lau behi izaten genituen, batzuetan esnea produzitzen genuen eta bestetan haragia. Orduan ere, esnea bazenuen, haragiak diru gehiago egiten zuela eta kanbio egiten genuen eta haragia preparatzerako, gero esnea gehiago ordaintzen zela eta beti alderantziz! horrela izan da baserritarren bizimodua.

Astoak ere bat edo bi izaten genituen, haiek ziren gure makinaria, haiek egiten zuten tratore lana.

Eskolara ere joango zinen bada?

Bai, 14-15 urte arte, handik Aita-marrengo perra fabrikara joan nintzen lanera. Sei hilabete edo egin nituen perra fabrikari. Aita, papertegian zebilen eta hark ni bere ingurura joatea nahi zuenez, papertegira joan nintzen lanera.

Papertegiiko jornaia txikia izaten zen baina baserrikoa txikiagoa eta, bietan arituz gero, ba pasau egiten zen hilabetea.

REAL MADRIDEKO SARRERAK EGITEKO PAPERAZEGAMAN EGITEN ZEN, "MONEDA Y TIMBRE"RAKO ERE BAI

Gainera garai hartan diruari kaso egiten genion, irabazi nekez egiten zen eta gastatu ere bai. Gaur egun errazago gastatzen da errazago irabazten delako.

Zertan aritzen zinen papertegian?

Hasi punta batetik eta beste puntarainoko makinak edo ofizioak pasatu nituen.

Nola egiten da papera azalduko al didazu?


Lehenengo pasta prestatu behar da. Pasta, egurrarekin, espartzuarekin edo lastoarekin egiten genuen. Lapiko handi batean egosten zen

lehengaita, egosi kaustikarekin egiten zen eta egosi eta gero, lapikoa hustu egin behar zen ura kentzeko pastari, hau trituratora batera pasatuz egiten zen eta trituratoran pasta garbitu ere egiten zen, behin garbitu eta gero leija erabiltzen zen pasta zuritzeko.

Zegamako papertegian kalitate oneko papera egiten zela entzuna dugu.

Bai, hemen paper ona egiten zen, Real Madriderako sarrerak egiteko papera Zegaman egiten zen, "moneda y timbre"rako papera ere Zegamatik eramaten zen puxka bat, eta kinielatoko papela ere Zegaman ere egiten zen.

Zein kalitateko papera behar zenaren arabera, pasta gehiago edo gutxiago errefinatzen zen. Buloi handi bat ibiltzen zen pasta txikitzen eta zenbat eta gehiago txikitu, papera finagoa ateratzen zen. Makinaren alde batean pasta sartu eta, pasadora baten gainean joaten zen, pasta mehetua prentsan pasatuz eta azkenerako sekadoratik



Zegamako papertegia





Jose M^a emazte seme-alaba eta Zuloagako familia

pasatzen zen, honela papera gorpuztua lortuz. Behin sekadoran pasatu eta gero, papera bobinetan biltzen zen edo ebakita pilatzen zen. Papela satinatu nahi bazen, oraindik erabat lehortu gabe zegoenean, gofradoran sartzen zen nahi zen marka jartzeko.

Sekadora nola berotzen zen?

Hasieran labea egurrarekin berotuz egiten zen baporea eta azkeneko gasoila erabiltzen zen erregai bezala baporea lortzeko.

Nork konpontzen zituen makinak?

Bertako mekanikoek.

Emakume ugari lan egiten zuten.

Bai, emakumeek papera errebitsatzen zuten eta aldiko 500 orri jartzen zituzten pilatuta, ondoren enbalatzeko prest utziz.

Jangelarik ba al zegoen papertegian?

Bai, Anastasia porterak preparatzen zituen langileek eramandakoak. Norberak bere bazkaria

eramaten zuen, nahiz eta jangelan prestatu Anastasiak.

Argindarra nondik lortzen zenuten Papertegirako?

Parte, Elektra Aizkorritik, baina gure garairako makina asko zeuden eta, han sortzen zen argindarra ez zen nahikoa horregatik kanpotik erosten zuten falta zena.

EDURNE ALBIZU



Arantzazun, seme-alaba errain-suhi eta biloba guztiekin

ELKARRIZKETA

JUAN IRASTORZA ARRIETA



Non jaio zinen?

Zegamako Olaberria auzoan jaio nintzen, 1931 urtean. Garakoa etxean. Etxe hau lehen zabalagoa zen eta bideak estrada askoz hes-tuago bat omen zen.

Garakoa etxearen aurrealdean fabrika bat egin zuten eta ondoren gure osaba Pauloren mutikoa kotxeren batek harrapatuta hil zen toki horretan; honela papertegian, estrada zabaldu behar zela eta Garakoa etxea bota eta atzerago egin zuen gaur egun ezagutzen dugun Garakoa etxea.



1947ko Zegamako argazkia

Olaberri auzoan, errementaririk ezagutu al zenuen?

Teofiloneko herreria ezagutu nuen. Behean sutegia eta auspoa zeuden eta goran perratokia zegoen. Auspoa handia zen eta eskuz mugitzen zen.

PAPERA LEHORTU EGIN BEHAR IZATEN ZEN ETA IKATZA SUA EGITEKO ERABILTZEN ZEN PAPARTEGIAN

Pastea egiteko eraiki zuten fabrika horren aurretik ezer ba al zegoen orube horretan?

Uste dut frantses batzuk zeudela hor, mineralekin lotutako zerbait egiten zutela dut aditzera. Gogoan dut eraikinak arkupeak zituela eta pasta fabrika berria egiteko dena bota zen.

Olaberrin zein beste etxe ezagutu zenituen?

Postaetxe, Zotaletxe, Migelantone, .. Behekoetxe. Behekoetxek azpian pasadizo bat zuen, hortik Santiagobidea pasatzen omen zen eta Behekoetxan harmaila batzuk

zeuden lanera zihoan jendea ere pasadizo horretatik joaten zen. Gure etxea berriz gure aitonak egin zuen 1950ean. Ugartezahar ere beti hor ezagutu dut.

Eskolari buruz zer esango didazu?

Don Julian maisuarengana joan nintzen 11-12 urte arte. Ehun bat mutiko ibiltzen ginen eskolan elkarrekin, eta han ibiltzen ginen maisuak egurka batean genituela.

Lanean noiz hasi zinen?

14 urterekin Legazpin hasi nintzen lanean. Jai arratsaldean joaten nintzen hartu fardela eta Apeaderrora oinez, tren hartzera. Legazpin osabaren etxean egoten nintzen zapatura arte. Etxera zapatu arratsaldean etortzen nintzen eta igande arratsaldean buelta berriro. Oso gogorra egiten zitzaidan jai arratsaldean, 14 urterekin nere lagunak utzi eta Legazpira joatea eta lau hilabete bakarrik egin nituen Legazpin.

Elektrokimikan nahi nuen lanean hasi, etxekoek ez zuten nahi baina azkenean lortu nuen han lanean hastea. Elektrokimikan igeltsero laguntzaile modura hasi nintzen eta urte bete egin nuen lan horretan eta gero Papartegira joan nin-



Andres Laskibar, Pepi Irastorza, Manuela Arrieta, Mertxe Irastorza, Angel Irastorza, Juan Irastorza, Migel Urdanpilleta



Andres Laskibar, Pepi Irastorza, Mertxe Irastorza, Juan Irastorza, karmen Irastorza eta Migel Urdanpilleta

tzen lanera, hemen ere igeltsero laguntzaile modura. Ondoren, gure aita zena papertegian txofer lanetan aritzen zen eta ni bigarren laguntzaile bezala jarri ninduten. Aita zena aspertuta zegoen txofer lanetan eta nik gidatzen nuen kamioia, baina gida baimenik gabe. Garai hartan, gidatzeko baimena 23 urte arte ez zegoen ateratzerik eta aita ondoan nuela egiten nituen gidari lanak. Guardia zibilek bazekiten baimenik gabe gidatzen nuela eta behin eta berriz salaketak jartzen zizkidaten. Gure aita zenak, Beasaingo Guardia Zibilen tenientearekin amistadea bazuen eta askotan abisoa pasatzen zioten honela: “ oye, ya le he quitado las denuncias a tu hijo”. Eta inork ez zituen salaketa horiek ordaintzen.

Gero soldadutzara joan nintzen, eta soldadutzan ere txofer ibili nintzen 18 hilabetez. Soldadutza bukatu nuenean, berriro ere txofer hasi nintzen papertegian aitaren ondoan.

Txofer bezala nora joaten zinen kamioiarekin ?

Otsaurteko tren geltokira asko joaten ginen. 200 kg.ko paper fardo edo sortak eramaten genituen eta bagoiak kargatzen genituen kamioietik bagoietara zuzenean karretila batekin, tren hauek Madril eta Bartzelonara joaten ziren. Arantzazuko Santutegira ere joaten ginen, han ere inprenta baitzeukaten. Beasainera ere joaten ginen inprentetara, eta bueltan ikatza eta espartzua ekartzen genuen Beasaindik. Gasteiza ere joaten ginen papaera eramatea eta han inprenta batzuk ere bazeu-

den eta errekte asko ekartzen genuen atzera papera egiteko.

Tolosa ere joaten ginen eta Tolosatik kola ere ekartzen genuen.

Ikatza eta espartzua zertarako ekartzen ziren ?

Papera lehortu egin behar izaten zen eta ikatza sua egiteko erabiltzen zen papartegian. Labe handia zegoen papertegian eta baporea egiten zen papera lehortzeko.

DON ANGEL JIMENEZ CABALLERO ETA ERNESTO JIMENEZ CABALLEROREN TXOFER ARITZEN NINTZEN

Kamioi bakarra al zeukan Zegamako papertegiak?

Zegamako papertegiak 2 kamioi zituen baina kanpoko kamioi asko ibiltzen zen materiala garraiatzen. Nik 40 urte egin nituen lanean papertegian.

Igandetan lanik egiten al zenuten?

Guk askotan Tolosara makinak eramaten genituen errektifikatzera eta hori igandetan egiten genuen eta astelehenerako berriro makina martxan jarrita egoten zen.

Beti txofer aritu al zinen papertegian?

Batez ere bai, kamioia kendu zutenean, kamioiak kargatu eta deskargatzen aritu nintzen lanean fenixarekin eta Agapito txoferra,



Zegamako papertegia



Juan, Jose Angel Laskibar iloba eta Iñaki semea

jubilatu zenean nik hartu nuen bere tokia.

Zeinen txofer aritu zinen bada?

Batez ere Don Angel Jimenez Caballero eta Ernesto Jimenez Caballeroren txofer aritzen nintzen.

Don Angel Caballero, 15-20 egunero Beasaina etortzen zen trenez Madriletik. Beasaindik Donostia joaten ginen eta Donostian bankuz banku ibiltzen zen; arratsalde Zegamako papertegian egoten zen eta iluntzean Beasaina eramaten nuen berriro tren hartu eta Madrilera itzul zedin.

Bilbora ere joaten zen. Bilbon etxe bat eta almatzen bat zituen bereak.

Behin Donostian, Hotel Londresen ondoan negoela, amona bat zetorren beste kotxe batean sartzeko asmotan eta atea zabaldun nion sar zedin. Kotxea joan zenean, beste txofer batek esan zidan “le has conocido a esa? No. Pues era la madre del Rey”. Horrelakoak ere gertatu zitzaizkidan.

Ernesto Jimenez de Caballero ere erabiltzen nuen kotxean. Hau baldarragoa zen eta kotxea edozein tokitan geratzeko agintzen zidan, bi iladatan etabar. Behin Donostian negoela, orduan ere gaizki aparkatuta, municipal batek esan zidan:” le voy a denunciar! “ Eta esan nion: “ usted verá, cuando venga el embajador se arregla usted con él” eta ez zigun denuntziariak jarri. Ernesto Jimenez, Paraguaiko enbajadorea zen garaia hartan.

Zer lan zuen gehiago txoferrak?

Papertegian gertatzen ziren zaurituak garraiatzeko lana ere nirea izaten zen. Papertegiak Tolosako San Cosme eta San Damian klinikarekin egiten zuen lan eta hara eramaten nituen zaurituak. Garai hartan anbulantzirik ez zegoen esateko, anbulantzia bat oso-oso kasu larrietan bakarrik etortzen zen.

ZEGAMAKO PAPERTEGIAK EZPELOKO ZENTRALEAN SORTZEN ZUEN ARGINDARRA

Bestalde, hamabostero, langileen ordainsariak emateko diru bila ere joaten nintzen Beasain eta Ordizira. Papertegiak bankuetara aurrez dirua eskatuta edukitzen zuten eta zaku pare bat hartuta joaten nintzen dirutara. Seguran hartzen nituen kotxean gurdia zibil bikotea eta Beasain eta Ordiziko bankura joaten ginen, bi miloi pezeta inguru ekartzen nituen hamabostero. Dirua papertegian entregatu eta berriro guardia zibil bikotea Segurara eramaten nuen.

Manuel Urbizu Kalekokoa artizen zen ordainsariak ordaintzen, Dionixio Telleria jubilatu zenetik eta Eusebio Ormazabal zen kajeroa.



Inaxi eta Juan senar-emaztea

Zenbat langile izan zineten papertegian?

1987an papertegia itxi zenean 215 bat langile ginen. Papertegian pastea eta papera biak egiten genituen Zegaman. Beheko solairuan pastea egiten genuen eta goiko solairuan papera.

Zer gehiago aipatu zenuke Papertegiari buruz?

Interesgarria da aipatzea, papertegiak argindarra ere sortzen edo produzitzen zuela. Zegamako papertegiak Ezpeloko zentrolean sortzen zuen argindarra. Argindar hauberebeharretatik aparte, Zerain, Segura, Idiazabal, Mutiloa, Gabiri eta Etzegaratera ere eramaten zuen. Guk, papertegiko langileok, argindarraren transformadoreak aldatu eta argindarra garraiatzen zen postea ere aldatzen genituen. Argindarraren zerbitzua kobratzeko Segurako Garaialde zuen papertegiak.

ELKARRIZKETA

MARIA ISABEL ARRIZABALAGA AZURMENDI



MAIATZAREN 31N ITXI GENUEN TXURRERIA



Txurrei aurrean giro ederra egoten zen

Non jaio zinen?

Zegaman jaio nintzen, 1937ko uztailearen 8an. Olanan auzoko toki-txoko etxean jaio nintzen. Toki-txoko etxea, Mazkiarango Ramon Arrizabalagaren aitak egin zuen eta gure aita, honen anaia zenez, etxe bat hor hartu zuten. Toki-txoko etxean beheko solairuko etxe bat erosi zuten gure gurasoek. Orain bizi naizen etxe honetara 1948 urtean etorri ginen.

**GARAI HARTAN,
EMAKUMEEK EZ
ZUTEN TABERNETAN
ALTERNATZEN ETA
IGANDE ARRATSALDETAN
TXOKOLATEA ETA
TXURROAK HARTZERA
ETORTZEN ZIREN**

Hemen lokalak genituen eta gure gurasoek “tabernaz” gain txokolatea eta txurroak saltzen hasi ziren igande arratsaldetan ondoko lokalean.

Taberna bezala ez genuen baimena ordaintzen eta orduan ardoa litro erdika saltzen zen gure tabernan. Hasieran eguerditan bakarrik irekitzen zen taberna eta geroago iluntzetan ere irekitzen hasi ginen. Igan-detan mutil gazteak etortzen ziren meza ondoren ardo batzuk hartzera eta aitak egindako toka batean jolasten zuten.

Garai hartan, emakumeek ez zuten tabernetan alternatzen eta igande arratsaldetan txokolatea eta txurroak hartzera etortzen ziren. Tabernetara, San Bartolome eta Aste Santuan bakarrik joaten ziren emakumeak eta “Miscela” egungo Quina antzekoa hartzen zuten.





Maribel guraso eta senideekin umetan

Poliki-poliki, ama pintxoak ere prestatzen hasi zen eta baita bazkariak ematen ere.

Estantkoa 1970ean jarri genuen, bazkariak emateari utzi genion, eta osagarri bezala goxokiak hasi ginen saltzen.

Zuek bakarrik saltzen al zenituzten goxokiak Zegaman?

Ez, goxoki gehienak Angela Maiorak saltzen zituen plazan eta geroago gu ere hasi ginen, horretarako mostradorea aldatu genuen, goxokientzat ere egokituz. Honela, eskolako materiala ere saltzen genuen, aldizkariak etabar.



Maribel gaztetan txurrerian

Noiz arte egin zenituzten txurroak?

Bazkari eta afariz gain, txurroak 1968 arte egin genituen. Egia esan txokolatea askoz gehiago saltzen txurroak baino, baina ez genion inoiz lokalari izenik jarri eta jendeak txurreria deitu izan dio.

Erreza al zen txurroak egiteko lehengaia lortzea?

Azukrea lortzeko kupoa egoten zen eta horretarako kupo berezia zuen gure amak.

Beste ezer saldu al duzu txurrerian?

Bideoen alkiler zerbitzua ere izan nuen eta esan, pastelak ere saldu ditudala aurten arte. Hasieran Iraola pasteldegitik, gero Gorrotxategitik eta azkenik Unanuetik ekarri izan ditut.

BAZKARI ETA AFARIZ GAIN, TXURROAK 1968 ARTE EGIN GENITUEN

Egia al da gasolindegia ere izan zenutela?

Bai, gure aita mekanikoa zen eta bere lanerako gasolina behar izaten zuen. Honela, gasolarik gabe



Inazio Atxukarrekin

geratzen zen edozein gure aitarengana etortzen zen, litro bat edo beste erostera.

Gasolina, autobusean ekartzen zion nire aitari, Konstantino txoferrak eta honek, esan zion, hobe zuela surtidoarea jartzea, eta Garmendianekoei berak esango ziela surtidore hori ekartzeko eta, honela etxeko portalean eduki genuen gasolindegia.

Kotxe asko al zegoen orduan Zegaman?

Kotxerik ia bat ere ez uste dut, papertegikoa eta Alkarazen kotxea bakarrik zeudela. Jendea, nahiz Beasaina nahiz edozein tokitara motoz ibiltzen zen lanera joateko.



1967ko San Bartolomeak abuztuaren 25ean ateratako argazkiak Txurreria aurrean





1983ko uhaldetako argazkiak, Maribelek ongi gordeta dauzka

Hala ere, denbora gutxira gasolindegia kendu egin genuen, arriskutsua zelako. Makina bat ehiztari etorri zen ehiz garaian gasolina eske!

Lolekurik izaten al zenuten?

Bai, lehen solairuko etxean, jendea izaten genuen apopilo. Lo egitera etortzen ziren eta gure familia 2. Solairuan bizi ginen, hirugarren solairua ere alokatuta izaten genuen.

Zer esan diezadakezu, Zegamako igandetako giroaz?

Igande arratsaldetan giro handia egoten zen. Zegamako bandak jotzen zuen baina, Olaberri aldera joaten zen. Kaletik kalejiran joaten ziren Taberna-berri aldera eta handik Olaberrira. Bandaren kostua, gehiena udalak oraintzen zuen eta gaineako herriko tabernari eta dendek ordaintzen zuten.

Banda desegin zenean orkesta sortu zen eta honen kostua ere udaletxe eta herriko tabernari eta dendariak ordaintzen genuen. Gure etxea erdigunetik kanpo geratzen zen, nahiz eta gaur egun ez horrela iruditu. Gaur egun taberna Ibarretan balego bezala zen. Kutxabankeko etxeak ez zeuden, Galdos eta Garmendia bizi diren etxea ere ere, Aitamarrenen etxe zaharrenak bakarrik zeuden. Gerrikoenean denda zegoen eta Txantonenean oraindik ez zegoen tabernarik. Gure-Txoko taberna guk jarri genuen urte berean jarri

ORDUAN, HERRI KASKOA ETA ONDORIOZ HERRI GIROA ETA FESTA GIROA OLABERRI ALDEAN ZEGOEN

zuten. San Bartolome auzoa eraiki gabe zegoen eta Olaranen, orain mediku etxea dagoen horretan eskolak zeuden. Toki Txoko eta Mazkiarango baserriak, ez zegoen beste etxerik. Orduan, herri kaskoa eta ondorioz herri giroa eta festa giroa Olaberri aldean zegoen.

Beste berezitasunik ba al zuten igandeek?

Bai herritarrak mezetara etortzen ziren; gogoan dut Goialdera autobusa egoten zela jendea mezetara ekartzeko. Honela, meza ondoren gizonezkoek bankuko lanak egitera joaten ziren. Bankua, orain Aizkorpe taberna dagoen tokian zegoen eta emakumezkoak erosketak egitera joaten ziren, igande goizetan dendak irekita egoten ziren.



Txurreria eta Gerrickoneko etxaurrea. Garai batean bietan egon zen taberna



1992ko San Bartolometako argazkia. Maribel herriko gazte batzuekin



Emilio senarra eta Maribel Txurrierian

Zein denda eta taberna zeuden garai hartan Zegaman?

Maria Kerejetaren denda, Elisaren amak denda zeukan, Manolone ondoko etxearen azpian, Eugenioene, Konfiterie, Carmen Erauskinen etxean Elisaren izetak denda bat zeukan, pilotako materiala saltzen zen eta gantxilo etabar. Sakristauene, Maitere Zabaletaren denda Txokoloenean, taberna-berri, Irastorzatarrek ere taberna zuten Olaberrin eta beste bi denda zeuden, panaderian eta Garakoan. Zirkuloan taberna zegoen eta jatzen ematen zuten.

Zirkuloaren azpia aldean monja batzuk zuzendutako eskola zegoen, eskola honetara neskak bakarrik joaten ziren. Bestalde Olan auzoan zeuden eskola publikoak eta hemen neskak eta mutikoak ikasten zuten baina gela desberdinetan bereiztuta.

Viana,-Etxea, edo gaur egunko Jabier Otaegi kultur-etxea lehen handiagoa zen eta hiru zatitan zegoen banatuta eta zati batean "kantina" zegoen. Jose Maiorak sortutakoa, hemen baserrietako haurrentzat egoten zen bazkaria

prestatuta baina batzutan baserrietatik ez ziren denak etortzen eta, jana soberan bazen kalekoek ere aukera izaten genuen bazkaltzera joateko eta, irrikitan egoten ginen kantinara joateko. Kantinan baba-rrunak urdaiarekin egoten ziren bazkaltzeko.

Idiazabaldarrak San Adriana egiten duten erromesean ere makina bat urtetan eman duzu gosaria:

Bai, gure aurretik Gerrikonen ematen zitzairen gosaria. Gerrikonen ere taberna zegoen. Gerrikoneko taberna itxi zenean, gu hasi ginen gosari hau banatzen. Udaltzeko ordezkarietara pintxoak eta ardoa ematen zitzairen eta herri-tarrei azeitunak eta ardoa. Garai hartan honelako desberdinatunak egiten ziren. 2014an eman genuen azken aldiz gosari hau, orain herriko ostatuak ematen du.

Zer moduz bizi zara jubilatuta? Etsitzen al diozu jendartean egon gabe?

Orain jubilatuta lasai bizi naiz baina jende giroa pixka bat faltan botatzen dut.

EDURNE ALBIZU



Maribel eta Emilio, aurtan, Txurrieria istear zirela

BIOITXOIN ESTANKOA

2016ko apirilaren 7an ireki zituen bioitxoin estankoa bere atea, arratsadeko 18:00tan hain zuzen ere. Eskaintzen dituen produktuen eta zerbitzuen zerrenda nahiko luzea eta zabala da:



BELARDENDA

- Produktu ekologikoak
- Glutenik gabeko jakiak
- Hanburgesa eta saltxitxa bejetalak
- Azukre, esne eta arrautzik gabeko gailetak
- Azukrerik gabeko mermeladak, tostadak eta zukuak
- Edari bejetalak (arroza, oloa...)
- Pate bejetalak
- Infusioak (50 mota ezberdin baino gehiago)
- Probiotikoak, jalea real, polena, propoleoa, eztarriko mina sendatzeko, antibiotiko naturalak, kolajenoa, erromero alkohola...
- Haur txikiei hortzak ateratzen ari zaizkienerako ambar naturalako koilareak
- Rosa mosketaren kremak
- Weleda produktuak
- Txanpu, gel, desodorante ezpainetako hidratatzaileak, aurpegiko, eskuetako eta gorputzeko hidratanteak

- Arbol de te eta beste esentzia batzuk

PAPELERIA

Arkatx, borragoma, boligrafo, borratzen diren boligrafoak, errotuladore, karpeta, margoak, koadernoak, libretak, ajendak (urtekoak eta eskolarrak), gometxak, umeentzat denborapasako liburuxkak, kartapazioak, folioak, artxibadorak, grapak, portazeloak, zeloak, goraizak, kola, loctite, loctite monodosiak, klarionak, oparitarako papera etab.

PINTURAKO MATERIALA

Lienzoak, pinturak, "carboncillo"ak, paletak, "pocillo"ak, pintzelak

JOSTAILUAK

Kotxe, kamioi, motor, panpinak, aurpegia margotzeko margoak, plastilinak, puzleak, ileko apaingarriak, pultserak egitekoak, partxisa, oka, dominoa, globoak...

EDARIAK

Zukuak, freskagarriak, ura, isotonikoak, garagardoa

FOTOKOPIAK

Fotokopiak (txuri-beltzean eta koloretan), enkuadernaketak, plastifikazioak, faxes, USBtik inprimitu

GOXOKIAK

Txikle, txupa-txups, bolsako gominolak, karameluak, poltxako patatak, jentibrezko karameluak

ESTANKOA

Bertan eskeintzen diren beste zerbitzu batzuk:

- Kontenitu digitalak
- Telefono mugikorren rekargak
- Pilak
- Inpresorako tinta birziklatu ekologikoak (hutsak birziklatzeko jasotzen dira)
- Futbol partidak internet bidez ikusteko kodeak salgai (4,99 €)

Besterik gabe, zorte on opa diogu, herrian jarri duen zerbitzu berri honetan.



EROSKI CITY

San Bartolome Kontsumo Kooperatiba, urte mordoxka bat Coaliment etxearekin lanean aritu bada ere, uztailean bazkideek egin zuten batzarrean, Eroski S. Coop.rekin lanean hastea erabaki zuten. Honela azaroaren 11an ireki zen Eroski City bezala denda lehenengo aldiz.

INAZIO OTAEGI URRUTIA



Txiki txikitatik lan egitea tokatu zitzaigun arrazoi batengatik edo bestearengatik.

“Gaseosa eta lejia egiten genuen Olaberrin”

Noiz eta non jaio zinen?

Zegamako Olaberri auzoan jaio nintzen 1946an. Lau senide ginen, Kontxi, Luis, Maribi eta ni.

Txikitako bizimodua kontu iezazu.

Eskola publikoetan hasi nintzen Arrieta maisuarekin baina ez ninduen ondo tratatzen eta gau eskolara joan nintzen monjetara. Txiki txikitatik lan egitea tokatu zitzaigun arrazoi batengatik edo bestearengatik.

Zure gurasoek zer bizibide zuten?

Nire aita 1933ko kintoa zen, soldadutza Jakan egin ondoren 10 toneladako kamioi alemana erosi zuen KRUPP markakoa. Kamioiarekin Zegamako papertegirako egiten zuen lan, bertako zamak Madrila, Sevilla eta leku askotara eramanez. Sevilla aldera joaten zirenean aste osoa pasatzen omen zuten bi txoferrek, izan ere kamioiak orduko 39 kilometro bakarrik egiten omen zituen.

1936ko Gerra lehertu zenean, aitari



Inazio eta bere ama, lanean

gerrara joateko deitu zioten eta militarrek kamioia erre kisatu egin zioten. Gerra bukatu zenean, kamioia aberiatuta zegoen. Garai hartan bigarren mundu gerra sortu zen eta, kamioia alemana zenez ez zegoen errekanbioko piezariak eta aitak sal-

du egin zuen kamioi hori azkenean. Honela, Leoncio Garmendiak zeukan kamioiarekin hasi zen txofer, Errotaberriko Jesus eta biak.

Aita eta ama ezkondu zirenean, gure aita, osaba Antonio, osaba Txomin sakristaue, eta bi mutil Aizkorondora joan ziren lanera. Garai hartan motozerrarik ez zegoen eta trontzarekin botatzen zituzten zuhaitzak, ikatza ere egiten zuten eta txondorra egiteko egurra, porra eta ziriarekin laurkitzen zuten.

Nola garraiatzen zuten egurra menditik?

Gure aitak Txaparritik Asemendira kable bat jarri zuen egurra garraiatzeko, ordurako Fordson markako tratore bat bazeukan, gasolinazkoa, eta haren laguntzarekin egurra biltzen zuen kablearen ondora eramanez eta handik txirrikan botatzen zuten egurra behera.

Asemenditik Txaparrira atzera txirrikak garraiatu behar izaten zituzten, egurra berriro botatzeko eta txirrikak gora eramateko hiru asto zeuzkaten.



Kontxi Otaegi
gaseosa egiten



Luis, banaketa egiten zuten kamioiaren ondoan

Nora saltzen zuten ikatza?

Ikatza, Zumarragako Orbegozori eta Araiako Fundiciones Ajuriari saltzen zioten eta egurra berriz, Zegaman bazen askok ezagutzen genuen Prudentzio Mendarazi saltzen zioten, harek egurra egunez eta gauez kargatzen zuen, honek okindegieta-
ra eramaten zuen egurra.

Kableak ez al zuen arazorik ematen?

Bai, batzutan pisu handiagatik kablea eten egiten zen baina, eransketak egiten oso ondo zekien gure aitak eta ez zen nabaritzen non zegoen konponketa eginda. Konponketa, kableari berari trentzak eginez egiten zuten, gure aita oso trebea zen. San Martin feri batean ere aritu zen trentzak egiten.

Beti mendi lanetan aritu al zen zure familia?

Ez, mendiko lana utzi ondoren, gure aitak, gaseosa edo limonada egiteko makina jarri zuen etxean.

Zein urtetan?

Nik 6-8 bau urte nituela, 1950eko hamakadan.

Garai hartan limonada txikiak egiten ziren, geroago etorri ziren litroko botilak.

Zein zaporetakoak egiten zenituzten?

Zapore askotakoak egiten genituen: Laranja-koak, limoizkoak, marrubizkoak, colazkoak eta abar.

Nola egiten zen limonada?

Lehenik jarabe bat egiten genuen. Honen osagaiak honako hauek ziren: uretan urtutako azukrea, azido zitrikoa eta limoiaren esentzia.

GURE AITAK TXAPARRITIK ASEMENDIRA KABLE BAT JARRI ZUEN EGURRA GARRAIATZEKO



Sifoi botila

Guzti honi baimendutako edulkoranteak botatzen zitzaizkion zein zapore egin behar zenaren arabera.

Jarabe hori, botilatan sartzen zen, neurri berean makina txiki baten bidez, lan hau nire anaia zenak, Luis-ek, egiten zuen eta nik ondoren botilak seltza edo sifoiarekin betetzen nituen. Seltza edo sifoiak egiteko saturadora izeneko makina bat geneukan eta osagai hau lortzeko makina honek azido karbonikoa eta ura nahasten zituen; ondoren jarabea eta seltza edo sifoiak nahastuz limonada lortzen genuen.

Denon artean, amak ere bai, laboradora baten bidez, botilak garbitzen genituen aurrez. Azken pausoa, botila bete eta gero, makina batean txapa jartzea izaten zen.

Limonada egiteari utzi genionean, makina hau aitak Urbiako Fondan



Olaberriko etxe azpian egiten zituzten produktuak



Olaberri auzoko jaiotetxean, gaseosa eta lejia produzitu zuten

zegoen Martin Etxezarretari saldu zion. Makina, gure aitak jarri zion montatuta Urbiako Fondan. Makina Urbiara astoz eraman zuen eta han argindarrik ez zegoenez, Bernard markako gasolinazko motor bat jarri zuen fondan makina martxan jartzeko. Geroago, aitak proposamena egin zien, motor honi dinamo bat jartzeko eta bateriak kargatuz Fondan argia jartzeko, baina ez zuten jarri.

ZAPORE ASKOTAKOAK EGITEN GENITUEN: LARANJAZKOAK, LIMOIZKOAK, MARRUBIZKOAK, COLAZKOAK ETA ABAR

Zuek gaseosa egiteari utzi egin al zenioten?

Ez gure aitak, makina handiago bat erosita zeukan, txikia saldu aurretik. Honekin litroko botilak egiten genituen eta La Pitusa gaseosetan sozio sartu zen. Bazkide guztiek

formula berdina berdina erabiltzen genuen gaseosa egiteko:

Formula: sakarina, dulzina, gatz normala, gatz berezia, azido zitrikoa eta limoiaren esentzia. Dena ur kantitate jakin batekin nahastu, botela bakoitzari bota jarabe kantitate berdina eta azkenik sifoi edo seltzarekin botela bete. Aldiko 6 botela sartzen ziren makinan, eta betetako botela bat atera eta beste bat sartzerako beste botela bat beteta egoten zen. Ordu batean hirurehun bat botela betetzen genituen. Sifoiak ere betetzen genituen aldiko botela bat.

Arrebak ez al ziren lantegi honetan aritzen?

Nire arreba zaharrena inprentan ibili zen lanean baina, hura ere aritzen zen laguntzen ahal zuenean.

Nora saltzen zenuten limonada?

Inguruko herrietara: Zegama, Segura, Zerain, Mutiloa, Idiazabal, Ataun eta Ordizira eta banaketa etxeko kamioarekin egiten genuen.

Beste ezer produzitzen al zenuten?

Bai Aizkorri markako lejia egiten genuen. Lejia egiteko bi osagai behar dira kloroa eta sosa. Garbitzen duena, kloroa da baina kloroa bakarrik lurrindu edo ebaporatu egiten da eta sosa botatzen zaio lurrindu ez dadin.

Eta lejiak zenbat gradu izaten zituen?

Lejia ona izateko 38-40 gradu izan behar ditu.

Hasieran, lejia egiteko bi osagaiak hauts egoeran erosten genituen. Mila litroko deposito bat geneukan, eta batidora bat geneukan motor bat erantsita, eta sosa eta kloroaren nahasketa eginez lortzen genuen lejia.

LEJIA EGITEKO BI OSAGAI BEHAR DIRA KLOROA ETA SOSA

Lejiak zenbat gradu zeuzkan jakiteko elektrokimikara eramaten genuen. Honetarako laborategi bat zegoen eta laborategi horretan, Ibarreta-azpiko Esteban, Konstanstino txoferraren semea zen Antonio eta Segurako Koldobika zebiltzan lanean hiru errelebotan. Hauek graduatu ondoren nahasketa hau etxean egin eta gero, etxean sartzen genuen botilatan mangera baten bidez eta anai zenak, kortxoa eta etiketak jartzen zien eta ondoren inguruko herritan saltzen genuen etxeko kamioian banaketa eginez.

Ni soldaduskara joan eta nire anai zana soldaduskara joan bitartean, aritu ginen lan honetan.

Zer esan zenezake besterik lejiari buruz?

Gure etxean, ozpina edo binagrea ugari izaten zela. Izan ere sosa edo kloroa eroriz gero, ozpina bota eta bi osagai horik ur bihurtzen baitira.

EDURNE ALBIZU

ELKARRIZKETA

LEIRE LOZANO AROSTEGI

“Ingelera hobetzeko asmoarekin nora joan pentsatzen hasi eta Irlanda zela aukerarik onena iruditu zitzaidan”



Non eta noiz jaio zinen?

Zegaman jaioa naiz, Mendaldekoa naiz. 1980koa.

Zein ikasketa burutu dituzu?

Enpresa Zientziak ikasi nituen Donostian EHU unibertsitatean, geroztik ikasketa gehiago egin ditut baina hauek esango nituzke izan direla garrantzizkoenak.

Nolatan erabaki zenuen Irlandara joatea?

Ingelera hobetzeko asmoarekin nora joan pentsatzen hasi eta Irlanda zela aukerarik onena iruditu zitzaidan. Estatu Batuak urrutiegi zegoela iruiditzen zitzaidan. Ingalaterra eta Irlanda beti izan dira leku ezagunak ingelera ikasteko eta beti esan izan denez irlandarrak jatorragoak direla ingelesak baino, ba Dublinera joatea erabaki nuen.

Epe jakin baterako joan al zinen?

Bai, nire asmoa hiru hilabete pasatzea zen. 2007ko irailean joan nintzen eta Gabonetarako itzultzeko asmoa nuen. Baina behin han nengoela, azaroan edo, bertan lana aurkituz gero geratzeko erabakia hartu nuen. Bederatzi urte daramatzat jada!

Erraza egin al zitzaizun Dublinen lana bilatzea? Zein izan zen horretarako izan zenuen oztoporik handiena?

Ez zen erraza izan, ez bait nekien curriculum nola prestatu behar nuen edo elkarrizketak Irlandan nola egiten ziren. Elkarrizketa batzuk lortu nituenerako curriculum bost aldiz aldatu beharra izan nuen. Nik hemengo estiloko curriculum nola itzuli besterik ez nuen egin

hasiera batean, baina gero konturatu nintzen han ezberdinak direla eta hango ohituretara egokitu behar izan nuen. Elkarrizketarekin berriz, nere ingelera maila ez zen hoberena eta hainbat zailtasun izan nituen. Hala ere, azkenean ondo atera zitzaidan.

Non lortu zenuen lana?

Allianz aseguru etxean. Egia esan, zorte dexente izan nuen. Nire curriculum interesgarritzat jo eta gero, elkarrizketarako deitu zidaten eta ni ez nintzen azaldu. Ez bait nekien nola iritsi Allianzeko bule-

ELKARRIZKETA BATZUK LORTU NITUENERAKO CURRICULUMA BOST ALDIZ ALDATU BEHARRA IZAN NUEN

goetara! Bigarren aldiz deitu zidaten elkarrizketara joateko, baina oraingo honetan ordutegi kaxkar bat jarri zidaten, goizeko zortzietan. Nire ustez frogaren parte izan zen, ea benetan lana nahi nuen (barre egiten du). Elkarrizketara joan eta dena oso errez atera zitzaidan. Segituan deitu zidaten lanean has-teko. Eta horrelaxe lortu nuen lana Dublinen. Ordudunik Allianzaren ari naiz lanean. Departamentuz aldatu izan naiz, baina bertan jarraitzen dut.

Eta bizilekua? Ba al zenuen ezer joan aurretik?

Ez, ez nuen ezer. Ingelerako kurtso batean apuntatu nintzen joan aurretik hilabete baterako eta aterpetxe batean bost gauetako lo lekua hartu nuen. Aterpetxean bigarren





Leire, aurtengo azaroan Tailandiara egin berri duen bidaiari

egunerako ohartu nintzen hura ez zela niretzako moduko bizi-modua. Ingelerako kurtsoa egiten ari nintzen lekuan familia batekin bizitzeko aukerarik ba ote zegoen galdetu nuen. Horrelaxe, aterpetxea utzi eta familia irlandar batera joan nintzen bizitzera. Etxe hartan, andre alargun bat bakarrik bizi zen. Seme-alabak bazituen, baina bakoitza bere etxean bizi zen bere familiarekin. Printzipioz, hiru aste-rako ordaindu nuen lo lekua, baina hiru aste haiek hiru urte eta erditan bihurtu ziren Kathleen eta bere familia, nire irlandako familia bihurtu ziren. Ez nintzen Dublinen bertan bizi, Malahiden baizik. Hiru urteak pasa eta gero Dublinera joan nintzen bizitzera. Ez zen erraza izan Mendalde uztea, familia uztea beti da zaila. Baina ez zitzaidan ezta ere erraza egin Malahide eta Kathleen uztea, bigarren aldiz familia uzten ari nintzen sentsazioarekin alde egin nuen. Orain noizean behin larunbatetan Malahidera joatzen naiz familia bisitatzeraz.

Bertako familia batean bizitzeak ingelera hobetzen errez lagundu zizun, ezta?

Oso ondo etorri zitzaidan. Nik uste nuen ingelera banekiela joan nintzanean eta hobetzea besterik ez nuela behar. Gezur galanta! Dublingo aireportuan lurreratu nintzenetik Dublin hirira joateko autobusa ez nekien non hartu. Hiru pertsona ezberdinei galdetu beharra izan nien. Bat berari ere ez nion ulertu. Azkenean autobusa neure kasa aurkitu nuen (barre egiten du). Telebista ikusterakoan ere, hitz bat bera ere ez nuen ulertzen.

**NIK USTE NUEN
INGELERA BANEKIELA
JOAN NINTZENEAN ETA
HOBETZEA BESTERIK EZ
NUELA BEHAR. GEZUR
GALANTA!**

Kathleenek asko lagundu zidan, pazientzia handia baitu eta geldi hitzegiten asko saiatzen baitzen. Eta gero, nola ez, astean zehar hogeitau orduko ikastaroa nuenez ba, derri-gor ikasi behar.

Eta irlandarrekin? Euskaldunekin alderatuta oso ezberdinak al dira? Zertan?

Irlandarrak jator askoak dira, oso lasaiak. Gure modukoak, lagun artean egotea asko gustatzen zaie. Kafean, kafetegietan, tabernetan, beti dago jendea. Lagunarteko giroa oso garrantzitsua da beraientzat. Oso eskuzabalak dira eta beharrez dagoenari laguntzeko prest agertzen dira beti. Antzekotasun gehiago dauzkagu ezberdintasunak baino.

Hemengo zer botatzen duzu faltan?

Gehien gehiena, familia eta lagunak. Gaur egungo teknologia dela eta, internet eta mugikorren laguntzaz beti nago kontaktuan. Hala ere, ez da gauza bera. Lagunek egun pasak antolatzen dituztenean bertan egoteko gogo latzak sortzen zaizkit. Baita Orkatzek kontzertuak edo bai ekintzak antolatzen dituztenean ere. Beraiekin kantualdi bat gustora egingo nuke.

Urtean zehar herrira etortzen zara?

Bai, etortzen naiz. Gutxienez hiru aldiz bai. Batzuetan gehiago. Gabonetan eta herriko festetan beti etortzen naiz. Udaberrian etortzea ere gustatzen zait, apirila-maiatza inguruan. Azkeneko urtetan maratoiko astebukaeran etortzen naiz, herrian giro aparta sortzen da-eta.

Zegamara etortzeaz gain, bidaiari amorratua zarela entzun dut. Horrela al da?

Bai hala da. Bidaiatzea asko gustatzen zait. Ohitura horixe hartu diet irlandarrei, asko bidaiatzekok dira eta Dublingo aireportutik munduko edozein bazterretara errez iristeko aukera dago. Urtean behin bidaia luze bat egitea gustatzen zait. Kuadrilakoekin Norbegian, Kuban, eta Holanda eta Belgikan izan naiz. Dublingo lagunekin berriz Australian, Japonian, Sri Lankan, Marokon eta Estatu Batuetan. Urtean zehar asteburuko irteerak antolatuz Irlanda ezagutzez gain Europako hainbat hiritan izan naiz. Nire ametsetako bat beti izan da munduko bazter ezberdinak ezagutzea eta ametsa betetzen ari naizela esan daiteke. Aurtengo bidaia Tailandiara izan da, azaroan egin dut eta dagoeneko 2017rako bidaian pentsatzen ari naiz (barre egiten du).

GABONETAN ETA HERRIKO FESTETAN BETI ETORTZEN NAIZ

Eta bisitarik izan al duzue?

Baaaaai. Oso gustuko ditut bisitak. Koadrilakoak izan dira, batzuk behin baino gehiagotan. Orkatz Abesbatza bi aldiz izan da eta aldi horietan nire ama ere beraiekin hemen izan da. Anaia eta koinata ere izan dira bisitan (orain ilobarekin etortzea falta zaie) eta beste zenbait lagun ere bai. Lehengusuak ere

izan ditut hemen, orain osaba eta izeba falta.... Ea elkarrizketa hau irakurriz bisitan etortzeko animatzen ditudan.... (barre egiten du). Eta herriko inor Dublinera etortzeko asmoarekin badabil, abisatu eta Dublin erakusteko prest izango naiz. Lagunek esan didatenez ez naiz gida txarra. Zuzeneko musika entzunez Guinness on bat hartzeko ni beti prest.

KUADRILAN HERRIALDE EZBERDINETAKOAK GARA ETA HAU OSO ABERASGARRIA DA, HIZKUNTZA, OHITURA.... KULTURA NAHASKETA INTERESGARRIA

Dublingo lagunak aipatu dituzu. Erraza izan al da lagunak egitea?

Niretzat oso erraza izan da. Ingelelerako kurtsoan hainbat lagun egin nituen, baina lagun garrantzitsuenak lanean hasi nintzenean egin nituen. Kuadrilan herrialde ezberdinetakoak gara eta hau oso aberasgarria da, hizkuntza, ohitura.... kultura nahasketa interesgarria. Lagun irlandarrak ere badituz, nire urtebetetze egunean lagun denak elkartu nituen eta irlandarrek ONUko elkartzeko bat ematen zuela esan zidaten. Italiarrak, frantsesak, espainiarrak, alemaniarrak, austriarrak, albaniarak, kolonbiarrak.... Denetik pixkat.

Baina ez zara herritar bakarra Dublingen bizi izan dena ezta?

Ez, ez naiz ez. Jaione Gorrotxategi, nire lagun mina, hemen izan zen urte t'erdiz edo. Garai polita izan zen niretzat, oso ondo pasatu genuen elkarrekin hemen. Etxetik urrun gaudenok, familia urruti dugunok, lagunak familia bihurtzen ditugu. Eta Jaione nire familia bihurtu zen.

Anekdotaren bat ere izango duzu kontatzeko ezta?

Ez da anekdota, baina ... nire jatorriaz oso harro nago. Eta hori dela eta, ezagutzen ditudan pertsona guztiek dakite Zegama herria Gipuzkoan dagoela. Herri txikia dela eta mendiz inguratuta dagoela. Argazkiak ere erakutsi izan dizkiet. Eta dagoeneko gehienek dakite Zegama mapan kokatzen. Euskal Herriko hiri guztien erdian dagoela eta beste zenbait kontu ere badakite. Nola ez dute bada jakingo, denak aspertzeko lain kontu kontatu izan ditut. Gehien bat herri minez jota nagoenean (barrezka).

Itzultzeko asmorik bai?

Momentuz han nago. Ez dut planik, aspaldi utzi nion planak egiteari. Itzuliko naiz, hori oso garbi dut. Dublinden oso gustora nago, etxean bezalaxe nago han, baina ez da etxea. Galdera hau oso zaila egiten zait erantzutea, itzultzeko asmoa badut, baina noiz.....

Bukatzeko, zer esango zenioke kanpora bizitzera joatekoa asmoan dabilenari?

Kanpora joatzeko pentsamendurekin badabil, joateko. Probatu artekorik ez dago norberaren dako abentura den edo ez jakiteko. Etxera itzultzeko aukera beti dago hor. Irten eta gero gerokoak, joan eta norberak bere lekua ez badu aurkitzen, itzuliko da. Bi egun, bi aste, bi urte edo hogeitun urte igaro, baikoitzaresku dago zenbat denbora pasa. Nire ustez, hobe garaian saiatzea denbora pasatu eta gero "saiatu izan banintz" sentsazioarekin geratzea baino.

ALKATE OHIA

ASUN MENDIZABAL ELIZEGI



Zegamako lehenengo alkate
emakumea izan nintzen
eta ez zen erraza izan



Parrokiko eta udal ordezkariak, Koruko Aizarna foru diputatuarekin, San Bartolome ermitaren teilatua konpontzeko kudaketak egiten.

Non eta noiz jaio zinen?

Zerainean jaio nintzen, 1953ko abuztuaren 9an.

Noiz etorri zinen Zegamara bizitzera?

Zegama, ezkondu nintzenean etorri nintzen, 1974ean hain zuzen ere.

Politikan zein giro zegoen zure gaztaroan?

Frankoren garaikoak ginen eta orduko gazteak euskara genuen maite. Gure indarrak horrerantz bideratuta zeuden.

Zein urtetan izan zien alkate hautatua? Eta zein ziren zure gorporaziokideak?

Alkate izan aurretik hiru urtez zinegotzi izan nintzen. 1993-94 eta 95 erdia. Ondoren 1995ean hartu nuen alkate kargua 1.999 arte. Nire gorporaziokideak honako hauek izan ziren: Miren Arantza Albizu, Segundo Oiarbide, Juan Jose



Aitxuri Herri Eskolaren inaugurazioan

Gorrotxategi, Inazio Urbizu, Jose Ramon Agirre, Ana Teresa Alustiza, Joxe Izagirre eta Angel Gomez.

Alkate zinela, emakumea izateagatik gehiago demostratu behar izan duzula uste al duzu?

Zegamako lehenengo alkate emakumea izan nintzen eta ez zen erraza izan. Jendea ez dago emakumea agintzen ikusteaz ohituta.

Zerk eman zizun buruko minik handiena zure legegintzaldian?

Urte zailak izan ziren bai politikoki eta bai ekonomikoki, jasotako zorrak ordaintzeak eman zidan lan gehien, krisiaren ondorenak ziren.

Aipa itzazu zure legegintzaldian burututako ekimen garrantzitsuenak.

Murgi-zelaiako parkea, Ostatuko teilatua, eskola berriak hornitu eta

inauguratu, Anduetzako teilatua, San Bartolome ermitaren teilatua, Herreriko etxea kudeatu eta txu-kundu...

URTE ZAILAK IZAN ZIREN BAI POLITIKOKI ETA BAI EKONOMIKOKI

Sentsazio hobereana eman zizun ekimena?

Hainbeste borrokatutako eskola berria inauguratzea, nahiz nire seme-alabak kanpora joanak izan.

Zer aholku emango zenioke hurrengo alkateari ?

Ez naiz inor aholkuak emateko, baina lanean jarraitzeko beti egoten da aukera.

Alkatezta utzi eta gero elkarteren baten edo jarduten al duzu?

Bai, Gobernuz kanpoko erakunde bateko partaide naiz. Lanegun erdiz lan egiten dut eta nire denbora eskaini nahi nuenez, Biolursiako haur bat ekartzen dut udaran etxera osasunez indartu dadin.

Nola ikusten duzu Zegamaren etorkizuna epe motz eta luzean?

400 urteko herri historia dugu, eta guk ere gure parean lanean saitzuz gero aurrera ere Zegamari etorkizun ona ikusten diot.

EDURNE ALBIZU



Idiazabalgo erromeriari harrera egiten dio Zegamako korporazioak.

Antton Imaz Idiazabalgo alkatea, Asun, Segundo Oiarbide, Arantxa Albizu eta Inazio Urbizu zinegotziak

Gure baserriak eta parajeak



Aizkorpe



Buenavista



Egileor



Eguzkitzazar




Ikaitz



Ikaitz

Ba al zenekien?



1940ko urriaren 3ko Udal batzarrean, Zegamako Udalak, “Compañía del Ferrocarril del Norte de España”ko zuzendaria Oazurtzan apeadero bat jartzeko eskaera luzatu zion.

Eskaera hau egiteko erabili zituen argudioak honako hauek izan ziren:

a) Zegama udalerritik gertuen zegoen tren geltokia, Otzaurteko geltokia, 8 kilometrotara zegoela, eta bestea, Beasaingoa 13 kilometrotara.

b) Otzaurteko tren geltokira joateko ez zegoela garraiorik eta Beasaina joateko oso garraio publiko koxkorra zegoela, izan ere, bi trenetara iristeko zerbitzua bakarrik zegoela autobusez.

c) Apeaderoa egin nahi zen tokira ordea, Oazurtzara, oinez 20 minututan iristen zela, eta gainera Arrieta auzoetako baserrietatik eta Goialdeko baserrietatik oso gertu zegoela.


d) Egun, tranbia batzuk geratzen zirela Oazurtzan trenbideko langileak jaso eta uzteko eta penagarria zela zerbitzu hori zegamarrek orokorrean ezin ibili ahal izatea.

e) Komunikabide honek, Zegama udalerrria, Azpeitia, Bizkaia, Legazpia, Zumarraga, Eibar, Bergara eta Oñatirekin lotuko zuela, hau oso onuragarria izanik guztiontzat.

f) Zegamak, garai hartan 2000 biztanletik gora zituela eta, herri oso industrializatua zela adierazten du eskutitzean. “La Papelera de Zegama S.A.”n 200 lagunetik gora lan egiten zutela, “Ernesto Gimenez S.A. Fábrica de sobres Imprenta y Manipulados” en 100 langile zeudela eta “Fábrica de Herraduras de Ramon Alustiza” 25 langile zeudela.

j) Oazurtzan apeadero bat eraikitzen uzten bazuten, Zegamako udalak hartuko zuela andenak eraikitzearen kostua, eta baita bidea egitearen kostua ere herri-gunetik Oazurtzako apeaderoraino, bertan zegoen herri-bidearen trazadura berean.

1941eko martxoaren 4ean erantzun zuten “Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España”ko zuzendaritzatik, udalaren eskaera onartuz. Bertan, apeaderoa egitearen kostua 10.000 pezetakoa izango zela aurreratuz eta, obrak egin aurretik dirutza hori udalak ordaindu beharko zuela eskatuz, lanak “Compañía de los



1942ko abuztuaren 26an inauguratu zen apeaderoa



Camino de Hierro del Norte de España”k egingo zituela adieraziz udalak jarritako diru horrekin.

Bestalde, beste baldintzetako bat, apeadero-roko langileen kostua saldutako biletetik ez bazuten estaltzen, Zegamako udalak ordaindu beharko zuela falta zen dirua eskatzen zen.

Honela, Zegamako udalak, Oazurtzako Apeaderoa ordez Zegamako Apeaderoa izendatzea eskatu zuen, lanak egiteko dirua aurreratu zuen, argindar eta uraren kostua betirako udalak bere gain hartu zituen eta langileen gain-kostua ere bai.

Apeaderoa, 1942ko ekainean 14ean hasi zen zerbitzua ematen eta nahiz eta egun horretarako inauguratu nahi zen badirudi abuztuaren 26 arte ez zela inauguratu. Inauguratu zenean ere oraindik bideko lanak atzeratuta zeudela eta lanei bultzada bat emateko presoak ekarri zituztela adierazten da Zegamako alkateak sinatzen duen eskutitz batean.

Bestalde, zerbitzu guzti hau “prekarioan” ematen dela adierazten da eta pertsonentzako bakarrik izango dela, ezin izango direla ez txakurrik eta ez ekipairik erabili azpimarkatzen du hitzarmenak.

Naturaren txokoa

Gesal iturriak, gatz iturri



Gesal iturriak, ur gazia jaiotzen den lekuak dira eta garai batean Zegama eta inguruko lurraldeak itsaso azpian.

egon zirenen seinale dira. Urak dakarren gazitasun hori, bere ibilbidean zeharkatzen dituen harkaitzen konposatu gaziak bereganatzean hartzen du. Harkaitz hauek, garai batean itsasoak atzera egin ondoren, inguru honetan gelditu ziren ur gaziko lakuak lurruntzean sortu ziren.

Lakuetako ura lurruntzearen ondorioz, urak zuen gatz metatu egin zen harkaitz gaziak eratuz.

Ur hauek duten gatz kantitate handia dela-eta, gesaliturri hauen inguruan ez da landaririk hazten eta beraz, orban beltz bat eratuz agertzen dira. Antzina, gatz aberastasun iturri izan zen, izan ere, diru moduan ordainketak egiteko erabili izan zen garai batean. Zegamak ere ez zuen aberastasun iturri hau alferrik galdu eta gesal iturrien inguruan, gatz fabrika bat egon zenaren berriak baditugu. Datuen arabera, 1882. urtean, 132 tona gatz erauzi ziren besteak beste. Gatz erauzteaz gain, beste zeregin batzuetarako ere erabili zuten ur hau inguruko baserritarrek, gaztainak egosteko eta ogia egiteko adibidez.

Atzoko Zegama

1980. inguruko argazkiak dira. Probintziko ganadu lehiaketa egin zen Zegaman San Martin feriareren barnean, Jose Telleria alkate eta foru diputatu zegoela. Ganadua eliza atzeko parkean jartzen zen erakusgai eta sarituek beren sariak udaletxe aurreko plazan jaso zituzten. Ondoren, Manolo tabernan, garaiko udal gorpোরazio eta foru aldundikoeek bazkaria egin zuten.





AROSZTEGI ETA
ZERRATEGIETAKO ASPIRAZIOAK
GALDARAGINTZA
OROKORRA ETA MOTA
GUZTIETAKO HERRERIGINTZA

www.itsasgama.com • itsasgama@itsasgama.com
ZEGAMA • 943 802 044 • 650 420 109



DOITASUNEZKO MEKANIZATUAK

Pol Intxausti, Pab. 14 I - ZEGAMA

943 801 243

doilan@doilan.com



ZEGAMAOKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Urte Berri On!

Intxausti eremua 14

G-H pabilioak

ZEGAMA

943 801 066

Tinbaux
pintura orokorrean
pintura en general



ZORIONAK

ETA

URTE BERRI ON!